



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Epai-babes zibil adierazlea: prozesu zibil adierazle arruntak.

Ixusko Ordeñana Gezuraga
Katixa Etxebarria Estankona
Josune Pérez Estrada

**EUSKARA ERREKTOREORDETZAREN SARE
ARGITALPENA**

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKEZPENA

Euskal Herriko Unibertsitatean, gure inguruko egoeraz jabetuta eta dagokigun betebeharra betez, aspaldi gabiltza zuzenbidea euskaraz irakasten. Ezin uka daiteke baina, bidea ez dela erraza izan. Irakasle gehienak karrera erderaz ikasiak, arazo asko izan ditugu eskolak euskaraz emateko orduan: ohitura falta, hizkera,... Guztien artean, material falta izan da ahuleziarik nabarmena. Nahiz eta azalpenak euskaraz eman, ikasle sofrituak erdaraz idatzitako eskuliburueta jo behar izan dute haiek osatzeko. Testuinguru honetan zuzenbide prozesaleko irakasleek hasiera batetik euskarazko materialak egitea gure lantzat hartu dugu. Ekimen honetan Euskara Errektoreordetzaren laguntzaz gure asmoei aurre egiten ahalegindu gara.

Gure ahaleginaren fruitu ondoren datozen lerroak dira. Hamabost kapitulutan zehar adierazpenezko prozesu zibilaren elementu nagusiak jorratu ditugu. Gure fakultatean ohikoa denez, prozesua Valentziako Zuzenbide Jurisdikzionalako eskolarekin bat interpretatu dugu, MONTERO AROCA, GÓMEZ COLOMER, BARONA VILAR eta MONTÓN REDONDOK egiten duten irakurketarekin bat.

Jarraian aurkezten dugun testua ez dago itxita. Ikasleei lehen bait lehen aurkeztu nahi zaien laguntza bat besterik ez da. Horregatik, eta bere gabezi guztietaz jabetuta, lerro hauetan denborarekin osatzeko eta hobetzeko konpromezua hartzen dugu. Hori ere gure lana da.

Azkenik, sarrerako lerro hauek pertsona bat zoriontzeko aprobetxatu nahi ditugu. Oraindik oso gaztea baina eskarmentuduna, 2007 urte honetan Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Atalak hamar urtetxo bete ditu. Zorionak eta urte askotarako, bai atalari berari, bai beren lanarekin haren bidea posible egin duten pertsona guztiei.

Leioan, 2007ko ekainaren 5ean,

Katixa Etxebarria, Ixusko Ordeñana eta Josune Pérez.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LABURDURAK

Art.....	Artikulua
AG.....	Auzitegi Gorena
BJKO:.....	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
BJLO.....	Botere Judizialaren Lege Organikoa
ED.....	Errege Dekretua
EK.....	Espainiako Konstituzioa
EZPNI.....	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
GEEH.....	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
HL.....	Hipoteka Legea
KALO.....	Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa
ZK.....	Zigor Kodea
KZ.....	Kode Zibila
LO.....	Lege Organikoa
MFEO.....	Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa
MK.....	Merkataritza Kodea
PKL.....	Prozedura Kriminalaren Legea
PZL.....	Prozedura Zibilaren Legea
SIGLO.....	Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoa
ZELO.....	Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoa
XD.....	Xedapen Derogatzailea

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA: ESKUDUNTZA EDO ESKUMEN ZIBILA.

- 1.1. Jurisdikzioaren hedadura eta mugak, ordena zibilaren eremuan.
- 1.2. Eskuduntza zibil orokorraren kontzeptua eta ezaugarriak.
- 1.3. Eratxikipen-irizpideak: motak; aplikazioa, organo jurisdikzional zibiletan; eta tratamendu prozesala.
- 1.4. Lurralde-eskuduntza edo lurralde-eskumena: foru motak, froga eta tratamendu prozesala.
- 1.5. Deklinatoria.
- 1.6. Auzien banaketa.

2. KAPITULUA: ALDERDIAK ETA BEREN GAITASUNA.

- 2.1. Alderdia eta hirugarren prozesala. Kontzeptuak.
- 2.2. Alderdien gaitasuna: alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala.
- 2.3. Gaitasuna finkatzean sortzen diren kasu bereziak.
 - 2.3.1. Ondasun-erkidegoa.
 - 2.3.2. Nortasunik gabeko batasunak.
 - 2.3.3. Erkidego irregularrak.
 - 2.3.4. Ondare autonomoak.
 - 2.3.5. Taldeak.
- 2.4. Gaitasunaren tratamendu prozesala.

3. KAPITULUA: LEGITIMAZIOA.

- 3.1. Legitimazioa: kontzeptua, motak eta tratamendu prozesala.
- 3.2. Alderdi-aniztasuna edo pluraltasuna, prozesuko fenomeno gisa.
 - 3.2.1. Beharrezko auzikidetza.
 - 3.2.2. Balizko alderdi aniztasuna.
- 3.3. Partaidetza eraginaren kasuak.
- 3.4. Prozesuko oinordetza.

4. KAPITULUA: POSTULAZIOA.

- 4.1. Postulazioa, lehen hurbilketa.
- 4.2. Ordezkaritza prozesala, prokuradoreen jarduera. Prokuradoreen ahalordeak.
- 4.3. Defentsa teknikoa, abokatuen esku.
- 4.4. Kontuen zina.
- 4.5. Administrazioa, prozesuko alderdi gisa.
- 4.6. Ministerio Fiskalaren partaidetza, prozesu zibilean.

5. KAPITULUA: PROZESUAREN OBJEKTUA: UZIA ETA UZIAREN ELEMENTUAK

- 5.1. Uzi prozesala, adierazpen-prozesuaren objektu.
- 5.2. Prozesuaren objektuaren elementu identifikatzaileak.
- 5.3. Uzi prozesalen metaketa edo pilaketa.
- 5.4. Prozesuen metaketa edo pilaketa.

6. KAPITULUA: AURREKO EGINTZA EZ-JURISDIKZIONALAK.

- 6.1. Prozesu aurreko egintzak, oro har.
- 6.2. Adiskidetze prebentiboa.
- 6.3. Aurretiazko erreklamazio administratiboa.
- 6.4. Atariko eginbideak.

7. KAPITULUA: DEMANDA.

- 7.1. Prozesu zibil adierazlea, lehenengo auzialdian: kasuan kasurako egokia den epaiketa. Epaiketa arruntak (arrunta eta ahozkoa) eta bereziak.
- 7.2. Demanda: kontzeptua
- 7.3. Demandaren betekizunak.
- 7.4. Demandarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.
- 7.5. Demandaren aurkezpena, eta demanda onartzea edo ukatzea.
- 7.6. Demandaren efektuak edo ondoreak.

8. KAPITULUA: DEMANDAREN ERANTZUNA.

- 8.1. Demandatuak demandari buruz dituen aukerak.
- 8.2. Auzi-ihesa.
- 8.3. Salbuespen prozesalak eta materialak.
- 8.4. Demandaren erantzuna.
- 8.5. Errekonbentzioa.
- 8.6. Epaiketa aurreko entzunaldia.
- 8.7. Epaiaketaren egintza.

9. KAPITULUA: FROGA.

- 9.1. Kontzeptua eta izaera.
- 9.2. Froga motak.
- 9.3. Frogaren objektua.
- 9.4. Frogaren zama.
- 9.5. Froga-iturriak eta frogabideak.

- 9.6. Frogaren balioespena. Balioespen-sistemak.
- 9.7. Froga-prozedura, oro har.
- 9.8. Froga ziurtatzea eta aurreratzea.

10. KAPITULUA: FROGABIDEAK, BANAKA.

- 10.1. Gaiaren aurkezpena.
- 10.2. Alderdien itaunketa edo galdeketa.
- 10.3. Dokumentu-froga edo dokumentu bidezko froga.
- 10.4. Aditu- edo peritu-froga.
- 10.5. Azterketa edo miaketa judiziala.
- 10.6. Lekukoen galdeketa
- 10.7. Soinua edo irudia erreproduzitzeko bideak eta artxiboko tresnak.
- 10.8. Presuntzioak, froga-metodo gisa.
- 10.9. Azken eginbideak.

11. KAPITULUA: PROZESUAREN BUKAERA.

- 11.1. Prozesua bukatzeko ohiko era: epaia. Osaera eta osagaiak.
- 11.2. Prozesua modu ez-ohikoan bukatzea: amore ematea, uko egitea, transakzioa, atzera egitea, iraungipena eta largespena.
- 11.3. Prozesua geldiaraztea.

12. KAPITULUA. AHOZKO EPAIKETA

- 12.1. Ahozko epaiketaren izaera.
- 12.2. Demandaren ezaugarriak.
- 12.3. Demanda onartzeko betekizunak eta ikustaldirako zitazioa.
- 12.4. Epaiketaren ikustaldi aurreko jarduerak.
- 12.5. Ahozko epaiketaren ikustaldia.

13. KAPITULUA: PROZESUAREN ONDORIOAK: GAUZA EPAITUA.

- 13.1. Gauza epaitua: kontzeptua. Gauza epaitu formala edo irmotasuna, eta gauza epaitu materiala.
- 13.2. Gauza epaituaren ondoreak eta mugak.
- 13.3. Gauza epaitua aurkaratzea: berrikuspenean aurkara daitezkeen ebazpenak, auzi-ihesean dagoen demandatua entzutea, hirugarrenaren aurkaritza, jardueren baliogabetasuna.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

14. KAPITULUA: PROZESUAREN ONDORIO EKONOMIKOAK.

- 14.1. Prozesuko kostuak: kontzeptuak.
- 14.2. Prozesuko kostuak ezartzea eta kostuak ezartzearen mugak.
- 14.3. Balioespena eta aurkaratzea.

15. KAPITULUA: ARAZO INTZIDENTALAK ETA EPAIKETA AURREKO ARAZOAK.

- 15.1. Arazo intzidentalen hasierako zehaztasunak.
- 15.2. Arazo intzidentalak eta horien prozedura.
- 15.3. Epaiketa aurreko arazoak: kontzeptua eta sailkapena.

1. KAPITULUA: ESKUDUNTZA EDO ESKUMEN ZIBILA.

1.1. Jurisdikzioaren hedadura eta mugak, ordena zibilaren eremuan. 1.2. Eskuduntza zibil orokorraren kontzeptua eta ezaugarriak. 1.3. Eratzikipen-irizpideak: motak; aplikazioa, jurisdikzio-organo zibiletan; eta tratamendu prozesala. 1.4. Lurralde-eskuduntza edo eskumena: foru motak, froga eta tratamendu prozesala. 1.5. Deklinatoria. 1.6. Auzien banaketa.

1.1. Jurisdikzioaren hedadura eta mugak, ordena zibilaren eremuan.

Jakina denez, jurisdikzioa Estatuaren ahalmena da. Bere subiranotasunetik eratortzen zaion ahalmena da, eta legeek zehaztutako epaile eta magistratuek egikaritzen dute, era eskusiboan. Guri dagokigunez, Espainiako ordenamendu juridikoa aztergai dugunez, Espainiako estatuaren jurisdikzioa interesatzen zaigu; hala ere, jakin badakigu nazioartean eta beste estatu batzuetan, beste epai-organo batzuk aritzen direla. Izan ere, globalizazioaren garai honetan, posible da zuzenbidearen subjektu diren pertsonen arteko harremanak nazioarteko testuinguruan gertatzea, baina, posible izateaz gainera, askotan errealitatea ere bada. Demagun espainiar bat eta frantses bat Espainian ezkondu eta Frantzia bizi direla; bizi diren herrialdean dibortziatu nahi dute, eta horri buruzko auzi bat sortzen da. Zer epai-organo zibilek arduratu behar du auzi horretaz? Espainiarrak ala frantsesak? Azken ideia hori abiapuntutzat hartuta, Espainiako epai-organo zibilaren eskumena edo eskuduntza finkatzeko, lehenbizi, galdera honi erantzun behar diogu: noiz arduratu behar dute kasu batez Espainiako epai-organo zibilek (edozeinek, oro har)? Galdera horri erantzuteko, Espainiako jurisdikzio-ordena zibilaren hedadura eta mugak aztertu behar ditugu, BJLOren 22. eta PZLren 36. artikulua aintzat hartuta.

Horren harira, BJLOren 4. artikulua ekarri behar dugu gogora. Artikulu horrek dioenaren arabera, Espainiako auzitegien jurisdikzioa, Espainiako Konstituzioak eta legeek zehazten duten eran, pertsona guztietara, arlo edo gai guztietara eta espainiar lurralde osora zabaltzen da.

PZLren 36. artikulua ez du adierazten Espainiako auzitegi zibilei noiz dagokien kasu jakin batzuek arduratzea, eta puntu horretan, BJLOren eta Espainiak sinatutako nazioarteko itunetara igortzen du. Hori horrela izanik, eta zuzenbidearen iturri jarraituz, kasu bat Espainiako auzitegi zibilei dagokien jakiteko, Espainiako estatuak sinatutako tratatuei erreparatu beharko diegu lehenik eta behin; eta horietan erantzunik aurkitzen ez badugu, BJLOren jo beharko dugu. Azter ditzagun, labur-labur, iturri horietako bakoitza.

Gai honetan Espainiako estatuak Europar Batasunaren eremuan izenpetu duen itun garrantzitsua Bruselako Hitzarmena da (*Nazioarteko eskuduntza judizialari eta arlo zibileko eta merkataritza-gaien gaineko epaien aintzatespen eta betearazpenari buruzko Bruselako Hitzarmena*), 1968ko irailaren 27koa; azken bertsioa 1995ekoa da. Baina,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

2002ko martxoaren lehen egunetik beretik, hitzarmen horren edukia 2000. urteko abenduaren 22ko *Kontseiluaren 44/2001 Araudian, eskuduntza judizialari eta arlo zibil eta merkataritza-gaien gaineko sententzien aintzatespen eta betearazpenari buruzkoan (Brusela I)* kokatu behar dugu, araudi horrek aurrekoa aldatu eta hitzarmenaren zenbait puntu ordezkatu baititu.

BJLOk artikulua bakar bat du epai-organo zibilei dagokien jurisdikzioaren hedadurari eta mugei buruz: 22. artikulua. Artikulu horrek, lehenengo paragrafoan, Espainiako epai-organo zibilei era eskusiboan dagozkien arloak zehazten ditu: (1) Espainiako eskubide errealak eta higiezinaren errentamendua; (2) Espainiako lurraldean egoitza duten sozietate edo baltzu eta pertsona juridikoen eraketa, baliozkotasuna, baliogabetasuna edo desegitea, baita bertako organoen akordio eta erabakiak ere; (3) Espainiako erregistro edo errolda bateko inskripzioen baliozkotasuna edo baliogabetasuna; (4) inskripzioen edo patenteen baliozkotasuna, eta erregistratu edo gordailutu beharreko beste eskubide batzuen, erregistroa edo gordailua Espainian eskatu edo egin denean; (5) atzerriko ebazpen judizial eta erabaki arbitralen aintzatespena eta betearazpena, Espainiako lurraldean.

Aurreko arloez gainera, aipatutako BJLOren 22. artikulua beste bi kasutan aintzatesten die jurisdikzioa Espainiako jurisdikzio-organo zibilei: (1) alderdiak esanbidez, beren-beregi, edo isilbidez Espainiako epaitegi eta auzitegien mende jarri direnean, eta (2) demandatuek beren helbidea edo bizilekua Espainian dutenean.

Gainera, BJLOren 22. artikulua horrek Espainiako epaitegiei jurisdikzioa emateko irizpide hauek ezartzen ditu, 3., 4., eta 5. paragrafoetan, aurreko paragrafoetan jasotako irizpide orokorrak gertatzen edo betetzen ez direnerako: (1) ez egotearen edo heriotzaren adierazpena egokituko zaie, desagertuak bere azken helbidea edo bizilekua Espainiako lurraldean izan badu; (2) adingabeen nahiz ezgaien ezgaitasun-gaiak eta beren pertsonaren edo ondasunen gaineko babes-neurriak egokituko zaizkie, horiek beren ohiko bizilekua Espainian badute; (3) ezkontideen arteko ondare-harremanak eta harreman pertsonalak, ezkontza-baliogabetasuna, bereizketa eta dibortzioa egokituko zaizkie, ezkontide biek demanda jarri zen garaian beren ohiko bizitokia Espainian izan badute, edo demandatzaile edo auzi-jartzailea espainiarra izan eta bere ohiko bizitokia Espainian badu, baita bi ezkontideek espainiar herritartasuna badute ere, beren bizitokia edozein izanik, betiere eskaera elkarren arteko adostasunez biek egin badute, edo batek egin badu bestearen adostasunez; (4) seme-alabatasunaz eta guraso eta seme-alaben arteko harremanez arduratuko dira, demandaren garaian semeak (edo alabak) bere ohiko bizitokia Espainian izan badu, edo demandatzailea edo auzi-jartzailea espainiarra bada, edo Espainian bizi ohi bada; (5) adopzioaren eraketaz arduratuko dira, adoptatzailea edo adoptatua espainiarrak badira edo ohiko bizilekua Espainian badute; (6) elikagaiez arduratuko dira, horien hartzaileek ohiko bizitokia Espainiako lurraldean badute; (7) kontratu bidezko betebeharez arduratuko dira, horiek Espainian sortu edo bete behar badira; (8) kontratuz kanpoko betebeharez arduratuko dira, horiek sortu dituzten akzioak Espainiako lurraldean gertatu badira edo kaltearen egileak eta biktimak beren ohiko bizitokia Espainian badute; (9) ondasun higigarri buruzko akzioez arduratuko dira, demandaren garaian haiek Espainiako lurraldean badaude, eta (10) oinordetza-gaiez arduratuko dira eragileen azken helbidea Espainiako lurraldean izan bada edo Espainian ondasun higigarriak baditu (horiek guztiak BJLOren 22. artikuluan 3. paragrafoan daude bilduta).

Gainera, (1) kontsumitzaileen kontratuz arduratuko dira, erosleak bizilekua Espainian badu, ondasun korporal higigarriak epeka saltzeko edo horiek eskuratzeko finantza-maileguetan; (2) beste edozein zerbitzu emateko kontratuz eta ondasun higigarriez arduratuko dira, baldin eta kontratua egin aurretik eskaintza pertsonala edo publizitatea egin izan balitz Espainian edo kontsumitzaileak espainiar lurraldean kontratua burutzeko beharrezko egintzak egin izan balitu; (3) aseguru gaiez arduratuko dira, aseguru-hartzaileek eta aseguratazaileek beren ohiko bizilekua Espainian badute; (4) merkataritzako sukurtsal, agentzia edo establezimendu baten ustiapenari buruzko liskarrez arduratuko dira, Espainian badaude; (4) lehiaketari buruzko gaiez, dagokien lege arautzailea kontuan hartuta (horiek guztiak BJLOren 22.4 artikuluan jasotzen dira).

Azkenik, BJLOren 22.5 artikulua dioenez, espainiar epai-organo zibilei dagokie Espainiako lurraldean dauden pertsonen edo ondasunen gaineko behin-behineko neurriak edo horiek aseguratzeko Espainian bete beharreko neurriak ematea.

Bukatzeko, PZLren 36.2 artikulua edukia aztertzea falta zaigu. Artikulu horretan, Espainiako auzitegi zibilak beren aurrean aurkeztutako gaiez arduratuko dira, baldin eta honako arrazoi hauetakoren bat gertatuko balitz:

- 1) Jurisdikzio-ukiezintasuna edo Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren arauen arabera betearazpen-ukiezintasuna duten subjektuen edo ondasunen gaineko demanda jartzen bada edo betearazpena eskatzen bada.
- 2) Espainiako estatuak izenpetutako nazioarteko tratatu edo hitzarmen baten arabera, gaia, eskusiboki, beste estatu baten jurisdikzioari egozten zaionean.
- 3) Era egokian deitutako demandatua epailearen aurrean agertzen ez bada, Espainiako auzitegiek duten nazioarteko eskumenaren oinarri bakarra izan badaiteke alderdiak isilbidez haien eskumenean jartzea.

Aurreko hiru kasu horietan edo epai-organoak Espainiako jurisdikzioa falta dela uste duen beste edozeinetan, auzitegiak jurisdikziorik eza –hobe esanda, Espainiako estatuaren jurisdikziorik eza– adieraziko du, ofizioz, eta gaia aztertzeari uko egingo dio, aurretik alderdia eta Ministerio Fiskala entzunda. Espainiako jurisdikzio-organoak, oro har, demandaren onspena aditzera ematean egingo du adierazpen hori, baina zilegi da epaiketa aurreko entzunaldian edo epaian bertan egitea ere.

Azkenik, alderdiek berek ba al dute Espainiako epai-organo zibilen jurisdikziorik eza salatzeke modurik? Bai. Aurrerago ikusiko dugunez, alderdi demandatuak deklinatoriaren bitartez salatu ahal izango du jurisdikziorik eza.

1.2. Eskuduntza zibil orokorraren kontzeptua eta ezaugarriak.

Eskuduntza edo eskumen orokorraz hitz egitean, ordena jurisdikzionalen arabera zehazten den eskumenaz ari gara. Hau da, eskuduntza zibil orokorrak ordena jurisdikzional zibilaren eskumeneke gaiak identifikatzen ditu.

Jakina denez, BJLOren 9. artikulua Espainiako 4 ordena jurisdikzionalak izendatzen ditu: jurisdikzio-ordena zibila, zigor-ordena jurisdikzionala, ordena administratiboa eta

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

lan-ordena. Gainera, artikulua horrek argi eta garbi uzten du jurisdikzio-ordenaren eskuduntza legearen arabera osatua dela: “Epaitegi eta auzitegiak jurisdikzioa egikarrituko dute, BJLOk berak edo beste lege batek era eskusiboan horrela egozten dienean”. Horren harira, eta jurisdikzio-ordena zibilari erreferentzia eginez, 9.2 artikulua epaitegi eta auzitegi zibilen ezagutza-eremua ezartzen du. Horiek, “berezkoak dituzten gaiez” (noski, zuzenbide pribatuaz ari da) gainera, beste jurisdikzio-ordena bati ez dagozkien gaiez ere arduratu daitezke. Bigarren zatian horretan, ordena zibilaren *vis atractiva* delakoa aitortzen da: zigor-ordenari, ordena administratiboari edo lan-ordenari ez dagozkien arlo guztiak ordena zibilari eratzikiko zaizkio. Beraz, epaitegi eta auzitegi zibilak Espainiako epai-antolatetaren barruan “epaitegi arruntak” direla baieztatu genezake.

Zer tratamendu prozesal dagokio eskuduntza edo eskumen orokor horri? Nori salatu behar du eskumen horren falta? Jurisdikziorik eza aipatzean azaldutako tratamendu bera dagokio. Beraz, bi eratarik nabarmendu daitezke eskumenik eza: ofizios edo alderdiaren eskariz. Lehenengo kasuan, PZLk 37.2 artikuluan dioenez, epai-organo jurisdikzional zibilak kasu arduratzeari uko egingo dio, baldin eta kasua beste jurisdikzio-ordena bati badagokio. Kasu horretan ere, uko egin aurretik, alderdiak eta Ministerio Fiskala entzun beharko dira (PZLren 38. art.), eta demanda onartzeko unean, epaiketa aurreko entzunaldian edo epaian egin liteke hori. Gainera, alderdiemandatuak demandan bertan, deklinatoria jarri, jurisdikzio-ordenaren eskumen orokorrik eza sala dezake.

1.3. Eratzikipen-irizpideak: motak; aplikazioa, jurisdikzio-organo zibiletan; eta tratamendu prozesala.

Espainiako jurisdikzio-organo zibil jakin baten eskumena zehazteko bidean, bi urrats egin ditugu: batetik, Espainiako epai-organoei kasu jakin batez arduratzea noiz dagozkien ikusi dugu; eta, bestetik, kasu hori ordena zibilekoei noiz dagozkien adierazi dugu. Orain, beste urrats bat egin behar dugu; izan ere, jurisdikzio-ordena zibilaren barruan organo ugari daude, baina kasu jakin bakoitzari organo jakin bat dagokio. Azken urrats horretan, egozpen- edo atribuzio-irizpideak aplikatuko ditugu.

Jakina denez, Espainiako ordenamendu juridikoan hiru dira egozpen-irizpideak: objektiboa edo materiala, funtzionala eta lurraldeari dagokiona. Bakoitzari buruzko azalpen labur bat emango dugu.

Irizpide objektiboa: mota bereko epai-organo asko daudela kontuan izanik, irizpide horrek uziaren edo pretentsioaren munta edo gaia (arloa) kontuan hartzen ditu kasuen eskumena epai-organoei atxikitzeko.

Irizpide funtzionala: epaileek egiten duten lanean, jarduera jurisdikzionalan alegia, hainbat fase edo etapa daudela kontuan hartuta (batez ere, auzialdiak, errekurtsioak eta betearazpena), kasuak zer fasetan kokatu behar diren oinarri hartuta zehazten du epai-organoen eskumena.

Lurralde-irizpidea: lurraldeari erreparatuta mota berekoak diren epai-organoen artean horietako bakoitzari dagokion eskumena zehazten du.

Lehenengo bi irizpideak aztertuko ditugu orain; hirugarrena hurrengo atalean landuko dugu. Horretarako, Espainiako epai-organo zibilei irizpide objektiboa eta funtzionala aplikatuko dizkiegu, horien eskumeneko kasuak zein diren ikusteko.

BAKE-EPAITEGIAK: 90 eurotik gorako muntakoa ez den ahozko epaiketez arduratzen da, batik bat (lehen auzialdian, noski), betiere arloaren edo gaiaren arabera ahozko epaiketa ez bada (PZLren 47. art.).

LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIAK: beste edozein epai-organo zibili atxikitzen ez zaizkion gaiez arduratzen direla kontuan hartuta (BJLOren 85.1 eta PZLren 45. artikulua), jurisdikzio-ordena zibilaren organo garrantzitsua da –lan kopuruari dagokionez, behintzat–.

Epai-organo horiek, epaiketa arrunt guztiez arduratzeaz gainera, ahozko epaiketez ere arduratzen dira. Bigarren kasuan, garrantzizko zehaztasun bat egin behar da: gaiaren edo arloaren arabera zehaztutako ahozko epaiketez arduratuko dira beti, eta baita dirumuntaren arabera identifikatutako ahozko epaiketez ere, baldin eta 90 eurotik gorakoak badira; izan ere, munta horretatik beherako kasuak bake-epaileei dagozkie. Baieztapen horri ere ñabardura bat egin behar zaio, ordea: epai-organo horiek dauden herrietan bake-epaitegirik ez badago, 90 eurotik beherako kasuez ere arduratuko dira. Beraz, kasu horretan kasu guztiez arduratzen dira, zenbatekoa edozein dela ere. Gainera, epaiketa berezi guztiei buruz jardungo dute.

Gainera, eta irizpide funtzionalari erreparatuta, nahiz eta “lehen auzialdiko” izena izan, epaitegi horiek errekurso batzuez ere arduratzen dira, hala nola beren epai-barrutiko bake-epaitegien ebazpenen kontra jarritako apelazio- eta kexa-errekursoez (BJLOren 85.3, eta PZLren 455.2.1 eta 494. artikulua), eta, auzi-ihesean dagoenaren eskariz, epai irmoen deuseztapenaz, epai irmoa Lehen Auzialdiko Epaitegiak berak eman badu (PZLren 501. artikulua). Atzerriko sententzien eta laudoen aintzatespenaz eta betearazpenaz ere jardungo dute.

MERKATARITZA-EPAITEGIAK: lehiaketa-gaiez, itsas zuzenbideaz, elkarlehia desleialaz, jabetza industrialaz eta jabetza intelektualaz, garraioez... jarduten dute (Lehiari buruzko 22/2003 Legearen 8. eta BJLOren 86. artikulua). Puntu honetan, eta dagokion lekuan azaldu bada ere, gogora ekarri behar dugu auzitegi horiek sortu zirenetik beretik jaso izan dutela kritika, beren eskumena dela-eta, besteak beste, ez dituztelako beren gain hartzen merkataritza-gai guztiak, eta izaera zibileko beste gai batzuk hartzen dituztelako.

PROBINTZIAKO ENTZUTEGIAK: dagokien probintziako lehen auzialdiko epaitegien ebazpenen kontra jarritako apelazio- eta kexa-errekursoez arduratzeko eskuduntza funtzionala da beren egiteko nagusia (BJLOren 82.4 eta PZLren 455.2 eta 494. artikulua). Horrez gainera, auzi-ihesean dagoenaren eskariz, epai irmoen deuseztapenaz (PZLren 501. art.) eta laudo arbitralen kontrako deuseztatze-errekursoaz (60/2003, Tartekaritza Legearen 8.5 art.) ere jarduten dute.

Gainera, eta merkataritzaren alorrean, Alacanteko Probintziako Entzutegiak sail bat du, estatu osoan, bigarren auzialdian, marka, irudi eta modelo komunitarioen gaineko liskarrez arduratzen dena.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIETAKO ARLO ZIBILEKO ETA ZIGOR ARLOKO SALA (BITARIKOA EDO MISTOA): sala horrek irizpide objektiboaren arabera eta materiari jarraituz, auzialdi bakarrean ezagutzen ditu, beren lana egikaritzean gauzatutako egitateengatik autonomia-erkidegoetako presidentearen eta gobernu-kontseiluko kideen nahiz batzar legegilearen kideen kontrako erantzun zibileko demandak –autonomia-estatutuaren arabera eskumen hori ez baitagokio Auzitegi Gorenari (BJLOren 73.2 art.)–, eta baita probintziako entzutegi bateko edo bertako edozein sekzioko magistratu guztien edo gehienen kontra jarritakoak ere (BJLOren 73.2 b) art.).

Irizpide funtzionalaren harira, sala edo areto horiek dagokien autonomia-erkidegoetako probintziako entzutegiek emandako ebazpenen kontrako kasazio-errekurtsoez eta berrikuspen-errekurtsoez arduratzen dira, baldin eta bi baldintza hauek betetzen badira: tokian tokiko autonomia-estatutuak eskuduntza hori hartzea (horrela egiten du Gernikako Estatutuak 14.1 a) artikuluan), eta errekurtsua autonomia-erkidegoko zuzenbide zibil, foral edo bereziaren arauen urraketan oinarritua izatea (BJLOren 73.1 a) eta b) eta PZLren 478. eta 509. artikulua).

AUZITEGI GORENEKO ARLO ZIBILEKO SALA: materiari dagokionez, hau da, irizpide objektiboak finkatzen duenez, auzialdi bakarrean beren lana egikaritzean Estatuko kargu politiko eta epai-kargu nagusien egitateengatik jarritako erantzukizun zibileko demandez arduratzen da (BJLOren 56.2 eta 3 artikulua).

Eskumen funtzionalaren eremuan, Auzitegi Goreneko Areto Zibilari 4 motatako errekurtsuez arduratzeko eskumena aitortzen zaio, hala nola, kasazio-errekurtsoaz (PZLren 477. artikulutik 489.era bitarteko artikulua), berrikuspen- edo errebisio-errekurtsoaz (PZLren 509. artikulutik 516.era bitarteko artikulua), prozesuko arau-hausteen ondoriozko errekurtsuez (PZLren 468. artikulutik 476.era bitarteko artikulua) eta legearen interesaren aldeko errekurtsuez (PZLren 490. artikulua).

Aipatutako bi irizpide horien tratamendu prozesalari dagokionez, lehenengo eta behin, eta biekin aplikagarri, argi eta garbi geratu behar da eskuduntza objektiboa nahiz eskumen funtzionala zehazten dituzten arauak arau xedaezinak edo luzaezinak direla. Ordena publikoko arauak dira, *ius cogens* deritzenak; beraz, nahitaez bete beharrekoak. Horrek justifikatzen du epaileek ofizioz aztertu behar izatea beren eskuduntza objektiboa eta funtzionala. Horren erakusgarri dira PZLren 48.1 eta 62. artikulua.

PZLren 48. artikulua dio eskuduntza objektiborik eza kasua aztertzen ari den auzitegiak ofizioz aztertuko duela, horretaz ohartu bezain pronto, auzitegia eta fase prozesala edozein direla ere. Ohikoena epaileak edo magistratuak adierazpen hori demanda onartzeko unean egitea baldin bada ere (PZLren 404. eta 440.1 artikulua), posible da adierazpen hori epaiketa aurreko entzunaldian (PZLren 416.2 art.), ikustaldian (PZLren 443.2 art.) edo epaian bertan egitea. Betiere, adierazpen hori egin aurretik, eta alderdien babesgabetasuna ekiditeko, alderdiak eta Ministerio Fiskala entzun behar dira (PZLren 48.3 art.). Edonola ere, eskuduntza objektiborik eza adierazten duen autoak kasuaren ardura zer auzitegiri dagokion zehaztu behar du (PZLren 48.2 art.).

PZLren 62. artikulua jurisdikzio-organoei errekurtsuez jarduteko beren eskuduntza subjektiboa ofizioz begiratzeko betebeharra ezartzen die.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Horrez gainera, alderdiek deklinatoriaren bitartez sala dezakete eskuduntzarik eza, objektiboa zein funtzionala (PZLren 49., 63.2, 416.2 eta 443.2 artikulua).

1.4. Lurralde-eskuduntza edo lurralde-eskumena: foru motak, froga eta tratamendu prozesala.

Kasu jakin batean eskumen objektiboa eta funtzionala duen epai-organo juridikzionala zein den ezagutu ondoren (adibidez, lehen auzialdiko epaitegia), honako arazo hau sortzen da: alegia, mota bereko epai-organo askok betetzen dituztela irizpide objektiboa eta funtzionala. Kasu jakin horretaz arduratu behar duen organo zehatza finkatzeko urrats bat falta zaigu. Urrats horretan ere, azken irizpidea aplikatzen da.

Epai-organoen lurralde-eskuduntza *foru* deritzen arauen bitartez zehazten da. Arau horiek alderdiek berek hitzartu edo ezar ditzakete prozesu zibila eraentzen duen xedapen-printzipioaren arabera. Beste era batera esanda: alderdiek hitzar dezakete kasu jakin batean lurralde-eskumena zer jurisdikzio-organok izan dezan nahi duten. Halakoetan, foru konbentzionalei edo hitzartutako foruei buruz ari gara. Hala ere, gerta liteke alderdiek lurralde-eskuduntzari buruz ezer ez hitzartzea. Halakoetan, legeak zehazten du zer arauri jarraitu behar zaion jurisdikzio-organoen eskuduntza finkatzeko. Bigarren horiek lege-foruak dira. Azter ditzagun bi foru mota horiek.

A) Foru konbentzionalak edo hitzartutako foruak: eskuduntza objektiboa eta funtzionala ezartzen duten arauak direnez, eta ondorioz, horiek zehaztutako eskumena alderdientzat xedaezinak edo luzaezinak izanik, alderdiei askatasuna ematen zaie, xedapen-printzipioaren arabera, prozesu zibilean auzitan zer tokitan jardun nahi duten aukera dezaten. Beraz, lurraldea zehaztean, borondatearen autonomia gailentzen da, foru konbentzionalak alegia. Era horretara, argi gelditu behar da, PZLren 54. artikulutik ondoriozta daitekeenez, lurralde-eskuduntza xedagarria edo luzagarria dela. Hala, hitzartutako forurik ez dagoenean bakarrik joko da lege-foruetara. Aipatutakoa arau nagusia bada ere, zenbait kasutan (salbuespenetan), hitzartutako foruak debekatuta daudenez, lege-foruak gailentzen dira.

Hitzartutako foruen eremuan, eta auzitan jardun nahi den tokia zehazten duen borondate-adierazpenaren inguruan, esanbidezko mendetasunaren edo sumisioaren eta isilbidezko mendetasunaren edo sumisioaren arabera aritu behar dugu.

Esanbidezko mendetasunak esan nahi du alderdiek toki jakin batean auzitan aritzeko nahia adierazi dutela, eta hori da lurralde-eskuduntza finkatzeko irizpide nagusia (PZLren 55. art.). Beraz, borondate-askatasuna gauza guztien gainetik gailentzen da, aurrerago adieraziko ditugun albuespenak ahaztu gabe. Hala ere, ezinbestekoa da zehaztasun bat egitea: esanbidezko mendetasunaren bitartez ez da zehazten zer organok jardun beharko duen auziari buruz, baizik eta zer lurraldetan egin beharko den. Hori nabarmendu behar da, gaien edo arloen banaketa eraentzen duten arauak zehaztuko baitute zer jurisdikzio-organo arduratuko den gai bakoitzaz (PZLren 57. art.).

Esanbidezko mendetasun hori jasotzen duen kontratuari edo hitzarmenari *esanbidezko mendetasunaren kontratua* edo hitzarmena deritzo. Liskar baten ondoriozko prozesua abian jarri aurretik izenpetzen dute alderdiek, eta ohikoa da kontratu material batean agertzea (salerosketa batean, emaitza-kontratuan, errentamendu-kontratuan,...), beste

klausula batzuen artean. Horren harira, jurisprudenziak, kontratatzaile ahulena babesteko xedez, kontratu edo hitzarmen hori baliozkotzat hartzeko betekizun batzuen errespetua galdatzen du. Bi betekizun nagusi aipa daitezke: batetik, mendetasun-kontratu edo hitzarmen hori idatziz egin behar da, eta alderdiak zer lurralde-eremuren mende jartzen diren adierazi behar da, zehatz-mehatz. Beraz, ez dute balio zehaztasunik gabeko adierazpenek edo balizkoek, edo adierazpen alternatiboek. Bestetik, esanbidezko mendetasun-kontratua ez da baliozkoa izango atxikimendu-kontratueta agertzen bada, edo alderdietako batek inposatutako baldintzak biltzen dituzten kontratueta jasotzen bada, edo kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratueta agertzen bada (PZLren 54.2 art.).

PZLren 56. artikulua dioenez, bi egoeratan hartuko da isilbidezko mendetasuna egindakotzat edo sortutzat: demandatzailea edo auzi-jartzailea eremu jakin bateko auzitegira joaten bada demanda jartzera, edo demandaz arduratzeko eskumena duen auzitegiari aurkeztu beharreko eskaera egiten badio; eta demandatuari dagokionez, demanda jarri eta epaiketan agertu ondoren, deklinatoriaren aurkezpena ez den beste edozein gestio egiten badu.

Hala ere, aurretik esan bezala, Espainiako legeak borondatearen autonomia eta lurraldeari dagokion eskuduntza gero eta gehiago mugatzeko bidea hartu du. Horren erakusgarri dira PZLk isilbidezko mendetasunerako eta esanbidezko mendetasunerako ezartzen dituen debekuak. Honako kasu hauetan dira ezinezkoak mendetasun horiek:

1. Ahozko epaiketa bidez erabaki beharreko gaietan (PZLren 54.1 art.).
2. Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealak egikaritzen diren epaiketetan (PZLren 52.1.1 art.).
3. Oinordetza-arazoei buruzko epaiketetan (PZLren 52.1.4 art.).
4. Ezgaien, ezgaituen edo xahutzaile deklaratuaren laguntza edo ordezkapenari buruzko akzioak egikaritzen diren epaiketetan (PZLren 52.1.5 art.).
5. Ohore-eskubidearen, norbanakoaren eta familiaren intimitate-eskubidearen, norberaren irudirako eskubidearen, eta oro har, oinarrizko eskubideen babes zibileko gaietan (PZLren 52.1.6 art.).
6. Higiezinaren errentamenduari buruzko epaiketetan eta botatze-epaiketetan (PZLren 52.1.7 art.).
7. Jabetza horizontalari buruzko epaiketetan (PZLren 52.1.8 art.).
8. Ibilgailu motordunen zirkulaziotik eratorritako kalte-galeren ordainketa eskatzen den epaiketetan (PZLren 52.1.9 art.).
9. Akordio sozialen aurkaratze-gaietan (PZLren 52.1.10 art.).
10. Jabetza intelektuala urratzeari buruzko demandak egikaritzen diren prozesuetan (PZLren 52.1.10 art.).
11. Elkarlehia desleialari buruzko epaiketetan (PZLren 52.1.12 art.).
12. Patente eta markei buruzko gaietan (PZLren 52.1.13 art.).
13. Prozesuetan, akzioak egikaritzen direnean, kontratazioaren baldintza orokorreko klausulak kontratuari ez eransteko edo horien deuseztasuna adierazteko, eta gai berean, bukatzeko edo atzera egiteko adierazpen-akzioak egikaritzen direnean (PZLren 52.1.14 art.).
14. Premiamendu-prozedura administratiboetan jarritako jabari-hirugarrengotza edo eskubide hobeko hirugarrengotzaren kasuan (PZLren 52.1.15 art.).

B) Foru legalak edo lege-foruak: eskuduntza objektiboa eta funtzionala duen jurisdikzio-organo baten lurralde-eskumena zehazten duten arauak dira, alderdiak, esanbidez edo isilbidez, lurralde bateko organoen mende ez daudenean aplikatzen direnak. Litekeena da alderdiak lurralde jakin baten mende egotea, baina egozpen edo hori oker egin izana; halakoetan, lege-foruak gailenduko dira. Zilegi da, bestalde, alderdiek lurraldeari dagokionez ezertxo ere ez zehaztea, horrela nahi izan dutelako edo legeak berariaz debekatzen duelako. Kasu horretan ere, lege-foruak hartu beharko dira aintzat. Horiek zehaztuko dute zein den, lurraldeari dagokionez, epai-organo eskuduna.

Doktrinak bi lege-foru mota bereizten ditu: lege-foru bereziak eta lege-foru orokorrak. Horien arteko aldeak nabarmenak dira, eta azter ditzagun banaka.

Lege-foru bereziek auziaren izaeraren arabera zehazten edo finkatzen dute lurralde-azutegi eskuduna. Horien zerrenda PZLren 52. artikuluan jasotzen da:

1. Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealak egikaritzen direnean, auzitegi eskuduna, epaiketetan, auzigaia dagoen tokikoa izango da. Akzio errealak zenbait ondasun higigarriaren gainean edo hainbat lurraldetan dagoen ondasun bakar baten gainean egikaritzen denean, horietako edozein izango da auzitegi eskuduna, demandatzaileak aukeratutakoa.
2. Besteren ondasunen administratzaileek eman beharreko kontuen aurkezpenari eta onepenari buruzko demandetan, kontu horiek aurkeztu beharreko tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta zehaztu gabe egonez gero, agintzailearen, botere emailearen edo ondasunen jabearen bizitokiari dagokiona, edo administrazioa burutu denekoa, auzi-jartzaileak hala eskatuta.
3. Berme-betebeharrei edo aurreko beste betebehar batzuen osagarriari buruzko demandetan, betebehar nagusiaz erabaki behar duen edo dagoeneko erabakitzen ari den auzitegia izango da auzitegi eskuduna.
4. Oinordetza-kontuei buruzko epaiketetan, hildakoaren azken bizilekuari dagokion tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta atzerrian izan bada, Espainian izan duen azken bizilekuari dagokiona, edo haren ondasun gehienaren tokikoa, demandatzaileak hala aukeratuta.
5. Ezgaien, ezgaituen edo xahutzaile adierazien laguntzari edo ordezkapenari buruzko akzioak egikaritzen diren epaiketetan, horiek bizi diren tokiko auzitegia izango da eskuduna.
6. Ohore-eskubidearen, norbanakoaren eta familiaren intimitate eskubidearen, norberaren irudirako eskubidearen eta, oro har, oinarrizko eskubideen babes zibileko gaietan, demandatzailearen bizitokiko auzitegia izango da eskuduna, eta ez badu bizitokirik Espainiako lurraldean, kasuan kasuko oinarrizko eskubidea urratu duen egintza gertatu den tokiko auzitegia.
7. Higiezinaren errentamenduari buruzko epaiketetan eta botatze-epaiketetan, lursaila dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna.

8. Jabetza horizontalari buruzko epaiketetan, lursaila dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna.

9. Ibilgailu motordunen zirkulazioa dela-eta sortutako kalte-galeren ordainketa eskatzen den epaiketetan, kalteak sortu ziren tokiko auzitegia izango da eskuduna.

10. Sozietateen akordioak aurkaratzeari dagokionez, sozietatearen egoitza dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna.

11. Jabetza intelektualaren urraketa buruzko demandak egikaritzen diren prozesuetan, eskuduna izango da urraketa gertatu den edo gertatu izanaren aztarnak dauden edo zilegi ez diren aleak dauden tokiko auzitegia, demandatzaileak hala aukeratuta.

12. Lehia bidegabeari buruzko epaiketetan, demandatuak establezimendua duen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta establezimendurik ez balu, bere bizileku edo egoitzakoa, eta Espainiako lurraldean ez badu, lehia bidegabekoa gertatu den tokikoa edo ondorioak izango diren tokikoa, demandatzaileak edo auzi-jartzaileak hala aukeratuta.

13. Patente eta markei buruzko gaietan, gai horri buruzko legeri bereziak zehazten duen auzitegia izango da eskuduna.

14. Kontratazioaren baldintza orokorren klausulak kontratuari ez eransteke edo horien deuseztapena adierazteko akzioak egikaritzen diren prozesuetan, demandatzailearen bizitokiko auzitegia izango da eskuduna. Era berean, akzio adierazlea, bukarazte-akzioa edo atzera egiteko akzioa egikaritzen direnean, demandatuak bere establezimendua dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta establezimendurik ez badu, bere bizitokikoa; eta demandatuak Espainiako lurraldean ez badu bizitokirik, atxikitako tokikoa izango da eskuduna.

15. Premiamendu-prozedura administratibo batean jarritako jabetza bitartekotzaren edo eskubide hobearen bitartekotzaren kasuetan, bahitura erabaki zuen organoaren helbideko auzitegia izango da eskuduna, lurralde-eskuduntzari buruz herri administrazioentzat aurreikusitako berezitasunei kalterik egin gabe.

16. Bukarazte-akzioa kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektibo zein zehaztugabeen defentsan egikaritzen den prozesuetan, demandatuaren establezimendua dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta establezimendurik ez badu, haren bizitokikoa; Espainiako lurraldean bizitokirik ez badu, auzi-jartzailearen bizitokikoa.

17. Artikulu honen aurreko ataletako arauak ezin aplikatu zaizkienean aseguruari, ondasun higikor korporalen eperako salerosketari eta horien finantzaketarako kontratuei, ezta zerbitzuak emateko kontratuei edo eskaintza publiko baten ondorengo ondasun higikorrei buruzko kontratuei ere, aseguratuaren, eroslearen edo mailegu-hartzailearen bizitokiko auzitegia izango da eskuduna edo eskaintza onartu izan zuenaren bizitokikoa, hurrenez hurren (hori hamazazpigarren debeku gisa zenbatu badugu ere, PZLren 52. artikuluko 2. paragrafoan agertzen da).

Legezko foru orokorrak lurralde-eskuduntza finkatzen duten arauak dira, legezko foru bereziek halakorik zehazten ez duten kasuetan. PZLren 50., 51. eta 54. artikuluan jasotzen dira. Hiru artikuluko horien edukia lau puntutan jaso genezake:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

1. Pertsona fisikoen lurralde-forua demandatuaren helbideari dagokion auzitegia da. Demandatuak Espainiako lurraldean helbiderik ez badu, Espainian duen egoitzari dagokion auzitegia izango da eskuduna (PZLren 50.1 art.). Espainian ez helbiderik ez egoitzarik ez duten pertsonen kontrako demandak Espainiako lurraldean dauden tokian jarri ahal izango dira edo lurralde horretan izan duten azken egoitzan; eta azkenik, eskuduntza ezin zehaztu bada, auzi-jartzailearen helbideari dagokion tokian.

Pertsona fisiko horiek enpresaburuak edo profesionalak izanez gero, beren jarduera ekonomikoan edo profesionalean sortutako auzietan, beren jarduera egiten duten tokian jarri ahal izango zaie demanda, eta beren ardurapeko establezimenduak hainbat tokitan badituzte, horietako edozeinetan, auzi-jartzaileak aukeratuta.

2. Pertsona juridikoei eta nortasunik gabeko erakundeei dagokienez, lehenengoak beren helbidean demandatu ahal izango dira. Hala ere, posible da liskarraren objektu den egoera edo harreman juridikoa sortu den tokian edo horrek ondorioak izango dituen tokian jartzea demanda, baldin eta toki horretan badute establezimendua jendearentzat zabalik edo erakundearen izenean aritzeko baimendutako ordezkari bat badute (PZLren 51.1 art.). Nortasunik gabeko erakundeak, berriz, beren kudeatzaileen helbidean edo beren jarduera egikaritzen duten edozein tokitan demandatu izan ahal izango dira (PZLren 51.2 art.).

3. Uzien edo akzioen metaketa denean, gainerako uzien oinarri den uziari dagokion tokikoa izango da eskuduna; halakorik ez balego, akzio metatu gehienen gaineko ardura duenak hartuko du ardura, eta azkenik, bi horien faltan, zenbateko handieneko akzioari dagokion tokikoak (PZLren 53.1 art.).

4. Demandatuen aniztasun edo auzikidetzat pasiboa denean, eta horiek kontuan hartuta lurraldeari buruzko eskuduntzako arauak aplikatuz gero, jurisdikzio-organo bat baino gehiago izango balira eskudunak, demandatzaileak edo auzi-jartzaileak erabaki ahal izango du horietako zeinetan jarri demanda (PZLren 53.2 art.).

Lurralde-eskuduntzari buruzko azalpena amaitzeko, bi puntu hauei heldu behar diegu: batetik, lege-foruen aplikazioan erabiltzen den froga-printzipioa, eta bestetik, horren tratamendu prozesala. Azal ditzagun bi horiek.

Aipatutako lurralde-eskuduntza zehazten duten arau horiek guztiak egitatezko baldintza batetik abiatuta finkatzen dute eskuduntza. Esate baterako, sozietatearen erabakiak aurkaratzeari dagokionez (balizko egitatea), sozietatearen egoitzako auzitegia izango da eskuduna (eskuduntza finkatzea) (PZLren 52.10 art.). Horren harira, guztiz logikoa denez, demandatzailea edo auzi-jartzailea izango da demanda epai-organo jakin baten aurrean jartzean lurralde-eskuduntza zehazten duena. Baina nola jakin dezakegu hark lurralde-eskuduntzari buruzko arauak errespetatu dituen? Froga-printzipioaren kontzeptua agertzen zaigu: aplikatu den lurralde-eskuduntzako arauaren balizko egitatea itxuraz gertatu dela frogatzen duten dokumentuak eskatzen dira (idatzizko idazkiak). Egitate horiek itxuraz benetakotzat joko dira, baldin eta demandatuak deklinatoriaren bidez horien kontra egiten ez badu. Horri, auzitegien hizkeran, *egitateak onespenez finkatzea* esaten zaio.

Eta, azkenik, zein da lurralde-eskuduntzaren tratamendu prozesala? Logikoa denez, eskumen hori nahitaezko arauen bitartez (*ius cogens*, ordena publikokoak edo inperatiboak) zehazten denean, horien kontrola ofizioz egiten da, eta arau xedagarrien bidez finkatzen da, alderdiek hala eskatuz gero. Puntu horretan, ofiziozko kontrola aztertuko dugu; deklinatoria aztertzean emango dugu arau xedagarrien kontrolari buruzko azalpena.

Lurralde-eskumena zehazten duten arauen ofiziozko kontrola demanda aurkeztu ondoren eta hura onartu aurretik egin ohi da (PZLren 58., 404. eta 440. artikulua); hala ere, posible da epaiketa aurreko entzunaldian (PZLren 416.2 art.), ikustaldian (PZLren 443.2 art.) edo epaian bertan egitea. Aurretik behin baino gehiagotan esan dugunez, epai-organoak eskuduntzari buruzko adierazpena egin baino lehen (zentzu positiboan zein negatiboan), Ministerio Fiskala eta prozesuan bertaratutako alderdiak entzun behar ditu. Epai-organoak erabakitzen badu bera dela eskumenduna, lurraldeari dagokionez, demanda onartuko du auto baten bidez, edo, hala dagokionean, entzunaldiak edo ikustaldiak aurrera jarraitzeko agindua emango du. Kontrako erabakia hartu eta bere burua eskumenik gabekotzat aitortzen badu (*lurralde-eskumenik ezaren ondorioz, eskumena baliatzeari uztea* deritzona), hori adierazten duen auto batean zehaztuko du zein den, bere ustez, organo eskuduna. Kasu horri buruz bi zehaztapen egin behar dira. Batetik, gerta liteke kasuan aukerazko foruak aplikatu ahal izatea. Kasu horretan demandatzaileak diotenaren mende egongo da auzitegia (PZLren 58. artikulua). Bestetik, bere burua eskumenik gabekotzat aitortu eta eskumena beste auzitegi batek duela esan ondoren, bigarren auzitegiak errespetatu egin beharko du lehenak esandakoa, eta ezin aitortuko du bere burua eskumenik gabekotzat. Salbuespen gisa, bigarren jurisdikzio-organoak bere burua eskumenik gabekotzat aitortu ahal izango du, baldin eta lehenengo organoak, izapideak helarazi dizkionak alegia, bere burua eskumenik gabekotzat aitortzean ez baditu alderdiak entzun, eta betiere lurralde-eskuduntzaren arauak nahitaezkoak badira. Baldintza horiek guztiak beteko balira, bigarren epai-organoak ere bere burua eskumenik gabekotzat aldarrikaturik, eta eskuduntzarik eza adierazten duen autoan lurralde-eskuduntzari buruzko gatazka negatibo bat dagoela jakitun, aurrekari guztiak bi organo horien gaineratik dagoen auzitegi komunari helarazteko aginduko du. Gatazka negatiboaren alderdi diren bi epai-organo horien gaineko organoak lurralde-eskuduntza bietariko zeini dagokion erabakiko du, errekurtsorako aukerarik gabe (PZLren 60.3 art.).

1.5. Deklinatoria

Aurreko puntuan esan bezala, lurralde-eskuduntza zehazten duten arauak xedagarriak direnean (ordena publikoaren izaera edo *ius cogens* izaera ez dutenak), horiek ez betetzea edo errespetu falta sala dezakete, lurralde-eskuduntza deklinatoria bidez aurkaratuz, demandatuak eta prozesuan alderdi legitimoa osa dezaketenek, hiru kasutan: 1) hasieran demandatuak izan ez diren subjektuak (PZLren 13. art.); 2) eragindako partaidetza (PZLren 14. artikulua); eta 3) auzian demandatu gabeko beharrezko auzikideak (PZLren 420. art.).

Horrez gainera, eta ikusi dugunez, jakin badakigu deklinatoriaren bidez lurralde-eskuduntza –aipatutako baldintzetan– ez ezik, honako beste hauek ere aurkara daitezkeela:

- a) Auzitegiaren jurisdikzioa, demandatuak auziaren ardura atzerriko auzitegiei (edo arbitraiari) dagokiela uste duelako (PZLren 63., 416.2, 443.2 artikulua).
- b) Auzitegiaren eskuduntza orokorra, demandatuak auziaren ardura beste jurisdikzio-ordena bati (edo tartekaritzari) dagokiola uste duelako (PZLren 63. art.).
- d) Eskuduntza objektiboa (PZLren 49., 63. eta 416.2 artikulua).
- e) Eskuduntza funtzionala (PZLren 63.1 eta 416.2 artikulua)

Baina deklinatorian sakonduz, nola baliatzen dira alderdiak eskuduntzari buruzko salaketa egiteko baliabide horretaz? Zer jurisdikzio-organoren aurrean egin dezakete salaketa? Kasuaz arduratzen ari den epai-organismoaren beraren aurrean aurkezten da deklinatoria, demandatuak jurisdikziorik edo eskumenik eza dagoela uste duenean. Demandatuaren bizilekuari dagokion auzitegian ere aurkez daiteke; halakoetan, epai-organo horrek demanda jarri den epaitegiari jakinaraziko dio, komunikazio-biderik azkarrena erabiliz, deklinatoria aurkeztu eta hurrengo egunean izapideak hari ofizioz igortzeko kalterik gabe (PZLren 63.2 art.).

Noiz aurkeztu behar da deklinatoria? Epaiketa arruntean, demandari erantzuteko epeko lehen 10 egunetan, eta, ahozko epaiketan, ikustaldiko zitazioa jaso ondorengo 5 egunetan.

Deklinatoria jasotzen duen idazkiari jurisdikziorik edo eskumenik ezaren oinarri diren froga-printzipioak edo froga-dokumentuak erantsi behar zaizkio (PZLren 65.1 art.). Deklinatoria aurkeztu ondoren, eten egingo dira, hura ebatzi arte, prozedura nagusiaren bilakaera, erantzuteko epea edo ikustaldi-egunerako zenbaketa (PZLren 64.1 art.). Gainera, epaileak froga ziurtatzeko eta kalteak ekiditeko, bestelako kautela-neurriak erabaki ditzake; azken horiei dagokienez oinarririk gabeko deklinatoriari erantzuteko bermea eman denean izan ezik (PZLren 64.2 art.).

Izapideei dagokienez, deklinatoriaren idazkia gainerako auzilariei igorriko zaiela. Horiek 5 eguneko epea edukiko dute auzitegiaren jurisdikzioa edo eskumena defendatzeko, beharrezko alegazioak egin eta nahi dituzten frogak aurkezteko.

Garrantzizkoa da azpimarratzea lurralde-eskuduntzari dagokionez, auzi-jartzaileak deklinatoria aurkaratzen badu, demandatuak defendatzen duen auzitegiaren lurralde-eskumenaren kontra aurkara dezakeela (PZLren 65. art.).

Edonola ere, auzitegiak, bestelako izapiderik gabe, 5 eguneko epean ebatziko du deklinatoria (PZLren 65.1 art.), auto baten bitartez. Honako emaitza hauek izan ditzake ebazpenak:

1. Deklinatoria gaitzestea edo ezestea: kasu horretan, ohiko izapideak egingo dira.
2. Espainiako auzitegien jurisdikziorik eza salatzen duen deklinatoria onartzea: kasu horretan, auzitegiak uko egingo dio gaia erabakitzeari, eta prozesua artxibatu egingo da (PZLren 65.2 art.).

3. Liskar juridikoa tartekaritzapean dagoela salatzen duen deklinatoria onartzea: kasu horretan ere, uko egingo dio erabakitzeari, eta prozesua artxibatu egingo da (PZLren 65.2 art.).
4. Eskumen orokorrik eza alegatzen duen deklinatoria onestea: auzitegiak kasuari buruzko erabakia emateari uko egingo diola adierazten duen autoan adierazi beharko die alderdiei beren liskarra zer jurisdikzio-ordenatan aurkeztu behar duten (PZLren 65.3 art.).
5. Eskuduntza objektiborik eza salatzen duen deklinatoria onartzea: kasu horretan, aurrekoak bezala, ondorio horiek eskuduntza funtzionalari dagokionez ere aplikatu daitezke.
6. Lurralde-eskuduntzarik eza salatzen duen deklinatoria onestea: epaitegiak kasuaz erabakitzeari uko egin eta ordura arteko jardunak bere ustez eskuduna den auzitegiri bidaltzea aginduko du. Zein izango da epai-organo eskuduna? Nahitaezko lurralde-eskuduntzari dagokionez, legeak dioenaren mende egongo gara. Lurralde-eskuduntza xedagarriari dagokionez, berriz, demandatuak (edo deklinatoriaren bultzatzaileak) adierazitako epai-organoa hartuko da eskuduntzat, auzi-jartzaileak azken horren eskuduntza ere zalantzan jarri eta beste epai-organo baten eskumena aldarrikatze duenean izan ezik.

1.6. Auzien banaketa.

Aurreko irizpide guztiei jarraituz, epai-organo jakin bat zehaztea eta identifikatzea lortu badugu ere, gerta liteke herri batean mota horretako epaitegi bat baino gehiago egotea (adibidez, lehen auzialdiko epaitegietan, edo probintziako audientzia batek liskarraz arduratzeko sekzio eskudun bat baino gehiago dituen...); testuinguru horretan, auzien banaketa zehazten duten arauak aplikatuz lortuko dugu kasu jakin bati buruz zer epai-organoak erabaki behar duen. Kontrakoa gertatuz gero, alegia herri batean mota jakin bateko epaitegi bakar bat egonez gero, arau horiek ez dute ez garrantzirik ez aplikaziorik izango (PZLren 68.1 art.).

Banaketa-arauak Justizia Auzitegi Nagusiko gobernu-aretoak edo gobernu-salak onartzen ditu, Epaeleen Batzarraren proposamenari jarraituz eta eman beharreko publikitatea emanda (BJLOren 152.2.1, 159.2 eta 170.1 artikulua).

Arau horiek gobernu-eginkizuna dute, eta lana zentzuz banatzeko helburua dutenez, EKren 24.2 artikulua aintzatesten duen legeak zehaztutako epailea edukitzeko eskubidearen barruan koka ditzakegu. Horregatik, horiek urratzeak ondoren egindako guztia deuseztatzea dakar berarekin, alderdien eskariz (PZLren 68.2 eta 68.4 artikulua). Izan ere, banaketa-eginbidea da epaile dekanok idazki bat aurkezten zaionean egin beharreko lehen jarduera; horretarako, 2 eguneko epea emango zaio (PZLren 69. art.). Halakorik egin ezean, ezingo da auzia bideratu (PZLren 68.2 art.).

Arau horien azterketa bukatzeko, kontuan hartu behar dugu epaile dekanok eta auzitegi eta audientzietako presidentek banatu gabeko auzietan premiazko neurriak har ditzaketela, alderdiek hala eskatuz gero, baldin eta horrela egin ezean eskubide-urratze larri eta konponezina sor badaiteke (PZLren 70. art.).

2. KAPITULUA: ALDERDIAK ETA BEREN GAITASUNAK.

2.1. Alderdia eta hirugarren prozesala. Kontzeptuak. 2.2. Alderdien gaitasuna: alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala. 2.3. Gaitasuna finkatzean sortzen diren kasu bereziak. 2.3.1. Ondasun-erkidegoa. 2.3.2. Nortasunik gabeko batasunak. 2.3.3. Erkidego irregularrak. 2.3.4. Ondare autonomoak. 2.3.5. Taldeak. 2.4. Gaitasunaren tratamendu prozesala.

2.1. Alderdia eta hirugarren prozesala. Kontzeptuak.

Jakina denez, prozesuan, alderdikieriarik gabeko epaile batek ez ezik, bi subjektu partzialek ere parte hartu behar dute, alderdiek alegia. Prozesuko alderdiak dira epai-babes eraginkorra eskatuz epai-organoaren aurrean uzia jartzen duen pertsona (edo pertsonak) –*demandatzaile*, *auzi-jartzaile* edo *aktore* esaten zaio– eta uzi horren eskaeraren pairatzailea (edo pairatzaileak), *demandatua* alegia.

Alderdien kontzeptu horren inguruan hainbat zehaztapen egin behar dira:

1. Alderdiak, oro har, harreman juridiko material baten titular dira (demagun salerosketa-harreman batena), eta harreman horren inguruan liskarra sortuz gero, prozesura jotzen dute eta prozesuko alderdi bihurtzen dira. Hala ere, horrek ez du zertan horrela izan beti: norbaitek uzi bat jartzean urratutako eskubide baten titularra dela baieztatzean jartzen da prozesua abian. Posible da baieztapen hori gezurra izatea, akatsen bat egotea,... Eta gerta liteke, bestalde, harreman juridiko material baten titularra ez den norbaitek prozesua hastea. Hortik ondorio nagusi bat atera behar dugu: prozesuko alderdien kontzeptua soilik prozesala da, zuzenbidearen eremu adjektibo edo formalean kokatzen dena.
2. Alderdiei *dominus litis* deritze, latinez, hau da, prozesuaren ondoriozko harreman prozesalen titularrak. Prozesuaren ondoriozko zama, betebeharrak, erantzukizun eta onurek zuzenean eragiten dieten pertsonak dira.
3. Prozesuko alderdiak demandan zehazten dira: horretan adieraziko da nork jartzen duen demanda eta noren kontra. Hala ere, posible da prozesuan zehar beste pertsona batzuk agertu eta prozesuko alderdi bihurtzea, hau da, auzi-jartzaile edo demandatu bihurtzea.
4. Auzi-jartzaileek edo demandatzaileek eta demandatuek ez dute izen bera prozesuaren fase eta une guztietan: errekurtsogilea eta alderdi errekurritua izango dira, edo apelatzailea eta apelatua, edo betearazlea eta betearazia...
5. Ezinbestekoa da prozesuko posizioaren (posizio-bitasunaren printzipioa) eta prozesuko alderdiaren arteko bereizketa egitea. Jakina denez, borondatezko jurisdikzioan ez bezala, prozesuan bi posizio –eta bakarrik bi– daude beti, eta nahitaez gainera (aktiboa eta pasiboa, epai-babesa nork eskatzen duen eta babes hori nori

eskatzen zaion), baina horietako bakoitzean prozesuko alderdi bat baino gehiago ari daitezke; horixe da *litiskonsortzio* edo *auzikipidetza* izeneko fenomenoak.

Prozesuko alderdiaren kontzeptu horretatik abiatuta, eta baztertze-eragiketa bakuna aplikatuta, alderdi prozesal ez den oro da hirugarren prozesal. Gizartea osatzen dugunok, edozein prozesutan, bi jarrera horietako bat baino ezin dugu hartu, eta horren arabera alderdi edo hirugarren izango gara.

2.2. Alderdien gaitasuna: alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala.

Jurisdikzio-zuzenbidearen eremuan alderdien gaitasuna aipatzen dugunean, edozein prozesutan oro har alderdi nor izan daitekeen adierazi nahi dugu, prozesuari buruzko aipamen zehatzik egin gabe. Hau da, zuzenbide zibilean *gaitasun juridikoa* deritzona. Horren harira, bi kontzeptu hauek bereizi behar ditugu: alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala.

Alderdi izateko gaitasuna prozesutik eratortzen diren eskubide, zama eta betebeharren titular izateko gaitasuna da. Pertsona fisikoek alderdi izateko duten gaitasuna PZLren 6.1 artikuluan jasotzen da. Edozein emakume eta gizonek dute, pertsonak direla abiapuntutzat hartuta, alderdi izateko gaitasuna, jaiotzen direnetik hil arte (KZren 29., 30. eta 32. artikulua). Horri buruzko bi zehaztapen: batetik, alderdi izan daiteke *nasciturus* delakoa, hau da, ernaldia baino ez jaioa, onuragarri izan dakizkiokeen ondore guztietarako (PZLren 6.1.2 art.); bestetik, hildako bat ezin izan daiteke ez demandatzaile ez demandatu. Hala ere, prozesuan zehar alderdietako bat hilez gero, ez da prozesua ezinbestez amaitzen. Ikusiko dugunez, oinordetza prozesala gerta daiteke; izan ere, KZren 661. artikulua dioenez, oinordekoak bere gain hartzen ditu hildakoaren eskubide eta betebeharrak, eta ondorioz, baita prozesua bera ere.

Pertsona juridikoei dagokienez, horiek prozesuko alderdi izateko gaitasuna PZLren 6.1.3 artikuluan eta KZren 38. artikuluan aintzatesten da. Azken horrek dioenez “Pertsona juridikoei mota guztietako ondasunak eskuratu eta eduki ditzakete, baita betebeharrak beren gain hartu eta akzio zibil eta kriminalak egikaritu ere, beren konstituzioaren lege eta arauen arabera”. Aipatutako eraentza hori mota orotako pertsona juridikoei aplikatu dakieke (enpresak, erakundeak, sindikatuak,...).

Gaitasun prozesalaren eremuan (*prozesuan jarduteko gaitasuna* esapideaz ere ezagutzen da), egintza prozesala baliozkotasunez egiteko gaitasuna da; prozesuan agertzeko gaitasuna, alegia. Beste era batera esanda, epai-babes eraginkorra lortzeko egin beharrekoak egiteko gaitasuna da.

Zuzenbide zibilean gaitasun juridikoa –eskubide eta betebeharren titular izateko gaitasuna– aintzatesten zaion pertsona orok ez du beti jarduteko gaitasuna, eta, era berean, zuzenbide jurisdikzionalan alderdi izateko gaitasuna duten guztiak ez dute gaitasun prozesala edo jarduteko gaitasuna. Azken hori argitzeko, pertsona fisiko eta juridikoen arteko aldeak aztertu behar ditugu. Lehenengoei dagokienez, PZLren 7.1 artikulua dioenez, epaiketan aurkez edo ager daitezke beren eskubide zibilen egikaritza osoa duten pertsonak. Arau hori KZrekin batera interpretatuz gero, epaiketa bidez aitortutako ezgaitasunen bat ez duten adin nagusiko guztiak dute gaitasun hori. Horren harira hiru zehaztasun egin behar dira:

1. PZLren 7.2 artikulua dioenez, bere eskubide zibilen egikaritze osoa ez duten pertsonak, ordezkari bitartez, edo legeak galdatutako laguntza, baimen, gaikuntza edo defendatzaile lagun, agertu eta arituko dira prozesuan.

Esan bezalaxe, adindunek dute beren eskubide zibilen egikaritze osoa (EKren 12. artikulua eta KZren 322. eta 315. artikulua). Adingabeen ordezkari, guraso-ahala duten gurasoak arituko dira, ahal hori biek egikaritzen badute, edo horietako batek, bestearen esanbidezko edo isilbidezko baimenarekin. Guraso-ahalik ez bada, tutorea agertu eta arituko da epailearen aurrean (PZLren 7.2 art.). Jaio ez direnen ordezkari, jaiota egonez gero haien ordezkari lirakeenak arituko dira (PZLren 7.3 art.).

2. Adinduna gai dela hartzen da oinarri, eta ezgaitasuna xahutzea barne epai bitartez finkatu behar da (KZren 199. art.), epai horrek ezgaitasunaren hedadura eta mugak eta ezgaitua eraenduko duen tutoretza edo zaintza adieraziko ditu (PZLren 760. artikulua eta KZren 222. eta 287. artikulua).

Tutoreak ezgaitua legez ordezkatzeko badu ere –haren borondatea ordezkatzeko–, epailearen baimena beharko demanda egin ahal izateko.

3. Adingabeari edo ezgaiari legezko ordezkari izendatu ez bazaio (oraindik tutoretza osatu ez delako, adibidez), Ministerio Fiskalari dagokio hura ordezkatzeko eta haren alde egitea, defendatzaile judizial bat izendatu bitartean (PZLren 8. art.). Defendatzaile judiziala, aldiz, ordezkari legala izendatu bitartean arituko da.

Pertsona juridikoen jarduerak arazo gutxiago sortzen ditu. Balioz eratutako pertsona juridiko guztiak prozesuan aritzeko gaitasuna dute. Kasu horretan, horien ordezkariaren arazoa sortzen zaigu. Esate baterako, Eroski pertsona juridikoa, berez erakunde ideal bat izanik, ezin da prozesuan aurkeztu eta aritu. Beraz, nor aurkeztu eta arituko da haren ordezkari? Haren ordezkari diren pertsona fisikoak (PZLren 7.4 art.).

2.3. Gaitasuna finkatzean sortzen diren kasu bereziak.

Aurreko kasuan pertsona fisiko eta juridikoen gaitasunaz mintzatu gara, baina bi horiek ez dituzte errealitatean sortzen diren prozesu-subjektu guztien errealitatea bere baitan hartzen; izan ere, tarteko kasu asko baitaude, alegia pertsona fisikoa baino zerbait gehiago izan baina pertsona juridiko ez diren kasuak: ondasun-erkidegoak, nortasunik gabeko baltzuak, baltzu irregularrak, ondare autonomoak eta taldeak.

2.3.1. Ondasun-erkidegoa.

Betidanik esan izan da gaitasunik ere ez duela, existitzen ez den erakunde kolektiboa denez, nortasun juridikorik ez duenez. Hala ere, praktikan, ondasun-erkidegoak demandatu egiten du, eta demandatzaile-rola hartzen du; hortaz, erkidegoko kideei erkidegoaren ordezkari aritzeko gaitasuna aintzatesten zaie, beren onurarako den guztian. Dena dela, arazoa ez da gaitasunari buruzkoa, baizik eta legitimazioaren alorrekoa, erkidegoko kideei aritzeko legitimazioa aintzatesten zaielako. Kontrako kasuan, ondasun-erkidegoaren kontrako demanda denean, erkidegoko kide guztiak izango dira demandatuak; kontuz ari gara. Doktrinan horri buruzko eztabaida ugari izan dira, halere.

Ondasun-erkidegoen barruan, aipamen berezia egin behar diegu jabeen erkidegoei. Ondasun-erkidegoak direnez, nortasunik gabeko ondasun-erkidegoak dira, baina beren lege arautzaileak (Jabetza Horizontalaren 49/1960 legea, apirilaren 6ko 8/1999 legeak aldatua) argi eta garbi adierazten du jabeen erkidegoak bere zorren erantzukizuna duela hirugarrenen aurrean, bere aldeko funts eta kredituen bitartez (goian aipatutako legearen 22.1 artikulua); erkidegoaren inguruko gaitan, bertako presidenteak izango du haren ordezkari, epaiketetan eta epaiketetatik kanpo (goian aipatutako legearen 13.3 art.), eta, bide judizialean, erkidegoaren gastuen ordainketa galdatu ahal izango duela (goian aipatutako legearen 21.1 art.). Eraentza horretatik ondoriozta daitekeenez, erkidegoari berari jarduera prozesalak egiteko gaitasuna aintzatesten dio legeak. Ondorio hori PZLren 6.1.5 artikulua berresten du. Horren esanetan, auzitegi zibilen aurreko prozesuetan, nortasun juridikorik ez duten entitateak alderdi izango dira, baldin eta legeak alderdi izateko gaitasuna aitortzen badie.

2.3.2. Nortasunik gabeko batasunak.

Eguneroko bizitzan, askotan, pertsonak aldi baterako elkartzen dira xede jakin bat lortzeko; horretarako, egintza eta jarduera juridikoak egin behar dituzte. Eman dezagun, karrera bukaerako bidaia prestatzeko talde bat sortzen dela, edo hamarkada jakin batean jaio ziren pertsonen omenaldia egiteko talde bat eratzen dela... Talde horiek ez dute inolako nortasun juridikorik, legeak ere ez baitie horretarako beharrik aintzatesten. Hala ere, egia da talde horiek kontratuak egiten dituztela beste pertsona fisiko zein juridikoekin dituzten harremanetan, eta horietan liskarrak sor daitezkeela. Kasu horretan, eta auzibidera joz gero, gaitasunaren inguruko arazoak sortzen dira. Praktikan, talde horretako kide guztien kontra jotzen du demandak, askotan, beraien arteko barne harremanak edozein direla ere; baina hori ez da beti posiblea. Ildo horretatik, jurisprudentziak talde edo nortasunik gabeko batasun horiei alderdi izateko gaitasuna aintzatsi die, betiere argi utzita haietan jardun dutenek balizko epaiketetan nortasun gabeziarik alegatu ezin dutela.

Zer dio horiei buruz gaur egungo PZLren araudiak? 6.1.5 artikulua dioenez, alderdi izan daitezke legeak gaitasun hori aitortzen dien nortasunik gabeko entitateak. Beraz, PZLk, prozedura zibila arautzen duen lege nagusiak, eta Espainiako ordenamendu juridikoko arau prozesal guztien ordezkari legeak (PZLren 4. art.), beste lege batzuen esku uzten du elementu juridiko garrantzitsu horren identifikazioa. Zalantzarik gabe, gertaera arras kritikagarria da. Ildo beretik, PZLren 7.6 artikulua dioenez, nortasunik gabeko entitateak epaiketetan aurkeztu eta arituko dira, legeak kasuan-kasuan ordezkarietarako eratziki dien pertsonen bitartez.

2.3.3. Erkidego irregularrak.

Erkidego irregulartzat jotzen dira legeak galdatutako betekizunak ez betetzeagatik nortasun juridikorik bereganatu ez dutenak, nahiz eta iraunkorrak izan. Esate baterako, ezkutuko erkidego zibilak (KZren 1669. art.), erkidego zibil irregularrak (KZren 1667. art.) edo merkataritza-erkidego irregularrak (MKren 119. art.). Horiek guztiei PZLren 6.2 artikulua aintzatesten die demandatu gisa alderdi izateko gaitasuna. Baina demandatzaile gisa ere aritu ahal izango dira; izan ere, erritu zibila arautzen duen legeak dio epaiketetan agertuko direla, egitez zein erakundearen erabakiz, hirugarrenen aurrean erakunde horren izenean diharduten pertsonak (PZLren 7.7 art.).

2.3.4. Ondare autonomoak.

Zer dira ondare autonomoak? Nahiz eta titularrik gabeko ondasunik ez egon, batzuetan, erdibideko zenbait egoera gertatzen dira. Esate baterako, jatorrizko titulartasuna iraungi ondoren, eskuratu gabeko ondasunak (oinordetzaren kasua) edo ondasun batzuen titularrek horien gaineko xedapen-boterea galtzen dutenean (lehiaketaren eta porrotaren masa aktiboen kasua). Testuinguru horietan ari gara ondare autonomoz; legeak berariaz arautzen du horien portaera prozesala. Horrekin batera, ondareari berari alderdi-izaera aintzatesten zaio, eta haren ordeztarituko dira, oinordetza kasuan, administratzailea (PZLren 798. art.), oinordekoak edo testamentu-betearazleak (KZren 901. art.), kasuan-kasuan, alderdi aktibo edo pasibo gisa. Lehiaketa-masen kasuan, haien ordeztaritu lehiaketa-administrazioak aritu dira prozesuan.

2.3.5. Taldeak.

BJLOren 7.3 artikulua harira, talde-interesaren defentsarako, ukitutako talde horiei aintzatsiko zaie legitimazioa, eta zehazki, beren zuzendaritza-organismoari. Horren adibide dira, besteak beste, kutsatutako olio batek kalte egin dion talde bat edo akatsa duen sakelako telefono bat erosi duten ehunka lagunek osatutako taldea. Talde horiek nortasunik gabeko batasunen eskema berari jarraitzen diete, baina legeak berariaz prozesuan aritzeko legitimazioa –eta, beraz, gaitasuna– aitortzen die. Hain zuzen ere, PZLren 6.1.7 artikulua kalteak sortu dituen egitate baten eragina pairatu duten kontsumitzaile eta erabiltzaileen taldeei alderdi izateko gaitasuna aintzatesten die, talde hori osatzen duten norbanakoak zehaztuta daudenean edo erraz zehatz daitezkeenean. Gainera, artikulua horrek dioenez, era horretako taldeek demanda jarri ahal izateko, ukitutako gehienek izan beharko dute taldeko partaide.

Entitate horien ordeztaritu, epaiketaren agertutako dira, egitez zein erakundearen erabakiz, hirugarrenen aurrean erakunde horren izenean diharduten pertsonak (PZLren 7.7 art.). Beraz, lehen aipatu dugun BJLOren agindua kontsumoaren eremura mugatu du PZLk, eta gainerako kasuetan beste ordeztaritu era batzuetara jo beharko da.

2.4. Gaitasunaren tratamendu prozesala.

Prozesu zibilean, alderdiek ez dute frogatu behar epaiketaren aritzeko gaitasuna badutela. Horregatik, pertsona bat prozesuan era desegokian aurkezten edo aritzen bada (beharrezko ordeztarituen gabe, edo legeak galdatutako laguntza, baimen, gaikuntza edo defentsarik gabe), beste alderdi prozesala izango da akats hori –alegia, gaitasunik eza–, alegatu eta frogatu beharko duena. Hala ere, epaileak ere gaitasunik eza aintzat har dezake, ofizioz (PZLren 9. art.). Horregatik esaten da gaitasuna prozesuaren baldintza dela.

Pertsona fisiko bat beste pertsona fisiko edo juridiko baten ordeztaritu bada, orduan, ordeztarituen frogatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Halakoetan, bai alderdiak bai epaileak alegatu ahal izango dute ordeztarituen eza.

Noiz alegatu behar dute alderdiek gaitasunik eza? Demandatzaileak epaiketaren aurrean, epaiketaren aurreko entzunaldian eta ahozko epaiketaren, ikustaldian, salatutako du gaitasunik edo ordeztarituen eza. Demandatua, aldiz, demandaren erantzunaz baliatutako da salaketa hori egiteko. Epaileak, azkenik, hiru unetan aintzat har dezake gaitasunik eza: demanda onartzean (alderdi izateko gaitasunik edo gaitasunik prozesalirik ez egonez gero,

epaileak auto baten bidez adieraziko du ez duela demanda onartuko. Pertsona fisiko edo juridikoaren ordezkari frogatzen duen dokumentua faltatuz gero, epaileak dokumentu hori eskatuko du eta hori aurkeztu ezean prozesuari amaitzeko autoa emango du), epaiketa arrunta bada, epaiketa aurreko entzunaldian, eta ahozko epaiketa bada, ikustaldian; eta, azkenik, beste edozein unetan, epaia barne.

3. KAPITULUA: LEGITIMAZIOA.

3.1. Legitimazioa: kontzeptua, motak eta tratamendu prozesala. 3.2. Alderdi-aniztasuna edo pluraltasuna, prozesuko fenomeno gisa. 3.2.1. Beharrezko auzikidetzak. 3.2.2. Balizko alderdi aniztasuna edo behin-behineko alderdi-aniztasuna. 3.3. Partaidetza eraginaren kasuak. 3.4. Prozesuko oinordetza.

3.1. Legitimazioa: kontzeptua, motak eta tratamendu prozesala.

Legitimazioak prozesu jakin bati egiten dio erreferentzia, eta uzia edo pretentsioa nork eta noren kontra jarri behar duen finkatzen du; beste era batera esanda, nork izan behar duen demandatzaile (legitimazio aktiboa) eta nork demandatu (legitimazio pasiboa), epaileak mamiarri buruz erabaki dezan.

Nahitaezkoa deritzogu legitimazioaren eta gaitasunaren arteko bereizketa behar bezala egiteari. Bigarrenak, edozein prozesutan, edo prozesuan oro har, alderdi nor izan daitekeen adierazten du, eta legitimazioak kasu eta prozesu jakin bakoitzean alderdiak nor izan daitekeen identifikatzen du.

Legitimazioaren kontzeptua ulertzeko, ezinbestekoa da alderdi materiala eta alderdi prozesala bereiztea. Izan ere, bi horiek bat etor daitezke edo ez.

Alderdi materialak prozesuan ebazten ari den harreman juridiko materialaren titularrak dira. Badakigu harreman materialak zuzenbide substantiboan arautzen direla. Adibidez, Ak eta Bk egiten duten salerosketa baten ondoriozko harremanak materialak dira. Salerosketa hori KZk arautzen du. Kontratu horren gainean liskarrik sortuz gero, auzibidera jo daiteke gaztaka konpontzeko. Aldiz, alderdi prozesalak prozesuan agertzen direnak dira. Gerta liteke, noski, Ak eta Bk auzibidera jotzea; hala gertatuz gero, alderdi materialak eta prozesalak bat datoz. Hala ere, litekeena da A zundu izatea eta haren seme-alabek jotzea auzibidera. Balizko egoera horretan, alderdi materialak eta prozesalak ez datoz bat.

Testuinguru horretan, legitimazioa alderdi materialen eta prozesalaren arteko harremana azaltzeko tresna da: alderdi prozesal izango dira era aktiboan (demandatzailea) nahiz pasiboan (demandatua) legitimatuta dauden alderdiak.

Aurrekoaren harira, bi legitimazio mota bereizi behar ditugu: legitimazio arrunta eta ezohikoa (edo legitimazio berezia). Bi horien azalpenak, duda izpirik gabe, legitimazioaren fenomenoak ulertzen lagunduko digu. Ekin diezaigun, bada.

Legitimazio arruntaren esparruan, legitimazio aktiboa dute urratu den edo bete ez den eskubide subjektibo material baten titular direla baieztatzen dutenek; eta legitimazio pasiboa dute, aldiz, aktiboki legitimatuta daudenean betebeharraren titular gisa identifikatzen dituztenak. Aukera-printzipioaren isla zuzena dugu hori. Horren harira, EKren 24. artikulua ekarri behar dugu gogora, agindu horrek epai-babes eraginkorrerako eskubidea pertsona guztiei "beren eskubide eta interes zilegien

egikaritzan” aintzatesten baitie. Ildo beretik, PZLren 10. artikulua baieztatzen du “Alderdi legitimoak izango dira epaiketara agertu eta bertan auzipeko harreman juridikoen edo auzigaiaren titular gisa dihardutenak”.

Era berean, legitimazio arrunta bi eratakoa izan daiteke: jatorrizkoa eta eratorria. Jatorrizko legitimazio arrunta da, alderdiak, demandatzailea bera eta demandatua, eskubide subjektiboaren eta betebeharraren (hurrenez hurren) jatorrizko subjektuak direla baieztatuz, prozesuan agertzea eta aritzea. Aldiz, demandatzaileak baieztatzean alderdietako bat, bai bera bai demandatua, prozesuan jatorriz beste bati zegokion eskubide subjektibo edo betebeharraren baten titulartasuna harengatik bereganatu ondoren aurkezten eta aritzen dela, eratorritako legitimazio arruntaren aurrean gaude. Adibide bat emango dugu, ideiak argitzeko: Ak Brekin truke-kontratu bat izenpetu zuela baieztatzen du, baina esaten du Bk ez ziola eman beharreko guztia eman, kontratuaren objektua alegia. Ak Brekin hitzartu zuen truke-harreman juridiko material baten parte dela esanez egiten duen baieztapen hutsari jarraituz, epailea gaiaren mamia aztertzen hasiko da (truke-kontratuaren existentzia, horren inguruko balizko jazoerak,...). Aren lagun mina den X jaunak ezingo du demanda jarri, azken horrek ez dituelako bere interes propioak defendatzen. X jaunak demanda jarritz gero, epaileak X hori legitimazio aktiborik gabe diharduela adierazi beharko dio, eta liskarraren mamian edo hondoan sartu gabe, eta auzialdian, absoluzioa eduki prozesal hutsezko epaia emango du.

Legitimazio arruntarekin bukatzeko, azken aukera aurkeztu behar dugu: zenbait kasutan, legitimazio hori ezin da oinarritu demandatzaileak egindako eskubide subjektibo baten titulartasunaren eta demandatuari egozten dion betebeharraren titulartasunaren baieztapenean, batik bat eskubide edo betebeharr horiek existitzen ez direlako. Pentsa dezagun ezkontza deuseztatzeko kasuetan (KZren 74. artikulutik 76.era bitarteko artikulua), dibortzioan (KZren 86. eta 88. artikulua), banaketan (KZren 81. art.), filiazioan (KZren 131. artikulutik 133.era bitarteko artikulua, eta 136., 137., 139. eta 140. artikulua) edo ezgaitasunean (PZLren 759. art.). Kasu horietan legeak berak adierazten du zer posizio hartu behar duen pertsona bakoitzak legitimatuta egoteko.

Legitimazio ezohikoari dagokionez, pertsona bati uzia jartzeko edo uzia pairatzeko legitimazioaren aintzatespena (aktiboa edo pasiboa) dakar, aurretik harreman material baten titulartasuna baieztatu gabe. Kasu horretan, arau prozesalek berek zehazten dute subjektu batzuen legitimazioa, eskubide subjektibo partikular batzuk beste eskubide subjektibo batzuetatik babestuz.

Legitimazio berezi hori PZLren 10. artikuluko 2. paragrafoak aintzatesten du (“Salbuespen gisa hartzen da legeak titular ez denari legitimazioa eratziki dion kasua.”).

Legitimazio ezohikoaren erdua ordezen prozesala da. Ordezpen prozesala (ez nahastu ordezkapen prozesalarekin!) gertatzen da pertsona batek, bere izenean, inolako ordezkapenik gabe, epaiketara hirugarren baten eskubide subjektiboak direla baieztatzen dituen eskubideak egikaritzea. KZn era horretako adibide asko daude: akzio subrogatzailea (KZren 1111. art.: hartzaile bati zordunaren akzioak egikaritzen uzten zaio, eta hartzekodunari ezohiko legitimazioa aintzatesten zaio bere zordunaren zordunen kontra egiteko), edo errentatzaileak azpierreantariari azpierreantamenduan hitzartutako alokairua eskatzeko aukera (KZren 1552. art.); edo mandatzaileak mandatariak izendatutako ordezekoaren kontra egikari dezakeen akzioa (KZren 1722.

art.); edo usufuktudunari usufuktuaren parte diren kredituak galdatzeko aintzatesten zaion akzioa.

Legitimazio bereziko beste kasu aipagarri bat da kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei eta legearen arabera eraturako beste batzuei PZLk aitortzen diena. Izan ere, lege horrek haiei aintzatesten die epaiketan beren kideen eskubide eta interesak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileenak, oro har, defendatzeko legitimazioa. Kaltetuen taldeei eskubide bera aintzatesten zaie (PZLren 11. art.). Doktrinak legitimazio modu horri *zehaztugabeko interesen kasua* esaten dio.

Azkenik, legeak legitimazio berezi hori Ministerio Fiskalari ere aintzatesten dio, interes publikoa kolokan dagoela uste duenean. Era horretara, batzuetan legitimazio aktiboa zein pasiboa dagozkio (KZren 74. eta 75. artikulua eta PZLren 757.2 eta 761.2 artikulua), eta, beste batzuetan, pasiboa baino ez (Erregistro Zibilaren Legearen 50. art.).

Legitimazio mota horien arteko bereizketa egin ondoren, galdera honi erantzun behar diogu: zein da legitimazioaren tratamendu prozesala? Esan dugunez, legitimazioari buruzko arauak arau prozesalak dira, ez materialak. Gainera, badakigu demandatzaileak legitimazio aktiboa eta pasiboa baieztatze hutsarekin auzitegia behartuta dagoela kasuaren ardura hartzera, eta, oro har, ez da demandatzaileak baieztatutako legitimazio horri buruzko frogarik behar, nahikoa da haren baieztapena. Horrek legitimazio arruntarentzat nahiz bereziarentzat balio du.

Hala ere, legeak, zenbait kasutan, legitimazioaren aurretiazko frogak galdatzen du epaileak demanda onar dezan. Ez da harreman edo titulartasun materialik frogatu behar, halere; arau prozesalean zehaztutako legitimazio prozesala baino ez da frogatu behar. Adibidez: PZLren 266.2 artikulua (elikagaien gaineko liskarretan), PZLren 266.3 artikulua (atzera egitean),...

Eta nork salatu behar du legitimaziorik eza? Epaileak ofizioz azter dezake, eta demandatuak ere alega dezake. Legitimaziorik ezaren ondorioa, epailearen eduki prozesal hutseko ebazpena, alegia kasuaren funtsa erabakitzen ez duena, izango da.

Bukatzeko, zehaztuen bat: legitimazioa prozesuaren behin betiko bukaeran finkatuko da, epaiaren bidez; aurretik, demandatzailearen baieztapen huts bat besterik ez zegoen.

3.2. Alderdi-aniztasuna edo pluraltasuna, prozesuko fenomeno gisa.

Prozesu batean, oro har, posizio bakoitzean alderdi bakar bat egonen da. Hala ere, posible da posizio batean edo bitan alderdi bat baino gehiago agertzea. Fenomeno hori aztertuko dugu orain.

Garrantzizkoa da alderdi-aniztasuna eta prozesu-metaketa edo prozesu-pilaketa ongi bereiztea, posizio batean edo bitan alderdi bat baino gehiago ari baitaitezke. Prozesu bakar batean auzi-jartzaile bat baino gehiago edo demandatu bat edo gehiago daudenean, alderdi-aniztasuna dagoela esaten da. Kasu horretan, liskarra eta horren asmoa bakarra da. Asmo hori epaileak epaian erabakiko du, eta epai horrek alderdi guztiei eragingo die. Adibide bat jarriko dugu. Gernikatik Bilborako bidean automobil batek zure automobila jo du, atzetik. Kolpea eragin duen automobilak ez du kalterik,

baina zure automobila txikituta gelditu da, eta zuk lepokoa eraman behar duzu bi hilabetez. Ez zarete ados jartzen automobilaren konponketari eta zure lesioen ordainketari dagokionez, eta, arrazoiz, beste automobilaren jabea epaibidean demandatzea erabakitzen duzu, kopuru horiek ordain diezazkizun. Zuk, demandatzaile gisa –beraz, prozesuaren alde aktibo gisa–, beste automobilaren gidaria eta automobil horren aseguru-etxea demandatuko dituzu. Demandatuaren posizioan bi alderdi ditugu, hortaz: automobilaren jabea eta horren enpresa aseguratzailerak. Kasu hori alderdi-aniztasunaren eredu da.

Aipatutako adibide horretan, bi zehaztasun ulertuko ditugu berehala: batetik, alderdi-aniztasuna legitimazio-aniztasunaren ondorio zuzena da; bestetik, legitimazio-aniztasun horrek ez du esan nahi posizio berean diharduten alderdiek koordinatuta –jarrera bera hartuta– edo bata bestearen mende aritu behar dutenik.

Fenomeno guztiz bestelakoa da prozesuen edo asmoen metaketa. Halakoetan, epai-prozedura bera prozesu bat baino gehiago eta horietako bakoitzari dagozkion uziak bideratzeko tresna bihurtzen da. Kanpoko formari dagokionez, uzi guztiak prozedura bakar batean bideratzen dira. Badakigunez, uzi orok prozesu bati ematen dio bide. Hori horrela izanik, posible da ekonomia prozesalaren aitzakiaz, eta uziek elkarren artean harremana dutelako –inoiz ez legitimazio-aniztasuna gertatzen delako soilik–, prozesu bat baino gehiago eta horiei dagozkien uziak epai-prozedura bakar baten bitartez ebatzea. Prozedura bakar hori epai bakar batez bukatuko da, sententzia horrek prozeduran jorratutako uzi adina pronuntziatzen edo erabaki izan behar baditu ere. Hau da, epaia formalki bakarra bada ere, materialki adierazpen adina epai daudela esaten da.

Prozesu- edo uzi-metaketa adibide bat da zordun beraren kontrako uzi guztiak (beraz, prozesu guztiak) prozedura berean batzea.

Prozesu- edo uzi-metaketa hurrengo gaian landuko dugu sakonago. Oraingoz, gaiari sarrera besterik ez diogu egin, legitimaziotik bereizteko; baina azter ditzagun legitimazio motak.

3.2.1. Beharrezko auzikidetzak.

Beharrezko auzikidetzak, edo nahitaezko alderdi-aniztasuna, da legeak pertsona bati baino gehiagori –ez banan-banan– legitimazio aktiboa edo pasiboa batera aintzatestea. Pertsona horiek guztiak demandatu beharko dute, edo horiek guztiak izan beharko dute demandatuak. Beraz, uzia pertsona horiek batera edo pertsona horien kontra bakarrik jar dezakete. Epaileak adierazpen edo erabaki bakar bat jasotzen duen epai baten bitartez –hau ere bakarra– ebatziko du uzia. Epai horrek bi posizioei eragingo die, edozein dela ere horietan diharduen pertsona edo alderdi kopurua.

Zergatik gertatzen da beharrezko auzikidetzak hori? Erantzun bi daude, bakar batean laburbildu badaitezke ere. Auzikidetzak sortzen da legeak berariaz horrela agintzen duelako. KZren 1139. artikuluan dugu horren adibidea: betebeharrak banaezineki dagokienez, zorra epaibidean galdatzeko nahitaezkoa da zordun guztiei eskaera egitea. Lehenengo arrazoi hori erraz hautematen da. Bigarrena ere erraz ulertzen da: auzikidetzak beharrezkoa da, legeak berariaz eskatu gabe ere, prozesuan erabakitzen ari den harreman juridiko materialak horrela galdatzen duenean. Horren harira, adibidez,

hirugarren batek epaibidera joz gero, ezkontza baten deuseztasuna adierazteko, ezkontide biak demandatu beharko ditu, nahitaez (KZren 74. art.); edo testamentu bat deuseztatzea eskatuz gero, oinordeko guztiak demandatu beharko dira; edo, hirugarren adibide gisa, negozio juridiko bat deuseztatu nahi bada, horren alderdi material guztiak demandatu beharko dira. Beraz, harreman juridiko material batzuen banaezintasuna –legeak horrela irudikatua– da beharrezko auzikidetzaren horien oinarria.

Praktikan, eta zenbait harreman juridiko materialen banaezintasunaren ildotik jarraituz, auzikidetzaren horiek pasiboak izaten dira; hau da, alderdi-aniztasuna demandatuaren posizioan izaten da. Horrela bakarrik azal daiteke PZLren 12.2 artikulua horiei buruz baino ez aritzea (“epaiketaren objektua dela-eta, eskatutako jurisdikzio-babesa subjektu batzuen aurka batera bakarrik eragingarri izan daitekeenean, horiek guztiak auzikide moduan demandatu izan beharko dute, legeak beren beregi besterik xedatu ez badu”). Hala ere, hiru motatako auzikidetzak bereizten dira: aktiboa – auzikidetzaren demandatzailearen posizioan gertatzen denean–, pasiboa, –auzikidetzaren demandatuaren posizioan gertatzen denean–, eta bitarikoa edo mistoa, demandatzaile bat baino gehiago demandatu bat baino gehiagoren kontra ari direnean.

Auzikideen jarduerari dagokionez, eta aipatutako arrazoiagatik auzikidetzaren pasiboa aintzat hartuta, esan dugunez, baterako legitimazioa izateak eta arrazoiz alderdi-aniztasuna gertatzeak ez du esan nahi prozesuan horiek guztiak batera aritu behar dutenik. Posible da guztiak, abokatu eta prokuradore berak defendatu eta ordezkatu aritzea. Baina, orobat, posible da alderdi bakoitzak bere abokatua eta bere prokuradorea izatea, eta bakoitzak bere estrategiari jarraitzea. Hala, auzikide bakoitzak bere alegazio-idazkiak aurkez ditzake, bere frogabideak eskatu, egoki irizten diren errekurtsoak jarri (errekurtsoa auzikide batek bakarrik jarri arren, auzikide guztiak aterako dute onura),... Hori bai, denek batera egin behar dituzte xedapen-egintzak, nahitaez: prozesuaren objektuaren xedapena auzikide orok batera egiten duenean bakarrik izanen da baliozkoa.

Nahitaezko auzikidetzaren pasiboari loturiko arazo bati irtenbidea ematea besterik ez zaigu gelditzen. Zer gertatzen da legeak nahitaezko auzikidetzaren pasibo bat aurreikusirik, demandatu beharrezko guztiak demandatzen ez badira? Akats hori demandatuek zein epaileak berak, ofizioz, sala dezakete. Demandatuek beharrezko auzikidetzaren pasiboaren faltazko salbuespen prozesalaren bitartez alegatuko dute akats hori. Salbuespen hori epaiketa arruntean, epaiketa aurreko entzunaldian (PZLren 416.1.3 eta 420. artikulua), aztertuko du epaileak, eta ahozko epaiketan, berriz, ikustaldian (PZLren 443. art.). Alegazioa onartuz gero, epaileak ebazpen prozesal hutsa emanen du, hau da, ez du kasuaren mamia aztertuko (PZLren 420. art.).

3.2.2. Balizko alderdi-aniztasuna.

Aurreko puntuan auzikidetzaren nahitaezkoa den kasuez aritu gara, baina oraingoan balizko auzikidetzaz jardungo dugu, nahitaezkoa ez den auzikidetzaz. Oro har, hiru kasu daude: kasik beharrezkoa den auzikidetzaren, auzikide erako partaidetza, eta atxikimenduzko partaidetza bakuna. Banan-banan azalduko ditugu, eta, ondoren, azken bi kasuetarako xedapen komunak aipatuko ditugu.

a) Kasik beharrezkoa den auzikidetzatza: kasu honetan, alderdi-aniztasuna jatorrizkoa eta balizkoa da. Jatorrizkoa da, legeak hasieratik beretik aurreikusten duelako, eta balizkoa da, alderdien borondatearen araberrakoa delako.

Legitimazio aktiboa edo pasiboa pertsona bati baino gehiagori dagokie, baina ez nahitaez denei batera. Beraz, auzikidetzatza alderdien borondatearen esku gelditzen da. Alderdi aktibo eta pasibo anitzek erabakiko dute demandatu nahi duten edo ez, baina demandatzea erabakiz gero, batera egin beharko dute. Beste era batera esanda: prozesua ondo egituratuta egonen da, baldin eta, demandatzeko gaitasuna alderdi biri aintzatetsita ere, bakar batek demandatzen badu, edo biek demandatu nahi badute, biek batera demandatzen badute, nahitaez. Betebehar solidarioak dira kasik beharrezkoa den auzikidetzatza kasuaren eredu.

Kasik beharrezkoa den auzikidetzatza horrek eta beharrezko auzikidetzak bi elementu komun dituzte. Batetik, kasu honetan ere uzi bakar bat jartzen da demandatu bakarria nahiz hamaika egon; auzi bakar bat jartzen da abian, eta alderdi guztiengan eragina izango duen epai bakar batez amaituko da. Gainera, auzikidetzatza mota honetan ere, posible da alderdi guztiek jarrera bera ez edukitzea. Dena dela, beste bi elementu dituzte elkarrengandik bereizten dituztenak. Auzikidetzatza honetan (kasik beharrezkoan), alderdi-aniztasuna ez da sortzen harreman juridiko materialak horretara behartzen duelako. Posible da pertsona bakar bat edo gehiago demandatzea, demandatzaileak aukeratutakoaren arabera. Eta bigarren desberdintasuna, ezin daiteke auzikidetzarik ezaren salbuespena kontuan hartu pertsona bat demandatu eta beste bat demandatu ez delako; esan bezalaxe, demandatzailearen esku dago erabaki hori.

b) Auzikide erako partaidetzak jadanik abian den prozesuan ordura arte prozesuarekiko hirugarren izandako bat sartzea dakar. PZLk 13.1 artikuluan aintzatesten du partaidetzatza hori: "Prozesua erabakitzeko dagoen bitartean, demandatzaile edo demandatu gisa onartua izan daiteke auziaren emaitzan zuzenekoa eta legitimoa den interesa egiazta dezakeena".

Kasu horretan, hirugarrenak prozesuan hasieratik bertatik parte har bazezakeen ere, ez du parte hartu, horretara behartuta ez zegoelako (pentsa dezagun kasik beharrezkoa den auzikidetzatza). Hala, prozesuaren une jakin batean bera ere prozesuan ebatzen ari den – jatorrizko alderdiek jardungo dute– harreman juridiko materialaren titularkide dela baieztatzen baldin badu, bere legitimazioa frogatuta geldituko da, eta prozesuko alderdi izango da aurrerantzean. Puntu honetan, garrantzi handiko zehaztapen bat egin behar da: ordura arte hirugarren izan dena prozesuko alderdi gisa arituko da, eta bere eskubideak, eta ez beste inorenak, defendatuko ditu; baina ezin izango du demandatzailearen beste uzirik egikaritu. Xedapen-egintza materialak gauzatu ahal izango ditu.

Auzikide erako partaidetzatza horren eredu dira demandatu ez duen hartzekodun solidarioaren eta hasieratik demanda jarri ez dioten zordun solidarioaren kasuak.

c) Gehitutako partaidetzatza bakunari dagokionez, honetan ere ordura arte prozesuarekiko hirugarren izan den pertsona bat prozesuko parte bihurtuko da, baina ez beste alderdi batzuk prozesuan eztabaidatzen ari diren harreman juridiko material baten titularkide dela baieztatu duelako, baizik eta, harreman juridiko material horren mendekoa den beste harreman juridiko baten titularkide dela esanez, prozesuaren ebatzenak bere harreman juridiko materialean ere eragina izango duela baieztatzen duelako.

Kasu horretan, prozesua ebatziko duen epaiak berari ekar diezazkiokeen kalteak ekidin nahi ditu hirugarrenak. Hirugarrenak ez du parte hartzen alderdietako bat defendatzeko asmoz. Bere interesak defendatzeko xedez parte hartzen du, nahiz eta uzi berririk jarri ez. Prozesuko parte bihurtzen denak ezin du xedapen-egintza materialik egin; hala ere, beste batzuek egindakoak aurkara ditzake.

Partaidetza mota horren adibide da forma-akatsengatik testamentu baten aurkaratzea aztergai duen prozesu batean notario batek izan dezakeen partaidetza. Edo errentatzailearen eta errentariaren arteko prozesu batean azpierreteria bere interesen defentsan agertzea.

Azkenik, gehitutako partaidetza bakun hori eta auzikidetzaren erako partaidetzari aplikatu dakizkiokeen eta PZLren 13. artikulua arautzen dituen bi neurri aipatu behar ditugu. Bi kasu horietan, partaidetza idatziz eskatu behar zaio epaileari, partaidetza horretarako dagoen interesa egiaztatuta. Epaileak aurretik prozesuan ari diren alderdiak entzungo ditu, eta 10 eguneko epean ebatziko du eskaria, auto baten bidez; bien bitartean, prozesuak aurrera jarraituko du. Epaileak hirugarrena prozesuan sartzea onesten badu, prozesuan jardundakoa ontzat emango du, atzera egin beharrik gabe; hala ere, ordura arte hirugarren izan denari aukera emango dio prozesuaren aurreko une batzuetan egin beharreko alegazioak egiteko bere defentsan. Alderdiei 5 eguneko epea emango zaie alegazio horiek aztertzeko. Azkenik, nahiz eta auzikideak errekurtsorik jarri ez, prozesuan sartutako hirugarrenak berak bere eskubideen defentsan jar ditzake.

3.3. Partaidetza eraginaren kasuak.

Orain arte ikasi ditugun kasuetan (kasik beharrezkoa den auzikidetzaren, auzikide erako partaidetza eta gehitutako partaidetza bakuna), hirugarrenaren parte-hartzea haren borondatearen mende dago. Jarraian, prozesuko alderdi direnen ekimenez hirugarren bat prozesuko parte zer kasutan bihurtu daitezkeen aztertuko dugu: eragindako partaidetza kasuak.

Argi eta garbi esan beharra dago Espainian prozesu zibila arautzen duten printzipioen ondoriozko partaidetza eragina (xedapen-printzipioa, aukera-printzipioa eta alderdiaren ekarpen-printzipioa) demandatzailearen edo demandatuaren borondatez bakarrik gerta daitezkeela, inoiz ez epaileak ofizios horrela erabaki duelako. Edonola ere, partaidetza horrek legean aurreikusita egon behar du, beti.

PZLren 14. artikulua partaidetza eraginari dagozkion bi kasu aurreikusten ditu, bat demandatzailearen eskariz egina, eta bestea demandatuaren eskariz egina. Azter dezagun zer dioten legeak horietako bakoitzari buruz.

a) Demandatzaileak eskatutako partaidetza eragina:

PZLk dioenez, demandatzaileak partaidetza horretarako deia demandan bertan egin behar du, eta deia egiten zaionak du demandatu izaera hartuko. Epaileak hirugarrena prozesuan sartzea onartuz gero, alderdiek jarduteko dituzten aukera berak izango ditu hark ere.

b) Demandatuak eskatutako partaidetza eragina:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Kasu horretarako, hiru arau nagusi aurreikusten ditu PZLren 14.2 artikulua:

1. Hirugarrenaren partaidetza demandari erantzuteko epean eskatu behar du demandatuak, epaiketa arrunta bada, eta ahozko epaiketa bada, berriz, ikustaldirako zehaztutako eguna baino lehen.
2. Demandatzailea entzun ondoren, auzitegiak 10 eguneko epean hartuko du erabakia, auto baten bidez. Bien bitartean, demandari erantzuteko epea eten egingo da, kasuan parte hartzeko eskariari ezezko erantzuna eman zaiola jakinarazi arte.
3. Auzitegiak partaidetza onartzen badu, aldiz, hirugarrenari deituko dio, demandari erantzun diezaion, demandatuari dagokion epe eta forma berean; ahozko epaiketan, ikustaldirako beste dei bat egingo du, probidentzia bidez, bai alderdiak bai hirugarrena zitatuz.

Kasu horretan, demandari erantzuteko epea hirugarrenak aurkeztutako demandari erantzuteko idazkia helarazi arte etengo da, edo hirugarrenari demandari erantzuteko epea agortu arte.

Hirugarrena prozesuan agerturik, demandatuak uste badu hark bere tokia bete behar duela, ondorengotza onartuko da, PZLren 18. artikulua agintzen duen eran: gainerako alderdiei jakinaraziko zaie, eta 5 eguneko epea emango zaie, beren eskubideari dagokiona alega dezaten, eta, azkenik, auto bidez ebatziko da ondorengotza egokia den edo ez.

3.4. Prozesuko oinordetza.

Prozesuaren izapideak egiteko denbora behar denez –batzuetan gehiago, besteetan gutxiago–, gerta liteke denbora bitarte horretan alderdietan garrantzizko aldaketak gertatzea (demagun horietako bat hil egiten dela, pertsona fisikoak badira, edo pertsona juridiko bat desagertu egiten dela,...). Gertaera horiek ulertzeko, prozesuko oinordetza aztertu behar dugu.

Prozesuko oinordetza prozesu batean alderdi bat beste alderdi batek ordezkatzeko fenomeno da. Prozesuan agertzen den alderdi berria aurretik prozesuarekiko hirugarren izango zen, noski; izan ere, alderdi hori dagoeneko prozesuan aritu bada, eskubide-nahasketa edo pertsona berberak demandatzaile eta demandatu izaera hartzea gerta liteke, eta hori zentzugabekeria izango litzateke.

Prozesuko oinordetza horretan, hiru kasu aztertuko ditugu: pertsona fisikoaren heriotza; pertsona juridikoen bat-egitea edo fusioa, eta absortzioa; eta, azkenik, liskarraren objektua eskualdatzea.

a) Pertsona fisikoaren heriotza:

Zuzenbide zibilaren arabera, oinordekoak hildakoaren eskubide eta eginbehar guztiak hartuko ditu bere gain (KZren 661. art.), baita prozesuan duen posizioari dagokionez ere.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Hala ere, zenbait kasutan, alderdi baten heriotzak prozesua amaitzea dakar berarekin, esate baterako, dibortzio kasuetan.

PZLren 16. artikulua alderdia hiltzen deneko eta epaiketaren objektua *mortis causa* eskualdatzen deneko kasua aurreikusten ditu, eta horren barruan, 5 kasu bereizten ditu:

1. Oinordekoak auzitegiari alderdi baten heriotzaren berri ematen badio, auzitegiak eten egingo du prozesua, eta gainerako alderdiei jakinarazi, heriotza nahiz oinordetza-titulua egiaztatu eta beharrezko betekizunak bete, eta prozesuan agertutzat hartuko du oinordekoa.
2. Auzitegiak alderdi bat hil dela jakin eta oinordekoa 5 eguneko epean agertzen ez bada, gainerako alderdiei aukera ematen zaie oinordekoa eta haren bizitokia identifikatu eta hari prozesuaren berri eman diezaioten. Halakoetan, oinordekoei 10 eguneko epean ager daitezten deituko zaie, eta, bien bitartean, prozesua etenda egongo da.
3. Zendutakoa demandatua bera bada, posible da gainerako alderdiek haren oinordekorik ez ezagutzea edo ez aurkitzea, edo aurkeztu nahi ez izatea. Hiru kasu horietan prozesuak aurrera jarraituko du, eta alderdi demandatua errebellian edo auzi-ihesean deklaraturata.
4. Hildakoa demandatzailea izanez gero, eta haren oinordekoak prozesuan agertzen ez badira, gainerako alderdiek oinordekoak ezagutzen ez dituztelako eta aurkitu ez dituztelako, atzera egitetzat hartuko da.
5. Hildakoa demandatzailea bada eta haren oinordekoek ez badute prozesuan agertu nahi, hark egikaritutako akzioari uko egiten diotela ulertuko da.

b) Pertsona juridikoen bat-egitea edo fusioa eta absortzioa:

Halakoetan, prozesuan egiaztatu beharko da aldaketa, beharrezko ordezkotza emanik.

Pertsona juridiko bat prozesuan zehar desagertzen bada, horrek ez du ekarriko, oro har, alderdia aldatzea; izan ere, legeak adierazten du pertsona horrek nortasuna izango duela egiteke dituen gauza guztiak bukatu arte (Sozietate Anonimoak arautzen dituen 1564/1989 errege-dekretuaren 264. artikulua, adibidez).

Bat-egite edo absortzioa gertatuz gero, aldiz, alderdi-aldaketa gertatuko da. Lehenengo kasuan, bi sozietateak desagertuko dira, eta bigarrenean bat. Edozein dela ere gertatzen den aldaketa, prozesuan adierazi beharko da.

c) Auzigaia edo objektua eskualdatzea:

Gauza bat ez da eskualdaezina prozesu baten objektu izate hutsagatik –prozesuan hari buruz eztabaidatzen ari direlako, alegia—. Beraz, posible da uziaren objektua prozesuan zehar eskualdatzea. Egoera hori PZLren 17. artikulua aurreikusten du.

Artikulu horren arabera, epaiketaren objektuaren eskuratzailerak eska dezake, prozesuaren objektua eskuratu duela frogatu ondoren, eskualdatzailerak zuen posizioan agertzen uzteko. Kasu horretan, auzitegiak eten egingo ditu jarduerak, eta beste alderdiak entzunen ditu. Beste alderdiak –demagun bakarra dela– bi aukera ditu, oinordetza horri aurka egin edo ez. Aurka egiten ez badio, auzitegiak auto baten bidez adieraziko du posizio prozesalen oinordetza, eta bertan behera geldituko da etendura. Zer gertatzen da beste alderdia oinordetzaren kontra agertzen denean? Auzitegiak oinordetza onartzen duen edo ez adierazi beharko du, auto baten bidez. Ez du onartuko honako hiru kasu hauetan: (1) kontrako alderdiak eskualdatzaileraren kontra soilik erabil ditzakeen eskubide edo defentsak dituela frogatzen duenean; (2) edo kontrako alderdiak eskualdatzaileraren kontra besterik egikaritu ezin duen errekonbentzio-eskubidea duela frogatzen duenean edo, jada errekonbentzio bat tartean dela; (3) azkenik, kontrako alderdiak alderdi-aldaketa horrek bere defentsa nabarmen zaildu dezakeela frogatzen duenean. Oinordetza onartzen ez bada, eskualdatzailerak prozesuko alderdi izaten jarraituko du, edozein direla ere eskuratzailerarekin dituen harreman juridiko pribatuak.

4. KAPITULUA: POSTULAZIOA.

4.1. Postulazioa, lehen hurbilketa. 4.2. Ordezkaritza prozesala, prokuradoreen jarduera. Prokuradoreen ahalordeak. 4.3. Defentsa teknikoa, abokatuen esku. 4.4. Kontuen zina. 4.5. Administrazioa, prozesuko alderdi gisa. 4.6. Ministerio Fiskalaren partaidetza, prozesu zibilean.

4.1. Postulazioa, lehen hurbilketa.

Ordenamendu juridikoek, oro har, ez diete alderdi prozesuan prozesalei uzten beren kontura aritzen, inolako laguntzarik gabe. Ohitura da zuzenbide-teknikari baten laguntzarekin ari daitezen galdatzea. Horren atzean dagoen pentsaera logikoa da: zuzenbide-teknikari batek alderdien eta jurisdikzio-organoen arteko bitartekaritza-lana eginez gero, justiziaren funtzionamendua errazteaz gainera, zuzenbidez deus ere ez dakiten herritarren interesak hobeto defendatuko dira, oro har. Postulazio prozesalez aritzean, zuzenbide-teknikari horren jardueraz mintzo gara.

Espanian, badakigunez, postulazio prozesal hori bi pertsonari egozten zaie: zuzenbide-teknikari diren abokatuei eta prokuradoreei hain zuzen ere, bakoitzak bere funtzio propioak dituela.

Postulazio prozesala herritarren oinarrizko eskubidea izateaz gainera (EKren 24. art.), prozesuaren nahitaezko baldintzat hartzen da.

Bukatzeko, garrantzitsua da azpimarratzea herritarrak, oro har, zuzenbide-teknikarien bitartez aritzen badira ere, zenbait egintza, guztiz pertsonalak izanik –gaztelaniaz *personalísimo* deritzenak–, beraiek bakarrik egin ditzaketela (adibidez, alderdien galdeketa, PZLren 301. art.).

4.2. Ordezkaritza prozesala, prokuradoreen jarduera. Prokuradoreen ahalordeak.

Alderdien ordezkaritza prozesala auzitegi-tako prokuradoreek bakarrik egikari dezakete; beraiek dute jarduera horren monopolioa.

Alderdiek askatasun osoa dute auzian ordezkaritza izango dituzten prokuradoreak aukeratzeko, Prokuradoreen Elkargoko kide diren prokuradoreen artean aukera eginda, betiere. Praktikan, hala ere, abokatuek aukeratzen dituzte beraiekin lanean arituko diren prokuradoreak.

Prokuradoreek alderdien ordezkaritza gisa dihardute epaileen aurrean, eta haien eskutik berriazko ordezkaritza-manamendu tipiko eta ordaindua jasotzen dute (1281/2002 Auzitegi-tako Prokuradoreen Estatutu Orokorra onartzen duen errege-dekretuaren 4. art. eta PZLren 27. art.). Manamendu hori ahalorde bidez ematen da. Ahalorde hitzarekin bi kontzeptu identifikatu nahi dira. Batetik, ahalordea, ahalorde-emaileak egiten duen borondate-adierazpena da. Bestetik, adierazpen hori jasotzen duen agiriari berari ere ahalorde deritza. Azter ditzagun agiri edo dokumentu horren xehetasunak.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Ahalordea jasotzen duen agiri hori hiru eratakoa izan daiteke: notario aurrean egindako eskritura publikoa, *apud acta* emandakoa, eta Prokuradoreen Elkargoak ofizio bidez emandakoa. Bakoitzari buruz bi hitz esanen ditugu.

a) Notario aurrean egindako eskritura publikoa (KZren 1280.5 eta PZLren 24. artikulua): ahalorde hori orokorra zein berezia izan daiteke.

Ahalorde orokorrak, oro har, ahalorde-emailearen izenean prozesua osatzen duten egintza prozesalak egiteko eskumena ematen dio prokuradoreari. Litekeena da ahalorde-emaileak ahalorde horretatik zenbait egintza salbuestea; horiek gauzatzeko ahalorde berezia beharko du prokuradoreak.

Prokuradoreak hiru kasutan beharko du ahalorde berezia:

1. Egintza prozesal garrantzitsuak egiteko. Garrantzitsutzat jotzen dira honako hauek: uko-egitea (demandatzailearen egintza prozesala da, alde batera uzten dira horren bidez egikaritutako akzioa eta horren uziaren oinarri den eskubidea; era horretara, uziak oinarririk ez duela frogatzen du, eta epaileak absoluzio-epai bat emango du, uzia gaitzetsiz eta gauza epaituaren efektuarekin), transakzioa (KZren 1809. artikuluan definitzen da: “Transakzioa kontratua da, eta, horren bidez, alderdiek, zerbait eman, hitzeman edo atxikiz, auzia hastea eragozten dute edo hasitakoari amaiera ematen diote”), atzera-egitea (demandatzaileak egiten duen aldebakarreko borondate-adierazpena da, akzioari uko egin gabe prozesua bertan behera uzteko nahia adierazten duena. Zioz, uzia epaitu gabe geratzen da, gauza epaituaren efekturik lortzen ez delarik, eta etorkizunean beste prozesu bat hastea posible da), amore-ematea (demandatzailearen uziarekin bat datorrela adierazten duen demandatuaren egintza prozesala da. Borondate-adierazpen horrekin aurrera jarraitu nahi ez duela edo ordura arte egikaritutako erresistentzia bertan behera uzteko asmoa adierazten du. Beste era batera esanda, demandatzailearen eskakizuna (*petitio*) erabat onartzen da. Amore-ematearen ondorioz, auzitegiak kondena-epaia ematen du, demandatzaileari eskatutakoa aintzatetsita; erabaki horrek gauza epaituaren efektua du), tartekaritzari men egitea, eta prozesuz kanpoko asetzea edo bat-batean objekturik eza gertatzen delako, prozesua artxibatu edo largestea.

2. Esan berri dugunez, ahalorde orokorretik kanpo utzitako egintzak egikaritzeko.

3. Legeak aurreikusitako gainerako kasu guztietarako.

Gerta liteke prokuradoreak ahalorde berezia galdatzen duen egintza prozesal bat ahalorde arruntarekin edo orokorrenekin egitea eta egintza hori baliozkotzat jotzea, baldin eta eragindako alderdiak, gero, egintza hori modu pertsonalean berresten badu.

b) *Apud acta* emandakoa (BJLOren 281.3 eta PZLren 23. artikulua): ordezkatzegaitasuna liskarra ezagutzeko eskumena duen auzitegiko idazkariaren aurrean ematen zaio prokuradoreari, haren aurrean lehenengo idazkia aurkezteko unean edo aurrerago, prokuradorea bera eta hark ordezkaturiko duen alderdia agertuta.

Kasu horretan, guztiz logikoa denez, prokuradoreari prozesu horretarako ahalordea baino ez zaio ematen.

c) Prokuradoreen Elkargoak ofizioz emanikoa: ordezkariak hau alderdiak ofiziozko txandako prokuradorea edukitzeko eskubidea duenean gertatzen da. Kasu horretan, Prokuradoreen Elkargoak eginiko prokuradore-izendapen hutsaren bitartez ematen da ordezkariak, bestelako betekizunik galdatu gabe.

Ahalordeak, edonola emana izanik ere, bi betekizun bete behar ditu: legezkotasuna (legearekin bat emana behar du izan) eta nahikotasuna (kasuan kasuko egintza prozesalak egiteko nahikoa behar du izan).

Prokuradoreak “ahalordea onartzen duenean” hartzen du bere gain alderdiaren ordezkariak. Prokuradoreak ahalordea erabiltzen duenean, isilbidez onartzen du ahalordea (PZLren 26.1 art.). Une horretatik aurrera, eta ordezkariak irauten duen bitartean (prokuradorea hil arte, erretiratu arte, alderdiak ezeztatu arte, prokuradoreak uko egin arte, ahalorde-emailea hil arte,...), prokuradoreak egiten dituen jarduera guztiak ahalorde-emaileak berak zuzenean egingo balitu luketen indar bera izango dute (PZLren 28.1 art.).

Prokuradoreak komunikazio-jarduera guztiak egiten ditu, deiak entzun eta sinatzen ditu, baita berak ordezkatzeko duen alderdiari egiten zaizkion zitazio, errekerimendu, jakinarazpen eta epaiak ere.

Beti behar al da prokuradorearen partaidetza edo ordezkariak? Hala da, oro har, PZLren 23.1 artikuluan jasotzen denez. Ahalorde-agiria alderdietako bakoitzak egiten duen lehen idazkiarekin batera aurkeztuko da, edo lehenengo jarduera egiten denean jakinarazi behar da (PZLren 24.2, 264.1, 403.3 eta 416.1.1 artikulua). Ahalorde-agiririk ezean edo agirian akatsen bat izanez gero, epaileak ez ditu onartuko, ofizioz, demanda edo demandaren erantzunaren idazkia, edo jardueren lehen idazkia den edozein, edo ez du prokuradorea lehen jardunean onartuko. Edonola ere, akats hori konpon daiteke, eta horretarako, epe jakin bat ematen zaio ahalorde-agiri akastuna aurkeztu duen alderdiari. Gerta liteke epailea ahalorde-faltaz edo horren akatsaz ez ohartzea; kasu horretan, beste alderdiak salbuespen prozesal gisa aurkeztu dezake (PZLren 405.3 art.). Salbuespen prozesal hori epaiketa arruntaren aurreko agerraldian (PZLren 416.1.1 eta 418. artikulua) edo ahozko epaiketako ikustaldiaren hasieran eztabaidatuko da.

Hala ere, zenbaitetan, ez da beharrezkoa prokuradorearen ordezkariak. PZLren 23.2 artikuluan eta lege berezietan jasotzen diren kasuak honako hauek dira:

1. Munta 900 eurotik gorakoa ez duten ahozko epaiketak.
2. Prozedura monitorioen lehen eskaria.
3. Epaiketa unibertsalak, agerraldia kreditu edo eskubide-tituluak aurkeztera mugatzen denean, edo batzordeetara aurkezteko denean.
4. Doako laguntza juridikoaren gaineko ebazpenen aurkaratze-intzidentetan.
5. Epaiketa aurretik hartzen diren larrialdiko neurriak (adibidez, PZLren 256. artikuluko neurriak, betiere larrialdi-egoera bada; froga aurreratzea (PZLren 293. artikulua); prozesu nagusiaren demanda aurkeztu aurretik eska daitezkeen kautela-neurriak).
6. Estatuaren abokatuak, autonomia-erkidegoarenak eta udalak prokuradorerik gabe aritzen dira.
7. Prokuradore bat prozesu bateko alderdi denean, ez du beste prokuradore baten ordezkariak behar (Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorraren 20. art.).

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

8. PZLren 35. artikuluko kontuen zineko prozeduran, abokatuak ez du behar prokuradorerik bere bezeroaren ordainsaria galdatzeko.

Prokuradorerik behar ez den salbuespeneko kasu horietan nork ordezkatzeko ditu, orduan, alderdiak? Prokuradore batek (beharrezkoa ez izateak ez du esan nahi erabili ezin denik), abokatu batek edo alderdiak berak.

4.3. Defentsa teknikoa, abokatuaren esku.

Prozesuan zehar, alderdien defentsa teknikoa abokatuei dagokie. Abokatuaren eta bezeroaren arteko harremana ohiko kontratu batean oinarritzen da, hain zuzen ere, zerbitzuen errendamendu-kontratu batean. Gehienetan, ahozkoa izaten da kontratu hori. Abokatuari dagokionez, ez dira galdatzen prokuradorearen izendapenerako eskatzen diren betekizun guztiak, kudeaketa prozesala hasi bezain pronto hartzen baitira izendatutzat.

Prokuradoreekin gertatzen den bezalaxe, abokatuaren partaidetza, arau orokor legez, beharrezkoa da. Alderdi horretatik, PZLren 31.1 artikulua honako hau dio: “Abokatuek auzilariak zuzenduko dituzte. Abokatuak gaituta egon behar dute auziaren gaineko ardura duen auzitegian euren lanbidean aritzeko” (badakigunez, auzitegiaren jarduteko gaitasun hori Abokatuaren Elkargoan izena emanez lortzen da) eta “auzitegiek ez dute erantzungo abokatuaren sinadurarik ez daraman eskaerarik” (horrek esan nahi du epaileek ez dutela utziko ahozko jarduerarik egiten ere, abokatuaren sinadurarik gabe). Egoera horretan, epaileak akatsa zuzentzeko epe bat finkatuko du, eta epearen barruan konpontzen ez bada, idazkiek edo ahozko egintzek ez dute berez duten efektua izango (adibidez, demanda eta erantzuna ez-aurreztatutzat edo ez-erantzuntzat hartuko dira). Idazki bat abokatuaren sinadurarik gabe aurkezten denean, hori konpontzeko ez da nahikoa dokumentu hori bera sinatuta aurkeztea; aurreko idazkia (sinatu gabea) berea duela esaten duen beste idazki bat ere aurkeztu beharko du abokatuak.

Zenbait kasutan, halere, ez da nahitaezkoa abokatuaren parte-hartzea (PZLren 31.2 artikuluan eta lege berezietan jasoak):

1. Munta 900 eurotik gorakoa ez duten ahozko epaiketak.
2. Prozedura monitorioen lehen eskaria.
3. Epaietan agertzeko idazkiak.
4. Epaiaketa aurretik larrialdiko neurriak eskatzeko idazkiak.
5. Jardueren edo ikustaldien premiazko etendura eskatzen duten idazkiak. Hala ere, etendura abokatuarekin zerikusia duten arrazoiengatik eskatzen bada, horrek ere idazkia sinatu beharko du, ahal bada.
6. PZLren 29. eta 34. artikuluko kontuen zineko prozeduran, prokuradoreak ez du abokaturik behar.

Salbuespeneko kasu horietan, nork defendatzen ditu alderdiak? Herritarrek berek beren burua defenda dezakete, edo abokatu batek edo prokuradore batek defenda ditzake. Ezin du abokatu edo prokuradore ez den hirugarren batek alderdia defendatu.

Bukatzeko, abokatu eta prokuradorei aplikatu dakizkiekeen bi gauza adierazi behar ditugu. Batetik, PZLren 32. artikulua alderdien berdintasun prozesalaren babeserako bi kasu bereizten ditu: (a) demandatzaileak demandan adierazi behar du berak bere burua

agertu (prokuradorearen ordezkapenik gabe) eta abokatuaren defentsa izango duen, prokuradoreak ordezkatuta arituko den, edo bi profesional horien laguntzarekin arituko den. Posible da demandatuak ere abokatuaren eta prokuradorearen laguntzarekin aritu nahi izatea; horrela bada, demandaren jakinarazpena jaso eta hiru eguneko epean auzitegiari adierazi behar dio, eta, hala dagokionean, doako laguntza juridikoaren aintzatespena ere eska dezake. Kasu horretan, auzitegiak prozesua etetea erabaki ahal izango du eskubide horren aintzatespena edo ukapena erabaki arte, edo behin-behinekoz abokatu edo prokuradorea izendatu arte.

Bigarren kasuan (b), demandatzaileak abokatu edo prokuradorearen laguntzarekin jardungo duela adierazi ez badu eta demandatuak prokuradore edo abokatuarekin jardun nahi badu, demandatuak jakinarazi egin beharko dio auzitegiari, demandaren jakinarazpena jaso eta hiru eguneko epean. Datu hori demandatzaileari jakinaraziko zaio, hark ere abokatu edo prokuradorea izenda ditzan, nahi izanez gero. Demandatzaileak hiru eguneko epean adierazi beharko dio auzitegiari aipatutako laguntza nahi duen ala ez. Doako laguntza juridikoa eskatzeko eskubidea aintzatesten zaio; horretarako, eskubide horren onarpena edo gaitzespena eman arte edo abokatu edo prokuradorearen behin-behineko izendapena eman arte prozesua eten daiteke.

Bukatzeko, esan behar da, abokatuaren eta prokuradorearen partaidetza beharrezkoak ez direnean, haien soldatak ez direla sartuko kontrako alderdiaren kostuen kondenan, non eta ez den auzitegiak kostuetan kondenatuko alderdian ausarkeria ikusten, edo non eta epaiketa ordezkaturako eta defendaturako alderdiaren bizitokia ez den beste toki batean den (PZLren 32.5 art.).

4.4. Kontuen zina.

Jakin badakigunez, abokatuaren eta prokuradoreen eskubiderik garrantzitsuena beren lanaren trukean diru kopuru bat jasotzea da (abokatuak *ordainsaria* deritzona, eta prokuradoreak *eskubideak* deritzenak).

Jakin behar da, bestalde, prokuradoreari dagokiola prozesuak sortzen dituen gastu guztiak ordaintzea, abokatuen eta perituen ordainsariak salbu (PZLren 26.2.7 art.).

Abokatuak eta prokuradoreak beren lanaren truke jaso behar dituzten diru kopuru horiek babesteko, PZLren legeak hiru prozedura berezi aintzatesten ditu:

1. Bezeroak prokuradorea funtsez hornitzeko prozedura (PZLren 29. artikulua): prozesua hasitakoan, ahalorde-emaileak ez badu prokuradorea prozesu horri eusteko behar adina funtsez hornitzen, prokuradoreak auziaz arduratzen ari den auzitegiari eska diezaioke bere bezeroak ordainketa hori egin dezan, premiamendu bidez. Auzitegiak 10 eguneko epean entzungo du, eta auto baten bidez ebatziko du ordaindu beharreko munta, eta zehaztuko du horretarako epea, premiamendu-ohartarazpena eginez.
2. Bezeroak prokuradoreari bere eskubideak (soldata, alegia) eta hark eginiko bestelako gastuak ordaintzeko prozedura (PZLren 34. artikulua): prokuradoreak bere lanagatik eta egindako gastuengatik kobratu ez badu, auzitegiari premiamendu-prozedura eska diezaioke, bere bezeroaren kontra.

3. Bezeroak abokatuari bere ordainsaria ordaintzeko prozedura (PZLren 35. artikulua): ordainsariak jaso ez dituen abokatuak bere bezeroaren kontra premiamendu-prozedura jar dezake.

Hiru prozedura horietatik ondorio nagusi hau atera dezakegu: hirurek abokatu eta prokuradoreen aldeko edo mesederako tratua dakusate. Aurretik adierazpen-epai bat eman gabe, beraiei dagokiena kobratzeko betearazpen-titulu bat lortzen dute abokatuak nahiz prokuradoreak.

4.5. Administrazioa, prozesuko alderdi gisa.

Administrazioak prozesu zibilean diharduenean, ez du berdintasunez jarduten herritarrekiko, pertsona pribatuekiko. Izan ere, administrazioari, estatuari eta erakunde publikoei prozesu-privilegio batzuk aintzatesten dizkio Laguntza Juridikoari Buruzko azaroaren 27ko 52/1997 Legeak.

Pribilegio horien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

1. Estatuak parte hartzen duen liskarrez arduratzeko lurralde-eskuduntza egoitza probintziako hiriburuetan duten epaitegi eta auzitegiei dagokie.
2. Epaiketan Estatuaren defentsa eta ordezkaritza bideratzea estatuko abokatuei dagokie. Ez dute kolegiatuta egon beharrik, ezta zertan prokuradorerik erabili ere.
3. Demandatua Estatu den kasuetan, demandatzaile partikularrak Estatuaren kontra prozesu zibilari ekin aurretik, erreklamazio administratiboa egin behar du.
4. Ez dira onartzen Estatuarekin adiskidetze-egintza ahalegintzeko eskaerak (1881/PZLren 460. art.).
5. Estatuari egin beharreko jakinarazpenak eta bestelako komunikazio-egintzak zuzenean estatuko abokatuari egingo zaizkio, dagokion Estatuko Abokatutzaren egoitzan.
6. Estatuko abokatuak lehen komunikazio-egintza jasotakoan, prozesua etetea eska dezake, zerbitzu juridikoari beharrezko kontsultak egiteko eta gertaeren aurrekariak ikertzeko. Auzitegiak gehienez ere 30 egunerako ebatziko du etena, eta 15 egunerako gutxienez. Epe hori laburragoa izanen da premiamendu-kasuetan, 6 eta 10 egun bitartekoa, hain zuzen ere. Normalean, prozesua eten egingo da, interes orokorrari kalte larria sor dakioken kasuetan izan ezik.
7. Estatu salbuetsita dago gordailuak, kauzioak, kontsignazioak eta prozesu-legeek aurreikusitako beste edozein motatako bermeak jartzeko betebeharretik.
8. Kostuen kondenari dagokionez, kondena Estatuaren onurarako denean –hau da, Estatuaren kontra aritu dena kondenatzean–, kostuei dagokien dirua Estatuaren diru-kutxetan sartuko da. Aitzitik, kondenatua Estatu bada, kostu horiek Estatuaren aurrekontutik ordainduko dira.

9. Betearazpenaren eremuan itzelezko pribilegioak aintzatesten zaizkio. Ez da existitzen Estatuaren kontrako nahitaezko betearazpenik, eta Estatuaren ondasunen kontra ezin daitezke enbargoak edo bahitura-manamenduak agindu.

Autonomia-erkidegoei dagozkien pribilegioak ezagutzeko, oro har, bakoitzaren autonomia-estatutua hartu behar da kontuan. Horietako batzuen arabera (Kantabria, Kanariar Uharteak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Valentzia kasu), erkidegoek Estatuak dituen pribilegio berak izango dituzte. Beste estatutu batzuek pribilegio bereziak aipatzen dituzte. Edonola ere, pribilegio horiei guztiei BJLOren 447.2 artikulua aintzatesten duen beste bat gehitu behar diegu: autonomia-erkidegoak beren zerbitzu juridikoek defendatu eta ordezkari ditzakete, edo bestela, abokatu pribatuak (hau da, kolegiatuak).

Azkenik, udal administrazioek dituzten pribilegioak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen pribilegioen antzekoak direla gaineratu behar dugu.

4.6. Ministerio Fiskalaren partaidetza, prozesu zibilean.

Beste atal batean ikusi dugunez, prozesu zibila ez da Ministerio Fiskalaren jardueraren eremu arrunta. Hori horrela da prozesu zibilean ebatzen eta babesten diren interesak pribatuak direlako, eta beraz, borondatearen autonomia, xedapen-printzipioa eta aukeraprintzipioa gainjartzen direlako. Gainera, jakin badakigu, Ministerio Fiskalari dagokiola, EKren 124. artikuluaekin bat, legalitatearen, herritarren eskubideen eta legeak babestutako interes publikoaren defentsan justiziaren akzioa sustatzea. Ez dagokio, oro har, Ministerio Fiskalari herritarren interes pribatuak babestea.

Hala ere, Ministerio Fiskalak kasu batzuetan parte hartzen du prozesu zibilean. Partaidetza horiek hiru taldetan sailkatuko ditugu:

a) Ministerio Fiskala, prozesu zibilean, alderdi gisa: Ministerio Fiskala alderdi gisa ari daiteke, interes orokorraren defentsan bada, betiere. Alderdi gisa jarduten duenean, gizarte osoaren ordezkari eta defentsa hartzen ditu bere gain.

Alderdi gisa aritzen denean, Ministerio Fiskalak ezin ditu zuzenbideko xedapen-egintzak gauzatu (uko egitea eta amore ematea, hain zuzen), baina bai xedapen-egintza prozesalak (atzera egitea).

Ministerio Fiskalaren alderdi-jardueraren adibide dira ezgaitasun-kasuak, ezkontzaren deuseztasuna edo seme-alabatasunaren aurkaratzea (PZLren 749.1 art.). Horietako batzuetan legitimazio aktiboa eta pasiboa izanen ditu, eta beste batzuetan pasiboa baino ez.

b) Ministerio Fiskala, prozesu zibilean, ordezkari legal gisa: Ministerio Fiskalak ezgaituak, adingabeak eta ez daudenak (absenteak) ordezkatzeko ditu (PZLren 8., 749.2 eta 765.1 artikulua).

c) Ministerio Fiskala, irizpen-emaile gisa: zenbaitetan, Ministerio Fiskalaren irizpen-txostena galdatzen da, edo hura entzuna izatea, bai gai materialetan (atzerriko epaien betearazpenen,...) bai prozesuetan (lurralde-eskumenik edo eskuduntza objektiborik ez adierazten denean,...).

5. KAPITULUA: PROZESUAREN OBJEKTUA: UZIA ETA UZIAREN ELEMENTUAK

5.1. Uzi prozesala, adierazpen-prozesuaren objektu. 5.2. Prozesuaren objektuaren elementu identifikatzaileak. 5.3. Uzi prozesalen metaketa edo pilaketa. 5.4. Prozesuen metaketa edo pilaketa.

5.1. Uzi prozesala, adierazpen-prozesuaren objektu.

Dakigunez, uziak edo pretentsioak –organo jurisdikzional bati beste pertsona baten kontra eta bizitzako ondasun baten gainean egindako eskari oinarriiduna (MONTERO)–prozesuaren objektua zehazten du, prozesuaren gai nagusia alegia, eta horrek bereizten du beste prozesu batzuetatik.

Badakigu, bestalde, uziak –horrek dakarren eskakizuneko borondate-adierazpena–oinarria eduki behar duela, eta oinarri horrek bizitzako gertakizun jakin bati egin behar diola erreferentzia. Adibidez: nik aseguru-enpresari kalte-ordainak eskatzen dizkiot (eskaria) 2004ko abenduaren 12an gertatuko istripu bat dela-eta (oinarria).

Ezin dugu ahaztu, bestalde, uziaren edo pretentsioaren aurrean erresistentziaren kontzeptua agertzen dela. Erresistentzia demandatuak organo jurisdikzionalari egiten dion eskaera da, demandatzaileak bere kontra jarritako uziaren erreakzio gisa egina. Eskaera hori bera da beti: kondena ez ezartzea. Jakin dakigunez, ez dago erresistentzia oinarritu beharrik.

Bi kontzeptuak aintzat hartuta, uzia eta erresistentzia, eta horien harremana argituta, badakigu prozesuaren objektua uziak zehazten duela, eta ez erresistentziak. Beste era batera esanda, prozesuaren objektua bera izango da, demandatuak erresistentzia jarri ala ez. Beraz, erresistentziak egiten duena eztabaidaren objektua zabaltzea da: demandatuak egitate berriak aurkezten baditu, nahiz eta horiek prozesuaren objektua zehaztu ez, eztabaidaren objektua zabaltzen dute, eta epaileak, azken epaian, erreferentzia egin beharko die horiei ere.

5.2. Prozesuaren objektuaren elementu identifikatzaileak.

Prozesuaren objektuaren elementu identifikatzaileak bi dira, oro har: subjektiboak eta objektiboak.

Subjektiboak alderdiei buruzko elementuak dira. Horiek ez dute prozesuaren objektua zehazten, izan ere, pertsona berek eskaera arras desberdinak egin eta oinarri zeharo desberdinak baliatu baititzakete. Kongruentzia eta gauza epaitua osatzen dituzte.

Elementu objektiboek, aldiz, eskariari eta eskari horren kariari edo oinarriari egiten diote erreferentzia. Elementu horiek dira prozesuaren objektua zehazten dutenak.

kapitulua

Aurreko kapituluetan elementu subjektiboei buruz aritu garenez, puntu honetan elementu objektiboetan egingo dugu indarra. Uziaren objektua den eskaeran eta horren oinarri den eskaeraren karian sakonduko dugu.

Uziaren objektuan, eskaeran alegia (*petitum*), sakonduz, bi eskaera mota bereizi behar ditugu: berehalako eskaera edo eskaera zuzena batetik, eta bestetik, zeharkako eskaera edo bitarteko eskaera.

Berehalako eskaerak edo eskaera zuzenak epaitzeko jardueraren barnean epaileari eskatzen zaion babes juridikozional motari (adierazpenekoa, betearazlea edo kautelazkoa) egiten dio erreferentzia. Prozesuaren fase guztietan ez zaio epaileari babes mota bera eskatzen.

Fase adierazlean eta horren eremuan, gainera, hiru eratako babesak eska dakiokete epaileari:

a) Adierazpen soileko edo hutseko tutoretza edo babesak: eskubide edo egoera juridiko baten izatearen edo ez izatearen adierazpen soilak galdatzen zaio. Uziari on irizten dion epaialariek gauza epaituaren efektuak izango ditu, baina ez da betearazpen-titulu bihurtuko, ez baita babes horretan betearazpenik behar.

b) Babes eratzailea: egoera edo harreman juridiko bat sortzea, aldatzea edo bukatzea eskatzen zaio. Epai estimatzaileak gauza epaituaren efektuak izanen ditu, eta aldaketak eragingo ditu, beraz, aurretiko eskubide edo egoeran.

c) Kondenazko tutoretza edo babesak: demandatuaren konturako prestazio bat badela adieraztea eta hari betearaztea eskatzen zaio auzitegiari. Epai horiek, gauza epaituaren efektua sortzez gainera, betearazpen-tituluak dira; beraz, kondenatuak ez badu epaileak adierazitakoa borondatez betetzen, tresna egokia dira betearazpenari hasiera emateko.

Bitarteko eskaerak edo zeharkako eskaerak eskatutako epai babesak zer ondasun juridikori dagokion adierazten du. Jakin badakigu epai-babesak ondasun juridiko bati erreferentzia egiten eskatu eta ematen dela beti. Oraingoan ere, eta prozesu adierazlearen eremuan, hiru motatako babesak daude:

a) Adierazpen soileko edo hutseko babesak: kasu horretan, ondasun juridikoa harreman juridiko edo egoera, eskubide, egintza juridiko edo negozioaren izatearen edo ez izatearen adierazpenean datza. Adibidez, demandatzailearentzat ondasun juridikoa da erosteko aukera edo ezkontzaren deuseztapena adieraztea.

b) Tutoretza eratzailea: kasu horretan, ondasun juridikoa harreman juridiko, egintza juridiko edo negozio baten sorrera, aldatzea edo bukaera da. Adibidez, ondasun juridiko bat da ezgaitasunaren adierazpena edo sozietate baten desagertzearen adierazpena.

c) Kondenazko tutoretza: kasu horretan, ondasun juridikoa prestazio bat da beti, gauza bat ematea edo gauza bat egitea edo ez egitea (KZren 1088. art.). Adibidez, ondasun juridikoa da epailearen aginduz demandatuak demandatzaileari itzul beharrekoa, salerosketa-kontratuan hitzartutakoa ordaindu ez duelako, edo epaileak beharrezko baimenik gabe eraikitako eraikuntza bat bota dezaten agintzea.

kapitulua

Eskaeraren kariaren edo uziaren oinarriari (*causa petendi*) dagokionez, sumatzen dugun lehenengo gauza da eskaerak berez, bi zentzuetan (zuzenean eta zeharkakoan), ez duela prozesuaren objektua zehazten. Zergatik ez? Ondasun bera arrazoi askogatik eska daitekeelako. Horregatik, prozesuaren objektua zehazteko eskaeraz gainera, eskaera horren karia edo arrazoa zein den ere adierazi behar dugu. Izan ere, eta adibide gisa, epai-organoari arrazoi askogatik eska dakiokete diru-munta bat: mailegu batengatik, kalte-ordain gisa,...

Araua ez dira eskaeraren karia. Kalifikazio juridikoak ere ez. Kasu konkretu batean, eskaeraren karia KZren 1555. artikulua (errentariak errentatzaileari dagokion alokairua ordaindu behar dio) edo errendamendu-kontratua dela esatea ez da nahikoa eskaria justifikatzeko: kontratu bat badela frogatu beharko da, hori osatzen eta deskribatzen duten egitateekin batera. Era horretara, eskaeraren karia garrantzi edo zeresan juridikoa duen egitate multzo bat dela esan dezakegu. Zer esan nahi du horrek? Egitate horiek, hain zuzen, beroriei ondorio juridiko batzuk aintzatesten dizkien arau baten egitatezko baldintza izan behar dutela.

Aurrekoa esan ondoren, ezinbestekoa da gauzak bere tokian jartzea. Zeresan edo garrantzi juridikoa duen egitate orok ez du eskaeraren karia osatzen, ez da uziaren oinarri. Hori argitzeko, uziaren egitate eratzaileen eta egitate identifikatzaileen arteko bereizketa egin behar da.

Egitate eratzaileak demandatzaileak alegatzen duen arauaren egitatezko ustekizunek osatuak dira. Egitate horiek dira demandatzaileak eskatzen duen ondorio juridikoaren oinarria, eta horregatik, demandatzaileak egitate horiek alegatu eta demostratu egin beharko ditu, epaileak bere kasuari ondorio juridiko hori aurreikusten duen araua aplikatzea bada asmoa.

Egitate identifikatzaileak, aldiz, demandatzailearen uzi zehatza eta horren eskaeraren arrazoa identifikatzen dutenak dira; beraz, egitate eratzaileen parte bat besterik ez dira. Azken horiek demandatzailearen uzia beste uzi batzuetatik bereizten dute eta ez diote erreferentzia zuzenik egiten epaileak demandatzailearen uzia onartzeari.

5.3. Uzi prozesalen metaketa edo pilaketa.

Prozesuak objektu prozesal edo uzi bakar bat izatea da ohikoena, hau da, prozedurak uzi bakar baten forma izatea; baina gerta liteke prozedura bakar batek (alderdiek eta epaileak egin beharreko ondoz ondoko jardunen edukitzaile gisa) prozesu bat baino gehiagoren forma izatea (uzi konkretuarekin, egintzen arteko loturarekin, horretan aritzen diren subjektuekin, beren xedeekin, eskubide eta zamekin... identifikatzen da prozesua). Kasu horretan, uzi prozesalen metaketa edo pilaketa deritzon fenomeno juridikozionala gertatzen da: posible da bi uzi edo gehiago eta horietako bakoitzari dagokion prozesua epai-prozedura berean eta bakarrean ebaztea, eta epai bakar batean erabakitzea guztiak.

Metaketa edo pilaketa horren xedeak hauek dira: kontraesanezko epaiak ekiditea eta ekonomia prozesala, eta hori posible izateko, uzien artean harremana galdatzen da. Batzuetan, uzi guztietan elementu objektibo bera eskatzen da, hau da, eskatzeko kari bera, baina beste batzuetan, elementu subjektiboaren berdintasuna –alderdietako bat berdina izatea– nahikoa izaten da pilaketarako.

kapitulua

Metaketa edo pilaketa mota ugari daude, baina bi multzo nagusitan sailka daitezke: hasierako metaketa edo pilaketa, eta prozesua abian dela gertatzen den metaketa edo pilaketa. Azter ditzagun bi gertaerak.

A) Hasierako metaketa edo pilaketa:

Hasierako metaketa edo pilaketa, edo *akzio-metaketa* deritzona, demanda bakar batean uzi ugari (edo bat baino gehiago, behintzat) daudenean gertatzen da. Posible da uzi horiek demandatzaile bakar baten eta demandatu bakar baten arteko kontua izatea edo demandatzaile ugariaren (bat baino gehiagoren) edo demandatu ugariaren artekoa. Lehenengo kasuan, metaketa eskusiboki objektiboa da, eta bigarrean, berriz, metaketa objektibo-subjektiboa. Berehala aztertuko ditugu biak, baina aurretik, eta bi horiek ulertu ahal izateko, metaketa hori beste lau motatakoa izan daitekeela aipatu behar da:

a) Bakuna: kasu horretan, egikaritutako uzi guztiak onar ditzala eskatzen zaio epai-organoari. Horixe da pilaketa arrunta.

b) Alternatiboa: egikaritutako uzietako bat onartzea eskatzen zaio epaileari, horien artean lehentasunik ezarri gabe.

c) Subsidiarioa edo ordezkatzaila: kasu horretan, demandatzaileak hainbat uzi jarri ditu demandatu beraren kontra (berdin dio demandatu bat edo gehiago izan), horietako baten onarpena eskatuz; guztien artean berak zehaztutako ordenan aukeratuko du epaileak. Adibidez, karirik ezagatik kontratu bat deuseztatzea eskatuz uzi bat jartzen da (KZren 1275. artikulua), eta uzi hori onartzen ez den kasurako kontratua deuseztatzeke eskatzen da, hartzekodunen iruzurra gertatu delako (KZren 1291.3 artikulua).

d) Akzesorioa edo osagarria: kasu horretan, demandatzaileak uzi batzuk tarteratzen ditu, horien artean bat nagusia da, eta gainerako guztiak, osagarriak. Epai-organoak uzi osagarriak onartuko ditu, baldin eta nagusia onartzen badu. Adibidez, salneurria ez ordaintzeagatik saldutako gauza itzultzea eskatzen da, eta uzi hori onartuz gero, demandatuari kalte-galerak ordaintzea eskatzen zaio.

Azter ditzagun pilaketa eskusiboki objektiboa eta objektibo-subjektiboa.

Aipatu dugunez, metaketa eskusiboki objektiboa demandatzaile bakar batek eta demandatu bakar baten aurrean bi uzi edo gehiago jartzen direnean guztiak prozedura bakar batean ebatz daitezzen sortzen den egoera da. Uzi guztiak epai bakar batean erabakiko dira. Epai horretan, nahiz eta formalki bakarra izan, materialki, uzi adina sententzia daudela esan dezakegu; izan ere, epai bakar horrek uzi bakoitzeko erabaki bat izan beharko du.

Metaketa hori PZLren 71.2 artikuluan azaltzen da: “Auzi-jartzaileak demandan meta ditzake demandatuaren kontra dituen akzio guztiak, akzioen jatorria titulu ezberdina izan arren, betiere akzio horiek elkarren artean bateraezinak ez direnean”.

Artikulu hori kontuan hartuta, metaketarako beharrezkoak dira 4 betekizun hauek:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

kapitulua

1. Metaketa demandatzailearen borondatez soilik gertatzen da. Inoiz ez ofizioz. Epai-organoak ofizioz egingo duen gauza bakarra pilaketarako beharrezkoak diren betekizunak betetzen direla kontrolatzea izango da. Lan horretan akatsik hautematen badu, hori konpon dadin aginduko du; bestela, edo pilaketa ezin egin daitekeela ohartzen bada, demanda artxibatzea aginduko du (PZLren 73.4 art.). Alderdi demandatua ere pilaketaren kontra ager daiteke demandaren erantzunean (PZLren 402. art.). Azken hori gertatzen bada, epaiketa aurreko entzunaldian erabakiko da pilaketa ondo eginda dagoen ala ez; bien bitartean, prozesuak aurrera jarraituko du, meta litezkeen akzioei dagokienez (PZLren 419. art.).

2. Zer harreman egon behar du uzien artean, horiek pilatu ahal izateko? Esklusiboki objektiboa den metaketa gerta daiteke, nahiz eta uzien arteko harremana subjektiboa izan. Edonola ere, uzi horiek bateragarriak izan behar dute (PZLren 71.2 eta 71.3 artikulua). Uziak bateraezinak izanen dira, baldin eta batek bestea baztertzen badu edo elkarren kontrakoak badira, alegia, bat onartzeak bestea aplikaezin bihurtzen badu.

3. Eskuduntza objektiboari dagokionez, ordena zibileko eskuduntza orokorra emateaz aparte, auzitegiak uzi guztiak ezagutzeko eskumena eduki behar du, bai gaiari dagokionez (PZLren 73.1.1 art.), bai muntari dagokionez. Gainera, eta gaiaren irizpidean sakonduz, ez da metaketarik egongo uziak epaiketa desberdinetan jarri eta erabaki behar direnean (PZLren 73.1.2 art.). Era horretara, ezin pila daitezke epaiketa arruntean erabaki beharreko uzi bat eta epaiketa berezi baten bitartez tramitatu beharreko beste bat. Era berean, ezin pila daitezke auzi berezi desberdinetan ebatzi beharreko uziak.

Muntari dagokionez, jakin badakigunez, gehiena ezagutzeko gaitasuna duen organoa gutxiena ezagutzeko ere gai da (baina ez alderantziz!). Gainera, posible da munta bera ez dagokien uziak metatzea, nahiz eta ondorioz horietako bati (edo denei) dagokien eskuduntza objektiboa aldatzea (PZLren 73.1.1 art.).

4. Lurralde-eskuduntzari dagokionez, aplikatu beharreko araua PZLren 53.1 artikulua ematen digu: lehenengo eta behin, lurralde-eskuduntza gainerako uzien oinarri den uziari dagokiona izango da; halakorik ez balego, metatutako uzi gehienak ebazteko ardura dagokion auzitegiarena izango da, eta, azkenik, muntari dagokionez, uzirik garrantzitsuenaz arduratzen den eta lurralde-eskuduntza duen epai-organoari egokituko zaio pilaketaz jardutea.

Betekizun horiek beteta, zer prozedura erabiliko da uziak ebazteko? Nahiz eta prozedura berean uzi bat baino gehiago (eta prozesu bat baino gehiago) ebatzi, alderdiek eta epaileak ezin izango dute inoiz ahaztu metaketa-fenomeno batez ari direla. Horrela, demandatzaileak, nahiz eta formalki demanda bakar bat jarri, banan-banan uzi guztiei egin beharko die erreferentzia demanda horretan. Era berean, demandatuak uzietako bakoitzari erantzun beharko dio. Frogaldian ere, argi eta garbi bereizi beharko da uzi bakoitzari dagokion froga, nahiz eta, askotan, froga batek uzi bat baino gehiagorako balio izan. Azkenik, epaian epaileak uzi bakoitzari dagokion ebazpena eman beharko du, nahiz eta ebazpen horiek guztiak epai bakarrean jaso.

b) Prozesua abian dela gertatzen den metaketa edo pilaketa

kapitulua

Metaketa objektibo-subjektiboa hiru egoeratan gertatzen da: (a) demandatzaile bakar batek demandatu baten baino gehiagoren kontra uzi bat baino gehiago jartzen dituenean (metaketa pasiboa); (b) demandatzaile batek baino gehiagok demandatu bakar baten kontra uzi bat baino gehiago jartzen dituztenean (metaketa aktiboa); eta (c) demandatzaile batek baino gehiagok demandatu baten baino gehiagoren kontra uzi bat baino gehiago jartzen dituztenean (metaketa mistoa edo bitarikoa).

Hiru kasuetan, uzi bat baino gehiago egon arren, uzi guztiak prozedura bakar batean ebatziko dira, epai bakar baten bitartez (formalki).

Metaketa hori PZLren 72. artikuluan aztertzen da: “Subjektu batek subjektu anitzen kontra edo subjektu anitzek subjektu baten kontra dituzten akzioak meta daitezke, aldi berean egikarituz, baldin eta akzio horien artean lotura badago tituluaren ondorioz edo eskatzeko arrazoiaren ondorioz”.

Horren harira, eskusiboki objektiboa den pilaketa azaltzean aipatutako guztia aplikatu dakioko pilaketa objektibo-subjektiboari, bi berezitasunekin:

1. Metaketa subjektibo-objektiboa izateko, uzien arteko lotura objektiboa galdatzen da. PZLren 72. artikulua tituluagatik edo eskatzeko kariagatik lotura galdatzen du. Noiz gertatzen da lotura hori? Akzio batek baino gehiagok egitate berak dituztenean oinarri (PZLren 72. II art.).

2. Lurralde-eskuduntzari dagokionez, eskusiboki objektiboak diren metaketentzat aipatutako arauari (PZLren 53.1 art.) beste bat gaineratu behar zaio: PZLren 53.2 artikulua dioenez, lurralde-eskuduntza toki bateko baino gehiagotako epaileei egokitu ahal bazaie, horietako edozeinen aurrean aurkez daiteke demanda, demandatzailearen aukeran.

B) Prozesua abian dela gertatzen den metaketa edo pilaketa:

Honako egoera hau oinarri hartuta aztertu behar dugu metaketa mota hau: prozedura martxan dela, dagokion edo dagozkion uziak eta horiei dagozkien prozedurak abian direla, prozedura horretan uzi berri bat edo gehiago eta horiei dagozkien prozesuak tartaritzen dira.

Kasu horretan, demandatzaileak edo demandatuak berak bultza dezakete pilaketa. Lehenengo kasuan, demanda zabaltzea ekarriko luke. Bigarrenean, *errekombentzio* deritzon fenomenoak. Ikus ditzagun bi kasuak, labur-labur, hurrengo kapituluetakoa gai nagusia baita.

Uzi bat edo gehiago jarrita, eta prozedura hasita dagoela, demandatzaileak demandatu beraren kontra beste uzi bat edo gehiago jartzen dituenean edo jada jarritako uziak/k beste demandatu batzuen kontra ere jartzen direnean, horiek guztiak hasitako prozeduran ebatzeko, demanda zabaldu egin dela esaten da.

Aukera hori PZLren 401. artikuluan aintzatesten da. Artikulu horrek debekatu egiten du demandari erantzun eta gero akzioak metatzea. Beraz, demandari erantzun aurretik egin behar da. Zabalkuntza hori gertatuz gero, aipatutako artikulua dioenez, demandari

kapitulua

erantzuteko epea berriro zenbatzen hasiko da demandatuari demandaren zabaltzea helarazten zaionetik.

Demanda zabaltzeak ezin du eraginik izan, inoiz, zenbatekoari buruzko eskuduntza objektiboan, ezta zenbatekoaren prozeduran ere.

Errekonbentzioa 8. gaian aztertuko dugu luze eta zabal; orainoan, ideia nagusia aurkeztu baino ez dugu egingo. Errekonbentzioan demandatuak demandatzailearen kontra uzi bat jartzen du. Horrek ez du, berez, larregi atentziorik ematen. Zertan da, beraz, berezitasuna? Demandatuak demandatzaileak bere kontra jarritako uzia ebazten ari den prozeduran jartzen duela uzi hori, hain justu. Fenomenoa arras interesgarria da, eta sakon aztertuko dugu.

5.4. Prozesuen metaketa edo pilaketa.

Prozesuen metaketan independenteak izan diren bi prozesu edo gehiago pilotzen edo metatzen dira, eta pilatu ondoren, prozedura bakarrean bideratuta, epai formal bakarrean ebazten dira (PZLren 74. art.).

Metaketa edo pilaketa hori gertatu ahal izateko ezinbestekoak dira baldintza hauek:

1. Metatzen den edozein prozesutan, alderdiren batek eskatu behar du prozesuak pilotzea. Alderdik bakarrik dute pilaketa eskatzeko legitimazioa; ofizioz ezin da inoiz agindu (PZLren 75. art.).
2. Pilaketa gertatu ahal izateko, honako hau bete behar da: prozesuetako bat ebatzi behar duen epaiak bestean edo besteetan epaitu aurreko ondoreak izatea (epaitu aurreko ondoreez mintzatzen gara prozesu batean arazo bat logikoki arazo nagusia ebatzi aurretik erabaki behar denean edo aurrekari logiko hori jada gauza epaituaren efektua duen beste prozesu batean erabaki denean), edo prozesuetako objektuei so eginez, horiek ebazten dituzten epaiak kontraesanezkoak, bateraezinak edo elkarrekiko baztertzailak izatea.

Aldiz, PZLren 78. artikulua araberan, ezin izango da prozesurik metatu: (a) epaiak eman eta epai horietan jasotako erabaki edo oinarriak kontraesanezkoak, bateraezinak edo elkarren baztertzailak izan badaitezke, eta hori auzibitate-salbuespenaren bidez saihestu badaiteke, eta (b) baldin eta lehen demandarekin, horren zabaltzearekin, halakorik bada, edo errekonbentzioarekin batera egiaztatzen ez bada ezin izan dela eragin prozesua, metatu nahi diren prozesuetan agertu eta oinarri bereko uzi eta arazoak biltzen dituen. Metatu nahi diren prozesuak demandatzaile edo demandatu errekonbentzio-egileak sustatu bazituen, bakarrik edo auzikidetzan, prozedura bakar bat sustatu ahal izan zuela ulertuko da.

Gainera, metaketa hori egiteko beste lau betekizun prozesal hauek bete behar dira:

1. Metatzen diren prozesuek adierazpen-babesari dagozkionak izan behar dute; izan ere, PZLren 77.1 artikulua dioenez, prozesu adierazleak baino ezin dira metatu.
2. Jardunbide berari jarraituz izapidetzen diren prozesuak bakarrik meta daitezke, edo eskubide prozesalei galerarik eragiten ez dieten prozesuak.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

kapitulua

3. Prozesu guztiek lehenengo auzialdian egon behar dute, eta epaiketaren egintzak burutu gabe egon behar du.

4. Metaketaren ondorioz, eskuduntza objektiboa alda daiteke, betiere gehien jardun dezakeen epaitegiaren alde. Lurralde-eskuduntza ere alda daiteke. Prozesu metatuak erabakitzeko eskuduna demanda jarritako datari begiraturaz prozesurik zaharrena erabakitzen ari den hura izango da. Horri egingo zaio metaketarako eskaera (PZLren 75. art.).

Ez ditugu prozesuak metatzeko prozedurak aztertuko, baina PZLk prozesuen metaketarako bi prozesu aintzatesten dituela aipatu nahi dugu: bata, metatu beharreko prozesuak auzitegi berean egikaritzen ari direnean bete beharrekoa (PZLren 81-85 artikulua), eta bigarrena, metatu beharreko prozesuak auzitegi desberdinetan egikaritzen ari direnean erabili beharrekoa (PZLren 86. artikulutik 97.era bitarteko artikulua).

6. KAPITULUA: AURREKO EGINTZA EZ-JURISDIKZIONALAK.

6.1. Prozesu aurreko egintzak, oro har. 6.2. Adiskidetze prebentiboa. 6.3. Aurretiazko erreklamazio administratiboa. 6.4. Atariko eginbideak.

6.1. Prozesu aurreko egintzak, oro har.

Prozesu zibil adierazlearen lehen egintza demanda aurkeztea baldin bada ere, legeek horren aurretik izaten diren edo izan daitezkeen beste egintza batzuk arautzen dituzte. Hiru dira prozesuaren aurreko egintza nagusiak: aurreko erreklamazio administratiboa, adiskidetzea eta atariko eginbideak. Lehenengoa nahitaezko egintza da, administrazioa demandatzen den auzietan. Beste biak borondatezkoak dira, demandatzaileak hala nahi duenean gauzatzen dir: adiskidetzea, auzia ekiditeko, eta atariko eginbideak, prozesua prestatzeko.

Hiru egintza horiek prozesuari ekin aurreko beste jarduera batetik bereizi behar dira, hain zuzen ere, alderdien abokatuek prozesua prestatzeko egiten duten jardueratik (bide judizialera jo edo ez erabaki, idazkiak prestatu, frogak pentsatu...). Jarduera hori, logikoa denez, ez da epaileen jarduera, ezta jarduera jurisdikzionala ere.

6.2. Adiskidetze prebentiboa.

Aurretiazko adiskidetzea ere deitua da, eta borondatezko prozesuaren aurreko egintza ez-jurisdikzionala da (1881/PZLren 460. art.).

Ez dago PZLn berariaz araututa; etorkizunean Borondatezko Jurisdikzioaren Legeak arautuko duela dirudi, baina, hori gertatu arte eta gaur egun PZLn dagoen xedapen indargabetzaile bakarrari jarraituz (XD 1.2), 1881/PZLren 460-480 artikuluek diotenari jarraitzen zaio.

Adiskidetzearen bitartez, alderdiek akordio bat bilatzen dute, hirugarren baten aurrean, beren gatazkari bukaera emateko eta prozesua has dadin ekiditeko. Lehen definizio horri hiru zehaztapen egin behar dizkiogu:

1. Adiskidetzea edozein hirugarrenen aurrean egin daiteke; hirugarren horrek ez du ezinbestean epailea izan behar. Epaile baten aurrean egiten bada, horrek ez du jarduera horretan funtzio jurisdikzionalik egikarrituko. Alderdiek akordio bat lortzen badute, berek lortutako emaitza izango da, eta ez epailearen erabakia. Epailea alderdien aurrean egongo da, haiek elkar errespetatzen dutela eta komunikazioa badela bermatzeko, baina epaileak ez du ezer erabakiko. Horregatik esaten da adiskidetze prebentiboa borondatezko jurisdikzioaren barneko egintza dela.

Guk, noski, eta zuzenbide jurisdikzionalaren eremuan gaudenez, epaile baten aurrean egiten den adiskidetzea aztertuko dugu.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

2. Nahiz eta adiskidetzea, oro har, demanda aurkeztu baino lehen egin, posible da prozesuan zehar ere egitea (adibidez, PZLren 415. eta 428.2 artikulua). Halakoetan, prozesu barneko adiskidetzea deritza. Adiskidetze horiek ez dira prebentiboak, ez baitute prozesuaren hasiera ekiditeko helburua, hasita dagoen prozesua amaitzea baizik.

3. Gai guztietan ezin daiteke adiskidetzetik egin. Ezin daiteke adiskidetzetik saiatu Estatuak, autonomia-erkidegoek, udalek zein bestelako erakunde eta korporazio publikoek interesa duten epaiketetan (1881/PZLren 460.1 art.); ezta adingabeek eta beren ondasunak administratzeko ezgaituta daudenek interesa duten epaiketetan ere; ezta epaile eta magistratuen kontrako erantzukizun zibileko auzietan ere (1881/PZLren 460.3 art.); oro har, ezin daiteke adiskidetzetik bideratu ezin xeda daitezkeen gaiak buruzko auzietan, transakzioa edo konpromisoa ezinezkoa den kasu orotan (1881/PZLren 460.2 art.).

Azter dezagun nola izapidetzen den adiskidetze prebentiboa.

Eskuduntzari dagokionez, adiskidetzeez arduratzeko eskudunak dira, objektiboki, lehen auzialdiko epaitegiak eta bake-epaitegiak (1881/PZLren 460. art.).

Lurraldeari so eginez, gai horri buruz jarduteko eskumena du demandatuaren helbideari dagokion epaitegiak, eta halakorik ez balego, demandatuaren bizitokikoari. Demandatua pertsona juridiko bat izanez gero, demandatzailearen helbideari dagokionak ere badu eskumena, betiere toki horretan jendaurrean zabalik badu delegazio, sukurtsal edo bulego bat. Ezin daiteke berariaz eskumendean jarri, bai, ordea, isilbidez.

Jar gaitzen, bada, epai-organo eskudunaren aurrean. Abokatuaren eta prokuradorean parte-hartzea ez da ezinbestekoa (1881/PZLren 10. art.). Interesatuaren datuak, eskaera eta data idatzita dituen "idazki" bat aurkeztuz hasten da prozedura. Hori izapidetzea onartuz gero, epaileak interesatuak egun horretan bertan edo hurrengo egunean ager daitezten deituko die. Garrantzizkoa da adieraztea, "idazki" horren aurkezte eta onartze soilak eten egiten duela preskripzioa, aurkezpena egiten den unetik beretik (1881/PZLren 479. art.).

Zer gertatzen da interesatuetakoa bat agertzen ez bada? Alderdi biek (demandatzaile eta demandatu izango direnak) deitu dituzten orduan eta egunean agertu behar dute, nahitaez. Bietako bat agertzen ez bada, eta ez agertu izana justifikatzeko kari arrazoiturik aditzera ematen ez badu, saiaturako egintzat eta efektu gabekotzat joko da, eta agertu ez dena kostuak ordaintzera kondenatuko dute (1881/PZLren 469. art.).

Demagun interesatu biak (etorkizunean demandatzaile eta demandatu izango direnak, adiskidetzearen bitartez akordio bat lortzen ez badute, behintzat) agertzen direla. Kasu horretan, demandatzailea hasiko da, bere erreklamazioa azalduz eta erreklamazioaren oinarriak adieraziz. Beste interesatuak (balizko demandatuak) hari eta haren argudioei erantzun die, eta esandakoa (salbuespenak) frogatzeko beharrezko elementuak erabili ahal izango ditu (dokumentuak). Erantzun horren ondoren, interesatuek erantzun ahal izango dute berriro. Alderdiek akordiorik lortzen ez badute, epailea biak adiskidetzen ahaleginduko da; lortzen ez badu, egintza bukatutzat eta efektu gabekotzat adieraziko

da. Interesatuek eta epaileak akta izenpetuko dute eta kostuak eskatzailearen kontura (balizko demandatzailea) izango dira (1881/PZLren 471., 472. eta 473. artikulua).

Alderdiek beren kabuz edo epailearen laguntzaz akordio bat lortzen badute, hitzartutakoak kontratu baten balioa izango du. Gainera, hitzartutakoaren balioa ez bada 90 eurotik gorakoa eta adiskidetzea bake-epaile baten aurrean egiten bada, edo lehen auzialdiko epaile baten aurrean, kontratu horrek indar betearazlea izango du, epai-titulu betearazlearen izaera, eta epai berberaren aurrean exekuzioa eskatu ahal izango da.

Hitzartutakoa adiskidetzeaz arduratu den epailearen eskuduntzatik kanpo geratzen baldin bada, dokumentu publiko baten balioa izango du (garrantzia izango du hurrengo prozesu bati begira), baina ez du indar betearazlerik izango.

Azkenik, kontratuak baliogabetzen dituzten arrazoiengatik adiskidetze-egintzan hitzartutakoaren kontrako deuseztatze-akzioa egikaritu ahal izango da (1881/PZLren 477. art.).

6.3. Aurretiazko erreklamazio administratiboa.

Administrazio publikoaren pribilegioa da, gaur egun justifikatzen benetan zaila bada ere, Konstituzio Auzitegiak ez du epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidearen kontrakotzat jo, herritarrarentzat ez dakarrelako zama larregirik.

Erreklamazio hori ez da PZLn arautzen. Administrazio Publikoaren kontra jartzen diren prozesu zibil guztietan, aurreko erreklamazio administratiboaren betebeharra Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Komunaren Legeak (30/1992, legea) 120.3 artikuluan ezartzen du.

Nola egiten da aurretiazko erreklamazio administratiboa? Prozedurak, logikoa denez, izaera administratiboa du, eta aipatutako 30/1992 legearen 122.etik 124.era bitarteko artikuluetan arautzen da. Era horretara, aurretik ebazpen administratibo bat egon edo ez, administrazio publiko bat (zentzurik zabalenean hartuta: Estatuaren administrazio orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioa, udal administrazioak...) demandatu nahi duen herritar orok, aurretik dagokion administrazioari erreklamazioa egin behar dio, idatziz. Idazki hori idazki administratibo bat aurkeztu daitekeen edozein tokitan aurkeztuko da, eta hortik organo eskudunari helaraziko zaio. Horrek hiru hilabeteko epean ebatziko du, eta epe horretan jaso beharko du eskatzaileak jakinarazpena. Erantzunik jaso ezean, isiltasun administratiboa negatibotzat hartuko da.

Zer gertatzen da Administrazioaren demandatzaile batek ez badu aurretiazko erreklamaziorik egiten? Betekizun hori ez da baldintza prozesal bat, ez baitu eraginik harreman juridiko prozesalaren egituraketa egokian. Horregatik, betekizun hori betetzen ez bada, epaileak ez du demandaren onarpena ukatuko. Ildo horretatik, epai-organoak ez du ofizios aztertuko betekizun hori bete den edo ez. Baina Administrazioak aurretiazko erreklamaziorik egin ez zaiola alegatu ahal izango du demandaren erantzunean, epaiketa arruntean, eta ikustaldian, ahozko epaiketan. Hala gertatuz gero, epai-organoak akatsa konpon dadin eskatuko du; alderdi demandatzaileari horretarako epea emango dio, eta, bien bitartean, prozesua eten egingo du.

Jar gaitzen kontrako kasuan: demandatzaileak aurretiazko erreklamazioa egin du. Erreklamazio hori egite hutsagatik, iraungitze-epea eten egiten da, eta preskripzio-epea ere bai, eten-ebazpena jakinarazi arte edo hiru hilabeteko epea pasatu arte.

Administrazioak, erreklamazioa iristen zaionean, bi aukera ditu: erreklamazioa onartzea edo ez onartzea. Onartuz gero, etorkizuneko prozesu zibila objektu gabe uzten du, beraz, ez da prozesurik izango. Gerta liteke Administrazioak zati batean arrazoiak ematea herritarrari, eta bestean, aldiz, ez. Kasu horretan, eta herritarrak hala nahi badu, aintzatetsi ez zaion zatiari buruzkoa izango da prozesua. Administrazioak erreklamazioa onartzen ez badu, zabalik gelditzen da prozesu zibilerako atea, eta demandatzaileak demanda jar dezake. Puntu honetan, garrantziko zehaztapen egin behar dugu: aurreko erreklamazioaren eta prozesuko objektuaren artean lotura egon behar du. Era horretara, demandatzaileak ezin izango du erreklamazio administratiboan aurkeztutako uztiaz bestelako uzirik aurkeztu prozesuan. Era berean, Administrazioak ezingo du prozesuan aurkeztu erreklamazioan alegatu ez zuen defentsa-biderik.

6.4. Atariko eginbideak.

Atariko eginbideak PZLren 256.etik 263.era bitarteko artikuluetan arautzen dira. Prozesuaren aurretik hura prestatzeko egin behar diren eginbideak dira, legeak zehatz-mehatz adieraziak. Badakigunez, eginbide horiek demandatzailearen borondatearen mende daude, hau da, hark nahi duenean egingo dira. Horien helburua prozesu bat prestatzea eta horri buruzko zalantzak argitzea da, legitimazio pasiboari dagokionez, oro har, baina baita legitimazio aktiboari buruz ere. Horrela, eginbide horien bitartez, legitimaziorik ezagatik edo legitimazioa oker finkatzeagatik prozesu bat epai prozesal huts batez amaitzea ekiditen da. Gainera, mamia buruzko gai batzuk argitzeko ere balio dute.

Lehendik esan dugu, baina, garrantzikoa denez, errepikatu egin behar da, atariko eginbideak legeak berariaz aurreikusitako kasuetan bakarrik eska daitezkeela eta onar ditzakeela epaileak. Beraz, *numerus clausus* dira. Lege bereziek aurreikus ditzaketen aurretiazko neurriak salbu, PZLk 256.1 artikuluan honako neurri hauek aipatzen dira:

1. Demandatua izango denak egia esango duela zin egin edo hitzemango du, eta etorkizuneko prozesurako nahitaez jakin beharreko gaitasun, ordezkaritza edo legitimazioari buruz deklaratu edo dokumentuak erakutsiko ditu.
2. Demandatua izango denak bere esku duen eta epaiketaren eztabaidagai izango den gauza bat (ondasun higigarria) erakusteko eginbidea.
3. Bere burua jaraunse, jaraunsekide edo legatu-hartzailetzat duenak, oinordetzaren edo legatuaren sortzailearen borondatea jasotzen duten dokumentuak dituenari erakuts ditzala eska dezake. (Eginbide hori erabaki aurretik sortzailearen heriotza frogatu beharko da, eta eskatzen duenak, jaraunsea edo legatu-hartzailea dela).
4. Bazkide edo erkide batek sozietatearen edo komunitatearen dokumentuak eta kontuak erakuts diezazkieten eska dezake (eskaera bere esku duen bazkide edo erkidegoari egingo zaio).

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

5. Erantzukizun zibileko aseguru batek babestutako egitate batek kaltetua dela uste duenak, aseguru-kontratua erakustea eska diezaioke berori duenari.

6. Etorkizuneko prozesuaren xedea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen defentsa bada, demandatzaileak ukitutakoen taldea zehaztea eska dezake. Horretarako, epai-organismoak taldeko kideak nor diren ikertzeko beharrezko neurriak hartzea erabaki dezake.

Zer epai-organok du eginbide horiek erabakitzeke (emateko) eskuduntza? Deklaratu, erakutsi edo eginbide horietan parte hartu behar duen pertsonaren bizitokiko lehen auzialdiko epaitegiari dagokio (PZLren 257. art.). Alderdi horretatik, PZLk arau berezi bat dauka: atariko eginbidea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen defentsarako prozesu bat prestatzeko bada, demanda ezagutu behar duen auzitegiari egozten zaio berau erabakitzeke eskuduntza (PZLren 256.1.6 art.).

Edonola ere, auzitegiek, atariko eginbidea erabaki aurretik, ofizioz kontrolatuko dute horretarako eskuduntza dutela, eta horretarako eskumenik ez dutela uste badute, jarduteari uko egingo diote, eta eskatzaileari eskaera zer organo jurisdikzionalen aurrean aurkeztu behar duen adieraziko diote. Bigarren hori inhibititu egiten bada, gatazka negatiboa bi organo horien gaineko organoak erabakiko du, baina ezingo du inhibitiorik aurkeztu.

Neurri horiek eskatzeko, nahitaezkoa da postulazioa, hau da, abokatuaren eta prokuradorearen laguntza? Badakigu ez dela abokatu eta prokuradorearen laguntzarik behar epaiketa aurretik premiazko neurriak eskatzeko (PZLren 23. eta 31. artikulua), beraz, eginbide horiek premiaz eskatzen badira, ez da postulaziorik behar; bestela, aldiz, bai.

Atariko eginbide horiek eskatzeko eta emateko prozedurari dagokionez, azpimarratu behar da eskatzaileak idatziz eskatu behar dituela. Idazki horretan honako hauek adierazi behar ditu: (1) prestatu nahi duen epaiketaren objektua; (2) demandatzailea nor den/diren; (3) eskatzen duen neurria; eta (4) horretarako aurkezten dituen oinarriak (egokitzapena, kari justua eta interes zilegia). Une horretan bertan dagokion kausioa aurkeztu behar du (PZLren 256.2 art.). (Zertarako kausioa? Eginbideak sortzen dituen gastuak –parte hartzen duten pertsonen,...– eskatzailearen kontu izanen dira, eta horien ordainketa ziurtatzeko eta sor daitezkeen kalte-ordainen ordainketa ziurtatzeko, eskatzaileak kausioa jarri behar du).

Epaitegiak 5 eguneko epean erabakiko du diligentzia baimendu edo ez. Horretarako, ez du beste pertsona entzungo (etorkizuneko demandatua, zerbait esan, erakutsi edo egin behar duena), eta neurriaren xedea eta karia justua den eta interesa zilegia den edo ez bakarrik izango du kontuan.

Erabakia auto baten bidez emango du. Autoa positiboa bada, hau da, eskaera onartuz gero, auto berean epai-organismoak interesduna zitzu eta errekerimendua egingo zaio epaitegiaren egoitzan edo egoki deritzon tokian eta moduan, hurrengo 10 eguneko epean erabakitako diligentzia aurrera eramateko (PZLren 259.1 art.). Auto berean auzitegiak jarri beharrezko kausioa erabakiko du. Kausio hori hiru eguneko epean jartzen ez bada, jardundakoak artxibatu egingo dira.

Eskaera ukatzen bada, eskatzaileak gora jotzeko errekurtsua jartzeko aukera izango du (PZLren 258. art.). Eginbidea onartzen duen autoaren kontra, aldiz, ezin daiteke errekurtsorik jarri.

Demagun atariko eginbidea baimendu dela. Zitazioa jaso eta 5 eguneko epean, errekeritutako pertsona idazki baten bidez eginbidearen praktikaren kontra ager daiteke. Kasu horretan, epai-organoak alderdiak ikustaldira deituko ditu (ahozko epaiketarako aurreikusitako eran), auto bidez, eta eginbiderako aurkeztu den aurka-egiteak oinarria baduen edo ez erabakiko du. Aurka-egitea onartuz gero, eginbidea gaitzesteko gora-jotzeko helegitea jar daiteke. Bestela, eginbideak egiten jarraitu behar dela erabakiz gero, autoaren kontra ezingo da errekurtsorik jarri.

Bukatzeko, aipatu behar da eginbide horien izaerari buruz eztabaida sakona dagoela doktrinan. Horretan sakondu gabe, borondatezko jurisdikzio arloko egintzak direla, epailearen aurrean gauzatu arren izaera jurisdikzionalik gabeak direla aldarrikatuko dugu guk.

7. KAPITULUA: DEMANDA.

7.1. Prozesu zibil adierazlea, lehenengo auzialdian: kasuan kasurako egokia den epaiketa. Epaiketa arruntak (arrunta eta ahozkoa) eta bereziak. 7.2 Demanda: kontzeptua. 7.3. Demandaren betekizunak. 7.4. Demandarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak. 7.5. Demandaren aurkezpena, eta demanda onartzea edo ukatzea. 7.6. Demandaren efektuak edo ondoreak.

7.1. Prozesu zibil adierazlea, lehenengo auzialdian: kasuan kasurako egokia den epaiketa. Epaiketa arruntak (arrunta eta ahozkoa) eta bereziak.

Jakin badakigu epaileek herritarroi eman diezaguketen babesa adierazpenezkoa (adierazle hutsa, eratzaila edo kondenazkoa), exekutiboa edo kautelarra izan daitekeela. Badakigu, bestalde, babes mota bakoitzari prozesu mota bat dagokiola: adierazlea, exekutiboa edo kautelarra.

Ikasgaiaren atal honetan, prozesu adierazlea aztertuko dugu. Prozesu adierazlea bi eratako prozesuen bitartez gauza daiteke: prozesu adierazle (edo adierazpen-prozesu) arruntak eta prozesu adierazle bereziak.

Era berean, bi prozesu adierazle arrunt daude: adierazpen-prozesu arrunta eta ahozko prozesu adierazlea.

Prozesu adierazle bereziak PZLren IV. liburuan arautzen dira, hala nola gaitasuna, seme-alabatasuna, aitatasuna, amatasuna, ezkontza eta adingabetasuna, ondareen banaketa judiziala (oinordetza, ezkontza-eraentza ekonomikoa), epaiketa monitorioa eta kanbio-epaiketa.

Itzul gaitezten prozesu adierazle arruntera. Bi aukera daudenez, nahitaezkoa da jakitea noiz erabili behar den bat eta noiz bestea. Legeak kasu bakoitzari zein prozesu dagokion erabakitzeke bi irizpide erabiltzen ditu: erreklamazioaren munta eta epaiketaren gaia. Bigarrena irizpide berezia denez, lehentasunez aplikatzen da. Hala, epaiketaren munta irizpide orokor gisa aurreikusten denez, epaiketaren gaiari buruzko araurik ez dagoenean aplikatuko da (PZLren 248.3 art.).

Gaiaren (materiaren) irizpidea lehentasunezko irizpidea denez, zehatzago aztertuko dugu. Kasu jakin bat zein prozesuren bitartez gauzatu erabakitzeke, lehenik eta behin gatazkari buruz prozesu bereziren bat dagoen ikusi behar da. Epaitegietara daramagun kasua gaitasun, seme-alabatasun, aitatasun, amatasun, ezkontza, adingabetasun, ondareen banaketa edo zatiketa judiziala (oinordetza, ezkontza eraentza ekonomikoa), monitorio edo kanbio gaiari badagokie, prozesu berezi horien bidez bideratu beharko dugu.

Gure kasua gai berezi horietako batean sartu ezin bada, PZLren 249. eta 250. artikuluetara jo beharko dugu. Lehenengoak (PZLren 249.1 art.) epaiketa arruntaren bidez zer-nolako gaiak bideratzen diren aurreikusten du, eta bigarrenak (PZLren 250.1

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

art.), aldiz, ahozko epaiketaren bitartez zer gai tramitatu behar diren esaten du. Hona hemen bi zerrendak.

Epaiketa arruntaren bidez gauzatu behar dira honako gai hauek (PZLren 249.1 art.):

- > Pertsonaren ohorezko eskubideak.
 - > Ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, eta oinarritzko beste edozein eskubide, zuzenketa- edo errektifikazio-eskubidea salbu.
 - > Bazkide edo obligaziodunen batzar orokor edo bereziek edo administrazio-organo kolegiatuek merkataritza arloko erakunde edo entitateetan hartutako sozietatearen akordioak aurkaratzea.
 - > Elkarlehia desleiala, jabetza industrial, jabetza intelektuala eta publizitatea, baldin eta muntei edo kantitateei buruz bakarrik eztabaidatzen ez bada.
 - > Kontratazioaren baldintza orokorrak.
 - > Ondasun higiezinaren gaineko landa- eta hiri-errentamenduak, maizterra ordainketarik ezagatik edo errentamendu-harremanaren epea bukatzeagatik kanporatzen denean izan ezik.
 - > Atzera-eskuratzea.
 - > Jabetza horizontala, betiere muntan edo kantitateen inguruko eztabaida soilik ez bada.
- Ahozko epaiketaren bidez, berriz, honako gai hauek bideratu beharko dira (PZLren 250. art.):
- > Landa- edo hiri-lursail edo finka baten jabeak, gozamendunak edo harekiko eskubidea duen edozein pertsonak errentaren edo errentariak zor dituen kantitateak ez ordaintzeagatik edo kontratuan ezarritako epea bukatzeagatik sail horren edukitza berreskuratzea.
 - > Landa- edo hiri-lursail edo finka baten jabeak, gozamendunak edo haren edukitza izateko eskubidea duen edozein pertsonak hura berreskuratzea, prekarioz laga denean.
 - > Ondasunen edukitza ematea ondasunok oinordetza bidez jasotzeko, inork ez badu jabe- edo gozamendun-titulurik.
 - > Gauza edo eskubide baten edukitza babestea hartaz gabetu denari edo bere gozameneari artegatu denari.
 - > Obra berri bat etetea.
 - > Hondatutako eta kalteak sor ditzakeen obra, eraikin, zuhaitz, zutabe edo beste objektu bat eraistea.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

-> Edukitzaren babes erregistrala (errola-babesa).

-> Elikagaiak.

-> Zuzenketa-eskubidea.

->Epekako salmenta.

->Finantza-errentamendu edo epekako salmentak, baldin eta ondasuna berehala entregatu nahi bada.

->Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektibo eta zehaztugabeen defentsan, gelditzeko akzioa egikaritzea.

Gaiari dagokion irizpidea ofizioz aztertu behar du epai-organoak. Izan ere, horrek kausa bakoitzari dagokion bidea eman behar dio, nahiz eta demandatzaileak demanda aurkezteko egokia ez den prozesu bati jarraitu (PZLren 254.1.II art.). Posible da, bestalde, demandatuak akatsa alegatzea, prozeduraren desegokitasunaren salbuespenaren bidez. Salbuespen hori epaiketa arruntean epaiketa aurreko entzunaldian ebatziko da (PZLren 423. art.), eta ikustaldian, ahozko judizioan (PZLren 443. art.).

Aurrerapauso bat eginda, guk epaileei aurkeztu behar diegun kasua aipatutako gaien barruan sartu ez badugu (epaiketa berezietan, ezta 249.1 eta 250. artikuluetakoan ere), iragarri dugun bezala, PZLk beste irizpide bat aurreikusten du: zenbatekoarena. Horri dagokionez, legeak gogoratzen erraza den zenbateko bat ezartzen du: 3.000 euro. Guk aurkezten dugun uziaren (prozesuko objektua, alegia) balio ekonomikoa 3.000 eurotik gorakoa ez denean, ahozko judizioaren biderei jarraituko zaio, aldiz, uziaren munta zenbateko horretatik gorakoa bada, epaiketa arruntaren bitartez gauzatu beharko da kasua (PZLren 249.2 eta 250.2 artikulua). Zentzu horretan, bi zehaztapen egin daitezke.

Batetik, bi epaiketa horiei buruz (arrunta eta berezia) jarduteko eskuduntza lehen auzialdiko epaitegiei dagokie. Bake-epaitegiak jardungo du kausaren munta 90,15 eurotik beherakoa denean. Bake-epaitegiak ofizioz kontrolatu beharko du, beti, gaiaren munta berak jarduteko modukoa den. Lehen auzialdiko epaitegietan diharduten epaileek, aldiz, demandatzaileak demandan adierazten duen kantitateari dagokion moduan tramitatu behar dute prozesua (PZLren 254.1.2 art.). Are gehiago, epaileak ezin du muntaren ondoriozko demanda onartu gabe utzi prozedura desegokia iruditzen zaiolako (PZLren 254.4 art.). Baina demandak munta adierazteko betebeharra betetzen ez badu, edo epaileak adierazitako munta desegokia dela eta berau ezartzeko elementurik ez dagoela uste badu, epai-organoak demandatzaileari 10 eguneko epea emango dio akatsa konpontzeko, eta hark akatsa konpontzen ez badu, demanda artxibatu egingo da (PZLren 254.4.1 eta 254.4.2 artikulua).

Bestalde, gerta liteke munta alderdiaren eskariz kontrolatzea. Alderdi demandatuak munta aurkara dezake, munta behar bezala kalkulatu gero, beste mota bateko epaiketa aplikatu beharko litzatekeela uste duelako (PZLren 255.1 art.). Arazo hori epaiketa aurreko entzunaldian ebatziko da epaiketa arruntean, eta ikustaldikoan, ahozko epaiketan, betiere aurretik demandatzailea entzunda (PZLren 255.2 eta 255.3 artikulua).

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Bestalde, munta irizpide izanik, munta hori nola kalkulatu den adierazi behar dugu. Demandatzailea da munta ezarri behar duena, demandan hori justifikatuta (PZLren 253. art.). Demandan beti egin behar zaio erreferentzia auziaren muntari, zehatz-mehatz ez bada ere. Horrela, posible da demandatzaileak kopuru zehatz bat adierazi beharrean epaiketa arrunta edo ahozko epaiketa aplikatu behar den erakusten duen erdibideko kopuru bat adieraztea. Adibidez, demandatzaileak demandan ezar dezake ez dakiela argi eta garbi zenbat diru zor zaion, baina badakiela 6.000 euro baino gehiago dela. Demandatzaileak ezin du, inola ere, diru kopuruari erreferentziarik egin gabe epaiketa mota adierazi. Ezin du, orobat, zenbatekoaren zehaztapena demandatuaren esku utzi (PZLren 253.2 art.).

Baina nola kalkulatu da gai baten balio ekonomikoa? Diru kopuru bat eskatzen duten kondenazko uzi adierazleen kasua da errazena. Diru kopuru hori da kasu horietan demandaren zenbatekoa. Gainerako kasuetan, PZLren 251. artikulua zenbateko hori kalkulatzeko arau batzuk ematen dizkio demandatzaileari. PZLren 252. artikulua, berriz, hainbat arau azaltzen ditu uzien metaketa gertatzen den kasuetarako. Aipatutako bi artikulua horietako arauei jarraituz, demandatzaileak eskaeraren zenbatekoa kalkulatu ezin badu, uziaren balioa kalkulazintzat hartuko da, eta epaiketa arrunta aplikatuko zaio (PZLren 249.2 eta 253.3 artikulua).

Balio horri dagokionez, kontuan izan behar dugu, prozesuan zehar objektuaren balioa aldatzeak –demanda aurkeztu eta gero gertatzen bada behintzat– ez duela prozesu mota aldaraziko, ezta uziaren zenbatekoaren hasierako balioespena ere aldaraziko (PZLren 253.1. II art.).

Zenbatekoaren kontrolari dagokionez, arau orokor gisa esan behar da zenbateko horrek ondorio prozesalak dituenean (hau da, prozesu bat edo bestea aplikatzea), ofizioz kontrolatu behar dela. Horregatik, gehienetan, demandatzaileak demandan eskatutako tramitazioa emango dio auzitegiak epaiketari, hark adierazitako uziaren zenbatekoa eta eskatutako epaiketa mota bat ez datozenean salbu. Kasu horretan, gaiari dagokion tramitazioa emango dio auziari, demandan eskatutakoari lotuta geratu gabe (PZLren 254.1 art.). posible da, bestalde, auzitegiak demandaren balioa kalkulazina edo zehaztuezina dela uste izatea, eta epaiketa arruntaren tramitazioa emango dio, ofizioz. Hala ere, auzitegiak ez du inoiz demanda onartu gabe utziko zenbatekoa dela-eta, demandatzaileak adierazitako epaiketa mota desagokia dela uste duelako. Akatsen bat ikusten badu, demandatzaileari adierazi eta konpontzeko eskatuko dio, eta orduan, demandatzaileak konpondu ezean, demanda artxibatzea eskatuko du. Horri buruz, esan beharra dago auzitegiak ofizioz konpon ditzakeela demandatzaileak demandaren zenbatekoa kalkulatzeko egindako akats aritmetikoak edo kalkulu-araua aukeratzean egindakoak, demandatzaileak zenbateko egokia kalkulatzeko datuak demandan jarri baditu betiere. Akats horiek konpondu ondoren, kasua dagokion moduan tramitatuko du.

Halaber, gerta liteke demandatzaileak demandan adierazitako zenbatekoa demandatuak aurkaratzea, kalkulu horrek epaiketa motari dagokionez ondoreak dituela uste duela-eta. Kasu horretan bakarrik errekurri dezake. Kalkulu okerra konpontzeko ondorio prozesalik ez badu, ezin izango du aurkaratu. Aurkaratze hori demandaren erantzunean egingo du, epaiketa arruntetan, eta epaiketa aurreko entzunaldian

konponduko da (PZLren 422. art.). Ahozko epaiketan, ikustaldian egingo du, eta ikustaldian bertan erabakiko da.

7.2. Demanda: kontzeptua.

Prozesu zibilean indarrean dauden xedapen eta printzipioekin bat, prozesu hau ezin daiteke ofizioz hasi. Alderdiaren egintza behar da prozesu zibila hasteko. Egintza hori da demanda (PZLren 399.1 art.).

Badakigunez, demandan akzio-eskubidea egikaritzen da epaileen aurrean, eta horiek, prozesua martxan jartzen dutenean, babes judiziala ematen diote demandatzaileari. Gainera, demandatzaileak uzia jartzen du demandan. Alderdi horretatik, demanda uziaren edukitzailea dela esan ohi da.

7.3. Demandaren betekizunak.

Demandak bete behar dituen betekizunen barruan, nahiz eta kontrakoa iruditu, betekizun formalak ez dira hain garrantzitsuak. Demanda idatzizkoa da, noski, eta hori idazteko eredu bati jarraitu izan zaio, tradizioz burutzea epaitegiari, gertaerak, zuzenbide-oinarriak, epaitegiari eskaria, inguruabarrak, eta data eta sinadura), baina, hala ere, edukiari dagozkion betekizunek askoz ere garrantzi handiagoa dute, bai demandari dagozkionak, oro har, bai uziari dagozkionak. Izan ere, azken finean, lehenengo kasuan demandaren onarpena dago jokoan, eta bigarrean, are garrantzitsuagoa, uzia onestea.

Betekizunen barruan, betekizun subjektiboez, oinarriaz eta eskariak arituko gara. Bukatzeko, beste batzuk ere aipatuko ditugu. Has gaitezen, bada, horiek aztertzen.

Betekizun subjektiboak direla-eta, demandatzaileak epai-organoa eta alderdiak zehaztu behar ditu demandan. Epai-organoaren zehaztapena orokorra da (“epaitegiari” esan ohi da), kasuaz jardutea zehazki zer epaileri dagokion adierazi gabe.

Alderdiak ondo identifikatzea arras garrantzitsua da, izan ere, aldi berean, uziaren subjektuak zehazten ari gara. Demandatzaileak honako hauek adierazi behar ditu, bere buruari buruz, eta honako ordena honi jarraituz: (1) bere ordezkari gisa arituko den prokuradorea (izen-abizenak), horri ahalordea nola emango dion zehaztuta (eskritura bidez, *apud acta* edo ofizioz); (2) demandatzailearen datuak: izena, abizenak, lanbidea eta bizitokia (zitatua edo deitua izateko. Nahi izanez gero, ordezkari legalaren edo borondatezko ordezkariaren egoitza adieraziko da). Pertsona juridikoa baldin bada, bere datuak adieraziko dira, eta ez bere izenean jardungo duen edo ordezkatu duen pertsona fisikoarenak; eta (3) azkenik, bere abokatuaren izen-abizenak azaldu beharko ditu.

Demandatuari dagokionez, garrantzizkoa da demandatzaileak hura ondo (edo behintzat, nahiko ondo) identifikatzea, demanda okerreko pertsonaren kontrakoa gerta ez dadin. Demandatua identifikatzeko, hari buruzko informazio guztia eman ohi da (telefonoa eta faxa barne). Demandatuaren helbide bat baino gehiago eman litezke; kasu horretan, demandatzaileak zehaztu egin beharko du jakinarazpenak egiteko zer ordena iruditzen zaion egokiena. Posible da, baita ere, udal erroldan agertzen den helbidea

adieraztea, edo beste errolda ofizial batzuetan agertzen dena, edo aldizkako lan batekoa (PZLren 155. art.). Demandatzaileak demandatuaren helbidea ezagutzen ez badu, ediktu bidezko jakinarazpena eska dezake.

Demanda oinarrizeari dagokionez, PZLren 399.1 artikulua egitateen eta zuzenbideko oinarrien azalpen zenbatua eta banandua galdatzen du. Aipatutakoak dira demandaren bi atal nagusiak: egitateak eta zuzenbideko oinarriak.

Egitateak, PZLren 399.3 artikulua dioenez, era ordenatuan eta argian adieraziko dira, demanduari erantzutean egitateon onarpena edo ukatzea errazteko. Zer egitate azalduko dira? Demandatzaileak eskatzen duen ondorio juridikoa aurreikusten duen arauaren egitatezko kasua osatzen dutenak. PZLren 400. artikulua dioenez, demandan eskatutakoa hainbat egitate oinarritu daitekeenean, ezagutzen diren edo aipa daitezkeen egitate guztiak adierazi beharko dira demandan; horien alegazioak ezingo dira aurreragoko prozesu baterako utzi.

Era berean, ordena eta argitasun beraz adieraziko dira uziaren oinarri diren egitateen gaineko dokumentu, baliabide edo tresnak.

Azkenik, auzilariaren eskubidearentzat egoki irizten bazaie, egitate horiei buruz balioespenak edo arrazonamenduak egingen dira.

Zuzenbideko oinarrien barnean, aldiz, PZLren 399.4 artikulua eduki prozesaleko oinarrien eta mamiari buruzko oinarrien arteko bereizketa egiten du.

Eduki prozesaleko oinarrien barruan, alderdien gaitasunari, legitimazioari, ordezkapenari, jurisdikzioari, eskuduntzari eta epaiketa motari buruzkoak aipatuko dira. Epaiaketaren balioan eta mamiari buruzko sententzian eragina izan dezaketen beste edozein ere aipatuko dira. Azken batean, baldintza prozesalak betetzen direla alegatu behar da.

Mamiari buruzko oinarriak, aldiz, aurkeztutako zuzenbide materialeko arazoari dagozkionak dira. Demandatzaileak zuzenbidean oinarritu behar du bere eskaria. Oinarri horien arabera onartuko da edo baztertuko da uzia. Alderdi horretatik, ez dugu ahaztu behar epaileen betebeharra dela zuzenbidea ezagutzea (*iura novit curia*). Horregatik, demandatzaileak alegatutako arauak ez dituzte epaileak lotzen; era horretara, posible da epaile batek uzi bat onartzea demandatzaileak alegatu gabeko arauak aplikatuta.

Oinarriztea da, zalantzarik gabe, demandaren alderdi garrantzizkoena. Litekeena da oinarririk ezagatik edo akatsak izateagatik demanda ez onartzea (PZLren 416.1.5° art.). Izan ere, uziaren onarpena oinarri egokia azaltzearen mende baitago, hein handi batean.

Eskaerari dagokionez, PZLren 399. artikuluan “eskatzen dena” esapiderearen bitartez adierazten da. Datu hori ere argi eta zehatz adierazi beharra dago.

Eskaera horrek (uziak, azken batean) epai-babes edo tutoretza jakin bati (adierazlea, exekutiboa eta kautelarra, eta lehenengoaren barnean adierazle hutsa, eratzaila eta kondenazkoa) eta ondasun juridiko zehatz bati egingo dio erreferentzia beti.

Eskaera bat baino gehiago egiten badira, ordenan eta bananduta adieraziko dira, izan ere, bakoitzari erabaki bat egokituko zaio epaian.

Zalantza barik, demandaren eta uziaren (edukitzailearena eta edukiarena, beraz) punturik garrantzitsuena da.

Askotan, “beste batzuk” esapiderearen bitartez eskaera osagarriak edo adierazpen hutsak egin daitezke.

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu demanda orok data eta sinadura behar duela. Demandan bertan adierazten den data edozein izanda ere, ondore guztietarako kontuan hartuko den data demandaren aurkezpen-data izango da. Gainera, abokatuaren eta prokuradorearen parte-hartzea nahitaezkoa denean (PZLren 23. eta 31. art.), horien sinadura nahitaezkoa da; bestelakoetan, aldiz, nahikoa izango da demandatzailearen sinadura.

7.4. Demandarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

Demandarekin batera zenbait dokumentu aurkeztu behar dira. Dokumentu horiek bi eratakoak izan daitezke: prozesalak eta materialak.

Dokumentu prozesalak prozesu-baldintzei buruzkoak dira. Dokumentu horiek demandaren onarpena baldintzatzen dute. Honako hauek dira dokumentu prozesalak:

1. Prokuradorearen ordezkapen prozesala egiaztatzen duen boterea, hori *apud acta* edo ofizioz egindako kasuetan salbu (PZLren 264.1.1 eta 24.1 artikulua). Azken bi kasu horietan, ordezkaritza bere gain hartzeko idazkariaren aurrean agertu dela jasotzen duen idazkariaren akta, eta Prokuradoreen Elkargoak elkargoko kide bat ofizioz izendatzen duela dioen agiria erantsi beharko dira, hurrenez hurren.
2. Pertsona fisiko edo juridiko baten ordezkaritza legalerako, ordezkaritza horren egiaztapena. Oro har, egiaztapen hori prokuradoreari prozesu-ordezkapena adierazten duen notario-ahalordean bertan egiten da.
3. Gauza eztabaidatuaren balioa egiaztatzen duten dokumentu eta irizpenak; horien bitartez finkatuko da epai-organoaren eskuduntza eta jarraitu beharreko prozedura.
4. Aurretik erreklamazio administratiboa egin den kasuetan, demandarekin batera erreklamazioa egin dela egiaztatzen duen dokumentua edo erreklamazioaren ezetza jasotzen duen administrazioaren agiria aurkeztu behar da.
5. Demandaren kopiak, alderdi adina kopia, eta horrekin batera aurkeztutako dokumentuen kopia (PZLren 273. art.). Kopia horiek aurkezten ez badira, epai-organoak akats hori 5 eguneko epean konpontzeko aginduko dio demandatzaileari. Akatsa konpontzen ez bada, demanda bera eta gainerako dokumentuak ez dira aurkeztutzat hartuko (PZLren 275. art.).

Dokumentu materialak, aldiz, mamiari buruzkoak dira. Dokumentu horiek prozesurako froga izango dira, eta hala dagokionean, epai-organoak demandatzaileari eskatutako babesa ahalbidetuko du. Honako hauek dira dokumentu materialak:

1. Dokumentu publikoak.
2. Dokumentu pribatuak.
3. Adituen irizpide-txostenak.
4. Hitza, soinua edo irudia erreproduzitzeko bideak, eta hitzak, datuak, zifrak eta eragiketa matematikoak artxibatzeke, ezagutzeko eta erreproduzitzeko balio duten tresnak.
5. Erregistroko edozein idazpeni buruzko ziurtagiriak edo oharra, edo erregistroko edozein libururi, jarduerari edo espedienteri buruzkoak.
6. Legearen arabera gaitasuna duten eta eremu pribatuan diharduten profesionalek egindako txostenak (ikusiko dugunez, lekukoen edo testiguen frogatzat hartzen dira).

Zer gertatzen da dokumentu material horiek aurkezten ez badira? Ez du demandaren onarpenean eraginik izango, bai, aldiz, uziaren onarpenean.

Edonola ere, ezin ahantz dezakegu dokumentu hauek aurkezteko unea preklusio-unea dela.

7.5. Demandaren aurkezpena, eta demanda onartzea edo ukatzea.

Demanda demandatzaileak eskuduntza duela deritzon epaitegiaren erregistroan aurkeztuko da, egun eta ordu baliodunetan. Mota bereko epai-organo bat baino gehiago dauden herrietan, dekanotzaren erregistroan aurkeztuko dira, horrek dagokion organoari helaraz diezaion. Demanda ezin da guardiako zerbitzua eskaintzen duten instrukzioko epaitegietan aurkeztu (PZLren 135.2 art.).

Demanda aurkeztean, epaitegiak demanda sartu dela erregistratuko du lehenengo. Ondoren, onartu edo ez erabaki beharko du, auto baten bidez. Epaille zibilak demanda onartzea edo ez onartzea estuki loturik dago epaille horrek prozesu zibilean dituen ahalmenekin.

Demanda onartzeko arau nagusia PZLren 403.1 artikuluan azaltzen da: “Demandak ez dira onartuko lege honetan esanbidez ezarritako kasu eta arrazoiengatik baino”. Printzipio nagusi horrekin batera, PZLren 403.3 artikulua honakoa aurreikusten du: “...ez dira demandak onartuko horiei ez bazaizkie batu legeak demanda onartzeko esanbide galdatu agiriak, edota ez badira ahaleginak egin adiskidetzeari lortzeko, edo kasu berezietan galdatu agindeia, erreklamazioak edo zainpean uzteak egin ez badira”.

Noiz ez da onartuko demanda, mamiari buruzko arrazoiengatik? Horri buruz ez dago arau orokorrik. Ez dugu ahaztu behar, lehen begiratuan demanda ez onartzea epai bidezko babes eraginkorra izateko eskubidearen (EKren 24. art.) ukapena dela; horregatik, lege batek ezin die epaileei baimenik eman demandak oinarririk ez dutelako horien aurkezpena ukatzeko. Praktikan, epaileek ez dituzte onartuko kasuaren mamiari edo funtsari dagokionez ordenamendu juridikoak babesten ez dituen helburuak edo helburu zentzugabeak bilatzen dituzten demandak (norbaitek epaileen aurrean ilargiaren jabetza eskatzen duen kasua, esate baterako).

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Hala ere, badaude legeak berariaz demanda ez onartzeko aurreikusten dituen kasu batzuk. Bitxikeria moduan aipa genezake, KZren 42. artikulua dioena, adibidez: “Ezkontza-hitzak ez du ezkontzeko betebeharra eragiten, ezta ezkontzarik egiten ez den kasuetarako aurreikusitakoa betetzeko betebeharra ere”. Inork ezin du jo auzitegira bere ezkongaiari hitza bete dezan behartzeko eskatzera.

Noiz ez da onartuko demanda arrazoi prozesalengatik, hau da prozesu-baldintzak ez betetzeagatik? Akats prozesal konponezinak dira: alderdien gaitasunik eza (PZLren 9. art.), jurisdikziorik eza (PZLren 36.2, 37.2, 38. eta 404. artikulua), eskuduntza orokorrik eza (PZLren 37.2 eta 38. artikulua), eskumen objektiborik eza (PZLren 48. eta 404. artikulua), eskuduntza funtzionalik eza (PZLren 62. art.) eta lurralde-eskuduntzarik eza, hori aginduzko arauen bidez finkatzean bakarrik (PZLren 58. eta 404. artikulua). Aldiz, konponbidea duten akats prozesalak dira: ahalorderik eza (PZLren 24. art.), ordezkari prozesalik eza eta abokatuaren sinadurarik eza (PZLren 312. art.).

7.6. Demandaren efektuak edo ondoreak.

Demanda jartzeak berak ondore edo efektu pribatu batzuk izaten ditu, zuzenbide materialaren arloan, hain zuzen ere: hala nola preskripzio zibil iraungitzailearen etena (KZren 1973. art.); ondasunak auzilari bihurtzen dira, bai gauzak (KZren 1291.4 art.) bai kredituak ere (KZren 1535. art.); zor solidarioa hartzekodun demandatzaileari bakarrik ordaindu ahal izango zaio (KZren 1412. art.).

Gainera, demandaren aurkezpenak eta ondorengo uziaren onarpenak honako ondore pribatu hauek ditu aurkezten den unean, atzeraeraginez: zorduna berandutzan geratzea (KZren 1100. eta 1101. artikulua); zordunak interes legalak ordaindu beharra, bestelakorik hitzartu ez denean (KZren 1109. art.); fede txarreko zordunak fruituak itzuli beharra (KZren 451. eta 1945. artikulua).

Baina, zalantzarik gabe, demanda jartzeak eta hura onartzeak dakarren ondorio garrantzitsuena ondorio prozesala da, *litispendentzia* edo *auzibitarte* izenaz ezagutzen den fenomeno alegia.

Litispendentzia demanda jarri aurretik zegoen egoeraren eta hura jarri ondoren sortzen den egoeraren arteko haustura da. Demanda jarri aurretik, gatazka bat duten partikularren artean harreman juridiko-material bat dago (adibidez, nahiz eta erosleak prezioa ordaindu, saltzaileak saldutako gauza erosleari ez emateagatik sortzen den liskarra). Harreman hori eremu guztiz pribatuan gertatzen da. Hala, demanda-jartzaileak zuzenbide publikoak eraentzen duen barruti publikoan sartzea dakar. Liskarra konpontzeko bide jurisdikzionalera jo denez, liskar hori eremu publikoaren parte bihurtzen da, eta zuzenbide publikoaren eraginpean geratzen da ondorioz.

Litispendentzia hitzak kasu edo gatazka bat *litis* edo prozesu baten mende, prozesu baten azpian dagoela adierazi nahi du. Kasu hori epai-organo baten aztergai dela, hain zuzen ere. Sortu da, beraz, harreman juridiko-prozesala.

Iragarri bezala, litispdentzia hori demanda aurkezten den unean sortzen da, betiere hura onartua izanez gero (PZLren 410. art.). Litispendentzia hori prozesua bera bukatzen denean bukatzen da, edozein dela ere prozesua bukatzeko era.

Litispdentzia edo auzibitartea bera kontzeptu guztiz prozesala izanik, izaera hori dute haren ondoreek. Litispdentziaren ondoreak dira:

1. Litispdentzia sortzen denetik, epai-organoa behartuta dago prozesua bururaino eramatera, sententzia baten bidez hura bukatzen den arte.
2. Alderdiek prozesuari dagozkion aukerak eta itxaropenak, zama eta betebeharrak onartu behar dituzte.
3. Sortutako prozesuak ezaugarri berak dituen beste bat sortzea ekiditen du. Baieztape hori gauza epaitua ikastean zehaztuko dugu. Nola babesten da ondore hori? Aurretik gauza beraren gaineko prozesu bat, ezaugarri berak dituen badela salatzeo litispdentzia salbuespenarekin.
4. *Perpetuatio iurisdictionis* deritzona sortzen du: litispdentzia sortzen den unean kasu horretaz arduratzeko eskumena duen epaileak horrela jarraituko du prozesuan, edonolako aldaketak sortuta ere. Ondore hori PZLren 411. artikuluan aipatzen da: “Prozesua hasi ondoren gertatu aldaketak alderdien egoitzari, auzigaiaren egoerari eta epaiketaren objektuari buruzkoak badira, aldaketa horiek ez dituzte jurisdikzioa eta eskumena aldatuko; jurisdikzioa eta eskumena zehaztuko dira, auzibitarteren hasierako unean zer egiaztatu eta horren arabera”.

Beraz, epaile eskuduna eta jarraitu beharreko prozedura prozesuaren hasieran zehazten dira, litispdentzia sortzen denean, eta ez dira prozesuan aldatuko, ezta haiengan eragina izan dezaketen inguruabarrak aldatuz gero ere (objektuaren balioaren aldaketa –100 ardioko ardi taldea eskatzen zen, eta 50 gaixotasunak jota hil dira...–, demandatzailearen edo demandatuaren helbide-aldaketa,...). Inguruabar moduan hartu behar dugu, baita ere, lege prozesalaren aldaketa. Hala, lege prozesal bat indarrean zegoenean hasitako prozesuak lege hura aplikatuz bukatuko dira, aurrerago lege hori indargabetzen bada ere, eta lege berria indarrean jartzen denez geroztik sortutako kasuetan erabiliko da lege berri hori. Edonola ere, kontuan hartu behar dira lege berriak adierazten dituen aldi baterako xedapenak.

5. *Perpetuatio legitimacionis* deritzona sortzen du: litispdentzia sortu zenean legitimazioa zutenek legitimazio horri eutsiko diote, edozein direla ere prozesuan zehar sor daitezkeen aldaketak. Jakin dakigunez, elementu horrek hainbat salbuespen ditu. Gerta liteke alderdiak gertaera naturalen ondorioz (adibidez, alderdietako baten heriotza) edo gertaera juridikoen ondorioz (adibidez, *intervivos* edo *mortis causa* gauza eskualdatzea) aldatzea.

6. *Mutatio libelli* edo demanda eraldatzeko debekua. Litispdentziaren ondore hori PZLren 412.1 artikuluan azaltzen da: “Demandan, erantzunean, eta hala denean, errekonbentzioaren ere, prozesuaren objektua zehaztu ondoren, alderdiek ezin izango dute hori gerogarrenean aldatu”. Eta demandaren objektua ezin alda daitekeenez, honela dio PZLren 413.1 artikulua: “Ez dira epaian kontuan izango epaiketa hasi eta gero alderdiek edo hirugarrenek sartu berrikuntzak, horiek demandaren eta, hala dena, errekonbentzioaren jatorrian izandako gauza edo pertsonen egoerari buruzkoak badira. Salbuespen gisa hartu behar da berrikuntzak behin betiko errekonbentzioan eskatu uzien

interes legitimoa, uziok prozesutik kanpo edo beste edozein arrazoiengatik bete izan direlako”.

Zergatik debekatzen da eraldatzea? Berdintasun-printzipioa eta epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea babesteko batez ere. Hala ere, legeak printzipio nagusi horri hainbat salbuespen aintzatesten dizkio, eta kasu horietan, onartu egiten da eraldaketa. Hona hemen salbuespen horiek:

1. Demanda zabal daitekeenean. PZLren 401.2 artikulua demandatzaileari demandari erantzun baino lehen jarritako uziari beste berri batzuk pilatzeko baimena ematen dio edo jarritako uzia demandatu berrien kontra bideratzeko. Bigarren kasuan, demandari erantzuteko epea berriro hasiko da.

2. Egitateak zabaltzea. Alegazio-egintzak bukatuta (prekluituta), eta epaia emateko epea zenbatzen hasi orduko, alderdi guztiek egitateen zabaltze-idazkia deritzona aurkez dezakete, auzirako garrantzitsuak diren egitate berriak epai-organoari eta gainerako alderdiei jakinaraziz. Egitate horiek aurkezteko baimena dute, betiere horien alegazioa ezin bada epaiketa-egintzan (judizio arruntean) edo ikustaldian (ahozko judizioan) egin.

3. Esan dugunez, dokumentu materialak (froga bezala erabiliko direnak, batez ere), mamiari buruzkoak alegia, demandarekin batera aurkeztu behar dira, oro har. Hala ere, posible da geroago aurkeztea, epaiketa-egintzaren unea bitartean epaiketa arruntean, eta ikustaldia arte ahozko judizioan, honako baldintza hauetako bat betetzen bada (PZLren 270. art.): (1) demanda, demandaren erantzuna edo judizio aurreko entzunaldia baino geroagokoak izatea, betiere aurretik egin edo lortu ezin izan bada; edo (2) demandaren edo demandaren erantzunaren aurrekoak izanda, aurkezten dituen alderdiak horien berri ordura arte izan ez duela egiaztatzen badu; edo (3) alderdiak berari egotzi ezin zaion arrazoiaren bategatik aurretik lortu ezin izan dituelako, betiere horiek zer artxibo, protokolo edo tokitan dauden adierazten badu, edo ziurtagiri bat lortzeko errolda, liburu-errolda, jarduerak edo espedientea adierazi baditu.

4. Lehenengo auzialdian edo errekurso bidean ebazteko baldintzagarriak edo erabakigarriak izan daitezkeen eta prozesuan ondorioak formulatu eta gero eman edo jakinarazi diren epaiak edo beste ebazpen judizialak edo administratiboak epaia emateko epean bertan aurkez daitezke (PZLren 271.2 art.).

5. Ikusiko dugunez, epaiketa arruntean judizio aurreko entzunaldian, beren helburuetako bat eztabaidaren mugak finkatzea izanik, posible da dokumentuak eta irizpide-txostenak prozesura ekartzea.

8. KAPITULUA: DEMANDAREN ERANTZUNA.

8.1. Demandatuak demandari buruz dituen aukerak. 8.2. Auzi-ihesa. 8.3. Salbuespen prozesalak eta materialak. 8.4. Demandaren erantzuna. 8.5. Errekonbentzioa. 8.6. Epaketa aurreko entzunaldia. 8.7. Epaketaren egintza.

8.1. Demandatuak demandari buruz dituen aukerak.

Epai-organoak demanda onartu ondoren, epaileak demanduari dei egingo dio. Dei hori jasotzen duenean, demandatuak bi aukera nagusi ditu: amore ematea edo bereari eustea.

Demandatuak amore emanaz gero, epaileak amore ematearekin bat datorren epaia emanen du, izan ere, ez dago prozesurik erresistentziarik gabe. Ikusiko dugunez, epaia eman aurretik, edozein unetan amore eman dezake demandatuak.

Bigarren aukera demandatuak eustea edo erresistentzia egitea deritzona da, hau da, bera ez kondenatzea eskatzea, amore ematea ez den beste edozer gauza egitea. Ezer egiten ez badu ere, erresistentziaren fikzioa egiten da. Bigarren aukera honako kasu hauetan gauza daiteke:

1. Demandatuak ezer ez egiteko aukerari eusten dio. Epaileen aurrean ez agertzea ere erabaki dezake. Kasu horretan, epaileak demandatua auzi-ihesean dela adieraziko du. Jarduera hori hurrengo puntuan aztertuko dugu.
2. Gerta liteke demandatua epailearen aurrera agertu, eta besterik ez egitea. Beraz, agertu bai, baina ez dio demandari erantzungo. Bide hori oso gutxitan hartzen da, praktikan, eta hartzen denean, auzi-iheslearen deklarazioa saihestea du helburua.
3. Demandatua epaileen aurrean agertu, eta deklinatoria aurkaratu edo jar dezake. Hori ez da demandaren erantzuntzat hartzen. Deklinatoria bidez, jurisdikziorik edo eskuduntzarik eza salatzen dira.
4. Demandatuak epaileen aurrean agertzea eta demandari erantzutea erabaki dezake. Hau da praktikan gehien gertatzen den egoera. Demandari erantzuteak, dakigunez, erresistentzia dakar berarekin. Erantzun horretan, demandatuak demandatzailearen eskaeratik defendatzeko dituen salbuespenak –materialak zein prozesalak– jarriko ditu. Salbuespen horiek gai honetako hirugarren puntuan aztertuko ditugu sakon.
5. Gainera, demandaren erantzunean gerta daitekeen kasu berezi bat aipatu behar dugu. Gerta liteke demandatuak demandaren erantzun gisa aurkezten duen idazkian, erresistentzia jartzeaz gainera, demandatzailearen kontra beste uzi bat ere jartzea. Gertaera prozesal horri *errekonbentzio* deritzo. Prozedura berean bi prozesu eta horiei dagozkien uziak ebatziko dira, lehenengo eta behin demandatzaileak jarritakoa, eta bigarrenez, demandatuak demandatzailearen kontra ezarritakoa. Errekonbentzio horri buruz gai honetako bosgarren puntuan jardungo dugu.

8.2. Auzi-ihesa.

Alderdi demandatuak demandaren berri duenean hartzen duen aukera da, eta hasieratik ezer ez egitean oinarritzen da. Epai-organoaren deia jaso ondoren, epaiketara ez agertzea erabakitzen du. Demandatuaren jarrera hori guztiz zilegia da. Hala nahi ez badu, demandatua ez da epaiketara agertzen, agertze hori ez baita betebeharrak, zama bat baizik. Gainera, prozesu zibilean, aurkakotasun-printzipioa errespetatzen da, eta alderdi biak entzuteko eta beren defentsa aurrera emateko aukera ematen zaie, hori aurrera eramateko inolako betebeharririk gabe.

MONTERO AROCAk auzi-ihesaren 4 ezaugarri nagusi aipatzen ditu:

1. Egoera hori demandatuari bakarrik aplikatu ahal zaio, inoiz ez demandatzaileari.
2. Demandatuaren erabateko eta hasieratik jardunik eza dakar. Demandatua ez da prozesuan agertzen demandari erantzuteko epearen barruan (PZLren 496.1 art.).
3. Berdin dio zein den demandatuaren borondatea, berdin dio zergatik ez den agertzen (ez du epaiketaren berririk izan, atzerrian dago,...).
4. Auzi-ihesa esanbidez eta ofizioz deklaratu behar da (PZLren 496.1 art., epaiketa arruntari dagokionez, eta 442.2 art., ahozko epaiketari dagokionez). Deklarazio hori ez du zertan demandatzaileak eskatu.

Ezaugarri horiek azaldu ondoren, galdera bat datorkigu burura: posible al da prozesuak aurrera jarraitzea, demandatua auzi-ihesean dagoela adierazita? Bai, prozesuak aurrera jarraituko du, epaia eman arte, deklarazio horrek ez baitakar berarekin amore ematea edo demandako egitateak onartzea (PZLren 496.2 art.). Are gehiago, auzi-ihesari buruzko adierazpenaren atzean honako fikzio hau dago: demandatuak ukatu egiten du demandatzaileak aurkeztutako egitatea eta haren eskaeraren aurka egiten du. Horregatik, demandatzaileak bere uzia frogatu beharko du, epaileak bere eskaria onestea nahi badu, behintzat, nahiz eta haren aurrean eta bere kontra arituko den demandaturik ez egon.

Hala ere, auzi-ihesari buruzko aitorpen horrek, eta epaileen aurrean agertzea demandatuarentzat zama bat dela kontuan hartuta, bi ondore ditu alderdi demandatuarengan: batetik, demandatuari bakarrik jakinaraziko zaizkio, postaz bere helbidea ezaguna bada, auzi-ihesa adierazten duen epai-ebazpena (bestela, ediktu bidez egiten da) eta prozesuari bukaera ematen dion azken ebazpena (PZLren 497.1 art.). Ahozko epaiketari dagokionez, zehaztapen txiki bat egin behar da: azken erabakia baino ez da jakinarazten; izan ere, auzi-ihesari buruzko adierazpena ahozkoa da, nahiz eta aktan jasota egon. Bigarrenez, preklusio-printzipioa aplikatuta, demandatuak galdu egiten du dagozkion egintza prozesalak egiteko aukera.

Baina beste galdera bati ere erantzun behar diogu: zer gertatzen da auzi-iheslari izendatuak prozesuan parte hartu nahi badu, hura abian dela? Zalantzarik gabe, prozesuan parte hartu ahal izango du, baina agertzen den unetik aurrerako egintza prozesalean bakarrik. Beraz, ezingo du parte hartu ordura arte burututako egintza prozesalean. Horregatik esaten da auzi-iheslariak prozesuan sartzea erabakitzen badu,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

kapitulua

prozesua dagoen-dagoenean onartu behar duela. PZLren 499. artikulua aurreikusten du auzi-iheslaria agertuta ere, prozedura ez dela atzera botako, salbuespen bakar batekin: lehen auzialdian froga proposatzeko unearen ondoren demandatua prozesuan agertzen bada, eta prozesura ez agertzeko arrazoia berari egotzi ez bazaio; bigarren auzialdian bere eskubideari dagokion froga oro egitea eskatu ahal izango du. Logikoa denez, une horretatik aurrera ez da auzi-ihesean egongo.

Aipatzen ari garen aukera (hau da, auzi-iheslaria prozesuan agertzeko aukera), gertatu ohi da praktikan, izan ere, demandatua ezagutzen ez den toki batean dagoenean edo helbide jakinik ez duenean, dagozkion jakinarazpenak ediktu bidez egiten bazaizkio ere, non dagoen jakiten den unetik aurrera prozesuaren existentziaren berri ematen zaio, ofizioz edo alderdien eskariz.

Azkenik, gauza bakarra gelditzen zaigu esateko, auzi-iheslaria berari ezin egotz dakizkioken arrazoiengatik egon bada egoera horretan (ezinbesteko kasua edo demandaren ezagutzarik eza), bere esku dago gauza epaitua deuseztatzeko ezohiko bide bat erabiltzea: *auzi-iheslaria entzutea* deritzona.

8.3. Salbuespen prozesalak eta materialak.

Salbuespen esaten diogu demandatuak kondenatua ez izateko alega dezakeen guztiari. Bi salbuespen mota daude: prozesalak eta materialak. Azter ditzagun.

Salbuespen prozesal esaten zaie demandatuak, baldintza prozesalik (prozesuari oro har aplikatuak) edo betekizun prozesalik (egintza konkretuari aplikatuak) ez dagoela salatzeo, eta zioz harreman juridiko prozesalaren akatsen bat agerian jartzeko, egiten dituen alegazioei. Salbuespen horien xedea da epaileak auziari bukaera ematea, ebazpen prozesal hutsaren bitartez, mamiaren azterketari heltzen ez dion ebazpen baten bitartez, hau da, auzialdian, absoluziozkoaren bitartez.

Salbuespen prozesalen zerrenda emateko, bereizi egin behar dira horien barruan salbuespen prozesal subjektiboak (alderdiei edo auzitegiari dagozkionak), objektiboak (prozesuaren objektuari dagozkionak) eta prozedura-salbuespenak (prozedurari dagozkionak).

Esan bezala, salbuespen prozesal subjektiboak alderdien nahiz epaileen akatsak salatzen dituztenak dira. Horrela, auzitegiari so eginez, salbuespen prozesalak dira jurisdikziorik eza eta eskuduntzarik eza. Jakina denez, bi horiek deklinatoria bidez salatzen dira.

Alderdiei buruz sala daitezkeen salbuespen prozesalak honako hauek dira: horien gaitasunik, legitimaziorik edo postulaziorik eza.

Salbuespen objektiboak, prozesuaren objektuaren akatsak adierazten dituztenak, aldiz, hiru eratakoak dira: litispendentzia edo auzibitartea, gauza epaitua eta aurreko erreklamazio administratiborik eza.

Azkenik, prozeduraren akatsak erakusten dituzten salbuespen prozesal nagusiak hiru dira: prozesu egokiaren zehaztapenik eza (bai gaiagatik bai zenbatekoagatik),

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

kapitulua

demandaren betekizun baten (edo gehiagoren) falta, eta demandan eginiko uzi-metaketa desegokia.

Salbuespen materialak, aldiz, epaileak uzia onar ez dezan uziak zuzenbide materialean oinarrikerik ez duela erakutsiz demandatuak egiten dituen alegazioak dira. Salbuespen horien helburua da demandatzailearen uzia onartzen ez duen eta demandatuari arrazoia ematen dion mamiari buruzko epaia lortzea.

Salbuespen material horien bidez, demandatuak egitate berriak sartzen ditu prozesuan, eta baztertu, eragotzi edo desagerrarazi egiten dituzte demandatzaileak bere uzia oinarritzeko aurkeztutako egitateak. Logikoa denez, demandatuak egitate horiek frogatu egin beharko ditu epaileak bere aldeko epaia eman dezan nahi badu.

Esan bezala, demandatuak prozesuan aurkeztzen dituen egitate horiek eragozleak, desagerrarazleak edo baztertzailak izan daitezke. Azter ditzagun banan-banan.

Egitate eragozleak dira demandatzaileak aurkeztutako egitate eratzailak hasieratik efekturik ez izatea dakarten eta arau baten egitatezko kasua osatzen dutenak. Egitate eratzailak baliogabe utzita, demandatzaileak eskatutako epai-babesaren oinarrikerik eza agerian uzten da. Adibide bat jarriko dugu, hobeto ulertzeko: salerosketa baten testuinguruan, demandatzaileak ordaindu duen baina eman ez zaion gauza eskatzen duenean, demandatuak, salerosketa-kontraturik ez dagoenez, nulua dela salatzen du (demandatuak argudia dezake delako gauza hori uzten ari zitzaiola eta ez saltzen, eta ordainketa gordailu moduan egin zitzaiola pentsatzen zuela). Azken batean, demandatzaileak alegatzen duen eskubide subjektibo materiala sortu ere ez zela egin da demandatuaren defentsa-bidea (nahiz eta egitate eratzailak egon).

Egitate desagerrarazleen bitartez, berriz, aitortzen da, nahiz eta egitate eratzailak izan zirela aitortu, horien efektuak deuseztatu zituzten beste egitate batzuk sortu zirela ondoren, egitate desagerrarazleak sortu zirela hain zuzen ere. Adibidez, eta salerosketaren adibideari helduz, demandatuak onartu egiten du salneurria zor zuela, baina demandatzaileak berau barkatu egin ziola, edo ordaindua duela adierazten du. Horrela, demandatzaileak galdatzen duen eskubide subjektibo materiala izan zela onartzen du demandatuak, baina erreklamazioaren unean, auziaren unean hain zuzen ere, dagoeneko ez dela existitzen adierazten du.

Egitate baztertzailak dagokienez ere, egitate eratzailak izan direla onartzen da, baina kasu horretan ere, demandatuak haren efektuak baztertzen dituen beste batzuk aurkeztu ditu. Adibidez: preskripzioa.

Nork aurkeztu behar ditu egitate horiek? Egitate eratzailak demandatzaileak berak alegatu behar ditu, eta demandatzailearen ustez bere uzia onar dadin auzitegiak aplikatu behar duen arauaren egitatezko baldintza osatzen dute. Egitate desagerrarazleak eta baztertzailak, aldiz, epaileak kontuan izan ditzake, nahiz eta demandatuak ez alegatu, baldin eta beste alderdiren batek prozesura ekarri eta frogatzen baditu. Azkenik, epaileak egitate baztertzailak kontuan izango ditu, baldin eta demandatuak berariaz alegatu eta behar den moduan frogatzen baditu.

Bukatzeko, eta hurrengo puntuan ikusiko dugunez, azpimarratu behar da demandaren erantzunean lehenengo salbuespen prozesalak adierazten direla, epailea gaiaren mamira

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

sar ez dadin lortzeko, eta aurrerago, materialak, epailea jada kasuaren funtsa aztertzen hasita dagoenean eskatutako babesa uka dezan demandatzaileak.

8.4. Demandaren erantzuna.

Demandan, uzia jarritz egikaritzen du demandatzaileak bere akzio-eskubidea. Demanda edukitzailea da, eta akzio-eskubidea eta uzia, berriz, edukia. Demandaren erantzunean (edukitzailea), demandatuak uzi horri erresistentzia egiten dio, epai-organoari ez zigortzeko eskaria eginez (edukia). Horretarako, demandatuak demandatzailearen kontrako salbuespen guztiak alegatuko ditu, prozesalak eta materialak, demandaren erantzun horretan. Edozein direla ere alegatzen diren salbuespenak, prozesalak (harreman juridiko prozesalaren eraketa desegokia izan dela erakusten duten akatsak adieraziz) zein materialak (materialki auzi-jartzailearen eskaria baliorik gabe uzten duten akatsak adieraziz), demandatuak uzi edo erresistentzia berari utsiko dio: bera ez kondenatzea.

Gerta liteke demandatua epailearen aurrean agertzea, baina demandari ez erantzutea. Prozesu bat izango bada, ezinbestekoa da norbaitek demanda jartzea, baina ez da nahitaezkoa demandatuak erantzutea. Zergatik ez? Kasu horretan, nahiz eta demandatuak berariaz aurka egin ez, ordenamendu juridikoak isilbidez erresistitzearen fikzioari eutsiko dio; era horretara, isilbidez bada ere, bera ez kondenatzea eskatzen duela-eta, demandatzaileak bere uziaren oinarritzat aurkeztutako egitateak frogatu beharko ditu.

Demagun demandatzaileak demandari erantzuten diola. Kasu horretan 5 aukera ditu:

1. Amore ematea: demandatua demandatzailearen eskaerarekin bat datorrela adierazten duen egintza prozesala. Egintza horrekin ez erresistitzeko edo ordura arte izandako erresistentzia ukatzeko borondatea adierazten du demandatuak. Beste era batera esanda, demandatzailearen *petitioa* aho batez onartzen da. Ondorioz, demandatzaileari eskatutakoa aintzatesten dion eta gauza epaituaren ondoreak dituen epaia emango du epaitegiak.

2. Errekonbentzioa. Hurrengo puntuan sakonduko dugu horretan.

3. Posible da demandatuak bera kondenatu ez dezaten eskatzea eta egitate berririk ez aurkeztea; era horretara, demandatzaileak aurkeztutako egitateak ukatu besterik ez ditu egiten. Jarrera horrekin demandatzaileak alegatutako egitateak eztabaidagai bihurtzen ditu, eta hark frogatu egin beharko ditu.

4. Posible da, bestalde, demandatuak egitate berririk ez alegatzea eta demandatzaileak aurkeztutako egitate eratzailak onartzea. Onarpen hori esanbidezkoa edo isilbidezkoa izan daiteke, eta erabatekoa edo zati batekoa. Onarpena berariazkoa bada, egitatea epaia emateko moduan gelditzen da, edozein dela ere epailearen iritzia. Horrek ez du esan nahi demandatuak erresistentziari uko egiten dionik, amore ematen dionik alegia, izan ere posible da demandatzaileak aurkeztu eta berak onartzen dituen egitate horiei aplikatu dakizkiekeen eta bera ez kondenatzea lekarketen arauak alegatzea. Onarpena isilbidezkoa bada –egitate eratzailen berariazko ukapen eza, edo horien aurrean isiltasuna edo zeharkako erantzunak ematea (PZLren 405.2 art.)–, epaileak erabaki beharko du egitate horiek aintzat hartu edo ez.

5. Azkenik, posible da demandatuak egitate berriak aurkeztea, ikasi ditugun salbuespen prozesal edo material moduan.

Zer dokumentu aurkeztu behar dira demandaren erantzunarekin? Oro har, demandarekin aurkeztu behar diren dokumentu berak aurkeztu behar dira (PZLren 264. artikulua eta hurrengoak), baina dokumentu prozesalei dagokionez, zenbait zehaztapen egin behar dira.

Prokuradoreari ordezkaritza notario aurreko ahalorde bidez eman bazaio, eta ahalorde hori aurkezten ez bada, eta *apud acta* emandakoak edo Prokuradoreen Elkargoak egindakoak hura ordezkatzan ez badu, epaileak ez du erantzuna onartuko, akatsa konpondu arte. Akatsa konpontzen ez bada, epaileak erantzuna ez aurkeztutzat eta demandatua ez agertutzat hartuko ditu (PZLren 264.1.1 eta 24.1 artikulua).

Aurreko bera esan dezakegu pertsona fisiko zein juridikoen ordezkaritza legalari dagokionez. Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentu egokia aurkezten ez bada, epaileak ez du erantzuna onartuko; akats hori konpon daiteke, hala ere (PZLren 264.1.2 art.).

Prozesuan diharduten alderdi adina erantzunen eta horrekin batera aurkeztutako dokumentuen kopiak aurkezten ez badira, akats hori konpontzeko 5 eguneko epea izango da. Akatsa epe horretan konpontzen ez bada, erantzuna bera eta hari buruzko dokumentuak ez aurkeztutzat hartuko dira.

Demandaren erantzunari buruzko azalpena amaitzeko, garrantzizko gai bat baino ez zaigu gelditzen: demanda eraldatzearen debekua demandaren erantzunari ere aplikatu dakioke. Kasu horretan, demandatzailearen defentsarik eza ekidin nahi da.

8.5. Errekonbentzioa.

Demanda ezagutu ondoren, demandatuak errekonbentzioa jartzeko aukera du. Errekonbentzioaren bitartez, demandatuak uzi bat jartzen du demandatzailearen aurka. Uzi berria demandatzaileak jarritako uziaz arduratzen den epai-organo beraren aurrean aurkezten da, hark prozedura beraren barruan ebatz dezan. Beraz, epai berak bi uzi erabaki beharko ditu, demandatzaileak demandatuaren kontra jarritakoa, eta azken horrek haren kontra aurkeztutakoa.

Errekonbentzioak berarekin dakartza uzi berri bat, objektu prozesal berri bat eta prozesu berri bat. Horregatik, argi eta garbi aintzatetsi behar da errekonbentzioa, zentzurik hertsienean, ez dela demandari egiten zaion erantzuna; erantzunaz baliatzen da demandatzailearen kontra demandatuak duen uzi bat jartzeko. Hala, posible da demandaren erantzunean errekonbentzioa jartzeaz gainera, demandatuak beste hainbat gauza egitea (egitateak onartzea, egitate berriak alegatzea, salbuespen prozesalak zein materialak aurkeztea,...). Hala gertatuz gero, demandaren erantzunaren ohiko edukiaz arituko ginateke.

Errekonbentzioa bideratzeko, demandatuak errekonbentzioa dakarren uzia jarri ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Demandatzaileak demandan jarritako uziaren eta demandatuaren errekonbentzioa dakarren uziaren artean lotura behar da (PZLren 406.1 art.). Uziak metatzeko eskatzen den lotura bera eskatzen da hemen ere. Orduan esan legez, errekonbentzioa prozesua hasi ondoren demandatuaren borondatez egiten den metaketa eskusiboki objektiboa da. Horren harira, PZLren 406.2 artikulua dioenez: “Errekonbentzioa ez da onartuko epaitegiak gaiaren nahiz muntaren ondoriozko eskuduntza objektiborik ez badu, edota egikaritu akzioa beste mota edo izaera bateko epaiketan gauzatu behar bada”. Beraz, errekonbentzioa onar dadin, uzi nagusiaz arduratzen ari den auzitegiak eduki behar du metatutako uziak (errekobentzio-uziak) arduratzeko eskumena. Alderdi horretatik, onartzen da muntaren ondorioz ahozko epaiketa bidez ebatzi beharko litzatekeen uzi bat epaiketa arruntean metatzea. Beraz, eskuduntza objektiboaren aldaketa onartzen da, baina eskuduntza hobea duen auzitegiaren alde baino ez (PZLren 406. II art.). Gaiari dagokionez, eskuduntza objektiboa ezin izango da inoiz aldatu (PZLren 406.2 art.). Lurralde-eskuduntza aldatzea ere onartzen da.

2. Epaiketa arruntean, errekonbentzioa –*demandatuaren uzi* esatea hobe– demandaren erantzunaren idazkian bakarrik sar daiteke (PZLren 406. art.). Preklusio-unean gaude. Demandari erantzuteko epea bukatutakoan, ezin izango da aurkeztu prozesu horretan demandatuak demandatzailearen aurka daukan uzi hori. Beste batean aurkezteko aukera izango du, noski.

3. Errekonbentzioaren formari dagokionez, badakigu demandatuaren uzia demandaren erantzunaren idazkian jasotzen dela. Hori horrela izanda, idazki horretan argi bereizi behar dira demandatzaileak uziari egindako erantzuna (demandaren erantzuna, zentzu hertsian) eta hark jarritako uzi berria. Horrekin batera, PZLren 406.3 artikulua esaten du errekonbentzioa ez dela jarritzat hartuko, baldin eta demandaren erantzunaren idazkia demandatuaren absoluzioa eskatuz bukatzen bada. Gainera, errekonbentzioak PZLk 399. artikuluan demandari galdatutako betekizunak bete beharko ditu (hala nola demandatzailea eta demandatua identifikatzea, horien helbideak, egitateen eta zuzenbidezko oinarrien azalpena, zenbatua eta banatua, eskaeraren zehaztaper argia,...).

4. Ez dago isilbidezko errekonbentziorik egiterik. Demandatuak ezin du bere absoluzioaz gainerako beste ezer eskatu, argi adierazten ez badu. Ildo horretatik, PZLren 406.3 artikulua dio errekonbentzioak (auzi nagusian demandatua denak) argi eta garbi adierazi behar duela demandatzailearekiko eskatzen duen epai-babes zehatza.

5. Posible da errekonbentzioa prozesu nagusiko demandatzailearen kontra bakarrik ez jartzea. Puntu horretan, argia da PZLren 406.3 artikulua: “Errekonbentzioak argi eta garbi adierazi behar du eskatutako babes judizial zehatza, auzi-jartzaileari eta kasuan kasuko beste subjektuei dagokienez”. Hori bera azpimarratzen du PZLren 407. artikulua: “Errekonbentzioa zuzen daiteke demandatzaile ez diren subjektuen aurka ere, baldin eta auzi-jartzaile errekonbentzio-hartzailearen borondatezko edo beharrezko auzikideak direla uler badaiteke, errekonbentzio-demandaren objektuarekin duten loturarengatik”.

Errekonbentzio-demanda errekonbentzio-egileari, prozesu nagusiko demandatzaileari alegia, helaraziko zaio, 20 eguneko epean erantzun dezan. Errekonbentzioaren erantzuna eta demandaren erantzuna berdin egiten dira, forma eta eduki bera dute (PZLren 407.2 eta 405. artikulua).

8.6. Epaiketa aurreko entzunaldia.

Epaiketa aurreko entzunaldia PZLren 414. artikuluan aurreikusten da, berariaz: “Demandari, eta, hala denean, errekonbentzioari erantzun ondoren, edo kasuan kasuko epeak igaro ondoren, auzitegiak, hiru eguneko epean, alderdiei deituko die entzunaldira, entzunaldi hori deialdia noiz egin eta handik hogeitau eguneko epera egin beharko da”.

Artikulu horren arabera, entzunaldia 414.2 artikulutik 430.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Gainera, PZLren 414. artikulua, entzunaldi horren 4 helburuak azaltzen ditu: (1) prozesua ekiditeko funtzioa (“prozesuarekin amaituko duen alderdien arteko hitzarmena edo transakzioa lortzen saiatzea”), (2) prozesua garbitzeko funtzioa (“prozesuak aurrera egitea edota prozesuaren objektuari buruzko epaiarekin amaitzea oztopa dezaketen prozesu-arazoak aztertzea”), (3) eztabaidaren eremua mugatzeko funtzioa (“alderdien artean gatazka eragiten duten egitatezko edo zuzenbideko gaiak zehatz finkatzea”) eta (4) froga mugatzeko funtzioa (“froga proposatu eta onartzea”).

Funtzio horiek azaldu aurretik, epaiketa aurreko entzunaldiaren ezaugarri nagusiak finkatu behar ditugu. Horretarako, lau galdera nagusiri erantzun behar diegu. Batetik, noiz izaten da epaiketa aurreko entzunaldia? Demandari erantzun eta hurrengo hiru eguneko epean, alderdiei deialdia noiz egin eta handik 20 eguneko epean.

Bestetik, beti egin behar al da? Bai, auzitegiak beti egin behar du deia.

Nola egiten da? Ahoz, eta kasuaz arduratzen ari den epailearen aurrean; beraz, ahozkotasan eta hurrentasun printzipioek eraentzen dute. Horrela egiten ez bada, deuseza izanen da.

Azkenik, nork agertu behar du epaiketa aurreko entzunaldian? Alderdiek, euren kabuz edo prokuradorearen bitartez. Prokuradoreak, epaiketa aurreko entzunaldian aritzeko, ahalorde berezi bat behar du, prozesuaren objektuaren xedapenerako egintza prozesalاک aurrera eramateko (uko egiteko, amore emateko, transakzioa egiteko). Prokuradoreak ahalorde berezi hori ez badu eta alderdia bere kabuz agertzen ez bada, alderdia ez aurkeztutzat joko da. Praktikan, alderdien prokuradoreei dei egiten zaie.

Demandatzailea epaileen aurrean agertzen ez bada (bere kabuz edo bere abokatuaren edo prokuradorearen bitartez), eta demandatuak prozedurari eustea eskatzen ez badu, auzitegiak largespen-autoa eman eta jarduerak artxibatzeke aginduko du. Demandatuak mamiari buruzko epaia eman dadin interesa duela adierazi (gai berari buruz auzi berri bat has ez dadin) eta prozedurak aurrera jarraitzea eskatzen badu, bukaerara arte jarraituko du. Epaiketa aurreko entzunaldia egingo da, nahiz eta demandatua bakarrik agertu entzunaldira.

Aldiz, demandatua agertzen ez bada, prozesuak aurrera jarraituko du, eta epaiketa aurreko entzunaldia demandatzailea bakarrik dagoela egingo da. Demandatuak parte hartu ez izana ez da inoiz hartzen amore ematzat, uko egitezat edo egitateen onarpenatzat.

kapitulua

Ez bata ez bestea agertzen ez badira, auzitegiak largespen-autoa emanen du. Biak aurkeztuz gero, epaiketa aurreko entzunaldia egingo da. Hori nola egiten den azaltzeko, lehen aurkeztutako 4 funtzioei egin beharko diegu erreferentzia.

a) Prozesua ekiditeko funtzioa

Epaiketa aurreko entzunaldiari ekin ondoren, lehenengo funtzioa prozesua objekturik gabe utzi, eta, beraz, hura bertan behera uzteko alderdien arteko akordiora iristea da.

Gerta liteke alderdiek prozesua amaitzeko akordioa auzibidetik kanpo lortzea. Kasu horretan, prozesua bi eratarata buka daiteke: demandatuak demandatzaileak atzera-egitea onartzen du, edo alderdien akordioa homologatzen da. Lehenengo kasuan, demandatzaileak prozesuaren objektua xedatzen duela esan nahi du. Biek, auzi-jartzaileak eta demandatuak, ahoz adieraziko dute beren borondatea, eta epaileak ahozko ebazpena emanen du. Ebazpen hori largespen-autoaren parekoa da (PZLren 20.3 II art.). Bigarren kasuan, epaileak, alderdiek epaibidetik kanpo lortutako akordioa homologatuz, epaibidezko bihurtzen du epaibidetik kanpo lortutako transakzioa, auto baten bidez. Hori aktan jasoko da, eta horretan, epaiketa aurreko entzunaldiaren bukaera ere adieraziko da.

Aurreko bi kasu horietako bat gertatzen ez denean ere, adiskidetzea lortzeko ahalegina egingo da epaiketa aurreko entzunaldian bertan, epailearen aurrean. Adiskidetzea prozesu barruko egintza bat da, intraprozesala alegia, eta hiru ezaugarri nagusi hauek ditu:

1. Adiskidetzen ahalegindu aurretik, epaileak alderdien gaitasuna eta xedatzeko ahalorde berezia kontrolatu behar ditu. Ez dugu ahaztu behar adiskidetzea xedapen-egintza dela.
2. Legeak ez du arautzen prozesu barneko adiskidetzea nola egin behar den; beraz, formarik gabeko ahozko egintza dela esan dezakegu. Epailea alderdiak akordio batera hel daitezen ahaleginduko da, berak irtenbiderik proposatu gabe betiere.
3. Alderdiak adiskidetu eta elkarren arteko akordio bat lortuz gero, epaileak epaiketa aurreko entzunaldiaren bukaeran emango duen autoaren bidez homologatuko du hori. Autoa titulu betearazlea da. Gainera, epailearen aurrean eginiko transakzio horri kontratuak baliogabetzen dituzten kariengatik jar dakiok helegitea (KZren 1816-1819 artikulua).

Alderdiak ez adiskidetzeaz gainera, litekeena da alderdiak adiskidetzeko ahalegina bera ere egin nahi ez izatea. Kasu horretan, edo ahalegina egin baina emaitzarik lortu ez bada (edo adiskidetze partziala soilik lortu bada), epaiketa aurreko entzunaldiak gainerako funtzioekin jarraituko du.

b) Prozesua garbitzeko funtzioa

Hauxe da funtzio horren helburua: prozesua ebazpen prozesal hutsarekin, kasuaren edukia erabakitzen ez duen batekin, ez amaitzea, eta horrek ekarriko lituzkeen denbora-eta ahalegin-gastuak saihestea (PZLren 416.1 art.) Horrela, funtzio hori egikaritzean, prozesua bukatutzat emango da, ezin konponduzko baldintza edo betekizun prozesal

kapitulua

baten falta dela-eta, epailea edukiari buruzko erabakirik hartu ezin izango dela jabetzean. Beste batzuetan, akatsa konpondu egingo da, eta, hartara, erabaki prozesal hutsa ekidingo da

Legeak kontrolatu beharreko baldintza eta betekizun prozesalen zerrenda bat ematen du, eta kontrolaren ordena ere zehazten du zerrenda horretan (PZLren 417. art.). Zerrenda horren parte dira: jurisdikzioa eta eskuduntza, gaitasuna eta ordezkari-tza, uzien hasierako metaketa, beharrezko auzikidetzeta, litispendentzia edo gauza epaitua, prozeduraren egokitasunik eza, demanda akastuna eta inguruabar prozesal analogoak. Horietako bakoitzean gerta daitezkeen akats nagusiak eta legeak fase horretan konpontzeko aurreikusten dituen bideak eta horien ondorioak aipatuko ditugu.

1. Jurisdikzioa eta eskuduntza: bi horietan sor daitezkeen akatsak demandatuak salatu behar ditu, deklinatoria bidez (PZLren 39., 49., 59., 63., 64. eta 65. artikulua). Akats horiek ezin dira salbuespen prozesal moduan demandaren erantzunean alegatu, eta horregatik, demandatuak ezin ditu zalantzan jarri, epaiketa aurreko entzunaldian, ez jurisdikzioa ez eskuduntza. Beste kontu bat da, ordea, auzitegiak bi horiek ofizioz kontrolatzeko aukera izatea. Eskuduntza aztertu genuenean esan genuenez, jurisdikzioa eta eskuduntza demanda onartzeko orduan kontrolatu behar ditu epaitegiak ofizioz (PZLren 38. artikuluan, jurisdikziorako; PZLren 48. artikuluan, eskuduntza objektiborako; eta PZLren 58. artikuluan, lurralde-eskuduntzarako), baina legeak, halaber, kontrola aurreragoko beste une batzuetan egiteko baimena ere ematen du (PZLren 38. artikuluan, jurisdikziorako; eta 48. artikuluan, eskuduntza objektiborako). Ondorengo une hori epaiketa aurreko entzunaldia izan daiteke. Beraz, entzunaldi horretan, alderdiei entzun ondoren, epaileak jurisdikziorik edo eskuduntzarik ez duela adieraz dezake (PZLren 416.2 art.).

2. Gaitasuna eta ordezkari-tza: aurreko gai batean gaitasun eta ordezkari-tza prozesalaren tratamendu prozesala ikasi genuen, eta baita horiek alderdien eskariz zein ofizioz kontrolatzeko aukera ere. Gai horretan esandakoari erantsi behar diogu PZLren 418. artikuluan epaiketaren aurreko entzunaldirako beren-beregi aurreikusitako araudia. Artikulu horrek konpon daitezkeen akatsen eta ezin konponduzkoen arteko bereizketa egiten du. Epaileak lehenengo motako akatsak ikusten baditu, epaiketa aurreko entzunaldian bertan akats horiek konpontzen utziko die dagokien alderdiei. Egintza horretan ezin konpondu bada, epaileak epaiketa aurreko entzunaldia etengo du eta dagokion alderdiari hamar eguneko epea emango dio, gehienera, hori konpontzeko. Zer gertatzen da akatsa konpontzen ez bada? Akatsa demandatzailearen gainekoa izanez gero, prozesuari bukaera ematen dion autoa emango du epaileak, eta demandatuaren gainekoa bada, auzi-iheslari deklaratu du demandatua, eta prozesuak aurrera jarraituko du, haien egintzak autoetan jaso gabe. Epaileak akats konponezinak hautematen baditu, aldiz, epaiketa aurreko entzunaldia bukatutzat emango du, eta prozesuari bukaera ematen dion autoa emango du.

3. Uzien hasierako metaketa: demandan uziak metatu izan balira (hasierako metaketa, PZLren 71. artikulutik 73.era bitarteko artikuluetan arautua) eta demandatua demandaren erantzunean metaketa horren kontra agertu bada (PZLren 402. art.), epaileak epaiketa aurreko entzunaldian erabakiko du metaketa hori egokia den edo ez, eta prozesuaren objektu den edo diren uziak kontuan hartuta aurrera jarraituko du epaiketa aurreko entzunaldiak (PZLren 419. art.).

Aurretik esan bezala, ez dugu ahaztu behar pilaketaren egokitasuna ofizioz kontrola dezakeela epaileak, bai demanda onartzeko unean bertan (PZLren 73.4 art.), bai epaiketa aurreko entzunaldian.

4. Beharrezko auzikidetzak: epaiketa aurreko entzunaldia da auzikidetzak gauzatu behar den edo ez eztabaidatzeko unea (PZLren 420. art.). Bi aukera daude: demandatuak demandaren erantzunean beharrezko auzikidetzarik ezaren salbuespena alegatzea eta demandatzaileak hori onartzea batetik, eta bestetik, demandatuak aipatutako salbuespena alegatzea edo epaileak berak ofizioz akats hori hautematea eta demandatzailea kontra agertzea. Bi kasuak aztertu behar ditugu.

Lehenengoan, demandatzaileak berak akatsa badela onartzean, epaiketa aurreko entzunaldian, demandatuak demandaren erantzunean aipatutako pertsonen kontrako demanda jartzen duen idazkia (eta dagozkion kopiak, noski) aurkeztu beharko du. Epaileak auzikidetzak egokia dela ikusten badu, hori deklaratu, epaiketa aurreko entzunaldia eten eta demandatu berriei deitzeko agindua emango du, demandari erantzun diezaioten. Edonola ere, demandatzaileak, demanda auzikideei jartzen dienean, ezingo du eskaria aldatu, eta hasierako demandako alegazioei demandatu berrien kontrako eskaera justifikatzeko behar diren alegazioak besterik ezin izango dizkie erantsi (PZLren 20. art.). Demandatu berriek, auzikideek alegia, demanda jasotakoan, erantzun egin beharko diote hari, eta hori egin ondoren edo egiteko epea pasa ondoren, epaiketa aurreko entzunaldira deituko zaie berriro alderdiei. Entzunaldia ez da hasieratik hasiko, utzitako puntutik jarraituko du aurrera.

Bigarren aukeran, demandatzaileak auzikidetzak beharrezkoa ez dela adieraziz eta demandatuaren eskariaren kontra agertuz gero, epaileak alderdiak entzungo ditu eta ahozko ebazpen edo auto bidez 5 eguneko epean erabakiko du auzikidetzak gauzatu den edo ez; dena dela, epaiketa aurreko entzunaldiak aurrera jarraituko du gainerako funtzioak betetzeko. Epaileak, logikoa denez, bi erabaki har ditzake: zentzu negatiboan, beharrezko auzikidetzarik ez dela esatea alegia –kasu horretan, prozesuak ohiko bideari jarraituko dio–, edo zentzu positiboan, beharrezko auzikidetzak aitortzea. Auzikidetzak onetsiz gero, epaileak demandatzaileari gutxienez 10 eguneko epea emango dio hasieran demandatu ez zituen auzikideen kontra demanda jartzeko (kopia guztiekin). Hori betetzen ez badu, epaileak prozesua bukatzeko autoa emango du eta jarduerak artxibatzeko aginduko du. Demandatzaileak demanda behar bezala jartzen badu, berriz, demandatu berriei helaraziko zaie, demandari erantzun diezaioten (PZLren 405. art.). Bien bitartean, prozesua eten egingo da hasierako demandatuei eta demandari dagokienez. Erantzunaren ondoren, prozesuak aurrera jarraituko du, eta epaiketa aurreko entzunaldia deituko da berriro.

5. Litispendentzia edo gauza epaitua: demandatuak demandaren erantzunean salbuespen prozesal gisa sala baditzake ere, posible da auzitegiak ofizioz ere kontrolatzea (PZLren 421. art.). Arazo hori sortuz gero, epaileak ahozko ebazpen baten bidez erabakiko du epaiketa aurreko entzunaldian bertan, edo auto baten bidez, entzunaldia bukatu eta 5 eguneko epean. Ebazpena bi eratakoa izan daiteke: demandatuak kasuan salatutako litispendentzia edo gauza epaitua daudela uste badu, epaileak epaiketa aurreko entzunaldia bukatu eta hurrengo 5 eguneko epean largespen-autoa emango du. Ebazpena negatiboa emanez gero, epaileak aukera berak ditu: epaiketa aurreko entzunaldian bertan, litispendentzia edo gauza epaitua ukatzea –orduan, epaiketa aurreko entzunaldia jarraitzeko aginduko du, gainerako funtzioak betetzeko–, edo

kapitulua

erabaki hori 5 eguneko epean auto baten bidez adieraztea. Kasu horretan, prozesuak bere bideari jarrai diezaiola aginduko du.

6. Prozeduraren egokitasunik eza: prozedura egokia zein den –ahozkoa edo arrunta– gaiari eta zenbatekoari so eginez zehazten da (PZLren 249. eta 259. artikulua). Prozeduraren egokitasun hori ofizioz (PZLren 254. art.) kontrolatzen edo salatzen da, edo, bestela, demandatuak, demandaren erantzunean, prozedura-desegokitasuna adierazten duen salbuespenaren bidez (PZLren 255. eta 416.1.4 artikulua). Kasu horretan, arazoa epaiketa aurreko entzunaldian ebatziko da, alderdiak entzun ondoren (PZLren 422. eta 423. artikulua). Ekin diezaiogun bigarren kasua aztertzeari.

Demandatuak bi arrazoiengatik sala dezake prozeduraren desagokitasuna: zenbatekoa dela-eta prozedura desagokia delako, edo gaiaren arabera horrela delako. Zenbatekoaren ondoriozko desagokitasuna gertatzen den kasuan, epaileak arazoa epaiketa aurreko entzunaldian bertan ebatziko du, ahoz. Horretarako, epaileak, lehenengo eta behin, kontuan izango ditu alderdiek gauza eztabaidatuaren balioari buruz lortu dituzten akordioak, eta halakorik ez badago, alderdiek balioa zehazteko aurkeztutako dokumentu, txosten edo gainerako elementuak. Epaileak epaiketa arrunta egokia dela baderitzo, aurrera jarraituko dute epaiketa aurreko entzunaldiak eta prozesuak berak. Kontrakoa ebatziz gero, epaiketa arrunta egokia ez dela alegia, epaileak ahozko prozedurak jarrai dezala aginduko du. Epaiketa aurreko entzunaldiari eta epaiketa arruntari bukaera eman, eta ahozko epaiketaren ikustaldira deituko ditu alderdiak.

Demandatuak gaia dela-eta prozeduraren desagokitasuna salatu badu, epaileak epaiketa aurreko entzunaldian bertan erabaki dezake, ahozko ebazpen baten bidez, eta 5 eguneko epean, auto baten bidez. Autoa emanez gero, epaiketa aurreko entzunaldiak aurrera jarraituko du, gainerako funtzioak egikaritzeko. Kasu batean zein bestean, epaileak bi aukera ditu: epaiketa arrunta egokia dela erabakitzea –epaiketa aurreko entzunaldiak eta prozesuak berak aurrera jarraituko dute–, eta epaiketa arrunta desagokia dela erabakitzea. Desagokia dela erabakiz gero, ahozko prozedurak jarrai dezala aginduko du. Epaiketa aurreko entzunaldiari eta epaiketa arruntari bukaera eman, eta ahozko epaiketaren ikustaldira deituko ditu alderdiak.

7. Demanda akastuna: demanda aztertzean ikusi genuenez, demanda- eta errekonbentzio-idazkiek betekizun batzuk bete behar dituzte, edukiari dagokionez; batzuek demanda onartzeko helburua dute, eta beste batzuek, berriz, uzia onartzekoa. Hortaz, epaiketa aurreko entzunaldian demandaren onarpena baldintzatzen duten betekizunak bakarrik azter daitezke, alderdien eta eskaeraren zehaztapena hain zuzen ere. Bi horietako edozeinen akatsak salatzeko hiru bide daude: epaileak ofizioz, bai demandari bai errekonbentzioari dagokienez; demandatuak demandaren erantzunean jasotako salbuespena (PZLren 407. art.), eta demandatzaileak berak errekonbentzioari erantzuteko idazkian alegatutako salbuespena.

Epaiketa aurreko entzunaldian, alderdien zein uziaren zehaztapenaren argitasun edo zehaztasunik eza eztabaidatuko da, eta demandatzaileari (hasierako uzia denean) edo demandatuari (errekonbentzioa denean) bi horietako elementuren bat argitzea eskatuko zaie. Argitze edo zehaztapen horien bidez, ezin daiteke, inola ere, demanda edo errekonbentzioa beste pertsona batzuen kontra bideratu, ezta hasierako eskaera funtsean aldatu ere.

kapitulua

Bi elementu horiek argitu ondoren, aurrera jarraituko du epaiketa aurreko entzunaldiak. Argitzen ez badira, eta epaileak demanda noren kontra jartzen den edo zer eskatzen den argi ikusten ez badu, epaileak epaiketa aurreko entzunaldian bertan kasu nagusiaren largespena edo errekonbenitzaileak metatutako kasuaren largespena aginduko du.

8. Inguruabar prozesal analogoak: legeak aurreikusten duen denetariko kutxa moduko bat da. PZLren 425. artikulua dioenez, alderdiek alegatutako edozein arazo prozesal, edo epaileak ofizioz hautemandakoa, oro har, epaiketa aurreko entzunaldian ebatzi behar da, legeak horien analogoentzako aurreikusitako arauak aplikatuta. Artikulu horrek mamiari buruz erabaki bat hartzea eragotz dezaketen arazo prozesalak konpondu nahi ditu. Legitimazioa izan daiteke inguruabar prozesal analogoaren adibide.

c) Eztabaidaren eremua mugatzeko funtzioa

Aurreko funtzioak bete ondoren, eztabaidaren eremua finkatu beharra dago. Horretarako, teoriar bereiz daitezkeen baina praktikan nahastuta dauden 4 egintza egiten dira.

1. Argitzea eta osatzea: arau orokorra demanda eta demandaren erantzuna eraldatzeko debekua bada ere, eta epaiketa aurreko entzunaldian ezin alda badaitezke ere demandatzaileak demandan finkatutako prozesuaren objektua eta demandatuak demandaren erantzunean zehaztutako eztabaidaren objektua, posible da epaiketa aurreko entzunaldian alegazioak argitzea eta eskaera osagarriak egitea.

Alegazioen argitzea dela-eta, alderdien eskariz eta epaileak horrela aginduta, alderdiek alegazioak zuzendu, argitu zein osa ditzakete; hala ere, demandaren idazkian eta demandaren erantzunean aurkeztutako egitate zein zuzenbide-oinarriei egokitu behar zaizkie beti.

Eskaera osagarriari buruz, esan behar da demandaren erantzunaren ondoren ezin dela prozesuaren objektu den eskaera aldatu, eta gauza bera esan daiteke errekonbentzioaren eskariari buruz; baina posible da epaiketa aurreko entzunaldian demandatzaileak edo errekonbentzio-egileak beren eskari nagusiaren osagarri diren beste eskari batzuk egitea. Halakoetan, bi gauza gerta daitezke: kontrako alderdiak eskaera osagarri hori onartzea edo ez. Lehenengo kasuan, eskaera osagarriak onartu egingo dira, eta epaiak horiek ere ebatzi beharko ditu, uzi nagusiarekin batera. Bigarren kasuan, aldiz, epaileak onarpenari buruzko ebazpena eman beharko du. Baldintza nagusi hau betetzen denean, epaileak onartu egingo ditu eskaera osagarriak: epaiketa aurreko entzunaldian eskaera horiek egin eta kontrako alderdiari bere defentsa berdintasunez gauzatzen uztea (PZLren 246.3 art.).

2. Egitate berriak edo ezagutza berrikoak: aurrerago ikasiko dugunez, posible da alderdiek epaia emateko epea zenbatzen hasi orduko egitateen zabaltze-idazkia aurkeztea (PZLren 286. art.). Egitate horiek epaiketa aurreko entzunaldia baino lehen eman edo alderdiek ezagutzen badituzte, egitateok epaiketa aurreko entzunaldian aurkeztu beharko dituzte. Kontrako alderdiak egitate horiek onartzen dituen edo ez esango du, eta azalpen egokiak eman beharko ditu horiek zehazteko edo indarrrik gabe uzteko.

kapitulua

3. Dokumentuen eta irizpideen ekarpena: alderdiek argibideak ematean, zuzenketak egitean, alegazio osagarriak aurkeztean, eskaera osagarriak egitean edo egitate berriak edo jakin berriak aurkeztean, eta epaileak horiek guztiak onartzean, horiek frogatzen dituzten dokumentu eta irizpide-txostenak aurkeztu ahal izango dituzte.

4. Dokumentu eta irizpide-txostenei buruzko jarrera: epaiketa aurreko entzunaldian, alderdiek ordura arte beste alderdiek aurkeztutako dokumentuei buruz duten iritzia emango dute, onartzen dituzten edo ez azalduz, eta hala dagokionean, benetakotasun-froga eskatuko dute. Ordura arte aurkeztutako irizpide-txosten eta gainerako txostenei buruz dituzten iruzkinak ere azalduko dituzte: horiek onartzen dituzten edo haien kontra dauden esango dute, edo puntu jakin batzuk zabal daitezen eskatuko dute (PZLren 427.1 eta 427.2 artikulua).

d) Froga mugatzeko funtzioa

Azken funtzio moduan, epaiketa aurreko entzunaldian, alderdiek epailearekin finkatu behar dute zein diren egitate adostuak –hau da, bien adostasuna dutenak eta zioz frogarik galdatzen ez dutenak–, eta zein ez, eta zein diren frogaren beharra eskatzen dutenak.

Alderdiek onartutako egitateak, ez eztabaidatuak eta nabarmenak, frogatik kanpo geratzen dira. Ez dira frogatu beharko. Horregatik, epaiketa aurreko entzunaldian egitate horiek zein diren argi eta garbi utzi beharra dago, jada frogatuta dauden gauzak frogatzen denbora eta indarra alferrik ez galtzeko.

Litekeena da egitateen inguruko eztabaidarik ez sortzea, alderdiak bat datozelako beste alderdiak aurkeztutako egitate guztiekin. Kasu horretan, eztabaida juridiko hutsa izango da. Adostutako egitateen ondore juridikoen inguruko eztabaida izango da. Hortaz, ez da frogarik beharko. Epailleek zuzenbidea jakiteko beharra dutenez (*iura novit curia*), epaiketa aurreko entzunaldia bukatutzat eman, eta 20 eguneko epean emango du epaia.

Baina eman dezagun egitateei buruz eztabaida sortzen dela. Eztabaida sortzen duten egitateak zein diren adierazi ondoren, epaileak alderdiei proposatuko die prozesuari bukaera emango dion akordio batera hel daitezen. Beraz, berriro ere adiskidetzen ahaleginduko dira. Akordioa lortzen badute, transakzioa emango da (PZLren 428.2 art.).

Akordioa lortzen ez badute, frogabideen proposamena eta onarpena izango da hurrengo urratsa. Alderdiek prozesua frogaldira igaro dadin eskatuko dute, eta epaileak halaxe egingen du. Gero, alderdi bakoitzak frogabide egokiak proposatuko ditu, eta epaileak horietako bakoitza onartu edo ez ebatziko du berariaz (PZLren 429.1 art.).

Frogabideak hurrengo atalean aztertuko ditugu, baina, orain, eta epaiketa aurreko entzunaldian sartuta gaudela, esan behar dugu epaileak ezin duela ofizios frogarik erabaki, baina alderdiei esan diezaieke beraiek proposatutako frogak ez direla nahikoak beren uziak frogatzeko, edo zenbait egitate ez direla behar bezain ondo frogatuta geldituko, edo berak egoki irizten diola froga jakin bat egiteari. Epaillearen gomendioak entzun ondoren, beren froga-proposamenak osatu edo aldatu erabakiko dute alderdiek (PZLren 430.1 II eta III art.).

Epaileak frogak onartu ondoren, eta epaiketa aurreko entzunaldiaren azken egintza moduan, epaiketarako data eta ordua zehaztuko ditu.

8.7. Epaiaketaren egintza.

Epaiketa aurreko entzunaldia –ahozkoa eta kontzentratua– amaitu ondoren, bi ezaugarri hauek betetzen dituen fasean sartuko gara: epaiketa. Azken hori bi xede nagusi bilatzen dituen egintza prozesala da: hurrentasuna galdatzen duten frogak gauzatzera eta ondorioak ateratzera.

Esan bezala, epaiaketaren data eta ordua epaiketa aurreko entzunaldiaren amaieran finkatuko dira. Epaiketa, oro har, epaiketa aurreko entzunaldia bukatu eta hilabeteko epean egingo da (PZLren 429.2 art.), nahiz eta legeak epe hori bi hilabetera zabaltzeko aukera ematen duen, froga osoa edo frogaren parte handi bat epaitegitik kanpo egin behar denean, alderdiak horrela eskatzen baldin badu (PZLren 429.3 art.).

Ekitaldi bakarerrako jartzen da data, baina frogak gauzatzeko ekitaldi bat baino gehiago behar izanez gero, ekitaldi gehiagotarako data ere jar daiteke. Edonola ere, ekitaldien ordua adierazi beharko da (PZLren 429.7 art.). Data jarri ondoren, epaitegiak alderdiak deituko ditu. Epaiketa aurreko entzunaldian parte hartu dutenak beste barik deitutzat hartuko dira (PZLren 429.6 art.). Gainerakoei eta lekuko eta perituei era arruntean dei egingo zaie.

Epaiaketa-ekitaldira, prokuradoreak ordezkaturak eta abokatuak defendaturak agertuko dira alderdiak, oro har. Itaunketa-froga eskatu denean baino ez dute zuzenean ekitaldi horretan parte hartu beharko, galderei erantzuteko (PZLren 432.1 art.). Horregatik, epaiaketa-ekitaldian alderdiak agertu ez direla esaten denean, auzilarien abokatu eta prokuradoreak agertu ez direla esan nahi du.

Alderdirik agertzen ez bada, epaileak prozesua epaia emateko gelditzen dela adieraziko du. Alderdi bat bakarrik aurkeztuz gero, epaiketa-ekitaldia alderdi hori soilik agertuta egingo da (PZLren 432.2 art.).

Nola egiten da epaiketa-ekitaldia? Lehendabizi, oro har, onartutako frogabideak gauzatu dira, dagokion araudiaren arabera eta legeak zehazten duen ordenan (PZLren 300. art.). Hala ere, bi salbuespen daude: alderdi batek salatzen badu frogak lortzean oinarrizko eskubide bat urratu dela, lehenengo arazo hori erabakiko da (PZLren 433.1 art.); gainera, posible da alderdiek epaiketa aurreko entzunaldiaren ondoren emandako edo ezagututako egitateak aurkeztea. Kasu horretan, lehenengo horien onarpena eta froga ebatziko dira (PZLren 286. art.).

Froga gauzatu ondoren, epaiketa-ekitaldiaren garrantzizko beste une bat dator: ondorioak. Ondorio horiek bi helburu nagusiz egiten dira: batetik, frogatu beharreko egitateen gainean egindako frogei buruz iruzkinak egitea, eta bestetik, eta aurrekoarekin lotuta, uziaren eskariaren oinarri juridikoari buruz iruzkinak egitea. Lehenengoari dagokionez, norberaren frogei eta besteen frogei buruz mintzatzen dira, norberarenak goraiapatuz, frogatu nahi izan diren egitateak argi eta garbi utzi dituztela nabarmenduz, eta besteen frogei balioa kenduz. Oinarri juridikoen gainean, eta *iura novit curia* printzipioa kontuan hartuta, posible da ondorioak aurkezteko prozesuaren fase honetan alderdiek beren oinarri juridikoei eustea, zabaltzea eta aldatzea; izan ere, horrek ez du

kapitulua

prozesuaren objektua aldatzen. Dena dela, ondorioen fase horretaz ezin da baliatu, inola ere, prozesuan egitate berriak sartzeko edo uzia aldatzeko.

Fase horretan epaileak zalantzak baditu, nahi adina alditan eman diezaieke hitza alderdiei, bere galderei erantzun diezaieten (PZLren 433.4 art.).

Ondorioen ondoren, epaia emateko geratuko da auzia.

9. KAPITULUA: FROGA.

9.1. Kontzeptua eta izaera. 9.2. Froga motak. 9.3. Frogaren objektua. 9.4. Frogaren zama. 9.5. Froga-iturriak eta frogabideak. 9.6. Frogaren balioespena. Balioespen-sistemak. 9.7. Froga-prozedura, oro har. 9.8. Froga ziurtatzea eta aurreratzea.

9.1. Kontzeptua eta izaera.

Arau juridiko materialek bi zati izaten dituzte. Lehenengoan, egitatezko egoera bat deskribatzen dute, era orokor eta abstraktuan, eta bigarrenean, egitatezko egoera horri ondorio batzuk egotzen dizkiote. Beraz, alderdi baten asmoa bada prozesu jakin batean epaileak arau baten ondorio juridikoak aplikatzea, orduan, aurretik frogatu beharko du arau horren egitatezko egoera osatzen duten egitateak gertatzen direla. Hortik ondorioztatzen da frogaren garrantzia: alderdiek berek alegatutakoa egia dela erakutsi edo egiaztatu behar dute.

Lehenbizi, ezinbestekoa da zehaztaperen lexiko bat egitea. *Froga* hitza bi esanahirekin erabiltzen da: batetik, eta *gauza bat frogatzen* ari gara, frogatzeko egintzaz ari gara; bestetik, *zerbait frogatu dugula* esatean, froga-jardueraren emaitzaz ari gara.

Froga hitzari ematen diogun esanahia edozein dela ere, prozesuarekin lotu behar dugu beti. Prozesua alderdiek beren alegazioak frogatzeko eremua da, beren uzia onar dadin nahi badute behintzat. Horregatik, froga arautzen duten arauak, arau prozesalak dira, eta berdin dio arau horiek lege prozesalari edo lege materialetan jasota dauden. Gaur egun, KZk frogari buruzko arau batzuk biltzen ditu, nahiz eta PZLk KZk frogari buruz aurreikusten zituen arau gehienak indargabetu dituen. Mantentzen direnak trafiko juridiko arruntari buruzkoak dira (dokumentuen balioa).

Froga zer den definitzeko, ezinbestekoa da Espainiako ordenamendu juridikoak froga balioesteko aurreikusten dituen bi sistemak aipatzea: balioespen askeko sistema eta balioespen-sistema legala edo legearen arabeko balioespen-sistema. Lehenengoan, epaileak askatasunez balioesten du froga, bere uste askearen edo kritika zintzoaren arabera. Bigarren kasuan, aldiz, legeak ezarritako irizpide eta urratsen arabera balioesten du froga epaileak.

Bi sistema horiek eta MONTEROK esana kontuan hartuta, honela definitu behar dugu froga: alderdiek prozesura aurkeztzen dituzten datuen izatearen edo ez izatearen inguruan epailearen konbentzimendu psikologikoa lortzeko (balioespen askeko frogei dagokienez) edo datu horien izatea edo ez izatea legezko arau batekin finkatzeko (legearen arabera balioetsi beharreko frogei dagokienez) jarduera prozesala.

Bukatzeko, PZLn frogari buruzko arauak prozesu adierazleei buruzko xedapen komunetan arautzen dira; izan ere, arau horiek prozesu mota guztietan aplikatzen dira.

9.2 Froga motak.

Egile guztiek ez dute frogen sailkapen bera erabiltzen. Guk sailkapen erabilgarrienak aipatuko ditugu.

Frogak zuzenak eta ez-zuzen edo zeharkakoak izan daitezke. Froga zuzenak dira epaileak frogaren ondoriozko informazioa zuzenean jasotzea posible egiten dutenak (adibiderik onena, zalantzarik gabe, azterketa edo ikuskapen judiziala da); hurrentasun hori ez duten frogak, aldiz, zeharkakoak direla esaten da (dokumentuak, lekukoak,...).

Beste sailkapen baten arabera, froga pertsonalen eta errealen arteko bereizketa egiten da, froga-iturriari erreparatuta. Froga pertsonalak dira: lekukoak, alderdien itaunketa edo galdeketa, peritu- edo aditu-froga eta azterketa judiziala. Froga erreal bakarria dokumentu-froga da.

Hirugarren sailkapenak aurretiazko frogak eta kausazkoak bereizten ditu, frogen jatorria eta norabidea kontuan hartuta. Aurretiazko frogak dira prozesuaren aurretik existitzen direnak, eta, prozesua egin edo ez, existitzen direnak (adibidez, dokumentu-froga). Kausazko frogak, aldiz, prozesuan bertan sortzen dira (lekukoen testigantza, ikuskapen judiziala).

Azkenik, beste sailkapen batek froga nagusia eta kontrako froga bereizten ditu. Froga nagusia aplikatu nahi den arau baten egitatezko kasua frogatzeko erabiltzen dena da. Kontrako froga, aldiz, beste alderdiak froga nagusi hori deuseztatzeko egiten duen froga da.

9.3. Frogaren objektua.

Epaiketari epaileak gure alde egin dezan frogatu behar dugunaren azterketari ekingo diogu. Alderdi horretatik, frogaren objektua eta frogaren gaia bereiztea izango da lehenengo lana.

Frogaren objektua, edozein prozesutan, frogatu behar dena da. Frogaren objektu dira epai-babesa lortzeko aplikatu nahi diren arauen egitatezko egoerak.

Frogaren gaia, aldiz, aurreko kontzeptua baino zehatzagoa da. Horrek prozesu zehatz edo jakin batean arrazoia lortzeko, epai-babesa lortzeko alegia, zer frogatu behar den adierazten du. Beraz, prozesu jakin batean aplikatu beharreko arauen egitatezko kausei egiten die erreferentzia.

Hala, frogaren gaia kasu bakoitzean zehaztu beharreko kontzeptua izanik, guk geuk frogaren objektuan indar eginen dugu. Zer da frogaren objektua? Egitateak. Horrela azaltzen du PZLren 281.1 artikulua: “Frogaren objektu izango dira prozesuan lortu nahi den babes judizialari lotutako egitateak”. Hala ere, artikulua horretan zehaztapen bat egin behar da; izan ere, frogaren objektuak alderdiek egitatei buruz eginiko baieztapenak dira. Hala ere, zuzenbidea bera ere, batzuetan, frogatu egin behar dela kontuan hartuz gero (ohitura eta atzerriko zuzenbidea, PZLren 218.2 art.), frogatu beharrekoa alderdiek alegatutako datuak direla esatea da zuzenena. Ildo horretatik, egitateen alegazioen frogaren eta zuzenbide-alegazioen frogaren arteko bereizketa egingo dugu.

Egitateen alegazioei dagokienez, esan berri dugunez, alderdiek egitatei buruz eginiko baieztapenen gainean egingo dira frogak. Alderdien helburua beren uzia justifikatzen duen araua osatzen duten egitateak frogatzea izango da. Garrantzi handikoa da gogoraraztea ez direla frogatu beharko egitate onartuak edo eztabaidarik eragiten ez dutenak eta egitate nabarmenak edo begi-bistakoak.

Onartutako egitateak frogatu behar ez izatea ulertzeko, prozesu zibila eraentzen duen printzipio bat, xedapen-printzipioa, hartu behar dugu kontuan. Horrekin batera, alderdiek onartutako egitateak ez dira eztabaidatuak, eta, ondorioz, ez dute froga beharrik. Puntu hori PZLren 281.3 artikuluan azaltzen da, erabateko edo aho bateko adostasun-egitateak frogatik salbuetsita daudela aurreikusita. Baina noiz gertatzen da egitatei buruzko alderdien arteko adostasun hori? Alderdi biek egitate bera baieztatzen dutenean, edo alderdi batek baieztatu eta bestea aurka agertzen ez denean. Beste alderdiak aurkeztutako egitateen onarpen hori berariazkoa edo esanbidezkoa nahiz isilbidezkoa izan daiteke. Isilbidezko onarpenari dagokionez, PZLren 405.2 artikulua dioenez, alderdi batek bestearen kontrako egitateak baieztatzean, bigarren alderdia isilik gelditzen bada edo auzitegiari zeharkako erantzunak ematen badizkio, epaitegiak jarrera hori isilbidezko onarpenzat har dezake.

Prozesu jakin batean eta puntu jakin batzuetan adostasunik baden edo ez jakiteko, alderdiek beren alegazio-idazkietan kontrako alderdiak alegatutako egitateekin bat datozen edo ez berariaz adieraztea galdatzen du PZLk. Era horretara, PZLren 405.2 artikulua aurreikusten du demandatuak onartu edo ukatu egin beharko dituela, demandan, demandatzaileak adierazitako egitateak. PZLren 407.2 artikulua hori bera aurreikusten du demandaren erantzunari buruz.

Zer gertatzen da onartutako egitateak, horiei buruz eztabaidarik sortzen gabe eta, beraz, frogaren beharrik gabe, frogatzen badira? Froga alferrekotzat joko dela (PZLren 283.2 artikulua).

Egitate nabarmenei edo begi-bistakoei dagokienez, kontzeptua guztiz erlatiboa dela esan beharra dago. Izan ere, egitate bat nabarmena da edo izan daiteke denbora eta toki jakin batean. Edonola ere, nabarmentasun horrek adierazi nahi du egitate bat kultura maila ertaineko jendeak ezagutzen duela. Logikoa denez, epailea, zuzenbideko teknikaria alegia, egitate nabarmenen ezagutza duen pertsonatzat jotzen da.

Egitate nabarmen horiek alegatuak baina ez-frogatuak izan behar dute (PZLren 281.4 art.). Epaileak alderdiei epaiketa aurreko entzunaldian adieraziko die zein egitate ez den frogatu behar, nabarmena delako (PZLren 414.1 eta 429.1 artikulua).

Zuzenbidezko alegazioen arloan sartuta, berriro ere gogora ekarri behar da zuzenbidearen ezagutza epaileen betebeharra dela (hainbat alditan esan dugun *iura novit curia*). Ildo horretatik, PZLren 218.1. II artikulua dioenez “Auzitegiak kasuari aplikagarri zaizkion arauen arabera emango du ebazpena, auzilariak arauok behar bezala aipatu edo alegatu ez badituzte ere”. Puntu horretan, garrantzizko xehetasun bat egin behar da: epaileek eta magistratuek zuzenbidea ezagutzeko duten betebeharrak horrek ez du, ordea, zuzenbide osoa hartzen, ordenamendu juridikoa bere osotasunean hartzen. Epaileek eta magistratuek zuzenbide idatzia, barnekoa (Espainiakoa, alegia) eta orokorra bakarrik ezagutu behar dute. Beraz, ez dituzte zertan ezagutu, eta horregatik

frogatu behar dira, ohiturak, atzerriko zuzenbideak, indarrean ez dagoen zuzenbide historikoa eta zuzenbide estatutarioa. Horietako bakoitzari buruz bi ideia nagusi azalduko ditugu.

Ohitura, dakigunez, zuzenbide-iturria da. Eta horrela adierazten du KZk, eta hori aplikatzeko frogatu egin behar dela adierazten du (KZren 1.3 art.). Hori guztiz logikoa da, ezin baitira epaileak behartu Espainiako herri guztietako ohiturak ezagutzera. Horri buruz, PZLren 281.2 artikulua ohitura-froga objektu izan daitekeela aintzatesten du. Artikulu horrek, gainera, aurreikusten du ez dela zertan frogatu, baldin eta alderdiak ohitura horren izatearekin eta edukiarekin bat badatoz, eta ordena publikoaren kontrakoak ez badira.

Atzerriko zuzenbideari dagokionez, argi eta garbi izan behar dugu Espainiako epaileek Espainiako zuzenbide prozesala baino ez dutela aplikatzen. Hala ere, gerta liteke gatazka bat ebazteko atzerriko zuzenbide materiala aplikatu behar izatea. Logikoa denez, ez dago epaileak atzerriko ordenamendu juridikoak ezagutzera behartzerik; horregatik, alderdiren batek atzerriko zuzenbide materiala alegatuz gero, zuzenbide hori edo hango arauak indarrean daudela eta horien edukia frogatu beharko du. Epaileak zuzenbide hori ezagutzeko beharrezko baliabideak erabil ditzake (PZLren 281.2 art.).

Normala denez, eta zuzenbide historikoaren eremuaren barruan, epaileek zuzenbide positiboa bakarrik ezagutu behar dute, une horretan indarrean dagoena alegia. Beraz, alderdiren baten asmoa bada garai batean indarrean egon zen zuzenbide historikoa alegatu eta epaileak kontuan hartzea, frogatu egin beharko du.

Azkenik, zuzenbide estatutarioa zuzenbide ez-orokorra da, hau da, pertsona bakan batzuei aplikatzen zaie (funtzionarioen estatutu zehatza,...). Horrek alegatua eta frogatua behar du izan. Ildo horretatik, jurisprudentziak irizpide trinko bat finkatu du: Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ez diren arauak bakarrik frogatu behar dira, eta aipatutako aldizkarian argitaratuak *iura novit curia* horren eremuan sartuko dira.

Autonomia-erkidegoetako arauak buruz zehaztaper bat egin behar da: erkidego bakoitzean argitaratutako arauak, erkidego horren eremuan jarduten duten epaileek baino ez dituzte ezagutu behar. Beraz, autonomia-erkidego bateko arau bat beste batean aplikatu behar bada, alegatu eta frogatu egin beharko da.

9.4. Frogaren zama.

Frogaren zamaz edo kargaz mintzatzean, frogatzea nori dagokion adierazi nahi dugu. Erantzuna arras erraza da: alderdiek frogatu behar dute. Azken horri *alderdien ekarpenaren printzipioa* deritzogu. Hemen ere garrantzizko zehaztaper bat egin behar da: alderdiek ez dute frogatzeko beharrik, frogaren zama baizik, izan ere, arau baten egitatezko parte frogatuz gero, arau hori beren kasura aplikatzea lortzen baitute.

Alderdiaren ekarpenaren printzipio horretan murgilduta, alderdiek frogatu behar dutela besterik ez du esaten printzipio horrek. Baina zein alderdik? Ez dio printzipio horrek frogaren zama inori egozten. Horri buruz doktrinan sortu ohi diren eztabaida gartsuak alde batera utzita, epaian jarriko dugu arreta, uste baitugu horretatik ondorioztatuko dugula nori dagokion, kasu bakoitzean, frogaren zama. Horretarako, gure ordenamenduan indarrean dagoen *non liquet* printzipiotik abiatu behar dugu:

epaileek eta magistratuek aurkezten zaizkien kasuak ebazteko eginbehar saihestezina dute. Horri lotuta, PZLren 217.1, 2 eta 3 artikulua hartu behar ditugu kontuan; arau horietan zehazten baita alderdien egitateak ez frogatzeak epaian zer ondorio dituen. Horietatik zamaren karga banatzen duen arau orokorra atera ahal izango dugu.

PZLren 217.1 artikulua dioenez, “Epaia edo antzeko ebazpena eman behar bada, eta auzitegiaren ustez erabakia hartzeko egitate garrantzitsuak zalantzak badira, orduan auzitegiak gaitz iritziko die auzi-jartzailearen edo errekonbentzio-egilearen, edo demandatuaren edo errekonbentzio-hartzailearen uziei, uzien oinarri diren egitate zalantzak frogatzeko zama hori nori egokitu eta horren arabera”.

Artikulu berak 2. puntuan dioenez, aldiz, “Auzi-jartzaileari eta demandatu errekonbentzio-hartzaileari dagokie egitateen egiazkotasuna frogatzeko zama, baldin eta egitateok ondorioztatu ohi badute demanda errekonbentzioko uzien ondore juridikoa, egitateoi aplikagarri zaizkien arau juridikoen arabera”.

Azkenik, PZLren 217.3 artikulua dioenez, “Demandatuari eta auzi-jartzaile errekonbentzio-hartzaileari dagokie egitateak frogatzea, baldin eta egitateok aurreko paragrafoko egitateen eragingarritasun juridikoa eragotzi, azkendu edo ezereztu badute, arau aplikagarrien arabera”.

Beraz, PZLren 217.2 artikulua egitate eratzailerik edo osagarriez ari bada, 217.3 artikulua egitate eragozle, iraungitzaile eta baztertzailerik frogaz ari da.

Gainera, PZLren 217.6 artikuluan aurreikusten den frogaren xedagarritasun- eta erraztasun-irizpidea aipatu behar dugu. PZLren 217.1, 217.2 eta 217.3 artikuluetan ezartzen diren irizpide orokorrez gainera, legeak, askotan, frogaren zama frogatzea errazten duen alderdiari egozten dio zeregin hori. Adibidez, pentsa dezagun aitatasun-kasu baten ikerketaz ari garela: aitatasuna galdatzen duen emakumeak zantzu hutsak baino ezin ditu frogatu, harreman bat froga dezake, baina inoiz ezin du aurkeztu aitatasuna zehazten duen frogarik. Hori frogatzea aitaren esku baino ez dago, odol-analisi baten bitartez.

9.5. Froga-iturriak eta frogabideak.

Puntu honetan bereizketa nagusi bat egin behar dugu. Gauza bat da froga-iturria, eta beste bat frogabidea. Lehenengoa kontzeptu estrajuridiko bat da. Prozesuaren aurretik dagoen eta horren independente den errealitate bat da. Errealitatean existitzen diren elementuak dira. Bigarrena, aldiz, kontzeptu juridikoa da, prozesuaren barnean soilik dagoena. Prozesuan sortu eta prozesuan bertan gauzatzen da. Froga-iturriak prozesuan sartzeko beharrezkoak diren jarduerak dira frogabideak. Errazago ikusiko dugu adibide baten bitartez. Kontuan har ditzagun lekuko frogak. Lekukoa eta horrek egitate batzuei buruz daukan informazioa prozesuaren aurrekoak dira, eta prozesurik gabe ere existitzen dira. Froga-iturri bat da. Aldiz, gatazka jakin batean auzi bat sortzen bada, eta aipatutako lekukoa prozesura deitzen bada, pertsona hori eta bere ezagutza prozesuan sartzen dira, legearekin bat eginez eta horrek aurreikusten dituen baldintzak betez. Frogabide bat izango da. Adibide hori bera gainerako frogei aplikatu diezaiekegu (alderdien itaunketa edo galdeketa, dokumentu bidezko froga,...).

Gure ikasgaian, froga-iturriak alde batera utziko ditugu, epaiketaz kanpoko egintzak direnez eta errealitateak direnez. Guri frogabideak interesatzen zaizkigu. Azken horiek PZLren 299. artikuluan zehazten dira: alderdien itaunketa edo galdeketa, dokumentu publikoak, dokumentu pribatuak, peritu edo adituen irizpide-txostenak, azterketa edo ikuskapen judiziala eta lekukoaren galdeketa edo itaunketa. Horiek guztiak datorren gaian aztertuko ditugu, banaka.

Nahiz eta frogari buruz diharduen PZLren kapituluak “Frogabideez eta presuntzioez” izenburua duen, presuntzioak ez dira frogabidetzat hartzen. Aurrerago ikusiko dugunez, izan ere, presuntzioa ez da frogabide bat, frogatzeko metodo bat baizik.

PZLren 299. artikulua aipatzen dituen frogabideez gainera, artikulua horren bigarren paragrafoak honako hau dio: “Lege honetan xedatutakoaren arabera, auzitegiak onartuko ditu, halaber, hitza, soinua eta irudia erreproduzitzeko baliabideak, eta berbak, datuak, zenbakiak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea eta ezagutzea edo erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak”. Horiek hurrengo gaian aztertuko ditugu arretaz.

Azkenik, eta PZLren 299.3 artikulua aintzat hartuta (“Artikulu honen aurreko paragrafoetan esanbidez zehaztu ez den beste bitartekoren baten bidez egitate garrantzitsuen inguruan egiazkotasuna lor badaiteke, auzitegiak, alderdiak hala eskaturik, froga gisa onartuko du hori, kasuan-kasuan beharrezko diren neurriak hartuz.”), honako galdera honi erantzun behar diogu: frogabideak *numerus clausus* dira? Legeak aurreikusitakoak bakarrik existitzen al dira? Lehen begiratuan, eta prozesu zibilean, gainerako prozesuetan bezalaxe, legezkoatasun-printzipioa aplikatzen dela kontuan harturik, egin daitezkeen froga-egintza bakarrak legeak aurreikusten dituenak direla esan behar da. Froga-iturriak, ordea, zenbatezinak dira, prozesutik kanpoko errealitate aldakor baten parte direla kontuan hartzen badugu. Hala, froga-iturriak aldatzen direnean, iturri horiek prozesura zer frogabide erabiliz sartu behar diren zalantza sortzen zaigu. Edonola ere, arazo hori legegileak kasuan-kasuan konpondu beharko du. Ildo horretatik, PZLren 299.3 artikulua froga-iturriez mintzatzen dela, eta ez frogabideez, ulertu behar dugu.

9.6. Frogaren balioespena. Balioespen-sistemak.

Hasieran esan dugunez, frogaren xedea epailea konbentzitzea edo gogatzeta da. Epailea da frogaren hartzaile naturala. Baina nola balioesten ditu epaileak alderdien frogak? Galdera horri erantzun egokia bilatzen ahaleginduko gara puntu honetan.

Espainiako ordenamendu juridikoan froga balioesteko sistema misto edo bitarikoa erabiltzen da. Froga balioesteko sistema askea eta froga balioesteko legezko sistema uztartzen dira.

Sistema askean, legeak askatasun osoa aintzatesten dio epaileari, frogak balioesteko. Epaileak frogak bere esperientziaren arabera balioesten ditu, bere kritika zintzoaren arabera. Epaileak gai batzuk balioesteko behar adinako ezagutzarik ez badu, gai horietan adituak diren pertsonen laguntza izan dezan aukera ematen dio legeak (perituen edo adituen frogaren bidez). Aldiz, legezko balioespen-sisteman, froga bati zer balio eman behar dion agintzen dio legeak epaileari.

Balioespen-sistema edozein dela ere, epaileak beti motibatu behar du epaia.

Amaitzeko, era ez-zilegian lortutako frogei erreferentzia egin behar diegu. Abiapuntua BJLOren 11.1 artikulua da: “Ez dute efekturik izango zuzenean edo zeharka oinarrizko eskubide edo askatasunak bortxatuz lortutako frogek”. Jurisprudenziak artikulua horri buruz egin duen interpretazioaren arabera, bidegabeki lortutako prozesurako onartuko dira, baldin eta oinarrizkoak ez diren eskubideak urratuz lortu badira, eta kasuan kasuko erantzukizunari aurre egin beharko zaio. Interpretazio horren arabera, bestalde, froga horiek oinarrizko eskubideak urratuta lortu direnean ezin daitezke prozesura ekarri.

Egoera hori, prozesu zibilar dagokionez, PZLren 287. artikulua jasotzen du: “Alderdietako batek ulertzen badu, onartutako frogaren bat lortzeko unean edo frogaren jatorrian oinarrizko eskubideak hautsi direla, berehala alegatu beharko du hori, gainerako alderdiei, hala badagokie, helaraziz. Arazo hori auzitegiak ere eragin dezake ofizioz, eta berori epaiketa-ekitaldian ebatziko da, edo, hitzezko epaiketa bada, ikustaldiaren hasieran, frogaldia hasi aurretik. Horretarako, alderdiek esan beharrekoa entzungo da, eta, hala denean, ekitaldian gauzatuko dira ez-zilegitasunari buruzko froga egoki eta erabilgarriak”. Artikulu horrek bigarren paragrafoan dioenez, aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenaren aurka birjartze-helegitea (edo erreposizio-helegitea) bakarrik jarri, bideratu eta ebatziko da, epaiketan edo ikustaldi-ekitaldian bertan; horrek ez dio kalterik egingo alderdiek duten eskubideari, froga ez-zilegia berriro aurkaratzeko, behin betiko epaia gora jotzean.

9.7. Froga-prozedura, oro har.

Hurrengo gaien frogabide bakoitzari dagokion prozedura ikasiko dugun arren, puntu honetan froga-prozedura oro har eta frogabideei aplikatu dakizkiekeen faseak aztertuko ditugu.

Fase horiek aztertzeko, bi gauza hartu behar ditugu gogoan. Batetik, froga ez da beti beharrezkoa. Egitate eztabaidaturik ez dagoenean, ez da frogarik behar (PZLren 428.3 eta 447.1 artikulua). Egia da bizitza errealean prozesu gehienek –denek ez esatearren– froga izaten dutela. Bestetik, puntu horretan, prozesu guztian bezalaxe, legezko tasun-printzipioak agintzen du. Legeak zehaztutako urratsei jarraitu behar zaie. Alderdi horretatik, PZLren 283.3 artikulua dioenez: “Inoiz ez da frogatzat hartuko legeak debekatutako jarduerarik”.

Froga-prozeduran lau aldi bereizi behar ditugu: (1) froga-harrera, (2) frogabide zehatzen proposamena, (3) frogabideen onarpena eta (4) frogak gauzatzea. Azal ditzagun banan-banan.

Epaileari froga hartzeko eskatzen zaionean hasten da frogaldia. Alderdiek berek alegatutako egitateak frogatzeko egoki ikusten dituzten frogak gauzatzea eta onartzea eskatzen zaio epaileari.

Ondoren, frogabide zehatzen proposamena dator. Alderdi bakoitzak egintza prozesal horretan, prozesuan gauzatu nahi dituen froga zehatzak eskatuko ditu. Eskaera hori ahoz egiten da, epaiketa aurreko entzunaldiaren amaieran (PZLren 429.1 art.), frogak banan-

banan eskatuz (PZLren 284. art.) eta nola gauzatu behar diren adieraziz (PZLren 429. 5 II art.). Jarraibide hori bat dator prozesu zibilean indarrean dagoen xedapen-printzipioarekin. Horren arabera, alderdiak dira zer froga gauzatu nahi dituzten erabakitzen dutenak. Beraiei dagokie frogaren ekimena. Printzipio hori nolabait apurtzen duten eta legeak aurreikusten dituen bi arau aipatu behar ditugu, ordea. Batetik, epaiketa aurreko entzunaldia ikasi genuenean esan genuenez, PZLren 429.1. II artikulua ildotik, auzitegiak uste badu alderdiek proposatutako frogak ez direla alegatutako egitateak frogatzeko egokiak, alderdiei jakinarazi eta bere ustez frogatu gabe geratuko diren egitateak zein diren adieraz diezaike. Auzitegiaren ustez gauzatzea komeni den frogak ere alderdiei jakinaraz diezazkieke. Epailearen komunikazio horren ondoren, alderdiek beren frogak aldatzeko zein osatzeko aukera izango dute. Bigarrenez, PZLren 282. artikulua dioenez, legeak hala ezartzen duenean, auzitegiak ofizioz erabaki ahal izango du zenbait froga gauzatzea. Artikulu horren irakurketa murriztua egin behar da, halere; legeak adierazten dituen kasuetan baino ezin da aplikatu.

Jarraian, frogabideen onarpena dator. Beharrezko betekizunak aztertu ondoren, proposatutako frogaren artetik prozesuan zein gauzatuko diren finkatzen duen epai-organoaren egintza prozesala da. Onarpen hori epaileak edo magistratuak egiten du, epaiketa aurreko entzunaldian, ahoz, eta ondoren, aktan jasotzen da. Froga onartzeko edo ukatzeko erabaki horren kontra berrezarpen-helegitea jar daiteke. Errekurtso hori egintzan bertan jarri eta ebatziko da. Errekurtsoa ukatzen bada, bigarren auzialdian protesta egin ahal izango da (PZLren 285.2 art.).

Noiz ez da onartuko frogabide bat? Frogabidearen helburua egitate ez-eztabaidatuak frogatzea denean, eta desegokia denean (prozesuko objektuarekin harremanik ez duten egitateak frogatu nahi badira) (PZLren 283.1 art.), edo beharrezkoa ez denean (frogatu nahi dena frogatzeko balio ez duelako) (PZLren 283.2 art.).

Frogaren prozeduran, froga gauzatzea izango da azken fasea. Froga bakoitza egintza hori arautzen duten arauen arabera gauzatuko da; hala ere, badaude froga oro gauzatzean aplika daitezkeen printzipio batzuk: egintza-batasunaren printzipioa, hurrentasun- edo gertutasun-printzipioa, kontradikzio-printzipioa eta publizitate-printzipioa. Bakoitzari buruz bi hitz esango ditugu.

Legearen xedea da frogabide guztiak epaiketan egintza bakarrean egikaritzea (PZLren 290. art.). Frogaren ahozkotetasunak horretan laguntzen du. Hala ere, badira salbuespenak. Esate baterako, posible da frogak epaiketaren egintza ez den beste une prozesal batean gauzatzea (PZLren 290. eta 429.4 artikulua). Salbuespen horiek, oro har, epaiketaren egintzaren aurretik gauzatzen dira. Horretarako, epaileak froga horiek gauzatzeko une egokia noiz den adierazi behar du, 5 eguneko epearekin, gutxienez, eta alderdiak 48 ordu lehenago zitatu behar ditu, berariaz (PZLren 291. artikulua). Gainera, posible da frogak auzitegiaren egoitzatik kanpo gauzatu behar izatea. Froga horiek dagokion organoaren eskumeneko lurralde-eremuan gauzatu behar badira, horretarako tokia, eguna eta ordua zehaztu beharko ditu, eta horietan zitatuko ditu alderdiak (PZLren 291. artikulua). Frogak auzia epaitzea dagokion organoaren eraginpeko lurralde-barrutitik kanpo gauzatu behar badira, epaileak epaile-laguntza eskatu beharko du.

Egintza-batasunaren printzipioak hurrentasun-, berehalakotasun- edo hurbiltasun-printzipioa dakar ondorioz. Printzipio horren arabera, frogak gauzatzean, epaia eman behar duen epaileak bertan egon behar du.

Gainera, frogak gauzatzean alderdiek zuzenean parte hartu behar dute. Horretarako, egoki zitatu behar dira. Kontradikzio-printzipioaren aplikazio baten aurrean besterik ez gaude.

Azkenik, froga guztiak jendaurrean, entzunaldi publikoan alegia, gauzatu behar dira (EKren 120.1 eta PZLren 138. artikulua). Salbuespenak badaude halere, eta froga batzuk ateak itxita gauzatu litezke, betiere erabaki hori auto baten bidez justifikatu eta alderdiak entzun ondoren emanaz gero.

Printzipio horietatik kanpo, garrantzizkoa da azpimarratzea PZLren 300. artikulua frogabideak gauzatzeko ordena jakin bat ezartzen duela. Honako hau da ordena: alderdien galdeketa, lekukoak, aditu edo perituak, epailearen azterketa (auzitegiaren egoitzan gauzatu behar denean) eta hitzaren, soinuaren edo irudien erreproduktzioa. Ordena hori alda daiteke, bai ofizioz bai alderdien eskariz. PZLren 300.2 artikulua berak dioenez, frogabide bat ezin bada epaiketaren egintzako entzunaldian gauzatu, gainerako frogak gauzatu behar dira, eta ondoren, entzunalditik kanpo egingo da egin beharreko froga.

Bukatzeko, esan behar dugu frogak gauzatzea gehienbat ahozko egintza bada ere, ezinbestekoa dela horren dokumentazioa ere. Dokumentazio hori aktaren bidez egiten da (BJLOren 280. eta PZLren 146. artikulua); edonola ere, entzunaldietako ahozko jarduerak soinua eta irudia grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarri egokietan erregistratu behar dira, idazkariak fede emanda (PZLren 147. art.).

9.8. Froga ziurtatzea eta aurreratzea.

Puntu honetan bi gai aztertu behar ditugu: froga aurreratzea eta froga ziurtatzea.

Froga aurreratzeari dagokionez, frogaren prozedura arruntaren salbuespena dela esan behar dugu. PZLren 293. artikulutik 296.era bitarteko artikuluetan arautzen da, eta froga oro har egin behar izaten dena baino lehenago (epaiketa-egintza, judizio arruntean, eta ikustaldian, ahozko judizioan) egitean datza. Aurrerapen hori froga-iturria desagertzeko arriskuan oinarritzen da; froga-iturria desagertuz gero, frogabidea prozesura ekartzea ezinezkoa izango den beldurrean, hain zuzen ere. Edonola ere, frogabidea ziurtatzea da xedea, eta ez froga-iturria ziurtatzea.

PZLk frogaren bi aurrerapen nota bereizten ditu: prozesua hasi aurrekoa eta prozesua hasi ondorengoa. Baina biezako arau komun batzuk aurreikusten ditu.

Arau komun horien arabera, froga aurreratzeak berezitasun bakarra du: froga hori gauzatzeko unean baino ez da oinarritzen. Gainerakoan, frogak beren araudiaren arabera gauzatu behar dira, ohiko unean, froga-fasean alegia, egingo balira bezala, betiere alderdiek parte hartuz.

Froga aurreratzea eskatzen duen alderdiak justifikatu egin behar du eskaera hori. Epai-organoak froga aurreratzea onartuz gero, probidentzia bat emango du, helegiterik

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

jarri ezin izango zaiona. Onartzen ez badu, auto bat emango du. Erabaki horren kontra, aldiz, berrezarpen- eta apelazio-errekurtsoak jar daitezke.

Froga ziurtatzeari dagokionez, froga bera gauzatu gabe froga-iturria babestea da helburua. Horixe da froga aurreratzearekiko alde nagusia. PZLren 287. eta 298. artikuluetan arautzen den baliabide prozesal horren helburua da giza portaerek edo gertaera naturalek gauzen egoera edo objektu materialak ez suntsitzea edo aldatzea; era horretara, ekidin egingo da prozesuan kasuan kasuko frogen bidez egitateak frogatu ezin izatea. Beraz, izaera errealeko elementuak babesten dira (gauzak eta beren egoera, ez pertsonak).

Nola babesten dira gauza edo egoera horiek? Legeak ez du babes-neurri zehatzik aurreikusten; alderdiei auzitegiari eskaera batzuk egiteko ahalmena aintzatetsi besterik ez die egiten: hala nola, gauzen edo egoeren kontserbazioa eskatzeko, zerbait egiteko edo ez egiteko agindua eskatzeko, agintaritzaren desobedientziapean aritzeko ohartarazpena, edo gauzaren edo egoeraren eta beren ezaugarrien errealitatea era frogagarrian jasotzea eskatzeko.

Era horretara, froga ziurtatzea eskatzen duen alderdiak neurri jakin bat ere eskatuko du; hala ere, gerta liteke epaileak, alderdiei edo hirugarrenei kalte gutxiago sortzearen, helburu bera duen beste bat neurri bat ezartzea.

Froga ziurtatzeko neurri horiek demandatzaileak prozesua hasi aurretik eska ditzake, edo alderdietako edozeinek, prozesua abian dela. Auzitegiak, probidentzia baten bidez, kasuan kasurako egoki diren neurriak hartzeko aginduko du, honako hiru betekizun hauek betetzen badira:

1. Ziurtatu nahi den froga posiblea, egokia eta eraginkorra izatea.
2. Froga ziurtatzen ez bada, etorkizunean froga gauzatu ezin izateko arriskua egotea.
3. Proposatzen den ziurtatze-neurria, edo xede berarekin auzitegiak lehentasunez erabakitakoa, bideragarritzat hartzea, eta denbora laburrean eta tartean dauden pertsonen edo hirugarrenei kalte larririk sorrarazi gabe aurrera eraman ahal izatea.

Froga bat ziurtatzeko neurriak emateko, epaileak kontuan hartu beharko du eskatzaileak zer berme eman ditzakeen neurri horiek sor ditzaketen kalte-galerak ordaintzeko, hala badagokio.

10. KAPITULUA: FROGABIDEAK, BANAKA.

10.1. Gaiaren aurkezpena. 10.2. Alderdien itaunketa edo galdeketa. 10.3. Dokumentu-froga edo dokumentu bidezko froga. 10.4. Aditu- edo peritu-froga. 10.5. Azterketa edo miaketa judiziala. 10.6. Lekukoen galdeketa. 10.7. Soinua edo irudia erreproduzitzeko bideak eta artxiboko tresnak. 10.8. Presuntzioak, froga-metodo gisa. 10.9. Azken eginbideak.

10.1. Gaiaren aurkezpena.

Aurreko gaien froga oro har aztertu ondoren, honako honetan, banaka landuko ditugu frogabideak. Horri ekin aurretik, ohar metodologiko bat besterik ez dugu egin nahi: frogabideen azterketan ildo berari jarraituko diogu beti: kontzeptua azaldu ondoren, prozedura eta balioespena sakonduko ditugu. Hori da arau orokorra, beraz, baina froga bakoitzaren berezitasunei ere so egingo diegu.

10.2. Alderdien itaunketa edo galdeketa.

Frogabide hau PZLren 301.1 artikuluan definitzen da. Artikulu horren esanetan, alderdiek –baita hirugarrenak ere- epaiketaren objektuarekin zerikusia duten eta ezagutzen dituzten egitate eta inguruabarrei buruz egiten duten adierazpena da alderdien itaunketa.

Definizio horri bi zehaztasun egin behar zaizkio. Batetik, nahiz eta PZLk ezer esan ez, egitate garrantzitsuen adierazpenaz ari gara. Bestetik, itaunketan deklaratzaileraren egitate pertsonalei edo ez pertsonalei buruzko galdera sorta bat sartzen da. Lehenengo kasua da ohikoena.

PZLk bi itaunketa mota nagusi bereizten ditu, pertsona fisikoei egindakoa eta pertsona juridikoei egindakoa; dena dela, bakoitzaren barruan bereizketa gehiago egin daitezke.

Hain zuzen ere, PZLk pertsona fisikoen galdeketaren barnean, (a) kontrako alderdiaren adierazpena, (b) liskarkide den alderdiaren adierazpena eta (d) hirugarrenaren adierazpena bereizten ditu.

Kontrako edo liskarkide den alderdiaren adierazpena ohiko alderdien itaunketa da. Alderdietako batek, demandatzaileak edo demandatuak, bere kontrako alderdiari galdeketa egitea eskatzen dio. Galdeketa mota hori PZLren 301. artikuluan jasotzen da, isilbidez.

Alderdi liskarkidearen adierazpenari dagokionez, aldiz, alderdietako batek, demandatzaileak edo demandatuak, beste auzikide bati galdeketa egitea eska dezake. Itaunketa hori eskatu ahal izateko, legeak betekizun bat galdatzen du: eskatzen duen partearen eta eskaera egiten zaionaren (auzikidea alegia) artean interes-gatazka bat egotea. Adierazpen mota hori berariaz jasotzen da PZLren 301.1 artikuluaaren bigarren esaldian.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Azkenik, PZLk bi kasutan ematen die baimena alderdiei, bai demandatzaileari bai demandatuari, hirugarren bati galdeketa egin diezaioten eskatzeko: (a) batetik, prozesuan ari den alderdi legitimatua prozesu horretan eztabaidatzen ari diren harreman juridiko materialaren subjektua edo eskubidearen titularra ez bada, alderdiek subjektua edo titular horri galdeketa egitea eska dezakete (PZLren 301.2 art.). Egoera hori askotan suertatu ohi da errealitatean. Horren adibide dira eskubideen lagapen-kasuak, ordezkapen prozesala, edo legitimazio bereziko kasuak, oro har. (b) Bestetik, galdekatuaren egitate pertsonalei buruzko galdeketa ez bada, galdekatutako alderdiak eska dezake galdera horiek egitate horiek zuzenean ezagutzen dituen hirugarren bati egitea, horiekin harremanen bat duelako. Alderdiak onartu egin beharko ditu hirugarrenak esandakoaren ondorioak (PZLren 308.1 art.). Horregatik, bigarren itaunketa mota hori froga proposatzen duen alderdiak hala onartzen duenean bakarrik egin ahal izango da. Onespen hori gertatzen ez bada, alderdiak hirugarrena hirugarren gisa galdeka dezaten eska dezake. Epaitegiak hartuko du horri buruzko erabakia (PZLren 308. II art.).

Pertsona juridikoen galdeketaren barnean ere bi kasu bereizten ditu PZLk: galdekatua pertsona juridiko publiko bat izatea eta galdekatua pertsona juridiko pribatu bat izatea.

Galdekatua pertsona juridiko publiko bat izanez gero (administrazio zentrala, autonomia-erkidegoetakoa, tokian tokikoa,...), pribilegio bat aintzatesten zaio: ez du epailearen aurrean zertan agertu, ezta galderei ahoz zertan erantzun ere. Idatziz galdetzen zaie, eta era horretara erantzuten dute galdekatuek ere. Horretarako prozedura PZLren 315.1 artikulua arautzen du: epaiketako edo ikustaldiko egintzara arte itxaron gabe, froga onartzen den unean bertan helaraziko zaizkie alderdi-itaunketa hori proposatu duen alderdiak aurkeztu eta epaileak egokitzat hartutako galderak galdekatuei, idatziz erantzun diezaieten. Erantzunak epaiketa edo ikustaldirako jarritako data baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Gero, ikustaldian, erantzunak irakurriko dira, eta gainerako alderdiei galdera osagarriak egiten utziko zaie. Galdera horiei pertsona juridiko publiko horren ordezkariak erantzungo die, ahal izanez gero, ikustaldian bertan, ahoz. Ahoz erantzutea ezinezkoa bada, idatziz erantzungo die (PZLren 315.2 art.). Pertsona juridiko horiek justiziarri laguntzeko betebeharra urratu eta galderei ez erantzutea ekiditearren, *ficta confessio* mehatxua aurreikusten du legeak (PZLren 315.3 artikulua PZLren 307.era igortzen du).

Itaundua pertsona juridiko pribatu bat edo nortasunik gabeko erakunde bat bada, eta epaiketan horren ordezkari denak prozesuan eztabaidagai diren egitateetan parte hartzen ez badu, epaiketa aurreko entzunaldian horrela alegatu beharko du, eta egitate horietan pertsona juridiko pribatuaren izenean zer pertsona fisiko aritu zen adierazi beharko du. Pertsona fisiko hori epaiketara deituko dute. Pertsona hori jadanik ez bada pertsona juridiko edo nortasunik gabeko erakunde horren parte edo kide, lekuko gisa ari dadin deitzeko eskatu ahal izango du ordezkariak (PZLren 309.1 art.). Edonola ere, ordezkariak bere ezagupenen arabera deklaratu behar du; izan ere, zenbait egitate eta horietan parte hartu zuten pertsonak ezagutzen ez baditu, aitortutzat eman baitaiteke (PZLren 309.3 art.).

Galdeketa horren prozedura aztertu aurretik, sakonago landu behar dugu haren elementu garrantzitsuena: galderak. Itaunketa, logikoa denez, galdera bidez egiten da. Galdera horiek, ikustaldian, ahoz eta baiezkotan egingo dira, beharrezko argitasun eta

zehaztapenak eginda. Horietan ezin da balioespenik edo kalifikaziorik sartu, eta halakorik sartuz gero, galdera horiek ez-egintzat joko dira (PZLren 302.1 art.). Galdekatuarengan engainua sortu edo haren erantzuna baldintzatu dezaketen galderak ekiditea da debeku horren xedea, haren askatasuna babesteari begira, betiere.

Gainera, galderek prozesuan eztabaidatutako egitatei buruzkoak izan behar dute, eta horrela, egiten diren unean bertan onartuko ditu epaileak (PZLren 302.2 art.). Nahiz eta horrela izan, nahiz eta epaileak galderak onartu, galderoi erantzun behar dien alderdiak eta haren abokatuak unean bertan, egintza horretan bertan, galdera horien onarpena aurkara dezake. Balioespenak edo kalifikazioak dituztelako egokiak ez direla argudiatu beharko dute, eta ez-egintzat jo daitezzen eskatuko dute (PZLren 303. art.).

Galderen nondik norakoak ikusi ondoren, galdeketa-frogaren prozeduran sar gaitzke. Horren harira, lehenengo eta behin, argi izan behar dugu prozesu bateko alderdiek bakarrik eska dezaketela alderdien itaunketa (PZLren 301.1 art.). Eskaera hori, dakigunez, epaiketa aurreko entzunaldiaren amaieran egiten, da epaiketa arruntean (PZLren 429.1 art.), eta ikustaldian, ahozko epaiketan (PZLren 443.4 art.).

Galdeketa arrunta epai-organoaren egoitzan bertan egiten da, baina badaude salbuespenak. Bi salbuespen nagusi aipatu behar ditugu. Batetik, deklaratzaileren bizilekuan egiten den itaunketa, eta bestetik, itaunketa egiteko laguntza judizialera jotzen den kasua. Bigarrenak, guztiz logikoa izanik, ez du azalpen osagarririk behar. Lehenengoa, berriz, PZLren 311. eta 312. artikuluetan araututa dago. PZLren 311. artikulua dioenez, galderei erantzun behar dien pertsona ezin bada auzitegiaren egoitzara joan –gaixotasunagatik edo beste arrazoi batzuegatik–, adierazpenak adierazpen-egilearen helbidean edo bizitokian egin ahal izango dira, alderdiaren eskariz edo ofizioz, epailearen edo auzitegiko dagokion kidearen aurrean, betiere idazkari judiziala bertan dela. Gainera, inguruabarrak direla-eta, ezinezkoa edo guztiz desegokia ez balitz, itaunduaren bizitokian egiten den galdeketa gainerako alderdiek eta beren abokatuak parte hartu ahal izango dute. Baina, auzitegiaren ustez, pertsonaren eta tokiaren inguruabarrak kontuan hartuta batzuen eta besteen parte-hartzea egokia ez balitz, galdeketa auzitegiaren eta idazkari judizialaren aurrean egingo da; proposamena egin duen alderdiak galdera-orri bat aurkeztu ahal izango du, galdera horiek egokitzat hartuak izanez gero, auzitegiak egin ditzan. Idazkari judizialak akta jasoko du galdera-erantzunekin. Akta hori deklaratzailak berak irakurri ahal izango du. Irakurri nahi ez badu, edo irakurtzen ez badaki, idazkari judizialak irakurriko du akta, haren ordean, eta auzitegiak zerbait gaineratu edo aldatu nahi duen galdetuko dio galdekatuari. Deklaratzailak eta bertaratutako gainerakoek sinatuko dute, betiere idazkari judizialak fede emanda (PZLren 312. art.).

Toki kontuak alde batera utzita, garrantzitsua da azpimarratzea alderdiez eta beraien abokatuak aparte, alderdien itaunketan epaileak ere galderak egin ditzakeela, azalpenak edo argibideak edo informazio gehiago lortzeko (PZLren 306.1 II art.). Gainera, erraz ohartuko garenez, deklaratzailak froga honetan bi zama nagusi ditu: epailearen aurrean agertzea (pertsonalki, noski) eta galderei erantzutea.

Bestalde, posible da galdeketa gurutzatua. Galdeketa-froga eskatu duen abokatuaren galderei erantzun ondoren, gainerako abokatuak, eta itaunduarenak berak ere, galdera gehiago egin diezazkiokete galdekatuari. Itaunduak galdera horiei guztiei erantzun

beharko die, non eta epaileak ez dituen galdera horiek desegokitzen edo alferreko hartzen.

Edonola ere, galdekatuak bere kabuz erantzungo du, erantzunen zirriborrorik gabe, nahiz eta epaileak egintzan dokumentuak eta oharak edo apunteak edukitzen utz diezaiokeen (PZLren 305.1 art.). Erantzunek baiezekoak edo ezezekoak izan behar dute, eta hala dagokienean, zehatzak eta konkretuak; deklaratuak beharrezko iruditzen zaizkion eta galdetutakorekin zerikusia duten azalpenak eman ditzake (PZLren 305.2 art.).

Galdeketa-itaunketaren prozedurarekin bukatzeko, PZLk aipatzen duen azken araua aztertuko dugu: egitate berdinei buruz bi alderdik edo gehiagok edo hirugarrenek deklaratu behar dutenean, beharrezko neurriak hartuko dira horien artean aurretik komunikaziorik egon ez dadin, eta galderak eta erantzunak aurretik ezagut ez dituzaten (PZLren 310. art.).

Nola balioesten da froga hori? Froga balioesteko bi sistema aplikatzen dira: legearen arabera eta askea.

Legearen arabera balioespenaren ildotik, gainerako frogen emaitzak kontraktorik adierazten ez badu, epaian egiazkotzat joko dira alderdi batek onetsitako egitateak, horietan pertsonalki parte hartu badu eta horiek egiazkotzat jotzea guztiz kaltegarri izan badakioke ere (PZLren 316.1 art.). Beraz, galdekatuarentzat kaltegarriak diren egitateak, horietan pertsonalki parte hartu zuela onartzen badu, eta gainerako frogak aurkakoa frogatzen ez badute, epaiaren argudio bihurtuko dira. Aldiz, galdetuarentzat kaltegarri diren egintzak beste froga batzuen emaitzek ez indartu ez ezik haiek ezerezean uzten badituzte, frogaren balioespina askea izanen da.

Gainera, galdeketa deituriko alderdia ikustaldian edo judizioan agertzen ez bada, epaileak zenbait egitate egiazkotzat har ditzake, alderdiak horietan pertsonalki parte hartu badu eta egiazkotzat jotzea guztiz kaltegarria izan badakioke ere.

Gerta liteke alderdia epailearen aurrera agertzea eta adierazpenak egiteari ezezia ematea. Kasu horretan, auzitegiak egintzan bertan esan diezaioke, sekretua gordetzeko legeko betebeharrak ezean, galdetzen diren egitateak egiazkotzat jo daitezkeela, galdekatuak horietan zuzenean parte hartu badu, eta egiazkotzat hartzea, osoro edo zati batean, kaltegarri izan badakioke ere (PZLren 307.1 art.).

Gainerako guztian, froga hori askatasunez balioetsiko da, epai-organoaren kritika zintzoaren arabera (PZLren 316. art.).

10.3. Dokumentu-froga edo dokumentu bidezko froga.

Horixe da prozesu zibilean gehien erabiltzen den froga, batez ere kontratuak dokumentuan gauzatzen direlako. Baina, zer da dokumentua? Objektu bat da, gauza material bat, izaera errealekoa, pertsona baten edo gehiagoren borondate-adierazpena, edo ideia, ezagutza edo esperientzia bat idatziz jasotzen duena.

Dokumentua, froga gisa, ez da PZLn soilik arautzen, KZn (1216. artikulutik 1230.era bitarteko artikulua), Merkataritza Kodean, 1862ko Notariotza Legean eta 1944ko Notariotza Erregelamenduan ere horri buruzko zenbait arau aurkitu daitezke.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Doktrinak sailkapen ugari egiten ditu dokumentu motei dagokienez. Dokumentu publiko eta pribatuen arteko bereizketa da, hala ere, bereizketa nagusia.

Dokumentu publiko baten ezaugarri nagusiak forma eta dokumentua baimentzen duen subjektua dira. KZren 1216. artikulua honela definitzen ditu dokumentu publikoak: “Legeak galdatutako betekizunekin, notario edo eskuduna den enplegatu publiko batek baimendutako dokumentuak”.

PZLren 317. artikulua dokumentu publikoen zerrenda egiten du. Horren arabera, prozesuan frogatzen hartuko dira, dokumentu publiko diren heinean: 1. Edozein motatako jardun judizialaren ebazpen eta eginbideak, eta horiei buruz idazkari judizialek eman dituzten testigantzak. 2. Zuzenbidearen arabera notarioak baimenduak. 3. Merkataritza-artekarien partaidetzaz eginak, eta horien partaidetza ziurtatuz emandako ziurtagiriak, zuzenbidearen arabera eraman behar duten Liburu Erroldaren erreferentzia adierazita. 4. Jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileek erregistro-idazpenei buruz egindako ziurtagiriak. 5. Fede emateko legezko ahalmena duten funtzionario publikoek egindakoak, baldin eta agiriok euren eginkizunen egikaritzari buruzkoak badira. 6. Estatuaren, administrazio publikoen edo zuzenbide publikoko beste erakundeen artxibo eta erroldei erreferentzia eginez, organo, administrazio edo erakunde horien xedapen eta jardueri buruz fede emateko gaitasuna duten funtzionarioek eginak.

PZLn atzerriko dokumentu publikoei buruzko aipamena ere agertzen da. Atzerriko dokumentu publikotzat hartzen dira, nazioarteko tratatu edo hitzarmen edo lege berezien arabera, Espainiako dokumentu publikoen froga-balio bera dutenak (PZLren 323.1 art., 319. artikulua erreferentzian).

Nazioarteko tratatu edo hitzarmen bat edo lege berezi bat ezin aplika daitekeenean, honako betekizun hauek betetzen dituztenak hartuko dira dokumentu publikotzat: (1) agiria egiletsi edo egitean, berori zer herrialdetan egiletsi eta bertako eskakizunak bete izatea, agiriak epailetan froga osoa eratu ahal izateko, eta (2) agiriak Espainian kautotzat jotzeko legeztapena edo apostila izatea, eta beharrezko diren gainerako betekizunak betetzea.

Atzerriko dokumentu horiek borondate-adierazpenak dituztenean, horien izaera frogatuz emanen da, baina beren eraginkortasuna Espainiako arauak eta atzerriko arauak negozio juridikoen gaitasun, objektu eta formari buruz zehaztutakoa izango da.

Dokumentu publikoak alde batera utzita, dokumentu pribatuak publiko ez diren beste guztiak izango dira, noski. Definizio guztiz logiko hori PZLren 324. artikuluan jasotzen da. Beraz, eta hasieran dokumentu publikoez eman dugun definizioari kontra eginez, funtzionario eskudunak betekizun berezirik gabe baimendutakoak ez direnak izango dira dokumentu pribatuak.

Dokumentu motak aztertu ondoren, froga horren prozedura aztertzen hasteko moduan gara. Froga horren prozedura benetan bakuna da. Alderdiak dokumentua beren esku edukitzea edo ez edukitzea izango da abiapuntua. Lehenengo kasuan, prozedura oso soil da, eta dokumentua aurkeztu besterik ez da egin behar (Idazkari Judizialari

aurkeztuko zaio, hain zuzen ere). Aldiz, alderdiak dokumentua bere esku ez badu, dokumentua erakutsi egin behar da. Azter ditzagun bi kasuak.

Alderdiak aurkeztu nahi duen dokumentua bere esku badu, demandatzaileak demandarekin eta demandatuak demandaren erantzunarekin aurkeztuko dute. Preklusio-printzipioaren aplikazio zorrotzaren eremuan ari gara: une horietan bakarrik aurkez daiteke dokumentua (PZLren 265. eta 269. artikulua). Hala ere, badira bi salbuespen. Batetik, demandatzaileak epaiketa aurreko entzunaldian dokumentuak aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta horien garrantzia demandatuak demandari erantzutean erakutsi bada (PZLren 265.3 eta 272. artikulua). Bigarren salbuespen gisa, edozein alderdik aurkez ditzake aipatutako une prozesalen ondoren, baina inoiz ez epaiketaren (epaiketa arruntean) edo ikustaldiaren (ahozko judizioan) ondoren, PZLren 270. artikulua adierazten dituen dokumentuak, hala nola: (1) demandaren edo horren erantzunaren ondorengo data dutenak, edo, hala dagokionean, epaiketa aurreko entzunaldiaren ondorengoak, betiere ezin izan badira egin edo lortu une prozesal horien aurretik, (2) demandaren edo horren erantzunaren, edo hala dagokionean, epaiketa aurreko entzunaldiaren aurrekoak, aurkezten dituen alderdiak horien izatea ezagutzen ez zuela justifikatuz, eta (3) alderdiari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik, aurretik lortu ezin izan direnak, betiere dauden tokiaren, artxiboaren edo protokoloaren berri eman bada, edo hala dagokionean, adituaren irizpide-txostenaren iragarpena, aurkezten duen alderdia doako laguntza juridikorako eskubidearen titular bada.

Nola aurkezten dira dokumentuak prozesuan? Oro har, euskarri material bat, zerbait fisikoa, aurkeztuz. Era horretara, dokumentu publikoak notarioak eginak badira, benetako kopia bidez aurkezten dira epaiketan; administratiboak, ziurtagiri bidez; eta epaileek eginak, testigantza bidez, jatorrizkoak dagokien protokoloan edo artxiboan utzita. Salbuespen gisa, merkataritza-kontratuen polizen jatorrizko agiriak aurkeztu behar dira epaiketan. Dokumentu pribatuak, berriz, egin ziren moduan aurkeztu behar dira, hau da, jatorrizkoak; hala ere, fede-emaile publiko batek egiaztatutako kopia ere aurkez daiteke (PZLren 268.1 art.). Are gehiago, posible da kopia soil bat entregatzea, eta froga-balio osoa izango du, betiere aurkako alderdiak kopia horren egiazkotasuna aurkaratzen ez badu (PZLren 267. art.).

Froga proposatzen duen alderdiak dokumentu publikoa edo pribatua bere esku ez badu, hori aurkeztutzat hartuko da, originala dagoen protokolo, artxibo, errolda edo espedientea adierazten bada. PZLk bigarren bide hori era itxian onartzen du (PZLren 265.2 art.).

Azter dezagun, orain, alderdi batek beste alderdiak aurkeztutako dokumentu baten egiazkotasuna aurkaratzen duen kasua. Epaiketa aurreko entzunaldian, beste alderdiek aurkeztutako dokumentuak onartzen dituzten edo ez adierazi behar dute alderdiek, eta horien egiazkotasuna aurkaratzeko asmoa duten ere adierazi behar dute. Beste alderdien dokumentuak onartzen badira, froga-balio osoa izango dute (PZLren 318. artikulua, dokumentu publikoei dagokienez; eta 326.1 artikulua, dokumentu pribatuei dagokienez), eta onartzen ez badituzte, edo horien egiazkotasuna aurkaratzen badute, horien egiazkotasunari buruzko froga proposatuko dute (PZLren 427.1 art.). Azter dezagun aurkaratze hori, dokumentu publiko eta pribatuen arteko bereizketa eginda.

Dokumentu publikoak, oro har, bi arrazoi nagusigatik aurkaratzen dira: (1) beren kopia, ziurtagiri edo testigantza egiazkotasunari buruzko zalantzaren bat dagoelako, edo (2) dokumentu publikoa originala ez dela uste izateagatik. Lehenengo kasuan, dokumentuaren egiazkotasuna frogatzeko, PZLren 320. artikularekin bat, Idazkari Judizialak erkaketa egingo du. Bigarren kasuan, aldiz, PZLren 40.4 artikulua araututako epaiketa aurreko arazo penal bat legoke.

Dokumentu pribatuak aurkaratzeko oinarria, oro har, faltsukeria-delitua edo egiazkotasunik eza da. Era horretara ere, PZLren 40.4 artikulua arautzen duen epaiketa aurreko arazo penal bat sortuko litzateke. Faltsukeria edo egiazkotasunik eza frogatzeko, adituek idazkera alderatuko dute (PZLren 349. artikulutik 351.era bitarteko artikulua), edo beste edozein froga erabiliko da.

Dokumentuak erakusteari dagokionez –PZLren 328. artikulutik 333.era bitarteko artikuluetan araututa dago–, dokumentu-froga eskatzen duen alderdiak dokumentu hori bere esku ez duenean eta dokumentu hori protokolo, artxibo edo errolda bat adieraziz finkatu ezin duenean, dokumentu hori alderdiren batek, hirugarren batek edo zuzenbide publikoko erakunde batek duela jakinez gero erakutsiko dira.

Dokumentu zehatz hori beste alderdiren batek baldin badu, eta prozesuan eztabaidatzen ari diren egitatei buruzko edo beste frogabide batzuen eraginkortasunari buruzko informazioa badu, interesa duen alderdiak, epaiketa aurreko entzunaldian, agiri hori duen alderdiari agiria erakutsi dezan eska diezaioke, idatziz edo ahoz (PZLren 328.1 art.). Epailleak egoki baderitzo, eskaria egin duenari dokumentua erakusteko eskatuko dio, idatziz edo ahoz (PZLren 161. artikuluan aurreikusitako eran). Zer gertatzen da, ordea, kontrako alderdiak dokumentu hori erakusteari ezezkoa ematen badio? Agiria erakusteko eskaria egin duen alderdiak eskatutako dokumentuaren kopia aurkeztuko du, eskuragarri badu noski, eta bestela, haren edukia deskribatuko du, eta auzitegiak, gainerako frogak kontuan hartuta, eskatzaileak aurkeztutako kopiari edo egingako deskribapenari froga-balioa eman ahal izango dio (PZLren 329.1 art.).

Erakusteko eskatzen den dokumentua hirugarren baten esku badago, horrek aurkeztu beharko du, baldin eta alderdiren batek eskaria egin eta auzitegiak dokumentu hori ezagutzea epaia emateko ezinbestekoa dela uste badu (PZLren 330. art.).

Azkenik, eskatutako dokumentua zuzenbide publikoko erakunde baten esku badago (enpresa publikoak barne), PZLren 332. artikulua agiria erakusteko eginbeharra ezartzen die horiei, baldin eta legearen arabera sekretutzat edo berezitzat hartu ez bada.

Froga honen azterketa amaitzeko, balioespena besterik ez zaigu geratzen. Alderdien galdeketa gertatzen den legez, kasu honetan ere, froga balioesteko bi sistema erabiltzen dira: legearen arabeko sistema (edo froga mugatua) eta balioespen askeko sistema. Horiek nola diharduten ikusteko, dokumentu publikoen eta pribatuen arteko bereizketa egin behar dugu, berriro ere.

Dokumentu publikoak, oro har, legearen arabera balioesteko edo legeak mugatutako frogak dira. Baina hori ez da beti horrela izaten. Dokumentu publikoek legezko balioa izango dute, baldin eta, prozesuan, jatorrizko gisa, kopia edo ziurtagiri fede-emaile gisa edo aurkaratu gabeko edo arrakastarik gabe aurkaratutako kopia bakun gisa aurkezten badira (PZLren 318. art.). Dokumentu horiek jasotzen dituzten egitate, egintza edo gauzen egoerari, dokumentazio horren datari eta horretan parte hartzen duten fede-

emaile eta gainerako pertsonen nortasunari buruzko froga osoa egiten edo ematen dute (PZLren 319.1 art.). Agiriaren zati bati buruzko lekukotasunak edo ziurtagiri fede-emaileek ez dute froga osoa eratuko, agiri hori zer auzilarientzat kaltegarria izan, eta auzilari horrek eskatu eranskinekin hura osatu arte (PZLren 321. art.).

Legeak izaera publikoa aintzatesten badie PZLren 317. artikulua 5. eta 6. zenbakian jasota ez dauden dokumentu administratiboei [honako dokumentu hauei buruz dihardute, hurrenez hurren: legeak beren funtzioen egikaritzan fedea emateko gaitasuna aintzatesten dien funtzionario publikoek egindakoak (PZLren 317.5 art.), eta Estatuko, administrazio publikoetako edo zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen artxibo eta erregistroei erreferentzia eginez, organo, administrazio edo erakunde horien xedapen eta jardueri buruz fede emateko gaitasuna duten funtzionarioek egindakoak (PZLren 317.6 art.)], izaera hori aintzatesten dieten legeek ezarritako froga-balioa izango dute. Lege horiek ez badute horri buruzko inolako xedapenik jasotzen, PZLren 319.2 artikulua dioenez, dokumentu horietan jasotzen diren egitateak, egintzak edo gauzen egoerak egiazkotzat hartuak izango dira epaian, egiazkotasun hori beste dokumentu batzuek bertan behera uzten ez badute, behintzat (PZLren 319.2 art.).

Gainerako dokumentu publikoei (hau da, PZLren 317. artikuluan jasotzen ez direnei) edo PZLren 319.1 artikuluan aipatzen ez diren dokumentu horien zatiei (dokumentatzen duten egitatea, egintza edo gauzen egoera, dokumentazioaren data eta fede-emailearen eta gainerako parte-hartzaileen nortasuna ez den beste edozer) dagokienez, balioespen-sistema askea erabiltzen da, hau da, epailearen kritika zintzoan oinarritutakoa. Legeak berariaz adierazten du balioespen askea erabiliko dela, baita lukurreria-kasuan ere, PZLren 319.1 artikuluan adierazten denari kasurik egin gabe (PZLren 319.3 art.).

Dokumentu pribatuek, aldiz, froga osoa eratuko dute beren egiazkotasuna demostratzen den aldi oro, bai frogak kaltetzen dituen alderdiek horrela onartu eta deklaritzen dutelako, bai idazkera eta sinadura alderatu eta hala frogatzen delako. Ildo horretatik, PZLren 326.1 artikulua dioenez, dokumentu pribatuek froga osoa eratuko dute prozesuan, PZLren 319. artikuluan dioen moduan (hau da, dokumentatzen duten egitatea, egintza edo gauzen egoerari buruz, eta baita dokumentazioaren data eta fede-emailearen eta gainerako parte-hartzaileen nortasunari buruz ere), baldin eta egiazkotasuna kaltetzen zaion alderdiak aurkaratzen ez badu. Beraz, kasu horretan legezko balioespen baten aurrean gaude. Gainerako kasu guztietan, epaileak askatasun osoz balioetsiko ditu dokumentu pribatuak (PZLren 326.II art.).

10.4. Aditu- edo peritu-froga.

PZLren 335. artikulutik 352.era bitarteko artikuluetan arautzen den froga horretan, *adituen txostenaren froga* izenaz ere ezagutzen den horretan, epaileak ez dituen ezagutza bereziak (zientifikoak, artistikoak, teknikoak zein praktikoak) prozesutik kanpoko pertsona batek prozesura ekartzen ditu, epaileari gatazkan garrantzizkoak diren egitate edo inguruabarrak balioesten edo horiei buruzko segurtasuna lortzen laguntzeko (PZLren 335.1 art.).

Beraz, argi ikusten da izaera pertsonaleko froga bat dela, peritua edo aditua bera eta horrek dituen ezagutzak baitira froga horretan garrantzitsuenak. Argi gera bedi aditua edo peritua, gai bati buruz asko dakien pertsona, froga-iturria dela, eta horrek kasu

zehatzerako egiten duen irizpide-txostena frogabidea dela. Azter ditzagun adituaren ezaugarriak.

Peritua edo aditua bere ezagutza tekniko espezializatuak –bere jakituria, alegia– prozesuan aplikatzeko prest dagoen hirugarrena da.

Nor izan daiteke aditu? Pertsona fisiko (ingeniaria, sendagilea, mekanikaria, al baitaria,...) zein juridiko bat (akademia bat, erakunde zientifiko edo kultural bat,...). Zuzenbidearen arloan ere perituak badaudenez, argi eduki behar da pertsona bat ezin dela izan prozesu berean epaile eta peritu (BJLOren 219.1 eta PZLren 99.2 artikulua), ezta peritu eta alderdi gisa aritu ere.

Peritua ez da prozesuan aritzen frogaren objektu diren egitateak ikusi dituelako (gerta liteke hori ere, baina orduan lekukoen frogak litzateke!), egitate horiei aplikagarri zaizkien ezagutza batzuen jabe delako baizik. Berdin dio ezagutza horiek nola lortu dituen, hau da, ez da nahitaezkoa titulu ofizial bat izatea, nahiz eta legeak lehentasuna ematen dien tituludunei. Alderdi horretatik, PZLren 340.1 artikulua dioenez, zer gairi buruzko irizpena eskatzen den, gai eta izaera horiei dagokien titulu ofiziala izan behar du adituak, eta lanbide-titulu ofizialik ez duten gaietan, gai hori buruz jakitun direnak izango dira aditu.

Adituen eskubide nagusia eskatzen zaien txostenagatik diru kopuru bat jasotzea da, eta txostena eman baino lehen, funts-hornidura eska dezakete, zerbitzuak eskatu dizkion alderdiaren kontura. Txostena alderdi biek eskatuz gero, diru-eskaera ere biei egingo zaie (PZLren 241.1.4 eta 342.3 artikulua). Beren eginbehar nagusia, aldiz, beren jakituria aplikatuz irizpide-txostena egitea da. Eginbehar horren harira, PZLren 335.2 artikulua dioenez, irizpena ema emateko unean, adituak, zinpean edo egia esango duelako promespean, adierazi behar du objektibotasun handienaz aritu dela, alderdietako edozeini mesede zein kalte egin diezaiokeen guztia kontuan hartuta, eta ezagutzen dituela aditu gisa dituen eginbeharretan huts egitearen ondoriozko zehapen penalak. Adituen objektibotasun hori bermatzeko, perituak ezesteko eta nariopean jartzeko (“tatxatzeko” alegia) eskubidea aintzatesten zaie alderdiei, alderdikierarik eza kaltetzen edo zalantzan jartzen duen ingurumari bat gertatu dela uste dutenean. Azter ditzagun, banaka, bi egoera horiek.

Aditua ezesten denean, pertsona jakin batek prozesu batean aditu-lana egin dezan ekiditen da. Epaileak zozketa bidez izendatutako perituak, bai titularrak bai ordezkakoak, bakarrik ezets daitezke.

Aditua ezesteko arrazoiak honako hauek dira: (1) alderdi baten defendatzaile edo ordezkari aritu izana, letratu gisa auziari edo kausari buruz txostena eman izana, edo horretan fiskal, peritu edo lekuko gisa aritu izana (BJLOren 219.4 art.), (2) gai berari buruz aurretik alderdi ezleslearen kontra irizpide-txostena eman izana, prozesuaren barne nahiz kanpo (PZLren 124.3.1 art.), (3) kontrako auzilariari aditu-zerbitzuak eman izana edo haren mendeko edo bazkide izatea (PZLren 124.3.2 art.) eta (4) prozesuko alderdi den sozietatean, establezimenduan edo enpresan partaidetza izatea (PZLren 124.3.2 art.).

Noiz ezetsi behar dira perituak? Legeak bi epe aurreikusten ditu: alderdi ezlesleak izendapena jakinarazi bezain pronto (bi eguneko epean), ezespren-arrazoia aurretiazkoa balitz (PZLren 125.2.I art.) edo ezespren-arrazoia izendapenaren ondorengoa baina

irizpide-txostena eman aurrekoa bada, epaiketarako zehaztutako eguna baino lehen (epaiketa arruntean), edo ikustaldia baino lehen (ahozko judizioan), edo horien hasieran (PZLren 125.2 II art.). Epe horietatik kanpo ezin izango da peritua ezetsi, nahiz eta epaileari epaia eman aurretik edo bigarren auzialdian jakinarazi ahal izango zaizkion irizpide-txostena emateko unean gertatu ezespren-arrazoiak, txostena eman ondoren jakin badira (PZLren 125.3 art.).

Ezespena PZLren 125. eta 127. artikuluetan arautzen den moduan izapidetzen da.

Alderdiek izendatutako aditurik ezin da ezetsi. Horien kontra, beste salaketa-bide bat dute alderdiek: narriopean jartzea edo "tatxatzea". Horren bitartez ez da bilatzen aditu batek irizpide-txosten bat eman dezan eragozte, baizik eta epaileari jakinaraztea adituaren alderdikierarik eza zalantzan jartzen duen egoera edo gertaera bat gertatzen ari dela. Zein dira egoera horiek? PZLren 343. artikulua zehazten ditu: (1) alderdietako baten, abokatuen edo prokuradoreen ezkontide edo senide izatea, laugarren gradu zibilean, dela odolbidez, dela ezkontza bidez; (2) gai horretan edo antzeko batean interes zuzena edo zeharkakoa izatea; (3) alderdietako batekin, edo beren abokatuekin edo prokuradoreekin, mendekotasun-egoeran, komunitate-egoeran edo interes-contrakotasunean egotea edo egon izana; (4) adiskidetasun estua edo areriotasuna izatea alderdietako edozeinekin, edo beren prokuradore edo abokatuekin; eta (5) lanbidean galera dakarten inguruabarretatik beste edozein gertatzea, hori behar bezala egiaztatuta.

Noiz aurkeztu behar dira adituen narriok? PZLren 343.2 artikulua dioenez, ahozko epaiketan ezin izango dira adituen kontrako narriok aurkeztu epaiketaren egintzaren edo ikustaldiaren ondoren, eta judizio arruntean, epaiketa aurreko entzunaldian aurkeztuko dira. Bi kasuetan, perituen narriok aurkeztean (edo tatxak egitean), horiek frogatzeko frogak proposatu ahal izango dira; edozein froga erabili ahal izango da horretarako, lekukoen froga izan ezik.

Narrioreen prozedura PZLren 344. artikulua arautzen du: edozein alderdik auzitegira jo dezake narrioa ukatzera, horretarako beharrezkoak irizten dizkion dokumentuak aurkeztuta. Narriok adituaren lanbide-ospea edo ospe pertsonala murrizten badu, adituak epaileari prozesuaren bukaeran akats hori oinarririk gabea dela aitor dezala eska diezaioke, probidentzia bidez. Beste izapidetik barik, epaileak froga balioesteko unean narrioa edo horren kontra egindako adierazpenak kontuan hartuko ditu, eta probidentzia ere eman dezake. Epaileak narrioa edo akatsa leialtasunik ezaz edo ausarkeriaz egin dela baderitzo, bere motibazioagatik edo egin den uneagatik, erantzukizuna duen alderdiari 60 eta 600 euro bitarteko isuna jar diezaioke, azken hori aurretiaz entzunda betiere.

Kontu horiek alde batera utzita, landu dezagun froga horren prozedura. Horretarako, lehenbizi, bi egoera bereizi behar ditugu, aditua alderdiek berek izendatzen duten kasua (ohikoena) edo peritua epaileak izendatzen duena (horrela izango da alderdiek epaileari eskatzen diotenean, edo guztiz beharrezkoa denean).

Alderdiek gatazkarako garrantzitsuak diren egitate edo inguruabarrak balioesteko edo horiei buruzko segurtasuna lortzeko ezagutza bereziak (zientifikoak, artistikoak, teknikoak edo praktikoak) prozesuan beharrezkoak direla uste dutenean, adituen irizpide-txostena aurkez dezakete. Demandarekin batera edo demandaren erantzunarekin batera aurkeztu behar dute, epe hori preklusio-epaia izanik (PZLren

336.1, 336.3 eta 336.4 artikulua). Txosten hori entregatzeko uneak badu salbuespen bat, bai demandatzailearentzat bai demandatuarentzat: bietako batek, edo biek, txostena demandarekin edo horren erantzunarekin batera aurkeztu ezin badute –horri itxaronez gero demanda edo horren erantzuna jartzeko epea pasatuta egongo bailitzateke–, epaiketa aurreko entzunaldian aurretik aurkeztu ahal izango dute, epaiketa arruntean, eta ikustaldia baino lehen, ahozko epaiketan (PZLren 337.3 eta 4 artikulua), demandaren edo erantzunaren idazkian hala adierazten eta justifikatzen badute.

Kasu batean nahiz bestean, eta txostenak eman ondoren, alderdiek adierazi beharko dute irizpide-txosten horien egile diren perituak epaiketako egintzan bertan (epaiketa arruntean) edo ikustaldian (ahozko epaiketan) agertzea nahi duten edo ez, baita txostena azalduz, edo galderei, eragozpenei eta zuzenketa proposamenei erantzunez, edo txostena ulertzeko eta balioesteko beste eraren batean jardun beharko duten ere (PZLren 337.2 art.).

Aipatutako salbuespenaz at, posible da adituaren irizpide-txostenaren beharra demandatuak demandaren erantzunean egindako alegazioen ondorioz sortzea, edo epaiketa aurreko entzunaldian onartzen diren alegazio edo eskaera osagarrien ondorioz (PZLren 426. art.), horregatik, eta aipatutako kasuan azken aukera gisa, posible da edozein alderdik aditu-txostena aurkeztea, betiere epaiketa baino 5 egun lehenago, gutxienez (PZLren 338. art.).

Esan bezalaxe, bigarren aukera nagusia aditua auzitegiak izendatzea da. Egoera hori lau kasu hauetan gerta daiteke:

(1) Alderdietako batek doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea badu, ez du zertan demandarekin edo demandaren erantzunarekin aditu-irizpide txostenik aurkeztu; hori iragarri besterik ez du egin behar, aditua Doako Laguntza Juridikoaren Legearekin bat izenda dezaten (PZLren 339.1 art.).

(2) Alderdiek izendapen hori egokia dela uste izanik, demandan edo demandaren erantzunean proposatzen dutenean (PZLren 339.2 art.). Kasu horretan, adituaren gastua aditua izendatzea eskatu duen alderdiak ordaindu beharko du, edo alderdi biek, biek eskatu baldin badute. Epailleak demanda edo horren erantzuna aurkezten denetik 5 eguneko epean egingo du izendapena.

(3) Alderdiek aditu baten izendapena beste une prozesal batean, aurrerago, ere eska diezaiokete epaileari. Demandaren ondoren irizpide-txosten hori galdatzen duten alegazioak egiten badira edo epaiketa aurreko entzunaldian uzi osagarriak egikaritzen badira, auzitegiak aditua izendatuko du horren irizpide-txostenari beharrezkoa eta egokia deritzonenean, eta alderdi biak ados badaude txosten horren objektuarekin eta auzitegiak izendatzen duen perituaren txostena onartzearekin (PZLren 339.3 art.).

(4) Azkenik, epaitegiak adituak ofizioz izenda ditzake, seme-alabatasuna, aitasuna eta amatasuna aurkaratzeko edo adierazteko prozesuetan, pertsonen gaitasunari buruzkoetan edo ezkontza-prozesuetan (PZLren 339.5 art.).

Nola aukeratzen dira adituak? PZLren 341. artikulua perituaren izendapen judizialerako izapidetza jasotzen du: urte bakoitzeko abuztuan, Lanbideen Elkargoari, edo halakorik ezean, antzeko erakundeei, eta baita akademia eta erakunde kultural eta

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

zientifikoei ere, peritu gisa aritzeko prest leudekeen kideen zerrenda eskatuko zaie. Zerrenda bakoitzeko lehenengo izendapena Idazkari Judizialaren aurrean eginiko zozketa bidez eginen da, eta ondorengo izendapenak zerrenda horretako ordenari jarraituz egingo dira.

Izendapenak gai batean aditua izanik titulu ofizialik gabeko pertsona bati eragiten dionean, aipatu berri dugun eran egingo da aukera, baina, horretarako, alderdiak dituko dira, lehenbizi. Aukera sindikatuei, elkarteei eta egokiak diren erakundeei urtero eskatzen zaien eta gutxienez 5 izenek osatua izango den zerrendatik egingo da. Gaiaren berezitasuna dela-eta, aditu bakarraren izena edukiz gero, alderdiei beren adostasuna eskatuko zaie, eta denak bat badatoz bakarrik izendatuko da pertsona hori peritu (PZLren 341.2 art.).

Epaileak aukeratutako adituak bere kargua onartuko du, lehenengo, eta onartuz gero, izendatu egiten da, aurretik aipatutako promesa egin edo zina eman ondoren (ahalik eta objektibotasun handienaz arituko dela, alderdiei mesede zein kalte egin diezaiekeen edozer kontuan hartuta, eta bere eginbeharrean huts eginez gero izan ditzakeen zehapen penalak ezagutzen dituela) (PZLren 342.2 eta 335. artikulua).

Gerta liteke izendatutako adituak kargu hori onartzea eragozten dion arrazoi justu bat adieraztea. Auzitegiak, arrazoi hori nahikotzat joz gero, hurrengoak ordezkatu du. Horrela jardungo da izendapena egin ahal izan arte (PZLren 342.2 art.). Bestalde, gerta liteke alderdiek epaileak izendatutako peritua ezestea (PZLren 343.1 artikulua eta 124. artikulutik 128.era bitarteko artikulua).

Edonola ere, alderdiek izendatutako adituek PZLren 341. artikulua aipatzen dituen zerrendetan agertu behar dute beti.

Nola egiten dute adituek beren lana, irizpide-txostena? Jurisdikziotik kanpoko jarduera izanik, PZLk ez du arautzen, logikoa denez. Ildo horretatik, PZLk gauza bakarra adierazten du: irizpide-txostena egiteko tokien, objektuen edo pertsonen ikuskapena edo antzeko eragiketak egin behar badira, alderdiek eta beren defendatzaileek bai batzuk bai besteak ikusi ahal izango dituztela, betiere horrek adituaren lana eragozten ez badu edo lan horri kalte egiten ez badio, eta irizpide-txostenaren egokitasuna eta alderdikeriarik eza bermatu ahal bada. Alderdi batek adituaren eragiketetan egotea eskatzen badu, horri buruzko erabakia auzitegiak hartu beharko du; erabakia baiezkoa bada, adituari aginduko dio alderdiei jakinarazteko eragiketok noiz, non eta zer ordutan egingo diren, 48 orduko aurrerapenaz, gutxienez.

PZLren 346. artikulua dioenez, epaileak izendatutako adituak idatziz emango du irizpide-txostena, eta adierazitako epean helaraziko dio epaileari. Gainera, txosten hori alderdiei ere helaraziko zaie, aukera izan dezaten epaiketako egintzan edo ikustaldian perituari egin nahi dizkieten galderak egiteko. Edonola ere, auzitegiak probidentzia bidez peritua epaiketako egintzan edo ikustaldian agertzea agin dezake, berak emandako txostena azaltzeko eta hobeto ulertzeko. Dena dela, adituek, bai auzitegiak izendatuak bai alderdiek izendatuak, epaiketako egintzan (epaiketa arruntean) edo ikustaldian (ahozko epaiketan) parte hartu beharko dute alderdiak horrela eskatuta, epaileak horrela erabaki duelako (PZLren 347.1 art.). Epaileak beti onartuko du alderdiek eskatutako perituaren parte-hartzea epaiketako egintzan edo ikustaldian, desegokia dela edo beharrezkoa ez dela irizten dionean salbu.

PZLren 347.1 artikulua, eskubide hauek aintzatesten dizkie alderdiei eta beren defendatzaileei epaiketako egintzan edo ikustaldian:

1. Adituari irizpide-txostenaren azalpen osoa eskatzea, baldin eta azalpen horretarako, emandako idazkiak gainera, beste eragiketa osagarri batzuk behar badira; PZLren 336.2 artikulua aipatzen dituen dokumentu, material eta elementuak erabiltzen dira.
2. Adituari txostenaren edo bertako atal baten edo batzuen azalpena eskatzea, frogaren ondoretarako argiak ez badira.
3. Metodoari, premisei, ondorioei eta irizpide-txostenaren beste alderdi batzuei buruzko galderari eta objektuak buruz erantzuteko eskatzea.
4. Adituari txostena beste puntu batzuetara luzatzeko egiten zaizkion eskaerei erantzuteko eskatzea. Luzatze edo zabaltze hori egiteko, txostenaren gai nagusiarekin lotura duten beste puntu batzuetara jo daitekeen galdetuko zaio beti adituari, eta baita zabaltze hori egintzan bertan egin daitekeen ere; hori egiteko aukera eta egokitasuna eta aurrera eramateko beharrezko denbora galdetzeko eskubidea ere aintzatesten zaie.
5. Kontrako alderdiaren perituak txostenaren kritika egin dezake.
6. Perituari dagozkion akatsak edo narriak adierazi ahal izango dituzte alderdiek.

Gainera, adituei galderak egiteko eta txostenaren gaineko azalpenak emateko eskatzeko ahalmena aintzatesten zaio auzitegiari. Auzitegiak ezin izango du erabaki, ofizioz, irizpide-txostena luzatzea, salbuespen bakar batean izan ezik: horrela egin ahal izango du txostena ofizioz izendatutako adituek egina bada.

Adituaren froga balioesteari buruz jardun aurretik, aditu-froga berezi bat aipatu behar dugu: idazkera alderatzeko froga, hain zuzen ere. Dokumentu-froga ikastea aipatu dugu dokumentu pribatuen (PZLren 326.2 art.) edo publikoen (PZLren 322.1 art.) egiazkotasuna aurkaratzean, beste dokumentu batzuekin alderatu behar dela arazoa konpontzeko eta dokumentua benetakoa den edo ez zehazteko. Aldaratze-froga hori, aditu-froga berezi bat besterik ez den hori, aztertuko dugu hurrengo lerroetan.

Noiz alderatu behar da dokumentu baten idazkera? PZLren 349.1 artikulua dioenez, dokumentu pribatuei dagokienez, adituak idazkera alderatu beharko du, baldin eta dokumentu pribatu jakin batek kalte eragiten dion alderdiak dokumentu horren egiazkotasuna ukatzen edo zalantzan jartzen badu. Dokumentu publikoetan, aldiz, alderatzea egingo da dokumentu nagusirik edo kopia fede-mailerik ez duten dokumentuak direnean, betiere dokumentu hori eman zuen funtzionarioak edo fede-maila gisa agertu zenak dokumentua aintzatestea ezinezkoa bada (PZLren 349.2 art.).

Idazkera alderatzeko froga horretan, epaileak bakarrik izenda dezake aditua, aurretik ikasitako eran (PZLren 349.3 artikulua, 341. eta 342. artikuluetara igorritik).

Erkatzea edo *alderatzea konparatzea* dela kontuan hartuta, aztertu nahi den dokumentua, egiazkotasuna dela-eta zalantzak eragiten dituen alegia, beste dokumentu batekin konparatu beharko da. Legeak dioenez, aldaratze-eskaera egiten duen alderdiak,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

dokumentuaren egiazkotasuna aurkaratzen duenak, adieraziko du konparaketa zer dokumenturekin (inolako zalantzarik gabe egiazkoak direnak, noski) egin behar den (PZLren 350.1 art.), eta ondoren, zalantzarik gabekotzat jotzen diren dokumentuen zerrenda itxi bat aurkeztuko da (PZLren 350.2 art.): (1) aditu-frogak zein alderdi ukitu eta alderdi horiek guztiek halakotzat aitortu dituzten agiriak, (2) eskritura publikoak eta nortasun-agiri nazionalaren artxibo publikoetan jasotakoak, (3) zalantzagarritasuna eratzikitzen zaion alderdiak agiri pribatuek daramaten letra edo sinadura epaiketan aitortzen baditu, eta (4) aurkaratutako idazkia, kalte egiten dion alderdiak idazki horretan agertzen den letra berea dela aintzatesten duen zatian.

Dokumentu bat egiazkoa ez dela-eta norbaitek aurkaratu eta erkaketa egiteko aipatutako dokumenturen bat aurkezterik ez badago, PZLren 350.3 artikulua dioenez, auzitegiak edo idazkari judizialak agindutako idazki bat egitera behartu daitezke aurkaratutako dokumentua egozten zaion alderdia edo hori baimentzen duen alderdia, kontrako alderdiak hala eskatuta. Konparazioa egiteko zalantzazkoa ez den dokumenturik ez bada eta aipatu berri dugun neurria ere ezin erabil badaiteke, auzitegiak kritika zintzoaren arauen arabera balioetsiko du aurkaratutako dokumentua (PZLren 350.4 art.).

Idazkera alderatzeari buruzko azterketa amaitzeko, gaineratu behar da aldaratze-lana egiten duen adituak idatziz adieraziko dituela egiazkotasuna frogatzeko egiten dituen eragiketak eta horien emaitzak (PZLren 351.1 art.).

Azkenik, eta adituen frogaren balioespenari dagokionez, idazkera alderatzeari buruz esandakoa kasu guztietara zabaldu behar dugu: epaileak askatasunez balioesten du (PZLren 348. art.). Ez dugu ahaztu behar, epaileak, balioespena egiteko unean, alderdiek adituaren kontra agertutako akatsak edo narriok balioetsiko dituela.

10.5. Azterketa edo miaketa judiziala.

PZLren 6 artikulutan (PZLren 353. artikulutik 359.era bitarteko artikuluetan, hain zuzen ere) arautzen den froga horretan, epaileak frogaren objektu diren egitateak zuzenean jaso edo hauteman behar ditu. Gainerako frogekin besterik gertatzen den arne, froga horretan, ez dago ezer epailearen eta egitateen artean. Epaileak bere zentzumenen bidez egiaztatuko ditu egitateak. Hala, egitateak argitzeko eta zehazteko, epaileak berak toki, objektu edo pertsonaren bat aztertzea beharrezkoa edo egokia dela baderitza eskatuko da froga hori (PZLren 353.1 art.). Adierazpen-prozesuan ez ezik, kautela-prozesuan ere eska daiteke.

Zer izan daiteke miaketa judizialaren objektu? Ondasun higiezinak (tokiak), objektuak edo ondasun higigarriak (dokumentu idatziak izan ezik, horiek dokumentu-frogaren objektu baitira) eta pertsonak.

Azter dezagun frogaren prozedura. Froga hori eskatzen duen alderdiak argi adierazi beharko du eskaeran zer gai, puntu edo alderdiri buruz aritzea nahi duen, batetik, eta bestetik, azterketa- edo miaketa-egintzara gai horretan aditua edo praktikoa den norbaitekin joan nahi duen. Eskaera horren berri jasota, eta azterketa judiziala egin aurretik, gainerako alderdiek frogaren objektu izan daitezkeen beste gai, puntu edo alderdi batzuk adieraz ditzakete, baita miaketa-egintzara dagokion gaian aditua edo

praktikoa den pertsona batekin joan nahi duten ere. Puntu horretan garrantzizko lau zehaztapen egin behar ditugu:

(1) Alderdiek adierazitako puntu, gai edo alderdiak edozein izanda ere, epaileak erabakiko du azterketa judizialak zenbaterainoko zabaltasuna izango duen (PZLren 353.2 art.).

(2) Alderdiek miaketa-egintzara eraman dezaketen pertsonak (“gaian teknikoa edo praktikoa den pertsonak”) ez du zertan aditua edo peritua izan, lekukoa ere izan daiteke; horrela, froga horretan peritu-lekukoaren figura sor daiteke (halakoetan, pertsona berak bi tokiak hartzen ditu, perituarena eta lekukoarena. Adierazpenak ez ezik, epaileari oharrak ere egingo dizkio, egia esango duen zinpean edo promespean) (PZLren 354.3 art.).

(3) Froga horretan, argi ikusten da aurkakotasun-printzipioa: alderdi batek miaketa eskatzen duenean, beste alderdiak ere bat etor daitezke miaketa horrekin, eta bakoitzak azterketa horri buruzko hainbat puntu edo gai zehaztu ditzake. Gainera, alderdi biak egon daitezke frogaren ekitaldian bertan (PZLren 353.2 II art.).

(4) Nahiz eta froga horretan ezinbestekoa den hurrentasun-printzipioa, PZLk froga hori laguntza judizialaren bitartez egiteko aukera ere ematen du, auzitegiak bere eremutik kanpo joateko edo aritzeko duen ahalmena egikaritzea egoki edo posible ez dela uste duenean (PZLren 169.2 art.).

Gainera, azpimarratzekoa da PZLk froga hori bera bakarrik edo aditu-frogarekin batera, lekukoaren galdeketa frogarekin edo alderdien itaunketa-frogarekin batera, egitea baimentzen duela. Azter ditzagun lau aukerak.

a) Azterketa judizialaren froga bakarrik gauzatzea: epaileak miaketaren eraginkortasuna ziurtatzeko beharrezkoa izan daitekeen edozein neurri erabaki dezake, baita miatu behar den tokira edo aztertu behar den pertsona edo objektua dauden tokira sartzeko agintzea ere (PZLren 354.1 art.).

Alderdiak eta beren abokatu eta prokuradoreak miaketa-egintzara joan daitezke eta egoki deritzen oharrak egin diezazkiokete auzitegiari, ahoz (PZLren 354.2 art.). Bestalde, ofizioz edo alderdiaren eskariz, auzitegiak miaketa-egintzan alderdiei laguntzen dieten pertsona adituen oharrak edo adierazpenak entzutea egoki baderitzo, egia esango dutela zin edo promes egin beharko dute aurretik (PZLren 354.3 art.).

Pertsonen azterketari dagokionez, azterketa hori auzitegiaren galdeketa baten bitartez gauzatuko da. Kasuan kasuko beharretara egokituko da galdeketa, eta, egoerak horrela eskatzen badu, atea itxita edo auzitegiaren egoitzatik kanpo egin ahal izango da; alderdiek galdeketa parte har dezakete, epaileak frogaren helbururako eragozpena izan daitekeela uste duenean salbu. Edonola ere, miaketa horrek pertsonaren duintasuna eta intimitatea errespetatzen dituela bermatu beharko du (PZLren 355. art.).

b) Azterketa judiziala aditu-frogarekin batera egitea: ohikoa da bizitza errealean bi froga horiek batera egitea, batez ere biak pertsona, gauza edo toki beraren gainekoak direnean. Epaileak, ofizioz zein alderdien eskariz, erabaki dezake bi froga horiek batera egitea (PZLren 356. art.).

c) Azterketa judiziala lekuko-frogarekin batera gauzatzea: aurreko kasuan bezala, froga bi horiek batera egiten dira, praktikotasunaren mesedetan; baina, hala egin dadin, alderdiek bakarrik eska dezakete bi froga horiek batera gauzatzea, eta beren kontura egingo dira. Beraz, epaileak ezin du ofizioz erabaki froga biak batera egitea, baina agin dezake, probidentzia bidez, azterketa judiziala egin eta berehala aztertzea lekukoak, baldin eta gauza, pertsona edo tokia ikusteak haien lekukotasuna argitzen lagun badezake (PZLren 357.1 art.).

d) Azterketa judiziala alderdiaren itaunketarekin batera egitea: alderdiaren eskariz, miaketa judizialaren ondoren edo hura egin eta berehala, alderdiaren itaunketa egin ahal izango da, gauza, pertsona edo tokia ikusteak gauzak argiago hautematen lagun badezake (PZLren 357.2 art.).

Aipatutako kasu horietan guztietan, frogaren emaitza idazkariak eginiko akta batean dokumentatuko da, eta argi eta garbi jasoko dira epailearen hautemateak eta alderdiek eta adituek eginiko oharra. Miaketa judizialarekin batera peritu-froga edo lekuko-froga egin bada, horrela adierazi beharko du aktak (PZLren 358. art.). Legeak baimena ematen du miaketa judizialaren objektua eta horretan parte hartzen dutenek esandakoa irudia eta soinua grabatzeko baliabideen edo antzeko tresnen bidez jasotzeko. Azken hori ere aktan jaso beharko da (PZLren 359. art.).

Bukatzeko, esan behar da azterketa judiziala, guztiz logikoa denez, balioespen s̄keko froga dela. Epaileak, bere zentzumenen eta pertzepzioen arabera balioetsiko ditu gauza, pertsona edo tokia eta horiek prozesuan duten garrantzia.

10.6. Lekukoaren galdeketa.

Lekuko-froga edo lekukoaren galdeketa froga PZLren 360. artikulutik 381.era bitarteko artikuluetan arautzen da. Izaera pertsonaleko froga bat da: froga horren protagonista lekukoa da. Lekukoa berak ikusi edo erreferentziaz ezagutzen dituen eta frogaren objektu diren egitateak prozesura ekartzen dituen hirugarrena da (PZLren 360. art.).

Lekukoa eta horrek egitatei buruz duen ezagutza froga-iturriak dira, eta hark prozesuan egiten dituen adierazpenak, berriz, frogabidea.

Logikoa denez, pertsona bera ezin da kausa berean lekuko eta epaile izan (dakigunez, ezeste-kausa da hori, BJLOren 219.5 eta PZLren 99.2 artikuluen arabera). Alderdiak ere ezin dira lekuko izan. Alderdien itaunketa-froga dagokie horiei.

Edonola ere, urte askotan gutxietsita egon da froga hau. Froga hau indartzearen, PZLk lekukoak onartzeko egokitasuna arautu du, kontuan hartuta lekuko guztiek ez dituztela gaitasun berak (ulertzeko, azaltzeko, gogoratzeko,...).

Baina azter dezagun lekukoa bera, pertsona alegia. Horretarako, aurretik esandakoari gaineratu behar diogu lekukoak, beti, pertsona fisikoa izan behar duela. Prozesuan bertan eztabaidagai diren egitatei buruz duen hautemate pertsonala aurkezten duen norbanakoa da lekukoa. Horretan, legeak dioenez, “bere zientzia-arrazoiak azalduz” aritu beharko du. Esamolde horrekin legeak aditzera eman nahi du lekukoak egitatei

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

buruz daukan ezagutza eta ezagutza hori nola lortu duen azaldu beharko duela prozesuan (entzun egin zuen, ikusi egin zuen, edo norbaitek kontatu dion,...).

Ezinbestekoa da lekukoa eta aditua edo peritua elkarrengandik ondo bereiztea. Lekukoa pertsona fisiko bat da, ezinbestean, eta hori besterik ez; peritua, aldiz, pertsona juridikoa ere izan daiteke. Gainera, lekukoak egitate batzuei buruz adierazpen soilak egiten ditu, eta perituak, aldiz, egitate horiek balioetsi egiten ditu, arrazoibide zientifikoak aplikatuta.

Lekukoak eta perituak hautatzeari dagokionez ere, alde handiak daude: lekukoa berez sortzen da, prozesuan eztabaidatzen ari diren egitateekin harremana izan duelako (gauza bat ikusi, entzun edo norbaitek esanda dakielako,...), ez dago hura aukeratzeko inolako biderik; peritua, aldiz, jakintza arlo batean adituak diren pertsonen artean aukeratzeko da. Beraz, lekukoa aldaezina da, eta aditua inolako arazorik gabe alda daiteke.

Gainera, adituak jakintza arlo zientifiko, tekniko edo artistiko batean jantzia izan behar du, nahitaez; lekukoak ez du inolako ezagutza berezirik behar, prozesuan eztabaidatzen ari diren egitateen ezagutza, besterik ez. Bi horien artean bada beste desberdintasun bat: prozesuan beren tokia (lekuko edo aditu, alegia) betetzeko duten betebeharra. Adituak ez du nahitaez bere kargua hartu behar; lekukoak, aldiz, bai. Horrekin guztiz lotuta, peritua (epaileak izendatua) ezets daiteke; ez, aldiz, lekukoa.

Horien arteko azken desberdintasuna beren lanaren truke jasotzen duten ordainari dagokio. Adituak ordainsari bat jasotzen du prozesuan parte hartzeagatik. Lekukoak ez du ordainsaririk jasotzen, prozesuan adierazpenak egiteak ekar diezazkiokeen gastu eta kalteagatik diru kopuru bat jasotzeko eskubidea besterik ez zaio aintzatetsiko (PZLren 375. art.).

Hala ere, PZLk berariaz aintzatesten du lekuko-perituaren figura. Demagun mekanikari batek auto-istripu bat ikusi duela, edo albaitari batek txakurren arteko borroka bat ikusi duela,... Legeak dioenez, lekukoak itaunketaren objektu diren egitateei buruz ezagutza zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo praktikoak baditu, epaileak onartu egingo ditu ezagutza horien ondorioz lekukoak galderen erantzunei erantsten dizkion adierazpenak. Gainera, kasu horretan lekukoa narria daiteke, eta alderdiek hari buruzko akatsak aurkez ditzakete (PZLren 370.4 art.).

Desberdintasun hori egin ondoren, azter ditzagun lekukoaren eskubide eta betebeharrak. Lekukoaren eskubide nagusia prozesura joatearen eta adierazpenak egitearen ondorioz sortu zaizkion gastu eta galerak kobratzea da. Horien zenbatekoa epaileak zehaztuko du (PZLren 375. art.). Lekukoak, espainiarra izan atzerritarra izan, lau betebeharrak nagusi ditu: epailearen aurrean agertzea, zin egitea, adierazpenak egitea eta egia esatea. Ikus ditzagun horiek.

Lekukoak epaiketa egiten ari den tokira joan behar du, eta aurretik adierazi beharko zaio, gainera, epailearen aurrean agertzen ez bada, isun bat jarri edo agintariari desobeditzea leporatu ahal izango zaiola (PZLren 292.1 eta 292.2 artikulua). Hala eta guztiz ere, lekukoa azaltzen ez bada, epaiketa egintza (arruntean) edo ikustaldia (ahozkoan) eten egin daitezke (PZLren 292. art.).

Betebeharrak hori azaldu beharreko epaitegiaren lurralde esparrutik at bizi den lekukoari ere badagokio; laguntza judizialera joko da, baldin eta lekukoa epaitegira joan ez bada,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

distantziaren ondorioz, mugitzeko zailtasunen ondorioz, bere egoera pertsonalaren ondorioz edo antzeko arrazoien ondorioz (PZLren 169.4 art.).

Bigarren betebeharrari dagokionez, esan behar da lekukoak, edozein adierazpen egin aurretik, egia esateko promesa edo zina egin beharko duela, eta gezurretan arituz gero, testigantza faltsua ematearen delitua egin dezakeela, kausa zibilean (PZLren 365.1 artikulua eta ZKren 458. artikulua). Adingabeek ez dute zin hori egin behar.

Adierazpenak egiteko betebeharra lekukoari egin diezazkioketen galderei erantzutean oinarritzen da. PZLren 366. artikulua adierazpen horiek egiteko era arautzen du: lekukoek banaka eta bata bestearen atzetik deklaratzeko dute, proposamenetan ezarritako ordenan, epaileak hori aldatzeko arrazoirik aurkitzen ez badu, behintzat. Lekukoek ezin dute elkarren artean komunikatu, eta ezin dira batzuk besteen adierazpenetara joan. Bi debeku horiek ziurtatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

PZLren 371. artikulua sekretua gordetzeko beharra duten lekukoaren jardura arautzen du. Horien egoera edo lanbidea dela-eta, lekukoak galdetzen zaizkion egitatei buruz sekretua gordetzeko beharra badu, hala adieraziko du, horretarako arrazoiak emanez, eta auzitegiak ezezko horren oinarria kontuan hartuta, probidentzia bidez erabakiko du zuzenbidearen arabera egokia dena. Lekukoa erantzuteko betebeharretik aske geratuko balitz, hala jasoko da aktan (PZLren 371.1). Lekukoak alegatzen badu galdetzen dizkieten egitateak, legearen arabera, isilpeko gisa edo sekretupeko arlo gisa adierazita daudela, auzitegiak, justizia administrazioaren interesak asetzeko beharrezkoa dela deritzonean, izaera hori egiaztatzen duen dokumentu ofiziala eskatuko dio, ofizioz, probidentzia bidez, organo eskudunari. Auzitegiak galdera bat sekretua edo isilpekoa den gai bati erreferentzia egiten diola esanez lekukoak eginiko alegazioaren oinarria egiaztatu ondoren, dokumentua auzi-paperei gehitzea aginduko du epaileak, sekretu ofizialak zer galderari eragiten dion adierazita (PZLren 371.2 art.).

Azkeneko betebeharra, egia esatekoa, PZLren 365.1 artikuluan azaltzen da. Horren ondorioz, egiten dizkieten galdera guztiei egia esanez erantzun behar diete lekukoek. Lekukotasun faltsua delitua da (ZKren 458. art.).

Azalpenean aurrera eginez, eta lekukoaren azterketan aurrera jarraituz, edozein pertsona fisiko izan daiteke lekuko, arrazoimena behin betiko galduta dutenak edo zentzumenen bidez bakarrik ezagut daitezkeen egitateen kasurako dagokion gaitasuna falta dutenak izan ezik. Azken horiek ez dira lekuko egokiak, eta edozein prozesutan lekukotasuna emateko ezgaituta daude.

Hamalau urtetik beherako pertsonak lekuko gisa aritu ahal izango dira, baldin eta epaitegiak uste badu era egiazkoan ezagutzeko eta egia esanez deklaratzeko gaitasuna dutela (PZLren 361. art.). Adingabeei ez zaie galdutako egia esango dutela zin egitea edo hitz ematea (PZLren 365.2 art.).

Zer gertatzen da alderdi batek uste badu besteak proposatutako lekukoak desegokiak direla? Uste hori duen alderdiak hala alegatu beharko du froga gauzatzen hasten den unean; izan ere, esan bezala, egokitasunik ezak prozesu horretan (eta beste edozeinetan) testigantza emateko ezgaitzen baitu pertsona hori.

Hala ere, gerta liteke lekuko bat egokia izatea, oro har edozein prozesutan aritzeko gaitasuna izatea, baina prozesu jakin batean haren testigantza zalantzazkoa izatea, prozesu horretan alderdi izateko elementu bat dagoelako (Aita semearen eta haren lagun baten arteko liskar batean presente egonik, ondorengo prozesu batean semearen lekuko gisa aritzea, adibidez). Kasu horretan, posible da kontrako alderdiak lekuko hori oro har lekuko izateko egokia bada ere aztertzen ari den gaian alderdikierarik eza zalantzan dagoela alegatzea. Beste era batera esanda: lekukoa narriopean jar daiteke.

Lekukoa narriopean jartzeko arrazoiak PZLren 377.1 artikuluan biltzen dira:

1. Lekukoa lekuko gisa aurkeztu duen alderdiaren edo haren abokatu edo prokuradorearen ezkontide edo ahaide izatea, orain edo iraganean –odolez edo afinitatez, laugarren gradu zibilaren barruan–, edo horiekin adopzio, tutoretza edo antzeko loturaren bat izatea.
2. Lekukoa, deklaratu behar duenean, lekuko gisa proposatu duenaren edo haren abokatu edo prokuradorearen mendekoa izatea edo haien zerbitzura egotea edo haietako batekin sozietate- edo interes-harreman bidez lotuta egotea.
3. Prozesuan aztertzen ari den gaian interesa, zuzena zein zeharkakoa, izatea.
4. Alderdietako baten edo haren abokatu edo prokuradorearen lagun mina edo arerioa izatea.
5. Lekukoa testigantza faltsua emateagatik kondenatu izana.

Nork narriatzen ditu lekukoak? Berez, lekukoak narriatzea horiek proposatu dituen alderdiaren kontrako alderdiari dagokio, hala ere, posible da alderdi batek berak proposatutako lekukoei ere akatsak ateratzea, horiek proposatu ondoren haien kontrako narrio-arrazoiren bat dagoela jakinez gero (PZLren 377.1 eta 377.2 artikulua).

Narrioa lekukoak testigantza eman aurretik proposatu behar da, lekuko-froga onartzen den unetik hasi eta epaiketa-egintza (arruntean) edo ikustaldia (ahozkoan) hasi bitartean. Narrioa alegatzean, horiek frogatzeko frogak proposa daitezke (edozein, lekuko-froga izan ezik) (PZLren 379.1 art.). Lekuko bati narrioa jartzen zaionean, gainerako alderdiak ez badira hiru eguneko epean horren kontra agertzen, erabaki zuzentzat jotzen da. Narrioren kontra agertuz gero, egoki deritzen alegazioak egingo dituzte alderdiek; horiek dokumentu bidez frogatu ahal izango dituzte (PZLren 379.2 art.). Auzitegiak ez du narriatze horri buruzko inolako erabakirik hartuko, lekuko-froga balioesteko kontuan hartu besterik ez ditu egingo.

Azter ditzagun, orain, lekukoari egiten zaizkion galderak. Lekukoari galdetzen zaion lehendabiziko gauza “legeari buruzko (galdera) orokorrak” dira. Galdera sorta horren xehetasunak PZLren 367.1 artikuluan agertzen dira (1. Izena, abizenak, adina, egoera, lanbidea eta bizilekua. 2. Lekuko bezala aurkeztu duen alderdiaren edo haren abokatu edo prokuradorearen ezkontide edo ahaide den –odolez edo afinitatez, laugarren gradu zibilaren barruan–, edo haiekin adopzio, tutoretza edo antzeko loturarik duen. 3. Lekuko gisa proposatu duen alderdiaren edo haren abokatu edo prokuradorearen mendekoa den edo haien zerbitzura dagoen edo haietako batekin sozietate- edo interes-harreman bidez lotuta dagoen. 4. Dagokion gaian, edo antzeko beste batean, interes zuzen zein

zeharkakorik duen. 5. Alderdietako baten edo haren prokuradore edo abokatuen lagun mina edo arerioa den. 6. Noizbait testigantza faltsuagatik kondenatua izan den). Galdera horien xedea, lekukoa identifikatzeaz gainera, haren alderdikeriarik eza balioestea da. Horregatik daude lotuta galderak eta narriok (PZLren 371.1 eta 377.1 artikulua).

Legeak aurreikusten dituen lehenengo galdera horien ondoren, alderdiek proposatutako itaunketari ekingo zaio. Galderak ahoz, zentzu positiboan (baiezkoan, alegia), eta beharrezko argitasun eta zehaztasunez egiten dira. Ez dute ez balioespenik ez kalifikaziorik adierazi behar, eta halakorik adieraziz gero, ez-egintzat hartuko dira (PZLren 368.1 art.). Auzitegiak galdeketaren egintzan bertan hartuko du galderei buruzko erabakia. Epaietaren objektuarekin harremana duten egitate eta inguruabar eztabaidatuak ezagutzeko baliagarri diren galderak onartu egingo ditu. Ez ditu onartuko, ordea, PZLren 360. artikuluaekin bat, dagokion lekukoaren ezagutzarekin bat ez datozenak. Galdera bat onartu ez lekukoak galdera horri erantzuten badio, erantzuna ez da aktan jasoko (PZLren 368.2 eta 368.3 artikulua). Gainera, galdeketa-egintzan bertan, galdera egin duen alderdia ez den beste batek horren onespina aurkara dezake, eta, bere aburuz bidegabeak izanik, ez-egintzat hartu beharko liratekeen balioespenak eta kalifikazioak azpimarra ditzake. Galdera ez onartzearekin bat ez datorren alderdiak ere hala adieraz dezake eta bere protesta aktan jasotzea eska dezake (PZLren 369. artikulua).

Azkenik, froga horri dagokion prozedura eta balioespen-sistema aipatzea besterik ez zaigu geratzen.

Froga hori epaiketa arrunteko epaiketa aurreko entzunaldian proposatzen da; lekukoak nor diren adierazten eta identifikatzen da (“bere identitatea adieraziko da, ahal den neurrian, izen-abizenak, lanbidea eta bizilekua edo helbidea adieraziz. Halaber, lekukoa izenda daiteke, berorren kargua edo berori identifikatzeko balio duten inguruabarretatik beste edozein aipatuz, baita lekuko horri zitazioa egiteko tokia adieraziz ere”, dio PZLren 362. artikulua), eta azpimarratzen da zer lekuko eramango dituen prozesura alderdiak berak, zer epai-organok deitu behar dituen eta nori hartu behar zaion testigantza laguntza jurisdikzionala baliatuta. Zenbat lekuko aurkez ditzake alderdi bakoitzak? Nahi adina, nahiz eta auzitegiak hiru lekukora muga dezakeen eztabaidatutako egitate berari buruz testigantza ematen duten lekukoaren kopurua, egitate hori garbi geratu dela uste badu. Gainera, eztabaidatutako egitate bakoitzeko hiru lekuko baino gehiago aurkezten badira, hirugarren lekukotik aurrerako lekukoei dagozkien gastuak horiek proposatu dituen alderdiaren kontura izanen dira (PZLren 363. art.).

Gero, eta galderak aztertzean esan dugunez, lekuko-froga gauzatzeko orduan, legeak aurreikusten dituen galdera orokorrei erantzun ondoren, ahozko itaunketa hasiko da. Lehenenik, lekukoa proposatu duen alderdiak galdetuko du. Bi alderdiek proposatu badute, demandatzailea hasiko da. Lekukoak bere kabuz erantzungo du, hitz eginez, zirriborrorik erabili gabe, nahiz eta kontu, liburu edo dokumentuei buruzko galderetan, datuak kontsultatzeko aukera emango zaion galderei erantzuteko. Lekukoak beti adierazi behar du bere deklarazioaren oinarri diren egitateak nola ezagutu dituen (“arrazoibide zientifikoa”).

Galdeketa gurutzatua da; izan ere, froga proposatu duen alderdiaren galderei erantzun ondoren, kontrako alderdien abokatuek ere egin diezazkiokete galderak lekukoari. Zehaztapenak lortzeko edo informazio gehigarria lortzeko, auzitegiak ere galderak egin diezazkioke lekukoari (PZLren 372.2 art.).

Legeak lekukoaren arteko eta lekuko eta alderdien arteko kontraesanak argitzeko bide berezi bat aurreikusten du: aurrez aurrekoa edo buruz burukoa. Ofizioz edo alderdien eskariz erabaki daiteke (PZLren 373. artikulua).

Logikoa denez, epaileak askatasun osoz balioesten duen froga da lekukoaren galdeketa, horretarako, lekukoei egindako narriok ere kontuan hartuko ditu (PZLren 376. art.).

10.7. Soinua edo irudia erreproduzitzeko bideak eta artxiboko tresnak.

PZLren 299.2 artikulua frogan moduan aintzatesten ditu “hitza, soinua eta irudia erreproduzitzeko bideak, eta berbak, datuak, zenbakiak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea, ezagutzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak”.

Aipatutako artikulua filmak, bideo-zintak, grabazio-kaseteak, diskete informatikoak (horiek aipatutako “berba, soinua eta irudia erreproduzitzeko bideak” dira), CDak, DVDak, ordenagailuen disko gogorrak, fitxategi informatikoak,... (“berbak, datuak, zenbakiak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea, ezagutzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak, horiek prozesurako garrantzitsu badira”) hartzen ditu kontuan, eta baita, zalantzarik gabe, etorkizunean sor daitezkeenak ere.

Froga horren prozedurari dagokionez, PZLk “hitza, soinua eta irudia erreproduzitzeko bideak” frogatzeko prozeduraren eta “berbak, datuak, zenbakiak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea, ezagutzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak, horiek prozesurako garrantzitsu badira” frogatzeko prozeduraren arteko bereizketa egiten du.

Lehenengoi dagokienez, baliabide horiek frogan moduan proposa ditzakete alderdiek, eta horiek jasotzen duten informazioaren letrazko transkripzioa gainera dezakete (PZLren 382.1 art.). Gainera, baliabide horiekin loturiko irizpide-txostenak edo bestelako frogak (horien jatorria, egiazkotasuna frogatzeko) aurkez daitezke. Gainerako alderdiek erreproduzioaren egiazkotasuna eta zehaztasuna zalantzan jartzen badute, frogabideak aurkezteko eskubidea aintzatesten zaie (PZLren 382.2 art.).

Bigarren kasuan, argi geratu behar da alderdiek bakarrik aurkeztu ahal izango dituztela frogan horiek, prozesurako garrantzizkoak direnean eta kontabilitate xedetarako edo bestelakoetarako eramanak izan direnean. Horiekin batera, horiek indartzeko egokiak diren txostenak eta bestelako frogak aurkez daitezke.

Tresna horiek epaileak aztertuko ditu alderdi proposatzaileak prozesura ekarritako baliabideekin (ordenagailu eramangarria,...) edo epaitegiak dituenarekin, betiere beste alderdiei bertan egoteko aukera emango zaie horiek gauzatzeko unean eta nahi duten alegazioak egin ahal izango dituzte. Idazkariak guztiaren akta jasoko du.

Logikoa denez, froga hori ere balioespen askeko froga da, epailearen kritika zintzoaren arabera balioesten da.

10.8. Presuntzioak, froga-metodo gisa.

PZLren 385. eta 386. artikuluetan arautzen diren presuntzioei dagokienez, hasieratik argi utzi behar da frogatzeko metodo bat dela, eta ez froga-jarduera edo -egintza bat. Baieztapen hori argi ikusiko dugu presuntzioen gaia sakon aztertzean.

Zer da presuntzio bat? Frogatuta edo alderdiek onartuta dagoen egitate batetik abiatuta, beste bat existitzen dela adierazteko erabiltzen den arrazoibidea da; arrazoibide hori bi egintzen arteko lotura logikoan oinarritzen da. Presuntzioek berebiziko garrantzia dute, bigarren egitatea arau baten egitatezko baldintzat hartuta badaiteke, arau hori aplikagarria izango baita.

Presuntzioak zer diren erraz ulertzeko adibide bat KZren 194. artikulua jasotzen duena izan daiteke: itsasontzi bat hiru hilabeteko epean helmugara heltzen ez bada, hondoratutzat hartuko da, beraz, haren tripulazioa hiltzat joko da.

Adibide horretatik ondoriozta daitekeenez, frogatzeko metodo bat da, ez frogabide bat. Gainera, adibide horrek argi erakusten ditu presuntzioa osatzen duten hiru elementuak: (1) oinarritzko baieztapena edo oinarritzko egitatea, (2) susmatzen den baieztapena edo egitatea, eta (3) bi egitateen arteko lotura logikoa. Azter ditzagun hiru elementu horiek.

Oinarritzko baieztapena eta horren egitatea da presuntzioaren oinarria, eta prozesuan frogatu behar da, edozein frogaren bitartez (PZLren 385.1 II art.). Aipatutako adibidean, edozein frogabidez frogatu beharko da ontzia hondoratu dela.

Susmatzen den baieztapena eta horren ondoriozko egitatea, aldiz, oinarritzko baieztapenetik eta haren egitateetik deduzitzen den ondorioa da. Elementu hori alderdiak adierazi behar du, eta prozesu zibilean aplikatu nahi den arau baten egitatezko baldintza behar du izan. Beste frogabideen bitartez ezin frogatu izana da bigarren elementu horren ezaugarri nagusia. Aipatutako adibidean, tripulazioa hil egin dela, alegia.

Hirugarren elementua, iragarri dugun moduan, bi baieztapenen arteko lotura logikoa da, eta are garrantzitsuagoa, horietako bakoitzak adierazten duen egitateen arteko lotura. Ezinbesteko elementua da presuntzioa formulatu ahal izateko. Lotura hori legeak aurreikus dezake, edo bestela, epaileak berak hauteman (PZLren 386.1 art.). Azaldutako adibidean, lotura logiko hori itsasontzia hiru hilabeteko epean helmugara ez heltzea litzateke.

Azter ditzagun lotura motak. Loturak legeak finkatu zein epaileak zehaztu ditzakeela esan dugu. Horiek kontuan hartuta, legeak ezarritako presuntzioak, legezko presuntzioak alegia, eta epaileak zehaztutakoak, *judizialak* deritzenak, bereiz daitezke.

Legezko presuntzioak PZLren 385.3 artikuluan jasotzen dira. Horietan, legea da frogatutako egitatearen eta ondorioztatutako egitatearen arteko lotura aurreikusten

duena (PZLren 385.2 art.). Oinarrizko egitatea frogatuz gero, legezko presuntzio horren aplikazioak bigarren egitatea existitzen dela egiaztatuko du.

Presuntzio horiek kontrako froga onartzen dute, horregatik *iuris tantum* izenez ezagutzen dira. Espainiako ordenamendu juridikoak ez du kontrako frogarik onartzen ez duen presuntziorik –*iuris et de iure* deituak– aurreikusten.

Hona hemen legezko presuntzioen zenbait adibide: *nasciturus*ari buruzkoa (KZren 29. art.), senarraren seme-alabei buruzkoa (KZren 116. art.), heriotzari buruzkoa (KZren 195. art.),...

Presuntzio judizialean, oinarrizko egitatearen eta susmatutakoaren arteko lotura ez du legeak aurreikusten; epailearen jardueraren emaitza da (PZLren 386.1 art.).

10.9. Azken eginbideak.

Azken eginbideak epailearen eskariz eta horren ustea sendotzeko egiten diren ikerketa-egintzak dira, frogak alegia. PZLren 434.2, 435. eta 436. artikuluetan arautzen dira.

Eginbide horiek epaileari aintzatesten zaizkion izaera materialeko zuzendaritza-ahalmenen barruan sartzen dira, eta xedapen-printzipioak agintzen duen prozesu zibilean ofizialtasun-printzipioa sartzea dakarte.

Azken eginbide horiek alderdiek eskatuta baino ez dira egingo (PZLren 435.1 art.), nahiz eta salbuespen gisa, ofizioz ere erabaki daitezkeen (PZLren 435.2 art.). Edonola ere, epaileak zehurtiaz erabakiko du eginbide horiek gauzatu edo ez.

Legea oso zorrotza da, eta debekatu egiten du aurretik zegokien unean eta moduan egin zitezkeen frogak azken eginbide moduan egitea (PZLren 435.1.1 art.). Salbuespen moduan, legeak begi onez ikusten du alderdiei ez dagozkien arrazoiengatik gauzatu ez ziren frogak (PZLren 435.1.2 art.) eta egitate berriei edo jakin berriei buruzkoak (PZLren 435.1.3 eta 286. artikulua) gauzatzea.

Gainera, garrantzizkoak diren eta bere garaian alegatutako egitatei buruz jadanik gauzatu diren frogak berriro gauzatzeko aukera aurreikusten du legeak, ofizioz edo alderdiaren eskariz, baldin eta horiek garaiz alegatu badira, eta aurretiazko frogajarduna ez bada ondorio-sortzaile izan desagertuak diren eta alderdien borondate eta arretarekin zerikusia ez duten inguruabarrak direla-eta, betiere jarduera berriek egitate haiei buruz zehaztasuna lortzen lagunduko luketela uste izateko oinarrizko arrazoiak baleude (PZLren 435.2 art.).

Azken eginbide horiek auto bidez erabakiko dira epaia emateko garaian, eta 20 eguneko epean gauzatuko dira (PZLren 434.2 eta 436.1 artikulua). Bien bitartean, prozesua eten egingo da.

Edonola ere, azken eginbide moduan gauzatzen diren frogen berezitasun nagusia eta bakarra horiek gauzatzeko unea da; horregatik, frogak gauzatzeko araudia errespetatu beharko da (PZLren 436.1 art.). Garrantzizko datu bat: alderdiek eginbide horietan parte har dezakete, eta horrela, kontraesan-printzipioa babesten da. Froga gauzatu ondoren,

alderdiek, bost eguneko epean, froga horien emaitza laburtzen eta balioesten duen idazkia aurkeztu ahal izango dute (PZLren 436.2 art.).

11. KAPITULUA: PROZESUAREN BUKAERA.

11.1. Prozesua bukatzeko ohiko era: epaia. Osaera eta osagaiak. 11.2. Prozesua modu ez-ohikoan bukatzea: amore ematea, uko egitea, transakzioa, atzera egitea, iraungipena eta largespena. 11.3. Prozesua geldiaraztea.

11.1. Prozesua bukatzeko ohiko era: epaia. Osaera eta osagaiak.

Denok dakigu, gutxi gorabehera, epaia zer den. Defini dezagun, bada, PZLren artikulua kontuan hartuta. Horien arabera, epaiketa arrunta (PZLren 434. art.) edo ahozko epaiketa (PZLren 447.1 art.) bukatzeko era arrunta da epaia. Gainera, PZLren 206.2.3 artikulua dioenez, “epaia emango da prozesuari amaitzeko, lehen edo bigarren auzialdian, legean ezarri izapidetza arrunta burutu ondoren. Epai bitartez ebatziko dira, halaber, errekurtsio bereziak, bai eta epai irmoak berrikusteko prozedurak ere”.

Egintza prozesalaren teoriaren ikuspuntutik, epaileak edo magistratuek demandatzailearen uzia onartu edo ez erabakitzeke egintza prozesala da epaia. Gaiaren mamia erabakitzen duen egintza, alegia.

Berrito ere mamiari edo funtsari buruzko epaien –*epai materialak* ere deituak– eta epai prozesal hutsen –auzialdian, *absoluziozkoak* deituak– arteko bereizketa egin behar da. Lehenengo epaiek uzia ebazten dute, prozesuaren arazo edo gatazka materialari bukaera ematen diote; bigarrenak, aldiz, ez dira mamiaren azterketan sartzen, betekizun prozesalen bat falta delako.

Epaiek likidoak, ziodunak, kongruenteak, argiak eta zehatzak izan behar dute beti. Azter ditzagun elementu horiek banan-banan.

Likideziaren betekizuna diru-betebeharrak onartzen dituzten epaiek bete behar dute. Likideziaren printzipio horrek epaiek zehatz-mehatz betebeharraren balioa ezartzea galdatzen du. Printzipio hori era honetara aurreikusten da PZLren 219. artikuluan: “1. Diru kopuru zehatzaren edo fruitu, errenta, onura edo edozein motatako ekoizkinen ordainketa eskatzen bada, demanda ezin daiteke mugatu horiek eskuratzeko eskubidea adierazten duen epai hutsa lortzera; halakoetan, horiek ordaintzeko kondena eskatu behar da, nahiz horien kopurua argi zehaztuta, zehaztapan hori ezin eska daitekeela epaia betearaztean, nahiz likidazioa egiteko oinarriak argi zehaztuta, likidezia hori eragiketa aritmetiko hutsa izango dela. 2. Aurreko paragrafoan aipatu kasuetan, kondena-epaiak adieraziko du kopuruen zenbateko zehatza, edo argi eta zehatz finkatuko ditu horren likidaziorako oinarriak, eta likidazio hori betearazpenean egin beharreko eragiketa aritmetiko hutsa izango da. 3. Aurreko kasuetatik kanpo, demandatzaileak ezin du eskatu, eta auzitegiak ere epaia ematean ezin du ezarri, kondena likidazioaren erreserbarekin egitea, horren betearazpena dela-eta. Aurrekoa gorabehera, diru kopurua, fruituak, errentak, onurak edo ekoizkinak ordaintzeko kondena ematea, uzia hori bada soil-soilean eta geroko auzi baterako uzten badira kopuru zehatzen likidazio-arazoak”).

Gainera, epai orok zioduna izan behar du. Epai arrazoitzeko betekizun horri buruz jurisprudenzia zabala eman du Konstituzio Auzitegiak. Haren esanetan, arrazoitzea epailea legearekin eta zuzenbidearen iturriekin lotzen duen harremana da, EKrekin bat. Gainera, eta guk geuk dakigunez, arrazoitzeko betebeharra akzio-eskubidearen parte da, epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidearen parte, herritarrari epaileen aurrean aritzean eta aritzeko aintzatesten zaizkion eskubide sortaren baitako eskubide bat. Izan ere, epai arrazoitzea funtsezkoa da herritarrak berari eragiten dion erabakiaren kariak eta errekurtsioa egiteko aukerak ezagutzeko. Horrez gainera, epaileak erabaki bat hartzeko dituen arrazoiak ezagutzeko gizarteak duen interes orokorrari erantzuten dio arrazoitzeak; hori ere EKren 120. artikulua isla da.

Arrazoitze hori epaileak luze eta zabal edo labur egin dezake, betiere argi utzi behar du zein diren frogatutzat jotzen diren egitateak eta zein zuzenbide aplikatzen zaien horiei.

Epaiek kongruenteak, argiak eta zehatzak izan behar dute; hala dio PZLren 218. artikulua.

Epailearen jarduerak alderdien eskariekin, alegatutako egitateekin eta legearen aplikazioarekin bat etorri behar duela adierazten du kongruentziak. Epaileak horrela jokatzeko ez badu, inkongruentzia gertatzen dela esaten da.

Doktrinak hiru inkongruentzia nagusi bereizten ditu: (1) adierazpen edo erabakirik ez hartzearen edo falta izatearen ondoriozko inkongruentzia, auzitegiak ez dituen alderdiek jarritako puntu guztiak ebatzen, (2) gehiegizkotasunaren ondoriozko inkongruentzia (*ultra petitum*), epaiak eskatutakoa baino gehiago aintzatesten duenean, eta (3) *extra petitum* inkongruentzia, epaiak eskatu ez den zerbait aintzatesten duenean, edo alegatutako zioez bestelakoak aplikatuz eman edo ukatzen duenean.

Gainera, epaiak ezin du prozesuko alderdi ez direnen gaineko erabakirik hartu, eta ezin du, orobat, alderdi bezala aritu direnen gaineko aipamenik ekidin. Horregatik, uzian egindako eskaerari erantzun behar dio, eskatu den babes mota jakinari erreferentzia eginez (adierazpenekoa, betearazpenekoa edo kautelarra, eta lehenengoaren barnean, adierazpen hutsekoa, eratzaila edo kondenazkoa), betiere ondasun jakin baten eta eskatzeko kari batzuen inguruan. Erresistentziaren eremuan, epaileak demandatuak alegatutako salbuespen materialak besterik ezingo ditu onartu, frogatuak izanez gero, noski.

Ez gara inkongruentziaren eremuan sartuko, baldin eta epaileak, eskatzeko zioetatik at geratu gabe, alderdiek alegatutako zuzenbidezko oinarriez bestelakoak diren beste batzuegatik onartzen baditu horiek. *Iura novit curia* printzipioak azaltzen du fenomeno hori (PZLren 218.1.II art.).

Eta zer galdatzen diote epaiari argitasun eta zehaztasun betekizun horiek? Argitasun-betekizun hori errespetatzeko edo betetzeko, epaiak jasotzen dituen erabakiek agerikoak edo bistakoak izan behar dute, inolako interpretaziorik behar ez dutenak. Argitasunak epaiaren xedapenetan edonolako kontraesanak galarazten ditu.

Zehaztasuna, aldiz, argitasunaren lehen osagaia da. Zehatza dena argia da. Zehaztasun-betekizun hori oso argi ikusten da kondena-epaietan. Betearaz daitezkeen epai mota horietan, zehaztasunak betearazpena inolako erdibideko eragiketarik gabe egin daitekeela adierazten du.

Aurreko horiek dira epaiak bete behar dituen osagai guztiak. Baina, nola erabakitzen du epaileak epaian jasotzen duen ebazpena? Horretarako, lau urrats egiten ditu:

1. Epailearen lehenbiziko lana da demandatzaileak eskatzen duena aintzatesten duen araurik baden frogatzea. Egiaztapena abstraktua da. Epaileak ez ditu kasu jakin bateko egitateak, frogak,... aztertzen. Logikoa denez, demandatzailearen eskaera aintzatesten duen araurik ez bada, epaileak ukatu egingo dio eskaera.
2. Ondoren, egiaztapen zehatz bat egingen du epaileak: auzi-jartzaileak alegatzen dituen egitateak egiazkoak izanik, horiei aplikatu dakizkikeen arauak aurreikusten dituen ondorioak aplikatzea posible den edo ez. Izan ere, gerta liteke ordenamendu juridikoak demandatzaileak eskatzen duen ondorio zehatza aintzatestea, baina ez demandatzaile horrekiko edo egitate horiekiko.
3. Hurrengo urratsa demandatzaileak adierazitako egitateak existitzen diren edo ziren frogatzea da, eta finkatzea horietako zein diren eztabaidatuak, nabarmenak edo onartuak. Lehenengoak zein diren jakiteko froga hartu beharko da kontuan.
4. Azkenik, egitateak frogatuz gero, epaileak bi alderdiek frogatutako egitateak dagozkien arauetan txertatu edo subsumituko ditu; era horretara, ondorio juridiko egokiak atera, eta uzia onartu edo ukatu egingo du.

11.2. Prozesua modu ez-ohikoan bukatzea: amore ematea, uko egitea, transakzioa, atzera egitea, iraungipena eta largespena.

Nahiz eta prozesua, oro har, kontraesanezko epaiekin bukatu, hau da, prozesuaren objektua edo uzia ebatzi arren, gerta liteke prozesua era ez arruntean bukatzea, bai arrazoi prozesalengatik (atzera egitea, largespena eta iraungipena) bai arrazoi materialengatik. Kasu horretan, uko egitearen, amore ematearen eta transakzioaren eremuan sartzen gara. Azter ditzagun horiek guztiak banan-banan.

Atzera egitea demandatzailearen egintza prozesala da. Horren bitartez, hasitako prozesua uzteko borondatea adierazten du hark. Prozesua era ez-arruntean edo berezian bukatzeko zio prozesala da; beraz, ez da prozesuaren mamia ebazten, ez da uziari buruz erabakitzen; horregatik, epaitu gabe geratzen da, eta posible da hurrengo prozesu batean uzi hori bera egikaritzea.

PZLk bi eratako atzera-egiteak arautzen ditu: alde bakarreko atzera-egitea eta alde biko atzera-egitea.

Alde bakarreko atzera-egitea demandatzailearen borondate bakar eta eksklusiboak sortua da. Atzera-egite hori bi kasutan baino ezin da gertatu: (1) borondate-adierazpena demandatua demandari erantzuteko (epaiketa arruntean) edo ikustaldira agertzeko (ahozko judizioan) deitua baino lehen egiten denean, eta (2) demandatua auzi-ihesean bada, edozein unetan.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Gainerako kasu guztietan, atzera-egitea aldebikoa da; betiere demandatua entzun beharko da. Horretarako, atzera-egitea jasotzen duen idazkia demandatuari emango zaio 10 egunez, eta haren aurka jotzeko aukera izango du. Horrela eginez gero, auzitegiak egoki deritzona erabakiko du: largespen-autoa eman, edo prozesuak aurrera jarraitu dezan agindu. Demandatua atzera-egitearen aurka agertzen ez bada, auzitegiak largespen-autoa emango du.

Zergatik izaten da atzera-egitea, kasurik gehienetan, aldebikoa? Efektuei erreparatuz, prozesua epaitu gabe geratzen delako, eta horregatik, uzi bera berriro aurkeztu eta beste prozesu bat has daitekeelako. Hala, gerta liteke demandatuak prozesuari behin betiko bukaera eman nahi izatea.

Atzera-egiteak, alde bakarrekoa zein aldebikoa izan, prozesuaren amaiera dakar, mamiari buruz erabaki gabe eta uzia epaitu gabe uzten duen auto baten bidez. Gainera, atzera-egitea aldebikoa bada, ez da kostuengatik kondenarik ezarriko; aldiz, alde bakarrekoa edo ez-adostua bada, demandatzailea kostuak ordaintzera kondenatuko da.

Zer demandatzailek egin dezake atzera? Gaitasun prozesal osoa duen orok. Prokuradoreak ahalorde berezia behar du egintza prozesal hori gauzatzeko (PZLren 25.2.1 art.).

Edozein prozesutan egin daiteke atzera, eskubide xedagarrien edo xedaezinen gainean bada ere. Hori guztiz logikoa da, gaia epaitu gabe geratzen delako.

Atzera-egitea osoa edo zatikakoa izan daiteke. Lehenengo kasuan, prozesua epairik gabe, aipatutako autoaren bidez, bukatuko da. Bigarren kasuan, berriz, prozesuak aurrera jarraituko du, atzera-egitea ezarri ez zaion uziaren zatiari dagokionez.

Lehen auzialdiaren, bigarren auzialdiaren edo betearazpenaren edozein unetan egin daiteke atzera (PZLren 19.3 art.). Atzera-egitea, halaber, berariazkoa zein isilbidezkoa eta idatzizkoa zein ahozkoa izan daiteke.

Largespena auzitegiaren auto formako erabakia da. Horren bitartez, prozesuan agertzen diren eta prozesuak aurrera jarraitzea eragozten duten arazoak direla-eta, bertan behera uzten da prozesua, oro har, mamiari buruzko erabakirik gabe eta uzia epaitu gabe.

Largespenaren zioa alderdiei egotz dakieke [epaile aurrean ez agertzea, aldebiko atzera-egitea (PZLren 414. eta 415. artikulua hurrenez hurren)] edo ez (gauza epaitua, litispendentzia,...). Oro har, prozesuak aurrera egitea eragozten duten arazotzat jotzen dira: (1) prozesuaren baldintzarik eza, konponezina (litispendentzia edo gauza epaitua); (2) konpongarria izanik konpontzen ez den prozesuaren baldintzarik eza (beharrezko auzikidetzarik eza, PZLren 420. art.); (3) betekizun prozesalik eza (onartua izan dadin, gaiak ezartzen dizkion betekizun bereziak betetzen ez dituen demanda (PZLren 423.2 II art.), edo demanda akastuna, alderdien edo eskariaren zehaztapenean argitasunik edo zehaztasunik ezagatik (PZLren 424.2 art.); eta (4) alderdiak epaiketa aurreko entzunaldira ez agertzea (PZLren 414. artikulua eta hurrengoak).

Nahiz eta largespenaren ondorioz kasua epaitu gabe geratu, uzi bera beste auzi batean jarri ahal izango da, baldin eta largespena sortu duen arazoa edo akatsa konpon badaiteke.

Iraungipenaren eremuan sartuta, auziak hainbat urtez luzatu ezin direnez, iraungipenaren ondorioz, legeak zehaztutako denboran alderdien aktibitaterik ez badago, prozesua amaitu egiten da.

Egia da, gaur egun, prozesuari ofizioz bultzada emanik (PZLren 179.1 art.), ez dela ohikoa auziak denbora luzez irautea. Hala ere, eta hala gerta dadin ekiditeko, legelariak iraungipenaren figura aurreikusten du.

PZLren 237. artikulua dioenez, adierazpen-prozesuak iraungi egiten dira, lehen auzialdian aktibitaterik eza bi urtez luzatzen bada, eta bigarren auzialdian urtebetez luzatzen bada. Aktibitaterik gabeko epe horiek, alderdiei azken jakinarazpena egin zaienetik aurrera zenbatzen dira (PZLren 237.1 II art.). Baina, hala ere, badaude salbuespenak: iraungitasun-adierazpenetik at geratzen dira, nahiz eta aipatutako denbora pasatu, ezinbesteko kasuak edo alderdien kontrako edo horien borondateari ezin leporatu zaien arrazoiren bat gertatzen denean (PZLren 238. art.). Eta aipatutako epeetatik salbuetsita dago, orobat, nahitaezko betearazpena; izan ere, horretan epaileen jarduerarik gabeko denbora-tartea edozein izanda ere, epaitutakoaren betearazpena lortu arte jarraitu beharko delako (PZLren 239. art.).

Edonola ere, iraungitasuna auto bidez adierazten da, eta autoan ofizioz aitortzen da jarduera prozesalik gabe igarotako denbora. Auto horren kontra berrezarpen- eta apelazio-errekurtsoak jar daitezke (PZLren 237.2 art.).

PZLren 240. artikulua aurreikusten ditu iraungitasunaren ondoreak:

1. Iraungitzea bigarren auzialdian edo urraperen prozesalagatik errekurtsoan edo kasazio-errekurtsoan gertatzen bada, gora jotzea edo bestelako errekurtsoak atzera-egintzat hartuko dira; beraz, errekurtsoaren erabakia irmotzat joko da eta jarduerak jatorrizko auzitegiari itzuliko zaizkio.

2. Iraungitasuna lehen auzialdian gertatuko balitz, atzera-egitea auzialdi horretan emantzat joko da, eta demanda berriro jarri ahal izango da, betiere akzioa iraungi gabe badago.

3. Iraungitasuna adierazteak ez dakar kostuen ezarpenik; alderdi bakoitzak sortutako kostuak eta kostu komunak erdi bana ordaindu beharko dituzte.

Uko-egitea prozesua bukatzeko arrazoi materiala da. Uko-egitearen bitartez, egikaritutako akzioa edo bere uziaren oinarri den eskubidea alde batera uzten dituela adierazten du demandatzaileak (PZLren 20.1 art.).

Uko-egitea demandatzailearen alde bakarreko egintza prozesala da, eta ez du zertan demandatuaren adostasunik behar. Esan bezala, bi ondore nagusi ditu: prozesuaren bukaera, akzioaren edo uziaren oinarri den eskubidea utziz, eta demandatzailearen eskaera ukatzen duen eta demandatua absolbitzen duen epaia. Epai hori mamiari buruzkoa da, nahiz eta kontraesanezkoa ez izan. Gauza epaituaren efektua sortzen du.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Nork egin dezake uko? Gaitasun prozesala duen demandatuak. Gainera, prokuradoreak uko egiteko ahalorde berezia behar du (PZLren 25.2.1 art.). Auzikidetzak aktiboari dagokionez, auzikide guztien ukoa galdatzen da; horrela gertatzen ez bada, prozesuak aurrera jarraituko du. Adingabearen edo ezgaituaren legezko ordezkariak epailearen baimena behar du uko egiteko. Borondatezko ordezkariak berariazko agindua behar du.

Edozein kasutan egin daiteke uko? Ez, eskubide xedagarriei dagokienez baino ez. Ezin da uko egin legeak horrela debekatzen duenean (debekua beste barik edo hirugarrenen edo interes orokorraren mesedetan izan daiteke), edo aginduzko edo debekuzko arauen kontrakoa denean (KZren 6.3 art.), edo ordena publikoaren kontrakoa denean (KZren 6.2 art.).

Zatikako uko-egitea zilegia da, baldintza batzuen barruan. Ulertzen erraza da. Prozesuak objektu gisa uzi bakar bat badu, horri osorik uko egitea edo prozesuak aurrera jarraitzea beste aukerarik ez dago. Beraz, ezin dakioke uzi bakarrari zatika uko egin. Uzi-metaketa denean, aldiz, bai, posible da horietako bati edo batzuei uko egin eta prozesuak gainerakoak kontuan hartuta aurrera jarraitzea.

Uko-egitea lehen auzialdiko, bigarren auzialdiko edo betearazpeneko edozein unetan gerta daiteke (PZLren 19.3 art.). Berariazkoa izan behar du beti, eta idatzizkoa zein ahozkoa izan daiteke.

Amore-ematea prozesua arrazoi materialengatik bukatzeko modu ez-ohikoa da. Demandatuak demandatzailearen uziaren kontra ez agertzeko edo jarritako erresistentzia alde batera uzteko egiten duen egintza prozesala da. Demandatua demandatzailearen uziarekin ados gelditzen da, eta mamiari buruz kontraesanezkoa ez den epai baten bidez prozesuari bukaera ematea dakar ondorioz. Kondena-epaia izango da, eta gauza epaituaren efektua izango du.

Gerta liteke demandatuak demandatzailearen eskaeraren zati bati (uziaren zati bati, edo, uzi-metaketa denean, horietako bati edo gehiagori) bakarrik amore ematea. Zatikako amore-ematea izango litzateke hori.

Demandatuak demandari erantzun baino lehenago amore ematen badu, ez zaizkio kostuak gaineratuko, auzitegiak fede txarra edo ausarkeria hautematen ez badu, behintzat. Amore-ematea demandari erantzun ondoren egiten bada, berriz, garaipenaren printzipioak agintzen du, kostuei dagokienez (PZLren 395. art.).

Nork eman dezake amore? Gaitasun prozesala duen demandatuak. Gainera, prokuradoreak amore emateko ahalorde berezia behar du (PZLren 25.2.1 art.). Auzikidetzak pasiboari dagokionez, auzikide guztiek eman behar dute amore; horrela gertatzen ez bada, prozesuak aurrera jarraituko du. Adingabeen edo ezgaituen legezko ordezkariak epailearen baimena behar du amore emateko. Borondatezko ordezkariak berariazko agindua behar du.

Kasu guztietan eman daiteke amore? Ez. Auzitegiak ez du onartuko lege-maulan egiten denean, edo hirugarrenaren edo interes orokorraren kontrakoa denean. Kasu horietan, auzitegiak amore-ematea ukatzen duen autoa eman, eta prozesuak aurrera

jarraituko du. Gainera, eta logikoa denez, eskubide xedagarrien gainean (ez, adibidez, gaitasun-, ezkontza- edo filiazio-gaietan) bakarrik eman daiteke amore.

Lehen auzialdiko, bigarren auzialdiko edo betearazpeneko edozein unetan eman daiteke amore (PZLren 19.3 art.); berariazkoa izan behar du, eta idatziz zein ahoz egin daiteke.

Transakzioa KZren 1809. artikulua definitzen du: “Alderdi bakoitzak gauza bat emanaz, emango dela hitz emanaz edo erretentuz auzi baten sorrera ekiditen duen edo hasitakoari bukaera ematen dion kontratua da”.

Prozesua era berezian bukatzeko arrazoi material hori prozesuaren objektuaz alderdiek xedatzeko duten gaitasunaren beste adierazgarri bat da, eta prozesukoa edo prozesuz kanpokoa izan daiteke.

Transakzioa prozesuz kanpokoa izanen da, baldin eta, prozesutik kanpo eginez gero, horretan inolako eraginik ez badu (adibidez, gatazka-prozesura eraman aurretik alderdiek akordioa lortuz gero). Transakzio prozesala, berriz, prozesu bat abian dela, prozesu horretan eragina duena da (akordioa lortzen da eta prozesuari bukaera ematen zaio).

Transakzio prozesala bi erataria egin daiteke, epailearen aurrean edo epailearen aurrean egon agertu gabe. Epailearen aurrean egiten denean, transakzio judizialaz ari gara. Horren ohiko adibidea da epaiketa aurreko entzunaldian gertatzen den transakzioa (PZLren 414. artikulua eta hurrengoak). Bigarren kasuan, transakzioa epailea aurrean egon gabe egiten da, baina, aurrerago, kasuaz arduratzen den epaileari aurkezten zaio, homologa dezan.

Bi transakzio mota horietan, epailearen parte-hartzea edozein dela ere (prozesalean, osoa, eta prozesuz kanpokoan, hutsa), alderdien parte-hartzea aktiboa da, eta biek eman behar dute zerbait, elkarri aintzatespenak eginez, prozesuari bukaera emateko.

Transakzio prozesala autoan jasotzen da. Prozesuari bukaera ematen dion auto horrek epailearen aurrean lortutako akordioa jasotzen du, edo alderdiek epailea aurrean egon gabe lortutakoa homologatzen du. Bi kasu horietan, titulu betearazlea da autoa. Auto horrek gauza epaitu formala du, baina ez materiala. Auto hori errekurri liteke, kontratuak baliogabetzen dituzten kariengatik.

Transakzio egiteko gaitasuna du amore emateko edo uko egiteko gaitasuna duen orok. Transakzioa edozein unetan egin daiteke (lehen auzialdian edo bigarrenean), idatziz edo ahoz. Ezin da transakziorik egin legeak hirugarrenen edo interes orokorraren mesedetan debekatzen edo mugatzen duenean (PZLren 19.1 art.).

11.3. Prozesua geldiaraztea.

Prozesua oro har edo egintza prozesal bat geldiaraz liteke.

Prozesu osoa auto bidez etengo da, alderdiek horrela eskatuta edo legeak horrela baldatuta. Lehenengo kasuan, etena 60 egunez luzatuko da, gehienez ere, betiere hirugarrenen interesa edo interes orokorra kaltetzen ez badu. Egun horiek pasatu

ondoren, alderdiren batek prozesuak aurrera egin dezan eskatzen ez badu, autoak behin-behinean artxibatuko dira, alderdiren batek prozesuak aurrera jarraitzea eskatu edo hura iraungi arte (PZLren 19.4 eta 179.2 artikulua).

Gainera, gerta liteke prozesua legeak horrela eskatzen duelako etetea. Esate baterako, epaiketa aurreko arazoetan, edo epaile eta magistratuen abstentzio- eta errekusazio-kasuetan, deklinatoria-kasuetan, prozesuen metaketan,... horietan guztietan legeak berak esango du zer baldintzatan jarraitu ahal izango duen prozesuak aurrera.

Azkenik, iragarri dugunez, egintza prozesal bat ere eten daiteke, bai gauzatu aurretik bai hasita dagoela. Azter dezagun, adibidez, ikustaldia geldiaraztea (PZLren 193. art.). Kasu horretan ere, kasuan kasuko egintza prozesalaren araudiaren mende egongo gara.

12. KAPITULUA. AHOZKO EPAIKETA

12.1. Ahozko epaiketaren izaera. 12.2. Demandaren ezaugarriak. 12.3. Demanda onartzeko betekizunak eta epaiketaren ikustaldirako zitazioa. 12.4. Epaiketaren ikustaldi aurreko jarduerak. 12.5 Ahozko epaiketaren ikustaldia.

12.1. Ahozko epaiketaren izaera

2000ko PZLk II. Liburuko III. Tituluan arautzen du ahozko epaiketa (437. artikulutik 448. artikulura).

Bake-epaitegien (90 eurora arteko munta) eta Lehen Auzialdiko epaitegien (3000 eurora arteko munta) artean banatzen da eskumena. PZLren 250. artikulua arazo jakin batzuen ezagutza eranstean dio ahozko judizioari, materia edo munta kontuan hartuta. PZLren 248. eta 250.2 artikuluek adierazten duten moduan, munta dela-eta ahozko epaiketa egokia denean, prozesua arrunta da, edozein motatako objektuei buruzkoa izan daitekeelako. Gainera, alderdien alegazioei eta epailearen adimenari mugarik ezartzen ez zaienez, ematen den epaiak gauza epaituaren efektua izango du.

PZLren 250.1 artikulua araberan, munta edozein izanda ere, ahozko epaiketa erabiliko da objektu jakin batzuei buruzko demandetan. Hau da, gaiaren arabera, epaiketa berezia izango da. Auziari buruzko epaiketa mugatua izango da, eta alderdien alegazioei eta batzuetan, frogabideei beraiei ere mugak jartzen zaizkie. Beraz, ebazpena aditzera ematen duen epaiak ez du gauza epaituaren efekturik izango, eta alderdiek hurrengo epaiketa plenarioa has dezakete (PZLren 250.1,1, 3, 4, 5, 6, 7, 10 eta 11 artikulua.).

12.2. Demandaren ezaugarriak

Demandaren bidez hasiko da ahozko epaiketa. PZLren 437. artikulua bi demanda mota bereizten ditu: demanda laburra eta inprimaki normalizatu bidezko demanda. PZLren 437.1 artikulua ezartzen du epaiketa demanda laburraren bitartez hasiko dela 900 eurotik gorako muntako diru-uzietan, edo materia dela-eta ahozko epaiketa egokia denean. Aipatutako artikulua gutxieneko betekizun batzuk eskatzen ditu demanda aurkezteko. Auzi-hartzaile eta demandatuaren izen-abizenak eta haien helbidea galdetzen dira. Gainerako baldintzak epaiketa arrunteko demandan bete beharreko berberak dira. Demandan uzia finkatuko da, eta, gero, ikustaldian garatuko da.

PZLren 437.2 artikulua beste mota bateko demanda bat ahalbidetzen du. Ahozko epaiketan 900 euroko edo gutxiagoko munta eskatzen bada, demandatzaileak inprimaki normalizatu batzuk betez aurkez dezake demanda. Inprimakiak auzitegian eskuratu ahal izango ditu. Abokatua eta prokuradorea ez dira beharrezkoak izango.

12.3. Demanda onartzeko betekizunak eta epaiketaren ikustaldirako zitazioa.

PZLren 440.1 artikulua agintzen duenez, epaileak bere jurisdikzioa eta eskumen objektiboa egiaztatuko ditu, ofizioz, baita bere lurralde-eskumena ere. Hori aztertu ondoren, demanda onartzen duen edo ez erabaki beharko du, bost eguneko epean. Lurralde-eskumenari buruzko arauak aginduzkoak direnez –PZLren 54.1 artikulua hala ezartzen du–, ahozko epaiketan erabaki behar diren auzietan ez dira onargarriak izango eskumenaren berriazko ezarpena eta isilbidezko ezarpena.

Nahiz eta demanda ez onartzeko zioak epaiketa arrunteko berak izan, materia edo gaia dela-eta ahozko epaiketa prozesu berezia denez, PZLren 439. artikulua zenbait arau ezartzen ditu demanda ez onartzeko. Adibidez, maizterrak zor dituen errenta edo kantitateak ez ordaintzeagatik hura hiri-finkatik botatzeko demandan, errentatzaileak maizter-botatzea ezerezean uztea posible den ala ez zehaztu behar du (PZLren 22.4 artikulua, PZLren 439.3 artikulua). Eta ez dira onartuko edukitza atxiki nahiz berreskuratzeko demandak, baldin eta asaldura edo edukitza-kentzea gertatu zenetik urtebeteko epea igaro ondoren aurkezten badira. Beraz, demandatzaileak zehaztu egin behar du noiz gertatu zen asaldura edo edukitza-kentzea (PZLren 439.1 art.). Demanda ez onartzeko kasua da, halaber, Jabetza Erregistroan eskubide inskribatu baten erabilera asaldatu nahiz oztopatzea (egileak titulurik ez badu). Titularrak aurkeztutako demandan aipatu behar dira epaiaren eraginkortasuna lortzeko neurriak, demandatuak egin behar duen kauzioaren zehaztapena, eta Jabetza Erregistroko ziurtapena (PZLren 439.2 art.). Ondasun higigarrien epekako salmentari eta finantza-errentamenduri buruzko kontratuak ez betetzeari dagozkien demandei dokumentu bereziak erantsi behar zaizkie (PZLren 439.4 artikulua aipatzen dituenak). Eta azkenik, PZLren 439.5 artikulua klausula orokor bat ezartzen du: ez dira onartuko legeek aurreikusitako baldintza bereziak betetzen ez dituzten demandak.

Betekizun horiek beteta, epaileak auto baten bidez onartuko du demanda, eta hura demandatuari helarazteko agindua emango du. Horrekin batera, epaiketaren ikustaldirako zitatu dituzten alderdiak, data eta ordua zehaztuz; halakoetan, hamar egun, gutxienez, eta hogeitun egun, gehienez, behar dira zitazio-egunaren biharamunetik ikustaldiaren egunera. Prozesu arrunterako aurreikusitako zitazio-betekizunez gainera, PZLren 440.1 artikulua zenbait gehiago aipatzen ditu:

- Zitazioan, alderdi biei adieraziko zaie baliarazi nahi dituzten frogabideekin joan behar dutela ikustaldira, han bertan frogatu guztiak egiteko (jardun guztiak ekitaldi bakarrean egikaritzen dira); gainera, agertzen ez badira, eta beraien deklarazioa frogabide gisa proposatu eta onartuz gero, galdeketa gertaerak onartutzat eman ahal izango direla jakinaraziko zaie (PZLren 304. art.). Alderdiak zitatu dituztenetik hiru eguneko epean adierazi beharko dute zer pertsona zitatu behar dituen epaileak alderdi edo lekuko gisa.

- Demandatzaileari ohartaraziko zaio ikustaldian agertzen ez bada, atzera-egitetzat hartuko dela, demandatuak prozesuak jarraitzeko bidezko interesik alegatu ezean prozesuaren funtsari buruzko epaia emateko. Kasu horretan, demandatuak hala eskatuz gero, kostuak eta kalte-galerak ordaintzera kondenatuko da demandatzailea.

- Demandatuari ohartaraziko zaio ikustaldia ez dela atzeratuko bera ez agertzeagatik; agertzen ez bada, epaiketak aurrera jarraituko du eta demandatua auzi-iheslari deklaratuko dute.

PZLren 32. artikulua arabera, abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea beharrezkoa ez den kasuan, demandatzaileak demandan adierazten badu ikustaldian horiek lagunduta agertuko dela, demandaren helarazpenarekin batera, zitazioan, egoera horren berri emango zaio demanduari.

12.4. Epaiaketaren ikustaldi aurreko jarduna

Zitazioak egin ondoren, eta ikustaldia hasi baino lehen, hainbat jarduera hartu behar dira kontuan. Batzuetan, alderdiek berek ezin aurkeztu dituzten zenbait pertsona ikustaldian lekuko edo alderdi gisa deklaratu dezaten nahi izaten dute. Orduan, alderdiak, zitazioaren hurrengo hiru egunetan, idazki baten bidez pertsona horiek zein diren zehaztuko du, baita haien izen-abizenak eta helbidea ere, epaileak berak zita ditzan (PZLren 440.1.3 art.).

Lehen aipatu dugunez (PZLren 31. eta 32. art.), 900 euroko muntatik beherako ahozko epaiketetan, abokatuak ez da beharrezkoa, ezta prokuradorea ere. Baina, auzi-hartzaileak haien ordezkartze edo defentsaz baliatu nahi izanez gero, demandan adierazi beharko du, demandatua defentsarik gabe gera ez dadin. Demandatuak prokuradoreaz baliatu nahi izanez gero, hiru eguneko epean jakinaraziko dio epaileari; orduan, demandatzailea jakinaren gainean jarriko da, eta hark ere abokatu eta prokuradoreaz baliatu nahi badu, horren berri emango dio epaileari, jakinarazpenaren ondorengo hiru egunetan. Aipatutako bi kasuetan, alderdiek doako laguntza juridikoa eska dezakete; horrela bada, epaileak prozesua etetea erabaki dezake.

PZLren 438. artikulua arabera, demandatuak demandatzaileari konpentsazioa oposizio gisa ezar diezaioteko, edo errekonbentzioa egin daiteke. Orduan, ikustaldia hasi baino lehen, auzi-hartzaileak demandatuaren asmoak zein diren jakin beharko du, ikustaldian bertan konpentsazioari buruz egoki alegatu edo errekonbentzioari erantzun ahal izateko. PZLren 438. artikulua dioenez, izaera sumarioa duten ahozko epaiketetan ez dago errekonbentzioa egiterik; gainerako ahozko epaiketetan, aldiz, errekonbentzioa onartuko da, baldin eta demandatzaileari gutxienez ikustaldia egin baino bost egun lehenago jakinarazten bazaio, eta errekonbentzioaren uziak ahozko epaiketaren desagokitasuna ez badakar eta, azkenik, demandaren eta errekonbentzioaren uzien artean lotura badago. Konpentsazioari dagokionez, demandatzaileari ikustaldia egin baino bost egun lehenago jakinarazi behar zaio, eta konpentsagarria den kredituaren muntak ez du ahozko epaiketaren desagokitasuna zertan ekarri.

PZLren 64.1 artikulua dioenez, epaiketaren ikustaldirako zitazioa jaso eta hurrengo bost egunetan aurkeztu behar da jurisdikzioko deklinatoria. Horrek prozesua etetea dakar.

PZLren 438.3 eta 438.4 artikuluek arau bereziak ezartzen dituzte uziak bateratzeari dagokionez. Oro har, auzi-jartzaileak demandatu baten aurkako akzio guztiak demanda bakarrean batera ditzake, nahiz eta objektuen artean loturarik egon ez. Baina ahozko epaiketan, honako kasu hauetan bakarrik batera ditzake: uziak gertaera berberetan oinarritzen direnean, kasu guztietan ahozko epaiketa egokia bada; kalte-galerak ordaintzeko erreklamazio-uzia eta horri buruz epaiketa aurrekoa den uzia ere batera

daitezke; eta azkenik, maizterra finkatik botatzeko epaiketetan, epe-muga beteta dagoela, errentaren edo ordaindu ez diren antzeko kantitateen erreklamazio-uziak.

Bateratze subjektiboari dagokionez, batek zenbaitzuen kontra edo zenbaitzuk baten kontra dituzten akzioak batera daitezke, baldin eta PZLren 72. eta 73. artikuluek ezarritako betekizunak errespetatzen badira. Auzitegiak eskumena izan behar du (bai materiari dagokionez bai muntari dagokionez) uzi guztiak erabakitzeko; uzietariko bati, muntaren arabera, epaiketa arrunta badagokio, ezin izango da ahozko epaiketetan aurkeztu.

Bestalde, badira beste jardun batzuk, ahozko epaiketa bereziei (materiarengatik) baino ez dagozkienak (PZLren 441. art.). Demandatuak, jaraunspen bidez bereganatutako ondasunen edukitza nahi duenean, eta horiek inoren esku ez badaude, ez usufuktudun gisa ez jaraunse gisa, demandatuak idazki bat aurkeztu behar du epailearen aurrean ondasunak usufuktudun edo jaraunse gisa inork ez dituela adieraziz eta lekukoei buruzko informazioa emanez, haiek epailearen aurrean deklaratu dezaten. Bestalde, demandatzaileak obra berri bat eten nahi duenean, aurreko jarduna obraren behin-behineko etendura izango da. Obra etenda, ikustaldian eztabaidatuko da obraren behinbetiko etendura. Ondorioz, ikustaldirako zitazioak egin baino lehen, epaileak obraren arduradun edo jabeari etendura-agindua ezarriko dio. Jabetza Erregistroan inskribatutako eskubide erreala izanda, horren aurka jasandako egintzen edo asalduren aurrean, demandatzaileak bere eskubidearen eraginkortasuna eskatzen duenean, epaileak, demanda onartu eta berehala, egoeraren arabera beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, emango den epaia beteko dela ziurtatzeko. Azkenik, auzi-hartzaileak Ondasun Higigarrien Epekako Salmenta Erregistroan inskribatutako kontratuek dakartzaten betebeharrei buruz sumario eran erabakitzea nahi duenean, erosleak kontratua ez betetzeagatik. Epaileak edukitzaileari ondasunak erakutsi ditzan aginduko dio; eta hori egiten ez badu agintaritza judizialari desobeditzeagatik haren aurka jardungo dela ohartaraziko dio. Horrez gainera, aurreneurritzko eta berehalako enbargoa aginduko da, eta ondasunak gordailuaren bitartez aseguratuko dira.

12.5. Ahozko epaiketaren ikustaldia

Ahozko epaiketetan, jardun guztiak (demanda eta epaia izan ezik) ekitaldi bakar batean egiten dira, ikustaldian alegia. Ikustaldia ahozko ekitaldia da, eta hura gauzatzeko ahozko epaiketa bera arautzen duten arauez gainera, PZLren 182. artikulutik 193.era bitarteko artikuluetan ezartzen diren arau orokorrak hartu behar dira kontuan.

Demandatzailea ikustaldian agertzen ez bada, demandan atzera egin duela ulertuko da, eta sortutako kostuak ordaintzeko eta agertu den demanduari kalte-galerak indemnitzatzeko (baldin eta hark eskatu eta egiaztatzen baditu) kondena ezarriko zaio (PZLren 442. art.). Agertzen ez dena demandatua bada, epaiketak aurrera jarraituko du, baina ez-agertze horrek ez dakar amore ematea, ezta gertakariak onartzea ere. Ez bata ez bestea agertzen ez badira, prozesuak ezin du jarraitu; beraz, demandatzaileak atzera egin duela ulertuko da, eta epaileak jardunak artxibatzea aginduko du. Alderdi biak agertuz gero, ikustaldia ahozko ekitaldiari dagokion moduan garatuko da (PZLren 443. art.).

Demandatzaileak ahoz arrazoituko du bere uzia. Baina demanda osoa balitz, berretsi baino ez du egingo. Demandatuak ahoz erantzungo dio demandari, egokitzen jotzen dituen salbuespen prozesal eta material guztiak aurkeztuz. Onartezintzat jotzen duen akzio-metatzeari zein harreman juridiko-prozesalari buruzko alegazioak egin ahal izango

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

ditu (PZL-en 443.2 art.). Baina une horretan demandatuak ezin izango du auzitegiaren jurisdikziorik edo eskumenik eza aurkaratu, hori epaiketaren hasieran egin behar baita, deklinatoria moduan (PZLren 64. art.).

Demandatuak salbuespen prozesalak aurkezten baditu (demandatzaileari hitz egiteko aukera emanda), epaileak erabaki beharko du (PZLren 443.3 art.). Salbuespen prozesalen bat baiesten badu, eskumena beste organo judicial bati dagokiola esango du, eta prozesua amaiarazi egingo du. Salbuespen prozesal guztiak ezesten baditu, ikustaldiaren eta epaiketaren jarraipena aginduko du. Kasu horretan, ezin da erabakia errekurritu, baina demandatuak bere desadostasuna aktan agertzea eska dezake, aurrerago emango den epaia errekurritu ahal izateko.

Epaileak hitz egiteko aukera emango die alderdiei, beraien uzien oinarri diren gertaera nabarmenak eta eztabaidagarriak argi finka ditzaten (PZLren 443.4 art.).

Gertaerei buruzko adostasunik ez badago, alderdiek frogabideak proposatuko dituzte. Epaileak egoki eta baliagarri irizten dienak onartuko ditu, eta, jarraian, gauzatu egingo dira (PZLren 429.1 eta 443.4 artikulua). Froga eta presuntzioei dagokienez, 445. artikulua 281. artikulutik 386. artikulura bitarteko xedapen komunetara bidaltzen du. Horrez gainera, PZLren 446. artikulua zera ezartzen du: alderdiek protestatu egin ahal izango dute frogak ez onartzeari edo oinarritzko eskubideak urratuz lortu diren frogak onartzeari buruzko erabakien kontra, bigarren auzialdian beren eskubideak baliarazi ahal izateko.

Frogak gauzatu ostean, epaileak ikustaldia amaitutzat jo eta epaia emango du, hurrengo hamar egunetan (PZLren 447.1 art.).

Ahozko epaiketa batzuetan, prozesu berezi eta sumario gisa agertzen da. Horretarako, arau bereziak behar dira, demandatuek egin ditzaketen alegazioak mugatzeari buruz, hain zuzen ere (PZLren 444. art.); beraz, epaiak ez du gauza epaituaren ondorerik izango.

Beraz, alokairuan eman den landa- edo hiri-finka berreskuratzea eskatzen denean (errenta edo dagokion kantitatea ez ordaintzeagatik), demandatuak ordainketa edo enerbazioaren jatorriaren gaineko zirkunstantzia besterik ezin izango du alegatu eta frogatu. Kontuan hartu behar da frogaren objektuaren gainekoa dela muga, eta ez frogabidearen gainekoa.

Demandatzaileak Jabetza Erregistroan inskribatutako eskubide errealak babestea nahi duenean (norbaitek asalatu edo horien kontra jarduteagatik), demandatuak kauzioa emanaz bakarrik aurkeztu ahal izango du oposizioa, eta PZLren 444.2 artikulua ezarritako zioetako batean oinarritzen bada. Azkenik, PZLren 250.1, 250.10 eta 250.11 artikuluetan aipatzen diren kasuetan, demandatuaren oposizioak PZLren 444.3 artikulua zioetan oinarritua beharko du izan.

13. KAPITULUA: PROZESUAREN ONDORIOAK: GAUZA EPAITUA.

13.1. Gauza epaitua: kontzeptua. Gauza epaitu formala edo irmotasuna, eta gauza epaitu materiala. 13.2. Gauza epaituaren ondoreak eta mugak. 13.3. Gauza epaitua aurkaratzea: berrikuspenean aurkara daitezkeen ebazpenak, auzi-ihesean dagoen demandatua entzutea, hirugarrenaren aurkaritza, jardueren baliogabetasuna.

13.1. Gauza epaitua: kontzeptua. Gauza epaitu formala edo irmotasuna, eta gauza epaitu materiala.

Gauza epaitua prozesuaren ondoriorik garrantzitsuena da, jurisdikzioa zehazten baitu. Ebazpen judiziala irmoa denean, alderdiek ezin dute haren kontra errekurtsorik aurkeztu. Efektu horrek alderdiak ukitzen ditu. PZLren 207.2 artikulua arabera, ebazpen judizialak irmoak dira bi arrazoirengatik:

A) Ebazpenaren izaeragatik ezin da errekurtsorik aurkeztu haren kontra, legeak ez baitu halakorik ezartzen (adibidez, Auzitegi Gorenaren epaiak).

B) Legeak errekurtsua aurkezteko aukera ematen du, baina ebazpena irmo bihurtzen da: 1) alderdiei errekurtsua prestatu edo aurkezteko epea bukatu zaielako, 2) errekurtsogileak, berriazko adierazpenaren bidez, errekurtsuan atzera egiten badu (PZLren 450 art.); eta 3) errekurtsogileak legezko betekizunen bat betetzen ez duenean, eta, horren ondorioz, errekurtsua onartzen ez denean (PZLren 452. II, 457.4, 470.3 eta 480.1 artikulua) edo hutsik gelditzen denean (PZLren 458.2, 471. III eta 481.2. 4 artikulua).

Bada gauza epaituaren beste ondore bat, ebazpena erabakitzen duen auzitegiari buruzkoa, hain zuzen. Horren ondorioz, epaitegiek ezin dituzte ebazpenak ofizioz aldatu. BJLOren 267.1 eta PZLren 214.1 artikuluek ezartzen dutenez, auzitegiek, ebazpenak sinatu ondoren, ezin dituzte horiek aldatu (prozesuaren garapenerako egokiagoa delako, adibidez).

Orain arte ebazpenaren aldaezintasunari buruz aritu gara, baina epaien eta autoen argibidea, zuzenketa, konponketa eta osatzea (haiek akastunak edo osagabeak badira) bereizi behar dira (BJLOren 267. artikulua); horietan ebazpenaren edukia ez baita aldatzen. Auzitegiak jarduketan deuseztasuna ebazteak ere (BJLOren 238. art. eta hurrengoak) ez dauka loturarik ebazpenen aldaezintasunarekin.

Doktrinak nahiz PZLk (207. eta 222. artikulua) *gauza epaitua* esamoldean bi esanahi bereizten ditu: gauza epaitu formala eta gauza epaitu materiala.

Gauza epaitu formala (PZLren 207. art.) ebazpen judizialen barruko efektua da, ebazpena ematen den prozesuari eragiten baitio. Honako ondorio hauek ditu:

A) Ebazpenak epaitegia bera lotesten du eta prozesuak ezin du jarraitu: 1) Epaitegiak ezin du aurreko ebazpenaren aurkako beste ebazpenik eman; eta 2) Hurrengo ebazpen guztiek aldeztu aurretik erabakita dagoena oinarri izan beharko dute. Beraz,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

kapitulua

alderdiek ezin dute ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu, eta epaitegiak ezin alda dezake ebazpenaren edukia.

B) Prozesuan erabakitzen diren ebazpen guztiek gauza epaitu formala eragiten dute, prozesua bukatzen dutenek izan ezik (epaia edo autoa).

Gauza epaitu formalaren arrazoa zera da: ziurtasun juridikoa (ebazpenen egonkortasuna) eta prozesua era egokian garatzea.

Esan dugunez, gauza epaitu formalak berari dagokion prozesuan bertan ditu ondoreak. Gauza epaitu materialak, aldiz, beste prozesu bati egiten dio erreferentzia. Beraz, bataren eta bestearen erabakiak ez dira berdinak: prozesuan ematen diren ebazpen guztiek, azkenak izan ezik, gauza epaitu formala sortzen dute; gauza epaitu materialak, aldiz, gaiaren mamiaz erabakitzen duen ebazpena bakarrik sortzen du.

Gauza epaitu materialaren efektuak prozesu horretaz kanpokoak dira. Aurreragoko prozesu batean aurreko prozesuaren epaian erabakitako edukia kontuan hartuko da (uzia onartzea edo ukatzea).

Gauza epaitu materiala jurisdikzioaren objektuarekin lotzen da; aurreragoko prozesu batean kontuan hartzen ez bada, EKren 24.1 artikulua urratuko da, eta jurisdikzioaren edukia hutsik geratuko da.

Izaerari dagokionez, dagoeneko erabakita dagoena berriro epaitzea eragozten die auzitegiei. Ziurtasun juridikoak auziak amaiera izatea eskatzen du. Pertsona batek arazo bat konpontzeko epaitegietara jotzen duenean, interes-gatazka sortu delako, zalantzan dagoen harreman juridiko material hori argitzea nahi du, hau da, ziurgabetasuna ziurtasun bihurtzea. Gatazka ebatzi denean, gatazka hori berriz epaitegira eramango balu, beti eztabaidan egongo litzateke.

PZLren 222. artikulua araber, epaiak dira gauza epaitu materiala lor dezaketen ebazpenak (uziaren mamiaz erabakitzen dutenak).

Hiru ebazpen mota daude:

- 1) Prozesuan ematen diren ebazpenak: gauza epaitu formala sortzen dutenak.
- 2) Auziaren edukia ebazten dutenak, prozesuaren azken ebazpenak: gauza epaitu formala sortzen dute.
- 3) Auziaren funtsa erabaki gabe prozesua amaiarazten duten ebazpenak (behin-betiko autoak): ez dute sortzen gauza epaitu formala, ezta materiala ere (adibidez, largespen-autoak –PZLren 423.3, 424.2 artikuluetan jaso– ez du gauza epaitu formalik eragiten, hura eman ondoren ez dagoelako beste jarduerarik; ezta materialik ere, ez baitu galarazten bete prozesu bat hastea).

Espainiako doktrinak ebazpen batzuek gauza epaitu materiala sortzen duten zalantzan jartzen du: epai eratzaileek eta kautela-ebazpenek gauza epaitua sorrarazten dute; aldiz, sumario-epaiketako epaiak ez dute gauza epaitu materiala sortzen, alderdiek aurreragoko prozesu batera ekar dezaketelako gatazka.

13.2. Gauza epaituaren ondoreak eta mugak.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Gauza epaituak bi funtzio betetzen ditu:

A) Negatiboa edo baztertzaileria: epaileek ezin dute erabakita dagoena berriro epaitu, ezta horren gaineko beste epaiketarik hasi ere. Hori *non bis in idem* printzipioaren ondorioa da, eta PZLren 222.1 artikuluan dago jasota.

Demanda bigarren prozesuan aurkezten denean, auzitegiak onartu egingo du, ezin baitu aldez aurretik ezagutu gauza epaitua den. Aurrerago, prozesuaren izapidetzaren bidez, auzitegiak ezagutzen badu, prozesua bukatutzat emango du (PZLren 421. artikulua), edo, bestela, epaia emateko orduan kontuan hartuko du.

B) Positiboa edo epaiketa aurrekoa: aurreko funtzioaren ondorioa da. Gauza epaituak bigarren erabakia baldintzatzen du, baina ez du baztertzen. Prozesu batean emandako epai irmoak (gauza epaitu gisa emanda) aurreragoko prozesuaz arduratuko den auzitegia lotesten du (haren objektuaren aurrekari logikoa baldin bada). Horrela adierazten du PZLren 222.4 artikulua.

Funtzio horren bitartez, bi harreman juridikoak kontraesanez erabaki daitezkeen ekiditen saiatzen da. Adibidez: prozesu batean pasaguneko bide-zorra existitzen ez dela adierazten bada, mendekoa ez den onibarraren jabeak pasagunearen kalte-galeragatik aurreragoko prozesu batean demanda aurkezten badu, ezingo da eztabaidatu zortasuna existitzen dela.

Funtzio positiboan, alderdiak berberak dira (identitate subjektiboak); aldiz, funtzio negatiboan, prozesuen objektuak dira berberak (identitate objektiboak).

Gauza epaituaren mugak uziari eta haren osagaiei buruzkoak (alderdiak eta eskaera) dira:

A) SUBJEKTIBOAK: gauza epaituak prozesuko alderdiak bakarrik ukitzen ditu (PZLren 222.3 artikulua), ez dio onik edo kalterik eragiten alderdi izan ez denari (defentsa-eskubidearen ondorioz). Alderdia izango da demanda aurkeztu edo demandatu izan dena, hau da, harreman juridikoaren titularra (PZLren 10. artikulua). Baina, arau orokor hori zehaztu beharra dago, gauza epaituak ukitzen dituen hirugarren batzuk baitaude: alderdien oinordekoak; parte izan ez diren kontsumitzaile eta erabiltzaileak, baldin eta epaiak uzia onartu badu (PZLren 11. eta 59. artikulua); bazkide guztiak, elkarteko itunen aurkaratzean (PZLren 73.2 artikulua).

PZLren 222.3.III artikulua araberan, egoera zibil, ezkontza, aitasun-amatasun eta ezintasunari buruzko epaietan, gauza epaituak pertsona guztiengan izango ditu ondorioak, Erregistro Zibilean inskripzioa egin eta gero (*erga omnes* eragina deritzona). Berez, kasu horietan gauza epaitua zabal liteke: adibidez, pertsona bat gaitua edo ezgaitua da denen aurrean.

B) OBJEKTIBOAK: PZLren 222.1 artikuluan arautzen dira, hau da, bigarren prozesuak gauza epaitua sortu duen prozesuaren objektu bera du. Baina, uzia eta erresistentzia bereizi behar dira:

1.- Uzia: uziaren barruan, eskaerak (*petitum*) ez dakar arazorik, bigarren prozesuaren uziaren eskaerarekin aldera daitekeelako. Bestela gertatzen da eskatutakoaren zioarekin: epaia, bai kondena-epaia bai absoluzio-epaia, alderdiek eskatutakoaren kausan oinarritzen dira, eta hori gauza epaituan barneratuta dago. Beraz,

kapitulua

gauza epaituaren edukia zera da: alegatu ahal izan ziren gertaerak eta oinarri juridiko guztiak (PZLren 400. artikulua).

2.- Erresistentziak ez du balio prozesuaren objektua finkatzeko, bai, ordea, eztabaidaren objektua zehazteko. Gauza epaituak azken hori eduki behar du. Ondorioz, alegatutako salbuespen materialak eta alega litezkeenak ere gauza epaituaren barnean daude (aurreragoko prozesu batean ezin izango dira alegatu aurreko prozesuan gertaera iraungitzaile, galarazle, baztertzaila moduan alegatu ahal zirenak eta aurkeztu ez zirenak) (PZLren 408.3 artikulua).

C) DENBORAZKOAK: alegazioak egiteko epea bukatu arte jazo diren gertaera guztiak (alderdiak alegatu edo ez) hartuko dira kontuan epaian (*dies a quo*). PZLren 222.2 II artikulua araberak, gertaera berriak dira alegazio-epea amaitu eta gero jazotakoak. *Dies ad quem* epeari dagokionez, gauza epaituak denboran zehar jarraitzen du, ez da galtzen, betirako mantentzen da.

13.3. Gauza epaitua aurkaratzea: berrikuspenean aurkara daitezkeen ebazpenak, auzi-ihesean dagoen demandatua entzutea, hirugarrenaren aurkaritza, jardueren baliogabetasuna.

Nahiz eta BJLOren 56.1 eta 73.1 artikuluetan berraztertzea errekurtsio moduan jaso, doktrinak prozesu berritzaletan jotzen du, uzi desberdin eta independente bat egikaritzen baita.

PZLren 510. artikulua ezartzen ditu epaia berraztertzeko zioak. Garrantzitsuena da zio horiek aurreko prozesuan alegatu edo eztabaidatu ez ziren gertaeretan oinarrituak izan behar dutela. Honako hauek dira:

- A) Epaia eman ondoren dokumentu erabakigarriak lortuz gero; ezinbesteko kasuagatik edo epaia aldeko izan duen alderdiaren erruz ezin erabil badaitezke.
- B) Epaia dokumentu faltsuetan oinarritua bada (zigor-prozesu batean hala adierazi bada, eta alegatu dituen alderdiak faltsuak zirenik ez bazekien).
- C) Epaia lekuko edo perituen adierazpenetan oinarritzen bada, eta gero, haiek testigantza faltsuagatik kondenatzen badituzte.
- D) Epaia aldekoa bada funtzionario-eroskeria (ZKren 419. art. eta hurrengoak), indarkeria (PZLren 226. art.) edo azpikeriaren ondorioz.

Organo eskuduna (PZLren 509. artikulua): Auzitegi Gorenaren arlo zibileko salak aztertzen du berrikuspena, oro har (BJLOren 56.1 artikulua). Probintziako auzitegien arlo zibileko eta zigor arloko salek autonomia-erkidegoko organo judizialek emandako epai irmoak ezagutzen dituzte bereziki (autonomia-erkidegoaren zuzenbide foral edo berezia bada eta autonomia-estatutuak hala adierazten badu).

Prozedurari dagokionez, berrikuspena hasterik ez dago, baldin eta aurkaratu nahi den epaia argitaratu zenetik 5 urte pasatu badira (PZLren 512.1 artikulua). Gainera, demanda-dokumentu berriak funtzionario-eroskeria, indarkeria edo azpikeria ohartu edo faltsukeria deklaratu zenetik (iraungitze-epeak dira) 3 hilabeteko epean aurkeztu behar dira. Bost urteko epea bete ez bada, demanda ez da onartuko (PZLren 512. art.). Aldiz,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

kapitulua

auzi-jartzaileak frogatu behar du hiru hilabeteko epearen barruan ari dela eta demandaren ez onartzeaz erabakiko da, Ministerio Fiskala entzun eta gero. Prozedura demanda aurkezten denean hasten da (PZLren 399. artikulua), eta auzi-jartzaileak epaitegiaren kontu-korrontean 330 euro jarri behar ditu (PZLren 513. artikulua); hori egiten ez badu, ez da demanda onartuko. Demanda onartu ondoren, auzitegiak auziaren jardura guztiak bidaltzeko aginduko du, eta auzitan aritu zirenak epatuko ditu (20 eguneko epean erantzun behar zaio demandari; PZLren 514.1 artikulua). Gero, ahozko epaiketari dagozkion izapideak egingo dira, eta epaia eman aurretik Ministerio Fiskala entzun beharko da (PZLren 514.2 artikulua). Demandaren aurkezpenak ez du epai irmoaren betearazpena atzeratuko (PZLren 515. eta 566. artikulua). Berrikuspenari buruzko epaia bi eratakoa izan daiteke:

1.- Berrikuspena ez onartzea: epai irmo aurkaratua ez da aldatuko, auzi-jartzaileak prozesuaren kostuak ordaindu beharko ditu eta lege-gordailua galduko du (PZLren 516.2 artikulua).

2.- Berrikuspena onartzen bada, epai aurkaratua deuseztatu egingo da, eta jarduerak auzitegira itzuliko dira, alderdiek beste prozesu bat has dezaten (PZLren 516.1 artikulua).

Demandatua prozesuan agertu ez denean (*auzi-ihesean* dago), auzi-ihesean dagoen demandatuari entzunaldira deituko zaio, prozesuaren berri izan ez badu edo ezinbesteko arrazoiengatik agertu ez bazen. Beraz, prozesu horren helburua demandatua entzutea da. Prozesu adierazleetan baino ez da posible (ez prozesu sumarioetan), horietan epaia gauza epaituarekin ematen baita.

Auzi-iheslaria entzuteko, beharrezkoa da demandatua prozesuari dagokionez auzi-ihesean egotea (PZLren 501. artikulua); hau da, demandatua prozesuan ez agertzea, ez prozesuaren amaieran, ezta prozesua hasi eta gero ere (prozesuak atzera egin gabe jarraituko baitu, PZLren 499. artikulua). Nahiz eta prozesuan demandatua ez agertu, gora jotzeko errekurtoa aurkez dezake emandako epaiaren kontra (PZLren 500. artikulua).

Funtsezko betekizuna da auzi-ihesa borondatezkoa ez izatea. Bi zio bereizten dira horretarako:

- A) Ezinbestea: demandatua ezinbesteko arrazoen ondorioz ez da auzian agertzen (auzitara epatu arren).
- B) Demanda eta auzia ez ezagutzea: zitazioa edo epatzea zuzenean egiten bada (PZLren 161. artikulua), demandatuak frogatu egin beharko ez zaiola hura iritsi (berari egotzi ezin zaizkion zioengatik). Zitazioa ediktu bidez egiten bada, auzia egin edo Aldizkari Ofiziala argitaratu zen lekuan ez zegoela frogatu beharko du (PZLren 501. art.).

Entzunaldia eskatzeko epea 16 hilabetekoa da epaia jakinarazi zenetik (epe orokorra; PZLren 502. artikulua). Baina, epaiaren jakinarazpenaren arabera, epe berezi batzuk daude: 20 egun, epaia auzi-ihesean zen demandatuari berari jakinarazi bazioten, edo 4 hilabete, epaia ediktu bitartez eman bazen (Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik). Iraungitze-epaiek dira, hau da, auzitegiak ofizioz kontuan hartu beharko ditu.

Organo-eskuduna epaia eman duen auzitegia izango da (PZLren 501. artikulua). Prozedura epaiketa arruntaren bera da; horregatik, epaia deuseztatzeko edo hutsaltzeko eskaera benetako demandaren bitartez egin beharko da (PZLren 504.2 artikulua) eta ez

du epai irmoaren betearazpena atzeratuko (PZLren 504.1 eta 566. artikulua). Epaiaren kontra ez dago errekurtsorik jartzetik (PZLren 506. art.). Lehenengo fasean, auzitegiak auzi-ihesean dagoenari entzunaldia onartzen dion eta epaia deuseztatuko duen erabakiko du. Bigarren fasean, lehen epaiketa errepikatuko da (PZLren 507. artikulua).

Nahiz eta PZLk ez aipatu hirugarrenaren aurkaritza, gauza epaituaren kontrako aurkaratze-bidea da. Alderdiek prozesua hirugarrenaren kontra iruzur egiteko erabiltzen dutenean, aurkaratze-bide hori ematen zaio hirugarrenari. Orduan, hirugarrenak akzio ezeztatzailea edo *pauliana* deritzon akzioa (KZn jaso) egikari dezake. Oinordeko eta ezkontidearen kontrako epaia deuseztatzea ere eska daiteke. Horretarako, epaiketa arruntera (muntari dagokiona) jo beharra dago.

Prozesuaren izapideen forma-akatsak prozesuan bertan ebatziko dira; ez da beharrezkoa aurrerago beste prozesu batera jotzea deuseztasuna adierazteko. Beraz, prozesuan bertan deuseztasuna deklaratzeko, bi bide ezartzen ditu legeak:

- 1) Alderdiek deuseztasuna eskatuko dute, legeak onartutako errekurtsoen bidez.
- 2) Auzitegiak, ofizios nahiz alderdiek hala eskatuta, deuseztasuna adieraziko du.

Bi egoera horietan, beharrezko da prozesuak jarraitzea, hau da, prozesua burutzen duen ebazpena ez ematea.

BJLOren 241. artikulua jardueren baliogabetasun-intzidentea arautzen du; bertan gauza epaitua aurkaratzen da. Ebazpena deuseztatzea edo hutsaltzea eskatzeko bi arrazoi daude. Batetik, defentsa-gabezia sortu duten forma-akatsak: epaia irmoa bada (prozesua amaitzen duena), haren kontra ezin izatea errekurtsorik aurkeztu; eta forma-akatsa sortu zen unean alderdiak hura salatu ezin izana. Eta, bestetik, epaiaren kongruentziarik eza, betiere haren kontra errekurtsorik ez badago.

Beste arrazoi batzuk alegatzen badira, auzitegiak, probidentzia bidez, intzidentea edo jazoera ukatuko du. Ebazpen irmoa eman zuen organo judizialak du intzidentea ezagutzeko eskuduntza, eta prozesuan parte hartu zuten alderdiak legitimatuko ditu. Eskaria egiteko epea 20 egunekoa da, ebazpena jakinarazi zenetik edo defentsa-gabezia sortu zuen akatsa ezagutu zenetik; dena dela, legeak beste epe bat ezartzen du, 5 urtekoa (ebazpena jakinarazi zenetik).

Deuseztasuna edo hutsaltzea idazki bidez eskatuko da, dokumentuekin batera; gero, beste alderdiei eskualdatuko zaie alegazioak egin ditzaten (5 eguneko epean). Alegazioak frogatzea beharrezkoa bada, alderdiak agerraldi batera deituko dira. Agerraldia, ahozko epaiketei dagokienez ezarritakoaren arabera egingo da, eta 10 eguneko epean emango da autoa. Autoaren kontra ezin da errekurtsorik aurkeztu. Forma-akatsengatik deuseztasuna baiesten bada, jarduerak atzera eramango dira akatsaren aurreko uneraino, eta legezko prozedurari eutsiko zaio.

Dena dela, deuseztasuna eskatzeko idazkia aurkeztearen ondorioz ebazpenaren exekuzioak ez du atzera egingo (alderdiak horrela eskatu eta epaileak hori berariaz ebazten ez badu).

14. KAPITULUA: PROZESUAREN ONDORIO EKONOMIKOAK.

14.1. Prozesuko kostuak: kontzeptuak. 14.2. Prozesuko kostuak ezartzea eta kostuak ezartzearen mugak. 14.3. Balioespena eta aurkaratzea.

14.1. Prozesuko kostuak: kontzeptuak

Jarduera prozesalak gastuak sortzen ditu, alderdiek eskatzen dutenean auzitegiek parte hartzea. Baina alderdiak ez badu baliabide ekonomikorik, auzitan doan aritzeko eskubidea edukiko du (EKren 119. artikulua). Azken hori babes judizial eraginkorraren ondorio da (EKren 24. artikulua).

Espainiako estatuan, doktrinak prozesuko gastuen eta prozesuko kostuen arteko bereizketa egiten du. Lehenengoak, prozesuko gastuak, era askotakoak dira, eta alderdiek jarduera prozesalaren ondorio gisa ordaindu behar dituzte. Prozesuko kostuak, aldiz, eremu mugatuagoa dauka: prozesu bateko gastuak dira; alderdiek ordaindu beharko dituzte, epaileak alderdi bat haiek ordaintzera kondenatzen duenean izan ezik.

PZLren 241. artikulua prozesuko kostuak osatzen dituzte kontzeptuak jasotzen ditu:

Defentsa eta ordezkariak teknikoaren ordainsariak, nahitaezkoak direnean (PZLren 29. eta 35. artikulua).

Prozesuan zehar argitaratu behar diren iragarpen edo ediktuak (PZLren 15., 164., 441., 645. art. eta BJLOren 236. artikulua).

Errekurtsoak aurkezteko beharrezko gordailuak (PZLren 513. artikulua).

- 1) Alderdiek perituen gastu eta prozesuan parte hartzen duten pertsonen gainerako ordainketak ordaindu beharko dituzte. Perituen ordainsariak kostuen balioespenean barneratzen dira soilik, auzitegiak perituen froga onartzen duenean (PZLren 243. artikulua). Lekukoei dagokienez, horiek agertzearen ondoriozko gastuak prozesuko kostutzat hartzen dira (PZLren 375. artikulua); 3 peritu baino gehiago proposatu direnean, proposatu dituenak ordaindu beharko ditu (PZLren 363.1 artikulua).
- 2) Kopia, ziurtagiriak, notak, testigantzak eta eskatu behar diren antzeko dokumentuak doakoak izango dira, legearen arabera (PZLren 439 eta 4. xedapen gehigarria).
- 3) Muga-zergen eskubideak, prozesua garatzeko beharrezko jardueraren ondorio badira.

14.2. Prozesuko kostuak ezartzea eta kostuak ezartzearen mugak.

Prozesua hasten denetik sortzen diren kostuak alderdiek ordaindu behar dituzte (dirua aurreratuz) –PZLren 241.1 art–. Ordaintzen ez bada, auzitegiak ez du diligentsia edo eskaerarik egingo (diligentsia egindakoan, premiamendu-bidera joko da). Arau hori lehenengo eta bigarren auzialdian aplikatzen da (PZLren 539.2, 160.2, 167.2, 256.3, 339.2 art.).

Bada salbuespen bat: auzitegiak ez dizkio garaituari kostuak ezarriko, auziari buruzko jurisprudentziari begiratuz, benetako zalantzak zituela uste badu (epe-muga objektiboaren printzipioaren salbuespena).

PZLren 394.2 artikulua araber, alderdi bakoitzak berak sortutako kostuak ordainduko ditu, uziaren zati batzuk onartu edo ezetsi badira, eta erdi bana ordainduko dituzte kostu erkideak.

Amore emateari dagokionez, PZLren 395. artikulua bereizketa hau egiten du:

- Demandari erantzun baino lehen sortzen bada, prozesuko kostuak ordaintzeko kondena ezarriko zaio demanduari, fede gaiztoz jardun dela uste bada. **Fede gaiztoa dagoela susmatzen bada (PZLren 395.1.II art.), demanduari, demanda aurkeztu baino lehen, ordaintzeko errekerimendu frogagarria egin zaionean, edo horren kontra adiskidetze-demanda jo duenean.**

- Demandari erantzun eta gero sortzen bada (PZLren 395.2 art.), epe-mugaren printzipioa aplikatuko da.

Auzi-uzteari dagokionez, demandatuak hori onartzen ez badu, auzi-jartzaileak prozesuko kostuak ordaindu beharko dituela adierazten du PZLren 396. artikulua .

PZLk prozesuko kostuen kondenarako zenbait muga ezartzen ditu; horren araber, ez dira prozesuko kostuetan kontzeptu hauek sartuko:

- 1) Beharrezkotzat, funtsezkotzat edo baimendutakotzat hartzen ez diren eginbideak, idazkiak eta jarduerak. Ez dira sartuko zehatz edo zehaztasunik gabe adierazitako minutaren sortak edo auzian sortu ez diren ordainsariak (PZLren 243.2 artikulua).
- 2) Muga-zergaren mende ez dauden abokatu eta gainerako profesionalen ordainsarien zenbatekoa murriztu egingo da, PZLren 394.3 artikulua ezarritako muga gainditzen dutenean (prozesuaren muntaren 1/3) eta alderdiaren ausarkeria adierazi ez denean (PZLren 394.3 artikulua).
- 3) Jarduera edo intzidenteen kostuak, baldin eta auzi nagusiko kostuen erabakia aldekoa izan duen alderdia esanbidez kondenatua izan bada, jardun edo intzidente horretan (PZLren 243.3 artikulua).
- 4) Lekukoen gastuak, gertaera eztabaidatu bakoitzeko 3 baino gehiago badira (PZLren 363. artikulua).

Debekatuta dago Ministerio Fiskalak kostuak ordaintzea (PZLren 394.4 artikulua).

Prozesuko kostuen onuraduna kontrako alderdia bera da. Ez abokatuak ez prokuradoreak ez dute krediturik kondenatuaren kontra, bere bezeroaren kontra baizik, hari beren ordainsariak eskatzeko.

14.3. Balioespena eta aurkaratzea.

Kostuen balioespena kostuen haien kitapena da, eta kondenatuak kontrako alderdiari ordaindu behar dion kopurua zehaztean datza. Balioespena kondenatuak borondatez ordaindu ez duenean soilik egiten da, eta epaitegi edo auzitegiaren auto judizial bidez egiten da. Kondenaren kostuak adieraziko dira bertan (balioespenaren datara arte sortuak) (PZLren 242. eta 243. artikulua).

Kostuak balioestean, prozesuan parte hartu dutenen eskubide eta ordainsariak kontuan hartu eta zehatz-mehatz adieraziko dira (ezin da zenbateko orokorrik adierazi, 1988ko martxoaren 9ko Auzitegi Gorenenaren arabera). Interesdunak sinatu beharko du (PZLren 242.3 artikulua).

Idazkari judizialak kostuak balioetsi ondoren, ez da beste kontzepturik sartuko, eta interesatuak horiek nori eta nola eskatu eskubideari eutsiko dio (PZLren 244.2 artikulua). Gero, alderdiei emango zaie balioespena, beraiek adostu edo aurkaratzeko, 10 eguneko epean (PZLren 245.1 artikulua).

Alderdi kondenatuak kostuen balioespena aurkaratuko du, alderdi garaileak behar ez diren gastuak edo gehiegizko ordainsariak sartu baditu (PZLren 245. artikulua). Beste alderdiak, berriz, gastuak edo ordainsariak kontuan ez hartzeagatik aurkara dezake balioespena.

Kostuen balioespena aurkaratzeko izapideak, ordea, ez dira berdinak gastuen kostuei eta ordainsarien kostuei dagokienez:

Gastu edo eskubideak aurkaratzen badira, intzidentearen izapidetza ahozko epaiketaren arabera gauzatuko da (PZLren 246.4 artikulua).

Abokatu edo perituen ordainsariak aurkaratzen badira, beharrezkoa da abokatu edo perituaren entzunaldia eta Abokatu edo Perituen Bazkunaren txostena (PZLren 246.1 eta 246.2 artikulua).

Jarduerak ikusita, idazkari judizialak balioespenari eutsi edo hura aldatuko du. Epaia auto bidez erabakiko da (auto horren aurka ez dago errekurtsorik, PZLren 246.3 artikuluaaren arabera), eta intzidentearen kostuei buruzko ebazpena emango du.

Balioespena aurkaratzen ez bada, epaileari helaraziko zaio, berak probidentzi bitartez onartzeko.

15. KAPITULUA: ARAZO INTZIDENTALAK ETA EPAIKETA AURREKO ARAZOAK.

15.1. Arazo intzidentalen hasierako zehaztasunak. 15.2. Arazo intzidentala eta horien prozedura. 15.3. Epaiketa aurreko arazoak: kontzeptua eta sailkapena.

15.1. Arazo intzidentalen hasierako zehaztasunak

Mendeetan zehar, Espainiako doktrinak *aurreko arazoak*, *arazo intzidentalak* eta *epaiketa aurreko arazoak* kontzeptuak era askotara eta zehaztasun handirik gabe erabili ditu, egilearen arabera. Beraz, gaiari ekin aurretik, komeni da hainbat zehaztapen egitea arazo horien arteko bereizketa agerian uzteko.

Lehenik eta behin, aurreko arazoez arituko gara. Auzitegi Gorena aurreko arazoen esanahia zehazten saiatu da. Auzitegi Gorenaren 1986ko abenduaren 5eko epaiak argi utzi zuen aurreko arazoez erabaki berezia behar dutela, eta auziaren funtsean sartu baino lehen hartu behar dela erabakia, eragina baitute auzian. Epai horretan, aurreko arazoez uziaren objektuarekin zerikusirik ez dutela gaineratu zuen Auzitegiak. Beraz, aurreko arazoen eta arazo prozesalaren arteko parekotasuna sortu da; horiek horrela, aurreko arazoez izaera prozesala dute, betekizun eta baldintza prozesalei buruzkoak (ez uziaren funtsari buruz), eta aldeztu aurretik erabaki behar dira, uziaren mamian sartu baino lehen.

Arazo intzidentalei dagokienez, Espainiako jurisprudenzian nahiz doktrinan bi azalpen eman dira: bata zabala, eta bestea hertsia. Lehenengo kontzeptuari erreparatzen badiogu, arazo horiek prozesuan zehar sortzen dira, objektuaren aurrekari gisa, eta epaileak epaian erabaki beharko ditu. Kontzeptu hertsia jarraituz, arazo horiek prozesuaren objektuarekin edo prozesuarekin berarekin daude lotuta, eta prozesu nagusiaren ardura duen epailearen eskuduntza dira; prozedura berria eta berezko erabakia dakarte ondorioz.

Baina, bi kontzeptuak aztertuz gero, lehenengoak baliorik ez duela ohartuko gara, epaiketa guztietan agertzen baitira arazoizko aurrekariak; horrek esan nahi du lehenengo kontzeptua baliagarritzat hartzen badugu, epai guztietan arazo intzidental ugari egongo direla.

Kontzeptu hertsia jarraituz, aipa ditzagun arazo intzidentalen osagaiak. Hiru dira: arazo intzidentalak prozesuaren objektuarekin (hau da, prozesuko eskaerarekin, harreman juridiko materialarekin) nahiz prozesuarekin berarekin lotura izatea (harreman juridiko prozesalarekin). PZLren 387. artikulua ezartzen du arazo intzidentalak auziaren objektuaren edo betekizun edo baldintza prozesalekin izan behar duela harremana. Auziaren objektuari buruzko arazoak direnean, epaiketa aurreko arazoetatik bereizteko arazoa sortzen da. Bigarren osagaiari dagokionez, arazo intzidentalek prozedura berria eta berezko ebazpena dakartzate. Horretan bereizten dira intzidentea eta arazo intzidentala (lehenengoa, prozedura da, eta bigarrena, horren objektua).

Hirugarren osagaia epailearen eskumenari buruzkoa da; uziaren eskuduntza duen epaileak erabakiko ditu hari dagozkion intzidentziak; bestela, epaiketa aurreko arazoak izango dira (PZLren 61. artikulua ezartzen du, eta eskuduntza funtzionala aplikatzen da).

Epaiketa aurreko arazoei buruz ere bi kontzeptu azaldu behar dira: bata zabala, eta bestea hertsia. **Kontzeptu zabalaren arabera, judizio aurreko arazoak prozesuan adierazitako uziarekin lotuta daude eta beste auzitegi edo epaitegi baten eskumen-ordena berdina edo desberdinaren eskuduntzari erantsita..** Kontzeptu hertsia **erreparatzen badiogu, epaiketa aurreko arazoak askotariko eskumenak dituzten jurisdikzio-organoei dagozkie.** Beraz, nahasmena dago arazo intzidentalen eta epaiketa aurreko arazoaren artean. Baina, doktrina berrienen ustez, epaiketa aurreko arazoaren osagaiak honako hauek da: prozesuaren objektuarekin baino gehiago, prozesuarekin berarekin egon behar dute lotuta (ez dute zerikusirik harreman juridiko prozesalarekin); legegileak berak erabaki behar du izaera debolutiboa duten ala ez (hau da, arazoa norik erabakiko duen); eta, azkenik, ondorioztatzen da beste jurisdikzio-organoa bat izango dela prozesu nagusia edo epaiketa aurreko arazoa erabakitze eskumenduna.

Prozesu zibilean badago epaiketa aurreko arazoaren kasu bat, PZLren 43. artikulua ezarria, hain zuzen. Arazo zibila prozesu zibil batean sortzen bada, arazo intzidentaltzat hartuko da, eta prozesuaz arduratzen ari den auzitegiak erabakiko du. Baina arazo zibila beste prozesu zibil baten objektua denean, bi konponbide daude: prozesuak metatzea edo jarduerak bertan behera uztea, epaiketa aurreko arazoaren prozesua bukatu arte.

Laburbilduz, aurreko arazoek izaera prozesala dute, eta baldintza eta betekizun prozesalei buruzkoak dira. Arazo intzidentalak, aldiz, prozesuaren objektutik edo prozesutik bereizten dira, berezko ebazpen eta prozedura bat dagozkie, eta prozesu nagusia erabakitzen duen epaileak du erabakitze eskumena. Epaiketa aurreko arazoak prozesuaren objektuarekin daude lotuta. Auziaz arduratzen ari den epaitegiarenaz bestelako jurisdikzio-ordena bati dagokio horien gaineko eskuduntza, nahiz eta legegileak xedatu epaile berak erabaki behar duela.

15.2. Arazo intzidentalak eta horien prozedura.

Gai hau lantzeko, intzidentearen kontzeptua hartu behar da abiapuntu. Intzidentea arazo intzidentalaren prozedura baino ez da, edo, beste era batera esanda, arazo intzidentala azaldu, izapidetu eta erabakitze era arautzen duen arau multzoa. Arazo intzidentalaren kontzeptua azaldu eta gero, ezinbestekoa da xehetasun bat egitea: prozedura intzidentalak ez du zentzurik prozesurik gabe.

2000ko PZLren 338. artikuluan bi intzidente mota bereizten dira: bereziak edo arruntak. Arazo intzidental batzuek, harreman juridiko prozesalaren alorrekoek, izapidetza berezia dute legean. Horixe gertatzen da deklinatoriarekin (PZLren 63. artikulua eta hurrengoak), prozesuaren metaketarekin (PZLren 74. artikulua eta hurrengoak) eta errekusazioarekin (PZLren 107. artikulua eta hurrengoak). Prozeduran sortzen diren arazo intzidentalak intzidenteen prozedura orokorraren bidez izapidetu eta erabakiko dira, baldin eta horiek ez badute izapidetza berezirik (adibidez, PZLren 392. eta 393. artikuluetan araututako intzidentek). Horrela adierazten du PZLren 388. artikulua: arazo intzidentalek legearen arabera beste izapidetzarik ez dutenean, aipatutako artikulua horien bitartez erabakiko dira.

Bigarren intzidente mota intzidente arrunta da. PZLk bi intzidente aipatzen ditu, prozesu nagusiak aurrera jarraituko duen edo ez kontuan hartuta. Intzidente guztiek berariazko erabakia behar dute, baina batzuek epaiketa bertan behera uztea dakarte, eta besteek ez.

Lehenengoetan, arazo intzidentalaren erabakiak prozesuak aurrera jarraitzea galarazten duenean, intzidentea jardunetan bertan izapidetuko da, eta prozesua bertan behera geratuko da (PZLren 390. artikulua ezartzen duenez). Intzidente horrek aurretiazko izaera du, eta prozesua etetea eragingo du. PZLren 391. artikulua honako arazo hauek arautzen ditu: alderdien gaitasunari eta ordezkartzari buruzko arazoak, aurretiazko entzunaldia (PZLren 414. artikuluan arautua) egin ondoren gertatutako egitateengatik; baldintza prozesalen akatsen ondoriozko arazoak, aurretiazko entzunaldia egin ostean gertatuak; eta epaiketan zeharreko edozein intzidentzia, baldin eta horri buruzko erabakia beharrezkoa bada epaiketak aurrera jarraitu behar duen edo bertan behera gelditu behar duen erabakitzeke.

Bigarrenetan, arazo intzidentala epaian bertan ematea beharrezkoa denean, eta auziaren objektua erabaki aurretik, intzidentea aparteko pieza batean izapidetuko da, prozesu nagusia eten gabe (PZLren 389. art.).

Azkenik, legegileak PZLren 392.2 artikuluan arautzen du auzitegiak auto bidez eta ofizios aldaratuko duela arazoaren planteamendua, goian aipatutako egoeretan ez badaude.

Intzidentearen prozedura aztertuko dugu orain. Intzidente guztiek, prozedura etenarazte dutenek nahiz etenarazten ez dutenek, izapidetza bera dute; elkarrengandik bereizten dituen aparteko pieza eratzea da. Beraz, intzidentea idazki baten bidez hasten da, egoki diren dokumentuak erantsi, frogabideak proposatu eta prozesua eten behar den azpimarratuz (PZLren 392.1 art.). Baina, epaiketa arrunta hasi eta gero, eta ahozko epaiketan froga onartuta, alderdiek ezingo dute intzidenterik proposatu (preklusio-unea du, PZLren 393.1 art.). Gero, epaileak, beste alderdia entzun gabe, arazo intzidentala onartu edo baztertu erabakiko du. Onartzen badu, izapideak egingo dira, eta zer motatakoa den erabaki beharko du (PZLren 393.2 art.). Prozesua ez etetea erabakitzen badu, beste pieza bat eratuko da; prozesua etetea onartzen bada, aldiz, prozesu-jarduerak eteteke aginduko du. Ondoren, beste alderdiari demanda intzidentala helaraziko dio, bost eguneko epean erantzun dezan. Epaitegian erantzuna jaso ostean, epaileak agerraldi batera deituko ditu alderdiak, eta agerraldia ikustaldi baten bitartez gauzatuko da (ahozko epaiketan bezala); bertan, froga guztiak gauzatuko dira. Azkenik, ebazpena emango da, auto bidez; intzidentea etetea ebazten bada, hamar eguneko epean erabakiko da prozesuaren etetea buruz; bestela, epaian erabakiko da arazoa. Auto horren kontra apelazio-errekurtsioa aurkez daiteke; prozesuaren jarraipenari dagokion erabakiaren kontra ezin da aparteko errekurtsorik aurkeztu, baina epaia bera apelatzen denean, arazoaren ebazpena aurkara daiteke.

15.3. Epaiketa aurreko arazoak: kontzeptua eta sailkapena

Prozesu zibil batekin zerikusia duten arazoak beste jurisdikzio bateko prozesuan erabaki behar dira. Jurisdikzio horretan hartzen den erabakiak eragina izango du, gero, epaiketa zibilean. Benetako epaiketa aurreko arazoetan, prozesu zibilaren ebazpena beste prozesu baten erabakiarekin lotuta dago; beraz, prozesu zibila ezin da ebatzi,

aurretik arazo hori konpondu gabe. Organo zibilek ez dute epaiketa aurreko arazoan gaineko eskumenik, beste jurisdikzio batzuetako epaitegiek baizik (baina prozesu zibilarekin lotutako arazo zibil bat sortzen bada, arazo intzidentala izango da).

Arazo horiek aplikatzean sortzen dira benetako arazoak. BJLOren 10.1 eta 10.2 artikuluetan eta PZLren 40. artikulutik 43.era bitarteko artikuluetan araututa daude; 43. artikuluan arazo horien sailkapen bat ageri da.

Batzuetan, prozesu zibil batean epaiketa aurreko lanarekiko edo administrazioarekiko auzi-arazoa sortzen da; orduan, epaitegi zibilak hartuko du arazo horri buruzko erabakia. Baina erabakiak ez du gauza epaituaren izaerarik, eta lan-prozesu edo administrazioarekiko auzi-prozesu bateko objektua izan daiteke (PZLren 42.2 artikulua). **Salbuespen moduan, prozesu zibila eten daiteke, lan-prozesuaz edo administrazioarekiko auzi-prozesuaz ebatzen den bitartean, betiere Legean horrela aurreikusita badago edo epaitegi zibilak alderdiek adostuta erabakitzen badu. Kasu horretan, arazoari buruzko erabakiak auzitegi zibila lotesten du.**

Beste batzuetan, prozesu bateko izapidetzan ofizioz jazargarria den ustezko delitu edo falta agertzen bada, auzitegiak Ministerio Fiskalari jakinaraziko dio gertaera, zigor-akzioa egikari dezan (PZLren 40.1 artikulua). Baina egitate bera prozesu zibilean alderdien uzi gisa agertzen denean benetako epaiketa aurreko arazoa. Horren ondorioa prozesu zibila etetea da, zigor-prozesua ebatzi arte (PZLren 40.2 artikulua), baina epaia prozesu zibilean eman ez bada, bestela ez (PZLren 40.3 artikulua). Gerta liteke prozesu zibilera ekarritako dokumentu bat gezurrezkoa izatea. Kasu horretan, prozesua etetea ebatziko da, gertaera horri buruz zigor-prozesua abiatuko dela egiaztatu bezain laster (PZLren 40.4 eta 40.5 artikulua).

Auzitegiak auto bidez erabakitzen du prozesua etetea. Etendura ezeztatzen duen autoaren kontra berrezarpen-errekurtsioa aurkez daiteke, bigarren auzialdian etendura eskatzeko berriro. Etendura onartzen duen autoaren kontra, berriz, apelazio-errekurtsioa jarri ahal izango da, eta atzerapenak zigor-prozesua bukatu arte iraungo du. Zigor-epaian frogatuta geratu diren gertaerek auzitegi zibila lotesten dute (eta alderantziz, zigor-epaiak adierazten badu gertaera ez dela gertatu, auzitegi zibilak ezingo du gertaera horren izatea adierazi), baina ez du ondorio zibilik. Epaiketa aurreko dokumentu-arazoari dagokionez, auzitegi zibilak ez du bere erabakia oinarritzeko garaian dokumentu hori kontuan hartuko.